Saizarbitoria eta iragana

MARKOS ZAPIAIN

liburuak Susa

MARKOS ZAPIAIN

Saizarbitoria eta iragana

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2015 Markos Zapiain
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2015eko maiatza
Edizio hau: 2015eko maiatza

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Unai San Martini

Saizarbitoria eta iragana

Saiakera honek izenburuaren garapena behar luke funtsean. «Iragana»ri dagokionez ez dago misteriorik, iraganaz gehienok beste barik ulertzen duguna hartuko dut kontuan. Aldiz, «Saizarbitoria» beharrean egokiagoa litzateke beharbada «Saizarbitoriaren protagonistak». Saizarbitoriaren protagonisten arazoa da denbora ez zaiela ondo iragaten, ez dituztela gertaerak osasuntsuki digeritzen. Ondo ulertuko lukete Lord Byronen esana: zorionaren oroitzapena jadanik ez da zorion; aitzitik, zoritxarrarena zoritxar da oraindik.

Iraganaz eri daude Joxe Zuazalagoitia, *Ene Jesus*-eko protagonista, Abaitua biak, Entziklopedista, gudari zaharra, Juan Martin, zuzenbidean lizentziaduna, Martin eta Martinek asmaturiko Faustino Iturbe, Julia...; iraganetik askatu, apur bat bederen, eta etorkizun pixka bati zabaltzeko ahaleginak egiten dituzte batzuetan, baina azkenik ezin dute iragana eraman, horrexek dakarkie zoritxarra. Protagonista indibidualek ez ezik, gizarteak eta herriak ere ez dakite iraganari aurre egiten, beti dabiltza iraganeko zamapean itotzear edo itota.

UTZI BAKEAN ARTISTA

«Saizarbitoria» eta «Saizarbitoriaren protagonistak»en arteko zalantzari gagozkiola, liburu honetan behin eta berriz iradokiko da nobelagileak zeharo argitu nahi edo ahal ez duen auzi bat: bere harremana protagonistekin, oroz lehen protagonistek iraganarekin duten lotura patologikoarekin. Lotura hori neurotiko obsesiboek izaten dutenaren tankerakoa da, eta neurotikoak bere neurosia gizartearen aurrean gordetzeko joera izaten du, edo gehienez ere mozorrotzekoa; Saizarbitoriaren moldeko obsesiboek ia inoiz ez dute beren arazoez hitz egiten, lotsagarriak zaizkie. Inhibizioa eta erreserba gailen. Horregatik da hain deigarria Saizarbitoriaren obra. Ulergarria da bere burua erakusteaz batera ezkutatzeko haren joera, hurbiltzen zaion jendea despistatzekoa. Sumatu egiten zaio nekeza zaiola bere neurosiaz idaztea, barne barrerak gaindituz doala aurrera.

Saizarbitoria olgetan dabil beti erakustearen eta ahalkearen artean. Batzuetan adierazten du idazleek fikzioaren aitzakia erabiltzen dutela jatorriko korapilo

edo zauri lotsagarriaren berri beraiei ez balegokie bezala eman ahal izateko, eta zauri hori darakutsan literatura dela bera erakartzen duen bakarra. Hitz horiek berez bultzatzen dute irakurlea Saizarbitoriaren biografian kuxkuxeatzera. Baina aldi berean nabarmentzen du, adibidez, eredutzat eta farotzat duen Max Frischi buruz, uste izan dela literatur disimulu handirik gabe erakutsi duela eleberrietan bere bizitza sentimental eta sexuala, eta, hala ere, oso fikziozkoa dela haren obra, oinarri biografikoa txit zeharka darabilela, aditzera emanez Saizarbitoriaren beraren obran ere asmatuak liratekeela biografikoenak diruditen pasarteak, maiz errepikatzen direnak, funtsezko trauma biografikoak dituztenak itxuraz aipagai.

Ikusmira modernoaren adierazpenik nazkanteenetakoa den arren, boladan dabil narrazioetako protagonistengan idazleak bizi izan duena igartzeko grina, edo bere nortasunaren ezkutuki ikaragarriren bat, bihotzeko eta sexuko kontuak, oinazetsuak izatekotan are hobeki, ondoren zelofan psikoanalitikoz apaindurik saltzeko. Haatik, aski aberatsa da berez Saizarbitoriaren obra, aski lan barruan daukan jakinduria ateratzeko, autorearen zaurietan begi luzeak sartu behar

izan gabe: utzi bakean artista, sakondu bere lanaren fruitua.

JAINKOA

Hainbat arlotan adierazi ditu Saizarbitoriak iritzi bat eta alderantzizkoa. Adibide bat: beti esan behar da egia; aldi berean, ez da komeni beti egia esatea.

Beste bat: ez naiz gai istorio bat hasi eta buka kontatzeko, horregatik ateratzen zaizkit hain arraro egituraturiko nobela horiek; eta gero, ezustean, *Gorde nazazu lurpean* (eta ondoren *Kandinskyren tradizioa*, *Martutene*...).

Hirugarrena: Saizarbitoriak sarritan esan izan du oroimen txarra duela, horregatik idazten duela, amnesia gainditu eta gogoratutakoa behin betiko ahaztu ahal izateko. Ostera, Idoia Estornések *El Correo*-n Saizarbitoriaz: «Además de literato excepcional, es otro memorión que guarda un arcano en sus mientes». Baieztapen biak dira sinesgarriak, egiantzekoak.

Oraingoz azkenik, *Martutene*-n dio soilik interesatzen zaiola trauma erakusten duen literatura; eta Gorka Bereziartuak *Argia*-n egin dion elkarrizketa ba-

tean, berriz, ez duela apaizei buruzko libururik idatzi traumatikoa izan zaiolako. Azter dezagun hurbildik laugarren kasu hau.

Lehen begiratuan, ematen du Saizarbitoriak jakin duela gainetik kentzen iraganetik amildu zaion zametako bat, bederen, neurosi eta erru-eragile gogorra alafede: Jainkoaren zama, Jainkoak ez baitu garrantzirik haren protagonisten barne bizitzan, ez dago pertsonaien barne gatazka erlijiosorik, Jainkoa ez zaie arazo. Kristau zapalketa pairatu arren ateismo lasai batean bizi den horietakoa dirudi Saizarbitoriak.

Ageri bai, bere nobeletan ageri da Jainkoa, baina protagonisten gogotik at, gizartean. Eta etsaia da, gizarteko alderik makurrenak erabiltzen baitu, zapaltzea helburu: bere izenean eragozten diote Gisèleri abortua, frankismoko fraideen Jainko zapaltzailea da *Ehun metro*-koa, *Hamaika pauso*-n Daniel Zabalegik uko degio hil baino lehen Jainko frankista aintzat hartzeari, Abaitua ginekologoa «menostua, mehatxatua, umiliatua, zigortua, ikaratua, abusu sexual eta tratu txarren biktima izan da fraideen aldetik».

Erlijio katolikoak luzaro eduki zuen zeharo izututa Saizarbitoria. Hara zer kontatu dion Gorka Bereziartuari: «Sexuaren aurreko jarrera, infernuaren beldu-

rra... Ze eszenifikazioak... Garizumak zer ziren, sentsibilitate pixka bat zuen mutiko edo neskato batentzat Kristo haiek zapi ubel haiekin estaliak...».

Ez sinesteko moduko jipoiak eman zizkioten fraideek. Esaterako, ez zen ezohikoa arrazoi argirik gabe Saizarbitoria zartako batez lurrera botatzea eta, belauniko eta dandarrez, fraideen ostikoek eta garrasiek korridore luze oso bat zeharkaraztea. Susmoa du ez ote zituen bere izaerak berak amorrarazten. «14 urte nituenerako boxeolari profesional batek jasotzen ez dituenak jasoak nituen».

Dena den, ez dio oroitzapen mingarri horri liburu oso bat eskaini; «beharbada traumarengatik», diotso Bereziartuari. Traumatikoak zaizkiolako ez omen die libururik eskaini fraideei lotutako oroitzapen mingarriei.

Aldi berean, haatik, Saizarbitoriak berak idatzi izan du bere literaturako bultzatzaile garrantzitsuenetako bat dela iraganetik sendatu gabe heldu zaizkion zaurietan ozpina bota, hatza sartu eta bueltak ematea; trauma erakustea behar duela literaturak helburu.

EGIAZKO FIKZIOA

Saizarbitoriak elkarrizketen balioa erlatibizatu du, ez ei du jakiten zer esan. Batetik besterako kontraesana ez zaio batere larria iruditzen. Liburu honetan hauxe erabiliko dut irizpide metodologiko gisa: kontraesana agertuz gero hedabidean esandakoaren eta liburuan idatzitakoaren artean, idatzitakoa lehenetsiko dut. Behin ildo hori hartuta ere, edozein gisaz, ezin susmo bat burutik aienatu: litekeena da Saizarbitoriaren oinarrizko jarrera baten adierazpena izatea hain maiz zabaltzea ikuspuntu bat eta kontrakoa, aldi berean biak onarturik. Aurkako baieztapen horiek hain aise egiten baditu bere, beharbada izango da eszeptizismoz dakusalako egia osoaren ertz ugariak koherentziaz adierazteko hizkuntzaren ahalmena. Ez du koherentzia kosta ahala kosta bilatzen, koherentziaren gainetik ikusten bide baitu egia, inkoherentzia barnebiltzen duen fikziozko egiaren aukera baztertuko ez balu bezala.

Saizarbitoriarentzat, fikzioa egiazkoa izan daiteke, eta aitormena berriz faltsua. Are gehiago, literatur fikzioaren eta irudimenaren bidez hobeki adieraz ditza-

kezu egia intimoak oroimenaren ahalegin zintzo batez baino, objektibotasuna gogo biziz bilatuko lukeena. Fikzioaren egitura baitu Saizarbitoriaren egiak. Horrela lotzen dio Mikel Hernandez Abaituak ideia hori liburu honetako gai nagusiari: «Errealitatea oroitzapena da batez ere, etengabe orainaldia lehenaldi bihurtzen den neurrian, eta oroitzeko ahalmena desordenatua da, berez. Horregatik, pertsona bakoitzak errealitatea bere modura ikusten du, errealitatea ez baita hartaz bakoitzak eraikitzen (gogoratzen) duen fikzioa baino, eta fikzio hori iraganaz osatuta dago».

Paul Ricoeurren irudiko, fikziozko kontakizunaren eta historia fidelaren artean egiturazko identitate bat dago, egiaren eskakizunak erabakia. Historiaren eta fikzioaren egietan, giza esperientziaren denborazko izaera dago jokoan. Filosofoaren ustez, denbora orokorra modu narratiboan artikulatzen denean bilakatzen da giza denbora; eta, aldi berean, narrazioa esanguratsua eta aintzat hartzeko modukoa izaten da denborazko esperientziaren ezaugarriak ganoraz deskribatzen dituen heinean.

LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA ETA EGUNERO HASTEN DELAKO

Euskaraz idatzi diren milaka liburuen artean Saizarbitoriari bost aholkatzeko eskatu eta bakar bat aipatu du, Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*.

Leturiaren egunkari ezkutua zein *Egunero hasten delako*, biak dira giro berdintsuaren kume, biak oso frantsesak. Txillardegiren eta Saizarbitoriaren nortasunak dira desberdinak, eta horrek badu eragina, noski, giro frantses hori bereganatu eta ondoren isurtzeko moldean, haien eleberrietako pertsonaietan eta ideietan. Biok bat datozen arren gizakia ezertarako balio ez duen pasioa dela baieztatzeko orduan, alferrikako grina, pasio inutila, Sartrek zioen bezala, nabarmenagoa da kutsu soziologikoa *Egunero hasten delako*-n; Txillardegik introspekziora jotzen du gehiago.

Txillardegiren aurreneko bi eleberrietako gogoeta etiko-metafisiko barnekoi bezain ugarien aldean, Saizarbitoriak kontagaia kamera inpertsonal batez deskribatzen duela dirudi. Iñaki Aldekoak, *Mendebaldea eta narraziogintza* saiakeran, aldaketa hori R.M. Albéresen esaldi honi lotu dio: «Metafisikaren baldintzapeko literaturari fenomenologiaren esanetara jarri zen li-

teraturak hartu zion erreleboa abangoardian». Eta, Saizarbitoriaren maisuetako bat den Michel Butorrek dioenez, «eleberria da eremu fenomenologikorik egokiena ikusteko errealitatea nola ageri zaigun edo ager dakigukeen».

Saizarbitoriaren hasierako nobela fenomenologikoetan, nolabait esateko, gauzak ez zaizkio subjektu pentsatzaileari ageri, behakoari baizik. Horrek ez du esan nahi filosofiari uko egiten zaionik, behakoa gailentze horrek ere pentsaera bat inplikatzen baitu, eleberrigilea begiradarekin identifikatzen duena, eta ez hainbeste jarrera filosofiko esplizitu batekin.

Leturiaren egunkari ezkutua argitaratu zen garaitsuan, Roland Barthesek gauzen balizko arima erromantikoari muzin egitea aholkatzen zuen, gauzek zein gertaerek ez omen dute-eta esentzia bat ezkutatzen; aitzitik, itxura bera dute esentzia. Ondorioz, «kontua deskribatzea da, ez esplikatzea edo analizatzea».

Bestalde, bai Txillardegik eta bai Saizarbitoriak garrantzi berezia ematen diote giza gogoaren joera alferrikako bezain ezinbesteko bati, bizimodu zentzudun eta atseginaren eragozpen nagusi: iraganaren uztarriak zanpa zaitzan, izan dadin denboraren joana onartzeko ezinagatik, dagoena aldakorra dela eta inoiz ez

dela itzuliko (Txillardegi), izan dadin oroitzapen mingarri batean gurutziltzaturik gelditzeagatik, behar bezala irentsi eta atzean utzi ezinik (Saizarbitoria).

Txillardegik natura maite du, Leturiak zoriona naturan eta bakardadean aurkitzen du maizenik. Gogoko du bere sentipenak, sentimenduak eta arrazoiak, bere burua, naturako bakarlekuetan aurkitzea eta aztertzea. Hori bai, ez da natura basatia izaten, baizik mendixka, lorategia edo parkea, *Leturiaren egunkari ezkutua*-ko parke urmaelduna bezala, Zerubide, bere bankutxoekin, *locus amoenus* klasikoa.

Aitzitik, Saizarbitoriak Gaudiren Güell parke modernistako mosaiko *trencadis* dislokatuen artean kokatuko du, memoriaren funtzionamendu zatikatuaren izenean, nobela tradizionalaren denbora kronologikoa zapartatzearen aldeko teorizazioa, *Egunero hasten delako*-k praktikan dakarren berrikuntzetako bat; gainera, bakardadea ez zaio laket: batetik, bere buruarekin bakarrik egotea pairagaitz zaio, eta, bestetik, errukigarri zaio jende bakartia, gure gizarteek jendea bakardadera derrigortzen duten egoerak gorroto ditu, aurka egingo die. Adibidez, neska gaztea tren geltokian, bakarrik, trenaren zain, maleta alboan duela, eta ondoko erromesaldia medikuz mediku, ea nork egingo

dion abortua, mediku gehienen aldetik errieta, mespretxua edo hoztasuna jasotzen duela.

Gisèleren bakardadeak «Berritsu» deitu izan denaren gupida ere pizten du. (Bide batez salatuta, gutxietsi egin izan da pertsonaia hori, berritsukeria leporatu eta horixe hartu baita haren ezaugarri nagusitzat, baina pentsalari interesgarri bat da, erlatibista antidogmatiko sentibera, biziki komunikatiboa, eta tren geltokiko tabernako edota lokutorioko gogoetak freskoak bezain ausartak dira, eta aberatsak beren aniztasunean: estiloaz eta heziketaz, gustu estetikoaz, gaizkiaren eta ongiaren kopuruak aldagaitzak direla ziur jakiteak ekarri beharko lizkigukeen aldaketez gure jarrera moraletan, naturaren krudelkeriaz, antisorgailuez eta etorkinez, Aldous Huxleyren *Bai mundu berria* eleberriaz, larrua jotzearen eta maitasuna egitearen arteko aldeaz, gazteriaz...)

Historia-irakasle kalakari hau eta Gisèle arbuio batean datoz bat (eta horrek Txillardegirengandik urrutiratzen ditu): haientzat natura gaiztoa da, indartsuak beti menderatzen baitu ahula, naturak malderrari ez dio inongo babesik eskaintzen.

Kontrakotasun horren adierazpen da, halaber, Txillardegik eta Saizarbitoriak hain animalia desberdinak

aukeratu izana beren nobeletarako. Txillardegiren eleberrietan indartsua da ugaztunaren presentzia: zakurra (*Leturiaren egunkari ezkutua*-n, zehazki, Miren maitearen Pintto), ziminoa, katua eta zaldia. Txillardegik ez zuen alferrik abiarazi euskal eleberriaren historiako Ugaztunaren Aroa.

Saizarbitoriarenean, ostera, ugaztuna bezain garrantzitsua da arraina. Heriotzari lotzen zaiola du berezitasun nagusi Saizarbitoriaren animaliak: sardina latan da txapeldun, baina Luxio muslaria hiltzen duen zezen buru disekatua ere hor dago, hormatik desitsatsi eta Luxioren gainean erorita, edota, ilunago, *Ehun metro*-ko etakidearen odola miazkatzen duten usoak.

Bi idazleon ikuspuntu politikoen arteko aldea naturaren aurrean duten jarrera desberdinetatik ere ondoriozta liteke hein batean: Saizarbitoria gizarte kontuek mugiarazten dute batez ere, natura ankerrak edo gizarte ergelak baztertutakoak babesteko gogoak, hala nola zaharrak, gudari ohi mainguak, nahi gabe haurdun gelditutako neska gazteak...

Txillardegik, berriz, giza harrokeriak desagerrarazi nahi lituzkeen diferentzia naturalen alde borrokatzen du. Giza harrokeriak gainerako animaliengandik bereizi nahi izaten du, giza berezitasuna kosta ahala kosta

gailendu, edo bestela jende eta herri desberdinak uniformatu. Halatan, kaiolaturiko ziminoak eta hartzak piztuko dute Txillardegiren gupida, labarretik amilduriko astoak; edo giza aurrerapen inperialaren izenean suntsitu nahi diren herri txikiak, kasurako gurea. Aberriaren aldeko borroka armatuari dagokionez, Txillardegik bikotekidearengandik bereizi behar mingotsa azpimarratzen du eskuarki, historiari ekitekotan biologiatik, maitearen epeletik, aldendu behar zaila; Saizarbitoriak, ostera, ekimen militarrak bikote bizitzari eta ugaltzeari dakarkion hondamendia nabarmentzeko joera izaten du.

Edonola ere, Saizarbitoria alaiagoa da. Bizitza egunero hasten da, eta Gisèle, abortatu ondoren, berpiztu egiten da, bizipoza berreskuratzen du. Txillardegiren ezkortasunak, kontrara, ez du zirrikiturik. Bizitza liluratzea da, eta liluratze oro abortu eginik itzaltzen da ezinbestez. Herioren nagusitasuna errotikoa da antiguatarrarenean. Alta, hauxe litzateke Saizarbitoriaren gurarietako bat: hiltzen ari garen artean, bila edo asma ditzagun jendartean ahalik eta oinazerik apalena nozituz moldatzeko jokabideak; denok hiltzera goazenez, hilerrira bidean, gorputzak usteltzen zaizkigun bitartean, konta diezazkiogun elkarri desira eroa-

ri eta gorputzen usteltzeari buruzko istorio hunkigarri eta barregarriak.

NORABIDEA

Liburu honek iragan urrunenetik hurbilenera egingo du, gero orainaldira, eta azkenik etorkizunerako zantzu batzuk ere erakutsiko ditu; atzekoz aurrerakoa izango du egitura, astro zaharretatik abiatu eta biziaren bilakaera aintzat hartuta.

Saizarbitoriaren obran, ez denez munduko nobelagilerik arraroena, gizakiarengana hurbildu ahala garrantzi handiagoa hartzen doaz bilakaerako protagonistak: landarea astroari gailentzen zaio, animalia landareari, gizakia animaliari. Noski, berez dena da jario eta nahasmendu, eta, narratzaileak bizitza den ugaritasun aldakorretik ondo datorkiona aukeratzen duen bezala, hemen ere Saizarbitoriaren obra trinkoa kanpotik ebaki eta sailkatuko dut, ezinbestekoa baita eta gainera erosoa azalpenari begira.

1
Astroak

Izarren argia itzali egin zaio Saizarbitoriari, ezin du kosmosaren laguntza eskuratu. Txillardegik giza harremanek eraginiko zauriak sendatzeko galaxietan barrena bidaiatzen zuen, Marko Aureliok aholkatu legez, nahiz ezin burutik kendu zientziak aurreikusitako Unibertso osoaren ezinbesteko amatatzea. Ostera, *Ehun metro*-ko zein *Asaba zaharren baratza*-ko protagonistek ez desirak erlatibizatzeko baizik desirak betetzeko eskatzen diete izarrei; ez dakien aita hil, zehazki. *Ehun metro*-n, Joxe Zuazalagoitia umeak, bederatzi izarrak zenbatu eta desira eskatzera doanean, zalantza: astroek ziur aski ez dute euskaraz jakingo; beraz, badaezpada ere, gaztelaniaz formulatuko dut desira. Koldo Izagirrek arrazoi: *Ehun metro* ez da, Jon Juaristik definitu bezala, lehenbiziko euskal nobela elebiduna, baizik lehenbiziko euskal nobela diglosikoa. Dena den, euskaraz zein erdaraz mintzatuta ere, Saizarbitoriaren pertsonaiei izarrek ez diete jaramonik egiten. Lur honetako izakiei lotzera mugatu behar beren zorion eta zoritxarrak.

Zeruko astroak mutu bazaizkigu, hurbilena zaigun astroa, gure Lur hau, biraka eta biraka dabil, alferrik eta uholdeka isurtzen den odolaren aurrean sorgor, *Ehun metro*-n errepikatzen den kantuaren Prèverten hitzek adierazten dutenez: «Nora doa gainezka egindako odol hori dena: erailketen odola, gerletako odola, miseriaren odola eta kartzeletan torturaturiko gizonen odola, aitak eta amak patxadaz torturaturiko haurren odola...»; odol putzu orokorra gorabehera, Lurrak jirabiraka jarraitzen du zeharo indiferente, euskal gizartea bezalaxe Joxe Zuazalagoitiaren odolaren aurrean.

Bistan da: gure Lur honetan ugariagoak izaten dira zoritxarrak pozaldiak baino; inertziak eta berezko joerek zoritxarrera garamatzate. Berezko joeren artean iragana ezin eramana eta beldurra ditugu, oroimena eta irudimena zorionbidetik erauzten dizkiguten pasio tristeak. *Ene Jesus*-eko protagonista itsasotik datorkion iraganak itoko du; beldurrak, ostera, etorkizunera kateatzen gaitu, eta *Hamaika pauso*-k iradokitzen digu landareek apal dezaketela. Dakuskigun.

2
Itsasoa

Ene Jesus-en garbi samar dago zer gertatzen ari den, baina ez ordea zer gertatu den, nondik nora iritsi garen oraingo egoera honetara. Narratzailea bera da protagonista. Eroetxe batean dago, gela akoltxatu edo barrubigun batean, esperoan. Ez daki ziur bere buruari kontatzen dizkion istorioak asmatuak diren ala oroitzapenak. Hein batean, ez du jakin nahi, oroitzapen traumatiko batzuk ezin eramateagatik erotu baita. Zenbaitetan bere burua engainatu nahi du, oroitzapena asmazio dela sinetsarazi, baina ezin. Zer gertatu zaio protagonistari, nola iritsi da hondamendi honetara?

Ene Jesus ulertzeko orduan bereziki argigarriak dira Iñaki Aldekoak *Mendebaldea eta narraziogintza*-n eta Mikel Hernandez Abaituak *Ramon Saizarbitoriaren lehen eleberrigintza*-n eskaini dizkioten orrialdeak, interpretazioan bat ez datozen arren: Aldekoak gertaera lazgarriak irudimenezkotzat jotzen ditu eta Hernandez Abaituak, berriz, errealtzat; protagonistak irudi-

menezkoak direla sinetsarazi nahi dio bere buruari ezin dituelako eraman oroitzapen gordin gisa.

Protagonistak hilik du aita. Itsas enpresa batean lan egiten zuen eta lanean zebilela harrapatutako eritasun progresibo batek elbarritu zuen. Zango iharrak manta baten azpian gordetzen zituen. Saizarbitoriak ipuin labur bakar bat argitaratu du, «Kapitaina», 1971n, eta itsas gizona du halaber protagonista, Nikolas kapitaina. Amaieran zangoak paralizaturik dauzkala ikasten duzu, *Ene Jesus*-eko protagonistaren aitak bezala.

Aita hil zitzaionean protagonista artean umea zen eta aita hilkutxan gogoratzen du, gelditasun durduzagarriz, aurpegia zapi zuri batek bildua eta karmelitaz jantzirik.

Orduz geroztik, ama beti dabil erdi negarrez, semea larregi babestuz, beldurrez aitaren antzera ez ote duen amaituko: Zangoak harrizko bihurtuko zaizkik, gizajo hori, aitaren azken fin berbera izanen duk! Semea saltzailea baita, eta, Mikel Hernandez Abaituak nabarmendu duenez, aita portuz portu zebilela neurosifiliz eritu zen bezala eri bailiteke semea etxez etxeko bere ibilaldietan: portuko prostitutak bezain mehatxari zaizkio amari etxekoandre bero bakartiak.

Semea umetu egiten du amak, bereganatu. Axioma bat dirudi Saizarbitoriaren obran: amarekin txarto bazabiltza, nekez elkartuko zara beste edozein andrerekin; eta intzestu joerek hilketa dakarte. *Ene Jesus*-eko protagonistaren amak ezin ditu lehiakide izan lekizkiokeen andreak jasan. Protagonista maitemindu duen Marga ere ez du maite.

Margak, bere aldetik, protagonista baino nahiago du Abel, protagonistaren lankidea, saltzaile hobea. Baina Marga batzuetan protagonistari intsinuatzen zaio, Abel jeloskor jartzeko darabil.

Arratsalde batean, Abelek eta Margak Urgulleko hilerri txikian sexu harremanak dauzkaten bitartean, protagonistak Abel tiroz garbitzen du, eta Marga beharbada bortxatu eta beharbada hil. Gela barrubigunean bueltak eta bueltak ematen dizkio oroitzapen traumatiko honi. Batzuetan hirugarren pertsonan kontatzen dio bere buruari, urrutiratu nahi balu bezala, baina, anbiguotasunak anbiguotasun, erreprimitua indar handiagoz itzultzen da kontzientzia ero oinazetsura.

Garbi dagoena da bortxaketaren eta hilketaren ondoren protagonista etxera joan, amak bere betiko erretolika goibelari ekin eta semeak labana sabelean

sartu eta barruan biraka eta biraka ibili zuela, heste bigunak atzera eta aurrera.

Gertaera lazgarri horiek irentsi ezinik, zeharo errudun, protagonista, bere eromenean, amaren menpeko goitik behera, zangoei eta paralisiari loturiko amaren beldurra amaren agindutzat hartuko du, amaren profeziatzat, profezia madarikatutzat. Goitik behera ditu iraganak irentsirik protagonistaren oraina eta geroa.

Halatan, esperoaren helburua da gorputza erabat elbarritzea, aitak bezala amaitzeko, karmelitaz jantzita hilik. Zangoek, oinek eta behatzek ematen diote lanik handiena, autonomoegiak zaizkio. Agian hobeki bere buruari istorioak kontatu beharrean zenbatzea, zazpinaka zenbatu, hurbilago baitago entzefalograma lautik. Horrela bukatzen da liburua: «Hirurogeita hiru, hirurogeita hamar, hirurogeita zazpi, hirurogeita hamazazpi, hirurogeita hamazazpi».

NAUFRAGO SUIZIDA

Bizia itsasotik dator, baina *Ene Jesus*-en itsasoa da giza bizitzaren zemairik larriena. Era berean, Saizarbitoriaren protagonistek bizia eman dien ama dute me-

hatxu nagusi. *Ene Jesus*-eko protagonistaren aita itsasoaren erruz eritu eta hil zen. Bulegoak kai gainean dauzkan itsas enpresa batentzat lan egiten zuen, portuz portu marinel, eta enpresako ugazabak, K. eta D., itsasoa bezain maltzur eta siniestroak dira.

Bestalde, Margak itsasoan edo itsasotik hurbil piztuko dio protagonistari bere desira azkenik hiltzailea: Itsas Pasealekuko petrilean, «e zer ari haiz» diotsonean, itsaso beltzaren gainean; edota txalupan, ea titiak ikusi nahi dizkion galdetzen diolarik, halako batean Abel itsas azpitik kaxalotea bailitzan agertu eta ur txorrotak sudurretik, ahotik eta belarrietatik botatzen dituela: «Zer ari zarete?» galdetuko die; orobat, Abel eta Marga amodioa egitera itsasoaren gain-gainean dagoen Urgulleko parketxora joaten ziren, hilerri txikira, eta han gertatu bide ziren bortxaketa-hilketak...

Dena den, itsasoaren agerpenik esanguratsuena Samuelen kontakizun bati dagokio, *Ene Jesus*-en *mise en abyme* gisa funtzionatzen duena, Saizarbitoriaren obraren inguruko literaturan zabaldu den esamoldea erabiltzearren. Bere buruari etengabe istorioak kontatzen dizkion protagonistak eredutzat du Samuelen kontatzeko modua. Behin batean, itsasoan galdutako

gizon baten istorioa kontatu zion, eta protagonistak bere oraingo egoerarekin identifikatzen du. Eleberri honi bidegabeki egiten zaion jaramon eskasa konpentsatzearren, honatx kontakizun hori osorik dakarren pasarte luze bezain mamitsua:

«[Samuelek] bi besoak jaso zituen esku ikolduez airea heldu nahirik, urartean galtzeko zorian legokeen gizonak bezala, eta niregana bueltatu zenean itsas belarren eta zilo itsuetako arrain ezezagunen presentzia gosetiaren beldurra jasan zitekeen haren begi zurituetan. Hala ere niri begiratzen zidaten, mutuaren presentzia isila ignoratzen zuten fijezia arraro batez, eta begiratzen zidaten eran ur hotzaren hozkada sentitzen nuen artikulazioetan, eta itsasoaren bakardadeak besarkatzen ninduen, besoak arrain lehertuen moduan astinduz bizirik iraun nahi lukeen gizona bezala. Ni ere.

«Ni ere uhinek murmurio isilean promenatzen duten heriotzaren esperoan, zain batzuetan, heriotza orro haserrez agintzen dutenean edo zaplada erritmikoetan, mendebalak ordenatuki bultzatzen dituenean. Esperoaren angustian, heriotza desiratzen hasia ziur asko, besoak tripaz gora flotatzen utziz izar gabeko itsasoan abandonatzen denean».

Kontatutakoa bere gorputzera dakar Samuelek, bere gorputzak ispilatzen du. Xaman kontaera du. Miresmenez gogoratzen du protagonistak: «Nolabait ere narrazioaren detaile bakan baina konkretuez baliatuz, jestuei esker ziur asko, nahiko garbi esplikatzen da pertsonaiak sufritutako etsipen prozesua. Lehendabizi beso astintzea igeri egin nahiaren edo salbatu nahiaren adierazgarri bezala, besoak abandonatzea gero, 'besoak tripaz gora flotatzen' uztea esan zuen literalki, salbatzeko esperantzarik gabe ere oraindik flotatzen, hau da, bizirik mantentzeko desioa espresatuz, eta azkenik etsipen osoaren seinale bezala, itotakoen postura klasikoenetako bat aukeratuz, bi eskuak buru atzera eramanez zeruari bizkarra eta itsaso sakonari begiak eskaintzea».

Samuelek dio: «Ehunka, agian milaka arrain izanen dira, buruz behera flotatzen dagoelarik bere begiak hustera hurreratuko direnak».

Harrigarria da historiaren amaiera, ezustean naufragoak labana atera eta zainak ebakiko ditu: «'Uraren eta haize hotsaren arteko ekilibrioak, isiltasunaren antzeko ondorio bat sortzen zuen'. Horrelako zerbait esan zuen Samuelek ahots lehorrez oso baju hitz eginez eta niretzat bakarrik ari izan balitz bezala bukatu

zuen historia. Gizona, egunsentiak laranja kolorez tindatzen zuen itsaso bare batean, bere behatz intsentsibilizatuez puntarik gabeko eta zilarrezko ainguraz hornitutako marinel labana ireki nahian deskribatuz.

«Apenas bi odol tanto deskoloretu eta hotz irten ziren eskumuturrean ezpain heze bat bezala loratu zen irekiduratik' esan zuen beste mundu batetik mintzo litzatekeenaren ahotsaz».

Zergatik da hain ona Samuelen kontatzeko modua? Kontakizunaren irudiak protagonistari ikusarazteaz batera naufrago suizidaren aldartea sentiarazi ere egiten baitio. Samuelek hitzen bidez entzulea naufrago suizidaren itsasoan murgilarazten du, milaka arrain datozkiola begiak hustera.

Kontalari ona intxixu bat da, ezarri egiten du entzulearen garun-bihotzetan kontakizunaren filma; irudiekin batera, musika eta sentimendua ere bai. Ondo kontatzeak telepatiazko emisio indartsu bat eskatzen du.

Gertaera enpirikorik gogorrena bezain indartsua izan daiteke ganorazko kontaera. *Ene Jesus*-eko protagonistari, behin betiko paralisiaren zain gela barrubigunean datzala, oroimena eta irudimena nahasiz, Sa-

muelen narrazioa gertaera errealak bezain bortizki txertatzen zaio gogoan.

Ahal horren giltzetako bat da xehetasun zehatzen erabilera argi eta artistikoa, Saizarbitoriaren beraren estiloaren ezaugarri unibertsalki aitortua; beste bat, imintzioen eta gorputzaren mugimenduen egokitasuna. Kontaketak bi dohain horiek bilduz gero, iragan urrutian entzuna izan arren, iraganeko gertaera bezain sakonki barneratzen da oroimenean.

3
Magnolia grandiflora

Gizabanakoa erabat suntsituko da, gutaz ez da arrastorik ere gelditukо. Ideia ikaragarri horren sendabide dugu, *Hamaika pauso*-n, gizakiak bere burua belaunaldien ziklo naturalean txertaturik sentitzea. Magnolia grandiflora baten bidez apalduko dute datorkien ezerezak eraginiko larridura Iñaki Abaitua hiztegigile idazleak eta heriotza zigorrera kondenaturiko Daniel Zabalegi etakideak. Zeren Saizarbitoriarenean natura, alde batetik, gaiztoa baita, ahulak suntsitzen dituelako, besteak beste; baina, bestetik, onuragarri ere izan lekiguke, heriotzaren beldurra gainditzeko salbabide. *Martutene*-n, azkenik, lehenbiziko aldiz ageri da garapenkeriak hurrengo belaunaldiei utziko dien panoramaren inguruko kezka, zehazki garraiobideak zinezko beharrik gabe eraikitzeko grina garaikideak eragindakoa.

Lagun talde baten gorabeherak kontatzen ditu *Hamaika pauso*-k. Kontagaia dozena bat urtez luzatzen da, frankismoaren azken urteetatik GALen aurreneko

atentatuen garaia arte, 1973ko udazkenetik1984ra arte ziur aski. Ez konbikzioz, baizik giroak eta adiskideek bideraturik, Iñaki Abaitua hiztegigileak ETAren komando bati Losada Guardia Zibila hiltzen lagundu dio. Komandoburua Eduardo Ortiz de Zarate da, ezizenez Zigor. Lagundu dutenen artean poliziak Daniel Zabalegi atxilotu eta hiltzera zigortuko dute. Abaitua euskal hiztegi bat idazten ari da. Halako batean, «Hamaika pauso» eleberria idazteari ekingo dio, Zabalegiren heriotza gai nagusi. Iñaki Aldekoak ederki nabaritu duenez, Abaitua, denborak aurrera egin arau, «hiztegigile zebilelakoan, nobelaren barruko nobelagile bihurtu zaigu». Hitzak definitzeko orduan zehaztasun zientifikoaren gainetik afektua gailenduko da, objektibotasunetik bizitzara zabalduko du Abaituak hizkuntza: «Filologoaren porrotak eleberrigilearen garaipena dakar».

Abaituak Julia maite du, elkar maite dute, baina harremana ez da erraza. Juliaren lorategian magnolia grandiflora bat dago.

Bestalde, Abaituak, betiere inguruak eta inertziak eraginik, Zigorri bere ordularia utziko dio, ondoren bere etxea. Zigorrek, ordea, ez dizkio aginduriko garairako itzuliko, jabetu egingo da Abaituaren denbo-

raz, bere gelaz eta oheaz, bere bizitzaz. Aitak oparitu zion Iñaki Abaituari Omega zahar hori, aita gudariak, baina orain belaunaldien katea eten da, transmisioak huts egin du, Abaituak ez baitu bere burua gudari izateko gai ikusten.

Era ilunean susmatzen du bere patu iluna giza ordulariaren urduritasunera egotzia izanak erabakiko duela, Juliaren lorategiko magnoliaren denborari ezin atxikiak. Zer ordu ote den, Abaituak eta Zigorrek ia ez dute beste hizketagairik elkar ezagutu dutelarik, eta gainera ezin dute ordua garbi erabaki. Behin Abaituak bere ordularia Zigorri utzitakoan, Abaituaren denbora propioarenak egingo du. Zigorrek ez dio itzuliko, eta ETA nagusituko zaio Abaituari, Historia, giza denbora, ia beti landarearen denbora biologikoaren etsai izaten dena.

Abaituak Juliaren lorategiko magnolia besarkatu egingo du, bere hostoak gorde; hiltzeko orduan ere magnoliaz oroituko da. Horrelaxe bilatuko du zuhaitzak bermatuko lukeen belaunaldien arteko segida lasaia, sustrai ziur hori. Abaituak, «aitortu ez arren, bazuen, ordea, heriotza natur zikloen harmonian atzemateak sarritan sortu ohi duen baretasun sentsazioaren berri. Halakoetan heriotza ez zen ikaragarria, eta

posible zitzaion haren ezinbestekotasuna onartzea, uda ondoren udazkena, eta gero negua datorrela onartzen den bezala».

Giza belaunaldiak urtaroak bezain berez eta patxadatsu ezin joatearen mina ezabatu nahi luke Abaituak, naturaren joanarekin bat egin, giza zurrunbiloan bizia galtzen ari dela sentitzen baitu.

Abaitua idazleak bere ezaugarri hau Daniel Zabalegi pertsonaiarengan proiektatuko du: giza kontuek malura baino ekar ezin diezaioketen gizajo bat ei da Zabalegi, eta hori dela eta ikusaraziko dio Burgosen, fusilarien pelotoiaren aurrean dagoela, Juliaren magnolia sendo naturala, heriotza naturaren zikloetan txertaturik sentitzeak dakarren baretasunak sosega dezan.

4
Animalia gorpu

Animaliak ere arbaso ditugu. Bereizi beharra dago Saizarbitoriaren protagonistek arbaso horiengandik herentziaz jaso dutena eta zer jokabide darabilten animaliekin, zer dakusaten animaliaren ispiluan. Herentziaz jasotakoari dagokionez, gizonaren jelosian alfa arraren jabetza grinari antzematen dio. Hamargarren atalerako utziko dugu. Bestalde, Saizarbitoriak ez du eztabaidatzen animaliek eskubideak ote dituzten, edo bibisekzioaren erabilera onuragarria ote den, giza eritasun asko sendabidean jarri dituen heinean, animaliek ikaragarrizko oinazez ordaindu duten arren. Saizarbitoriaren protagonistek animaliekin duten jokaera aztertzera mugatuko naiz, ez baita lantegi hutsala.

Gainerako euskal eleberrigileekin erkatzeko orduan, animaliaren erabilera irizpide garrantzitsua da Saizarbitoriaren berezitasunak nabarmentzen hasteko. Euskal eleberriak animalia erabili izan duen moduari dagokionez, eta, halaber, erabili izan duen ani-

malia motari ere, Saizarbitoriaren kasua berezia da, aparte gelditzen da.

Adibidez, hitzaurrean aipatua, desberdinak dira Txillardegik eta Saizarbitoriak beren nobeletarako aukeratu dituzten animaliak. Txillardegik erruz darabiltza ugaztunak: *Leturiaren egunkari ezkutua*-k zakurraren eskutik nobelaren gaiak eraberritu bazituen, *Peru Leartzako*-k bortizki jarri zigun aurrean ziminoaren ispilua. Gerora euskal eleberriak usu erabili izan ditu zaldia, balea, tigrea, zerria, satorra eta behia. Saizarbitoriak aipatu ere ez du egiten euskal eleberri modernoaren hasieran nagusitu zen ugaztuna, hots, ziminoa, eta ugaztun biziak, oro har, ez du munta handirik haren obran.

Harkaitz Canok 1996an *Beluna jazz* argitaratuz zomorroaren gailentasunaren aroa abian jarri zuen. *Sprako tranbia, Eulien bazka, Kolosala izango da, Larrepetit, Kilkerren hotsak, Van't Hoffen ilea*... orduz geroztik dena bete zaigu kakalardoz, sitsez, erlez, matxinsaltoz, kilkerrez, sugandilez, labezomorroz, inurriz eta euliz. Gero eta ugariagoak dira euskal eleberrietan larrurik gabeko animaliak, edo larrua ilez estalirik ez dutenak behinik behin. Saizarbitoria, edonola ere, zomorroaren arotik at gelditu da, halaber.

HILOTZ

Nobelagilearen ugaztunen zein bestelako animalien ezaugarri nagusia da heriotzari lotuak direla. Filogenesiaren arabera gure baitan daramagun animaliaren kanpoko gauzatzeari loturiko sentimendu eta jarduera posible guztien artean, hilketa nagusi. Gainerako euskal eleberrigileek ez bezala, Saizarbitoriak animalia hila nabarmendu du.

Mudurria da *Egunero hasten delako*-ko katua sortu duen gogaldia. Katu zuri horren patuak Gisèlek sabelean daraman umekiarena iragartzen digu: Miller doktoreak Gisèleri haurdun dagoela egiaztatu berri dio. Gisèle etsirik irten da kontsultatik Durkheim euritsura eta «katu baten marruak hotzikara eragiten dio, haur baten negar nahigabetua baitirudi». Barruan daramana tumore gisa sentitzen du, gorroto dio, eta berriro entzuten du «katuaren urru tristea». Belarriak estaltzen ditu, eta segituan ikusten du errekako ur uherretan katu zuri bat hilik.

Kontraste bizia egiten du katu honek *Martutene*-ko Maxekin, Lynnen katu etxekoi apetatsuarekin. Saizar-

bitoriaren abererik domestikatuena da, gizatiartuena. Lynnek Max Frischen omenez bataiatu bide du Max. Katua zeharo dago Lynnen sentimendu eta irritsekin enpatizatua. Lynnek batere pudorerik ez balu legikeena dagi Maxek: sabela ginekologoari lizunki eskaini fereka diezaion, Martin idazleari lotsagabeki muzin, eta abar. *Martutene*-n giza harremanak bezala animalien patua ere leundu egin da, lasaitu, errotiko goibeltasuna gorabehera.

Goibela baita, katu zuriaren zoria bezain, *Ehun metro*-n Joxe Zuazalagoitiak Konstituzio plazako galtzada harrietan uzten duen odola miazkatzen duten usoak sortu dituen aldartea.

Tragikomikoagoa, berriz, Luxio hil zuen zezena. *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-en, protagonista eta zaharren lagun taldea biltzen diren Hanbre tabernan muslari batzuk ibiltzen dira. Luxioren gainean, horman, zezen disekatu baten burua zegoen. Behin batean, ezustean desitsatsi, erori, Luxiori buruan jo eta zerraldo utzi zuen muslaria.

SARDINA. TXITXARROA

Oraingoan arrain biren eta ugaztun baten inguruan luzatuko gara: zehazki, latako sardina, txitxarroa eta Benitoren zerria.

Itsasotik gatozela diote, bizia itsasotik datorrela, eta gure arbaso arraina hiltzera doala edo jada hilik darakutsa Saizarbitoriak, gizakiak hila. Batetik, sardina latan, bereziki *Egunero hasten delako*-n, *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-en eta *Bi bihotz, hilobi bat*-en. Protagonistak ezin dielarik maitasun korapiloei aurre egin, gainez egiten diotelarik, orduan erregresioan egoera are okerragora jo eta sardinak irensteari ekingo dio, latakoak. Maitasun harreman genitalean oztopoak oralidade bakartira itzularaziko du atzera. Etsipenak eta hondamendiak bultzatzen dute sardinara, bai, baina halaber bikotekideari pena eman nahiak; andreak, etxera itzulirikoan, suntsitutako gizon bati dagokion atrezzoa topatuko du: zigarrokinak nonahi, tabako kirats hotza, anabasa orokorra eta sardina lata irekiak. Dena den, kokoteraino dauka andrea ordurako, eta latek eta gainerakoek ez diote erruki handirik sortuko. Bide batez esanda, latako sardinak besterik jan gabe ere luzaro bizi zaitezkeela ikasten dugu, bi-

tamina eta proteina piloa baitute, batez ere fosforoa eta kaltzioa; Saizarbitoriak, denik eta patetikoena izanagatik ere pintatzen ari den eszena, ez dio uko egiten aldi berean irakurleari atseginez irakasteari, eta kontraste hori da irakurlearen irribarrea pizteko darabilen baliabideetako bat.

Sardinena baino latzagoa da txitxarro sardaren kasua. Abaitua ginekologoaren harremana seme Loiolarekin ez da argia, ez onuragarria. Ez du asmatzen Loiolari zentzuz mintzatzen, aholkuak ematen edo oroitzapen atseginak eragiten. Aitzitik, garunetik guk aukeratutako oroitzapen mingarriak desagerrarazteko aukera gero eta hurbilago dugun honetan, Abaituak ez luke zalantzarik, txitxarroen pasadizoa aukeratuko luke: behin batean, semearekin arrantzara irten eta berehala txitxarro sarda ezin ugariagoa nabaritu zuten. Abaitua txitxarroak atzeman eta atzeman eta Loiolari, berriz, pita korapilatu zitzaion. Aitak semeari aparejua utzi, Loiola bigarrenarekin ere trabatu, aita haserretu eta aldarri egin zion zoro lez. Bien bitartean, txitxarro odolduak txalupa gainean, saltoka. Semea, zotinka, arrainek pena ematen ziotela murmurikatu zuen, eta orduan Abaitua bere gontzetarik osotoro jalgi eta «txitxarroak kareletik botatzen hasi zen, es-

kuak hegalekin moztea inporta gabe, sutan, madarikazioka, esfortzuagatik errendituta baretu zen arte. Eta bere burua ikusi zuen sabel zuri distiratsuak eguzkiari buruz flotatzen zuten txitxarroz inguratuta eta umea apareju nahastua altzoan zuela negarrez. Orduantxe konturatu zen ez zuela ikuskari hori inoiz ahantziko, eta semeak ere ez. Bere bizitzako gertakariren bat burutik ezabatu ahal izango balu, dudarik gabe hori litzateke bat».

Abaituari jazoerak eragin sentimendu izugarria areagotu egiten dio ohartzeak, gertatzen ari den orainaldian berean, etorkizun osoan pairatu beharko duela gomutan iltzaturik. Denboraren hiru hari horiek sarritan nahasten zaizkie Saizarbitoriaren protagonistei antzeko mataza ezin goibelagoetan.

BENITOREN ZERRIA

Ugaztunen artean, Saizarbitoriaren abere enblematikoa zakurra da. Bere alaba batek zakurrak ditu, eta, Donostiatik kanpo dabilelarik, Saizarbitoriak egunero ateratzen dizkio, sarritan Urgull aldera. *Hamaika pauso*-ko zakurrak mehatxu eta herio-igarle dira Abai-

tuarentzat. Bordelen ETAren irizpideen aurka eginiko atraku batean ere garrantzitsua izango da daniar handi bat, Lagun. Ikusiko dugu ETAri buruz idatzi beharrekoaren inguruko atalean. Azkenik, *Gudari zaharraren gerra galdua*-n, Mirenen guraso hilen eta zumardiaren artean atzera eta aurrera dabilen zakur zaunkaria duzu Saizarbitoriaren literatura osoko animaliaren agerpenik zirraragarriena. Dena den, gerra zibilari loturik ikusiko dugu zakurra, seigarren atalean, eta hemen gerra zibileko beste protagonista ugaztunaren kasua aztertuko dugu, Benitoren zerriaren kasu bitxia.

Bihotz bi. Gerrako kronikak-eko eta *Bi bihotz, hilobi bat*-eko protagonistak berdinak dira funtsean, eta, hain duenez hasieratik barneratua Ilustrazioaren ideologia eta sentimendua, «Entziklopedista» deituko baitiogu, Samuel adiskide zorrotzak deritzon legez. Gerora *Martutene*-n Faustino Iturbe gisa agertuko da. Bere hausnarketa: «Jakitea eta Arrazoia gizakiaren ezaugarririk nobleenak direla uste dut; sentimenduen eta instintuen gainetik gure bidea gidatu eta argitu behar lukete».

Bi bihotz, hilobi bat-en, emazte Floraren etxean bizi da Entziklopedista, andrearen gurasoekin, «andrin

etxin, apopilo». Benito du izena Entziklopedistaren aitaginarrebak. Artaxonakoa da, gizon ona, frankistek atezain lanpostua eman zioten Donostian, eta Floraren amarekin ezkondu zen, ezker abertzalekoa izan arren. Emazteak mespretxatu egiten du Benito, astapotrotzat jotzen du, ezjakintzat, euskaraz ere ez daki... Ama-alaben harremana hertsia da, eta gizonak sarkinak zaizkie. *Ene Jesus*-en bezala, baita *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-en ere, senideen arteko larregizko hurbiltzeak hilketa ekarriko du.

Saizarbitoriaren obra osoa da intzestuaren eta endogamiaren aurkakoa, giza harremanetan zein aberriarekikoetan. Euskal deituradunek osaturiko bikoteek ez dute atarramentu onik. Euskal gene akituen salbabide bakarra haize atzerritar frexkoa da. *Martutene*-n, adibidez, Lynnek ditu gizon euskaldun zaharrak aztoratuko, edota Luz perutarrak, eta andre euskaldunei ez Abaitua, ez Iturbe, ez Martin, ez Martxelo, ez Arostegi komeni zaizkie, baizik eta Pedro Ruiz. Hala ere, ez da literaturatik eratorritako beti aintzat hartzeko moduko aholku horietako bat.

Harira: Entziklopedistak gero eta harreman estuagoa izango du Benitorekin, elkarrekin ikusten dituzte marrazki bizidunak, elkarrekin edaten dute Kanoieta

elkartean... Benito ia ez da mintzatzen emaztearekin eta alabarekin, euskaraz egiten baitiote; aitzitik, suhiarekin, gaztelaniaz, komunikatiboa da, are berritsua. Sarritan aipatzen dute txorizoen gaia. Dena den, Benitok Entziklopedistari kontatzen dizkion istorioen artean politenetakoa da gerra zibilean zerri bat atzera eta aurrera eramatea izan zuela zeregin nagusi. «Un cuto, cagüen Dios, más grande que tu suegra». Maiz hartzen du Benitok zerria hizpide. Benitok eta soldadukideek ebatsi egin zuten beraiena. Zerria garraio Espainian barrena, soldadu franko ibili bide zen lantegi deigarri horretan gerra zibilean. Eta gerran, abentura eta larrialdi handienak zerria ezkutuan gobernatzen eta fronte batetik bestera manta azpian gordeta eta modu txarrean garraiatzen igaro omen zituen Artaxonakoak. Adibidez, Terueldik Euskal Herriraino zerriarekin batera etorri zen, kilometro eta egun asko, eta horrek harremana sendotu egiten du: sarritan zerriaren ondoan egin behar izaten zuen lo.

Halako batean, Benito gaixotu eta hiltzera doa, birikeriak jota. Ohean etzanda pasatzen ditu egunak. Entziklopedistak ez daki zer esan behar zaion hiltzera doanari, eta hasiera batean txorizoaz mintzatzen zaio, baina Benitok erantzunik ez. Txorizoak errazki bidera-

tzen duenez zerrira, gerrakoaz galdetzen dio, ea ba ote zuen izenik. Busti egiten zaizkio Benitori begiak. Eta bere azken zirkina burua ezker-eskuin mugitzea izango da, zerriari ez ziotela izenik eman adierazteko, beharbada. Orduan begi hezeak okertu eta hil egingo da.

Entziklopedistaren kasuak primeran darakutsa Saizarbitoriarenean gizakion isuri naturala zoritxarrerako dela: Benito hil egin da, eta Entziklopedistak, urduritu eta sufritzeko baizik balio ez duten ideiak gogoan etengabe erabiltzeko joerari men eginez, bere buruari leporatzen hasiko zaio Benitori bizirik zela aski jaramonik egin ez izana. Atsekabetu egiten du gerrako zerria hil ote zuten galdetu ez izanak, edo nola hil zen, hari ere zerriei dagokien sanmartina heldu ote zitzaion. Doluak eta erruak eragiten dioten hunkimendua konpentsatzeko fantasia zoragarrien protagonista egingo du Benitoren zerria: Artaxonakoak 37an Donostian sartu zirenean Ulian libre uzten zutela, eta handik ibiltzen zela, jare eta bozkarioz, hortentsia urdinen artean. Egunez maiz erabilitako fantasiek gaueko ametsetan eragina izaten dutenez, Entziklopedistak behin baino gehiagotan egingo du amets zerriarekin. Bakanka darabiltza Saizarbitoriak ametsak: ondo

zenbatu baditut, amets-ametsak ez dira zazpi baino gehiago Saizarbitoriaren obra osoan. Garrantzi berezia eman beharko *Bi bihotz, hilobi bat*-en Entziklopedistak eginiko aitorpenari, alegia, zerriarekin egin dituela bere ametsik zoragarrienak, zerria hortentsia ederretan etzanda: «Kontua da zerriarengandik banatzerakoan Benitok izango zuen sentimendu gazi-geza nabari dezakedala neuk ere, eta zerria hortentsia artean etzanda nekusala izan ditudala neure bizitzako ametsik gozoenak».

Magnolia grandiflora besarkatzeak giza denbora historikotik askatzeko ametsa ahalbidetzen bazuen, Entziklopedistaren ametsak ere, Benitoren zerria hortentsien artean datzala, gizatasunarekiko eta, zehazki, gerra zibilarekiko uztarritik askatzea adierazten du; askatze hori ametsera mugatzen da ordea, esnatu bezain laster berpizten baitzaizkio neurosiak eta gerra mamuak. Datorren atalean giza neurosia aztertuko dut eta hurrengoan gerra zibila.

5
Giza animalia neurotikoa

Naturari begira, hortaz, astroak indiferente ditugu. Itsasoa anbiguoa da, azken atalean ikusiko dugunez, baina nabarmena du mehatxu kutsua. Naturako alderik onuragarriena, gizakiarentzat, landareetan dago, heriotzaren beldurra baretzen lagun baitiezaiokete.

Saizarbitoriarenean, animalia bera ez da gaiztoa; bai ordea, sarriegi, animaliaren giza erabilera. Animalia, berez, inuzentea da, errugabea: giza erruak egiten du animalia zauritu, hil, tragediaren bateko protagonista. Gizakia da errudun, anker eta bekatari. Hain zuzen, Saizarbitoriak kristautasunari leporatzen dizkionen artean dago berari pesimismo antropologiko hori irakatsi eta kutsatu izana, parekoa baita, egiazki, San Agustinengan eta Saizarbitoriarengan: gizakiari berezkoa zaio ergelkeriarako eta gaiztakeriarako joera, desira ezin da errutik bereizi, sexuak berehala dakar damua.

HIZTUNA ILOGIKO

Saizarbitoriak hitza eta logika bereizten ditu. Gizakia hiztuna den bitartean, animaliak ez du hitzik, baina logika handia du, eta beraz ez du sexu arazorik. Arazo gabezia horrek aspergarri egiten du animalien sexualitatea, gizakiarenaren aldean. Berritsuaren gogoeta, Gabriel Aresti gogoan:

«Munduan ba al da logikarekin jokatzen duen inor? Abereak bakarrik: gosea dutenean jan egiten dute, logaleak direnean lo egiten dute eta beharra dutenean larrutan egiten dute...».

Aldiz, «gizonari dena zaildu zaio hitzez zeharkatua izan zenetik. Animaliek, adiskide, ez dute arazo sexualik. Nire lagun idazle batek –zendu zen gizajoa; zenbat maite nuen!– zera esan ohi zuen, kalean topo egiten duten bi zakur ez dituzula inoiz ere hirugarren bati buruz gaizki esaka denbora galtzen ikusiko. Kristauok, berriz, zenbat ez dugun galtzen ingurumaritan atsegin zaigun norbait begiztatzerakoan. Hitzak asko korapilatu digu sexua, egia da, baina, noski, horrek ere badu bere zera, izan ere, hitzik gabe sexualitatea ez bailitzateke seguruenik horren interesgarria izango».

IRAGANAREN MARMARRA

Saizarbitoria berez izateaz gain sakontasun handiko psikologoa, etekin ederra atera dio Freuden irakurketari. Haurtzaroko trauma ahaztuak ezkututik bizitza erabakitzea, neurosiaren eta perbertsioaren arteko bereizketa, bikotekidearengan kontrako sexuko gurasoaren ordezkoa bilatzeko joera heterosexualen artean, superniaren aginduak ezin betetzea erru sentimenduaren iturri, neskarentzat himena hautsi dionarekin baino onuragarriagoa izatea maitasun harremana hurrengo sexukidearekin... Halaber, Saizarbitoria bat dator Freudekin dioelarik gizaki guztiok azken batean neurotikoak garela, ez bagara zeharo eroak. Lausoak dira neurosi eramangarri unibertsalaren eta psikiatrikoan sartzeko moduko eromenaren arteko mugak, eta Entziklopedista, Abaitua biak eta Martinek ez lukete behar koxkaren bat apur bat estutzea baino *Ene Jesus*-eko protagonistak bezala amaitzeko. Urruti dugu Platonen eta hainbat antipsikiatraren ustea, alegia, ongirik handienak eromen puska baten bultzada behar duela.

Esan bezala, balirudike Saizarbitoriarentzat gizonezkoen joera naturala zoritxarreko izatea dela, nahiz eta zoriontsu bizi ahal izateko ezinbesteko baldintza materialak ederki beteta dauzkaten. Zentzu horretan, bat egiten du psikologia eboluzionistaren adar batekin, zeinaren arabera bizirauteko aukera zabaltzen digutelako heredatu baitugu zenbait ezaugarri, izaera eta bizitza hondatzen diguten arren. Saizarbitoriaren protagonistengan nabarmen ageri diren eboluzioaren hiru opari pozoitsu aipatuko ditut, Michael Wiederman psikologoaren eskutik, bizirik irauteko bideak handitu baina zoriontsu izatekoak txikitzen dizkigutenak.

Lehenik eta behin, beldurra eta antsietatea: gure arbasoak inguru lanjerosetan bizi ziren, etsaiz setiaturik, arrisku pilo bati egin behar zioten aurre. Inuzente alaia, bere oharkabetasun santuan, Santimamiñeko leize zulotik irten bezain laster akabatuko zuten hartzek. Hartzen artean pozik bizitzea, horra Saizarbitoriaren xedea, berez eskuraezina baina ideal erregulatzaile gisa funtziona lezakeena.

Arrisku posibleen aurrean erne eta mesfidati ibili beharrak eragin ditu giza ezaugarri oinarrizkoak diren kezka eta ezinegona, luzaro bizitzeko lagungarriak baina bizipozari begira zeharo gogaikarriak, batik bat

kontuan hartuta errealitateak benetako arriskurik eta etsairik ez dakarkigunean ere hura asmatzeko grina oparitu digula naturak, gorputzeko ezinegonari eta kezkari irtenbideren bat emateko; esaterako, Abaitua idazleak maite duen Julia eta honen amorante Zigor Iarrutan imajinatzen ditu, eszenak berariaz eta arreta handiz konposatuz. Hasiera batean bizirauteko balio zuenak, gaur egun, tokiz kanpo, suizidioa eragin dezake.

Bigarren, esperientzia negatiboetan eta oroitzapen mingarrietan kontzentratzeko giza joerak, etorkizunak ekar diezazkigukeen arriskuen aurrean gure burua begiratzera garamatza. Gudari zaharrak gerra legez, oroitzapen mingarriak gogoan etengabe eduki behar horrek gure burua pairamendu berrietatik babesteko balio digu onenean, hanka lehen bezala ez sartzeko, baina ez, jakina, zoriontsu izateko.

Azkenik, kaskoan etengabe entzuten dugun marmarra, duguna sekula ez askiestera behartzen gaituena, espeziearen biziraupenari laguntzen dion faktore bat da, gizakiok beti gehiago nahi izatera bultzatzen baikaitu, gure egoera beti hobetzera. Bilakaerari doakionez, espezie gisa izan dugun arrakastaren kausetako bat da, baina madarikazio hutsa indibiduontzat,

orain eta hemen gozatzea baldin bada gure esku dagoen benetako zorion bakarra, bederen.

Natura gure biziraupenaz arduratu da, baina ez gure ongizateaz: antsietateak erneago egiten gaitu, adiago arazoei; beldurrak ihesari edo borrokari laguntzen dio; haserreak lehiakideak edo etsaiak izutzen ditu; tristurak errukia erakartzen du eta taldearen elkartasuna...

Zoriontsu izateko, aurrena, benetan nahi behar zara zorionaren alde deliberatu. Eta horixe da Saizarbitoriaren gizonezkoek egiten ez dutena. Ondorioz, axalekoak eta hauskorrak izaten dituzte bolada zoriontsuak, inertziak eta txiripak ekartzen baitizkiete, ez erabaki irmo batek.

HERIOTZAREN BELDURRA

Hiru dira Saizarbitoriaren protagonistei gogorkien erasaten dieten pasioak: errua, jelosia eta beldurra. Hiru eleberri potoloei buruz esan liteke, apur bat artifizialki bada ere, indartsu baitarakuskite eta nahasirik hiru sentimenduok, *Hamaika pauso* oroz lehen beldu-

rrari dagokiola, *Bihotz bi. Gerrako kronikak* jelosiari eta *Martutene* erruari.

Ematen du pasio gaizto horietako bakoitza denbora gezi bati lotzen zaiola: iraganetik letorkiguke errua, orain nozitzen duzu jelosia eta beldur nagusia heriotzari beldurra da, ezinbestez datorkigunari. Ordea, interferentziak dauzkagu: Entziklopedistak «nostalgiaren nostalgia» sentitzen du, «maiteminaren itzulera sentitzeko desioa»; Abaitua ginekologoa, berriz, txitxarroen txikizioan ikusi bezala, orain txarto egoten da etorkizun zehaztugabe batean paira omen lezakeen erru sentimenduagatik; ginekologoaren eta Martinen jelosia, bestalde, erretrospektiboa da batik bat; eta beldurra, azkenik, iraganetik datorkigun beste eskrezentzia bat ere bada, garaiz kanpo baitabil gure baitan. Fusilatua izatera doanari alferrikakoa zaio pixak irten dakion. Beldurra gorputzaren erantzun fisiologikoa da zemai erreal edo alegiazko bati: izerdi hotza bekokian, bihotz taupaden bizkortzea, begi niniaren dilatazioa, tentsioaren jaistea, kaka egitea... Erreakzio horiek ondo zetozkigun hartzaren mehatxutik ihes egiteko, piztia gosetuaren atzaparra labaindu egiten da gizakiaren beso ikaraz izerdituan, baina sobera ditugu gaur egun beldurra eragin ohi diguten trantzee-

tan, ia denak pantailari begira eserita pairatuak. Are desorekatu, ergel eta patetikoagoa egiten dute gizakia. Bestelako erantzunak beharko genituzke. Saizarbitoriak aipatzen duen beldurraren beste ondorio honek ez dirudi gizakiarentzat oso praktikoa, ez iraganean ez orain: «Ideia finko eta zentzugabeen sareetan preso» uzten baikaitu eta pentsatzea eragozten digu, estualditik libratzeko beharrezkoen litzaigukeelarik.

Heriotzari dagokionez, alde batetik, animaliengandik zerk bereizten ote gaituen aukeratu behar izanez gero, Saizarbitoriak funtsezkoagotzat jotzen du, arima edo mintzamena baino, hiltzeko garela jakitea. Gizakia bere hildakoak ehorzten dituenez geroztik da gizaki, eta «haurrak heriotzaz jabetzearekin hartzen du bere indibidualtasunaren kontzientzia».

Bestetik, litekeena da, *Hamaika pauso*-n iradoki zaigunez, heriotzaren ikarari buruzko gogoeta batek garrantzi berezia izana Saizarbitoriaren bilakaera ideologiko pertsonalean. Garai batean, Saizarbitoriak hitzaldi marxistak ematen zituen. Halako batean, ohartu zen heriotzaren angustiaren inguruko ohiko ikuspuntu marxistak ez zuela asetzen. *Hamaika pauso*-n, Abel Osa maoista ortodoxoarentzat, heriotzaren beldurra sentimendu indibidualista eta intsoli-

darioa da, zinezko problemarik ez duenaren problema, burgesiak bere elkartasun ezagatik ordaindu beharreko penitentzia. Gainera, heriotzak berak baino gehiago heriotzaren inguruko liturgia ilunek ikaratzen ei gaituzte: hilbeila, lutoa, katafalko izugarriak, Jainkoaren hira, «kandela luzeen argi espektrala»... Erlijioek sartu digute heriotzaren ikara bihotzean. Apaizek hedatu dituzten sineskeria eta zeremonia goibelengatik ez balitz, naturaltasunez onartuko genuke heriotza, beldur barik.

Abaituaren iritziz, berriz, apaizak heriotzaren ikaragarria erabiltzera mugatzen dira, ez dira heriotza ikaragarri izatearen errudun. Iraultzailerik engaiatuenak burgesik egoistenak bezain ankerki senti dezake heriotzaren beldurra. Beldur hori baretu eta exorzizatzeko sortu dira liturgiak. Erritu eta espektraltasun guztia kendu ondoren ere, «isil eta izugarri» litzaiguke heriotza, «inoiz baino izugarriago, beharbada. Haur abandonatuenak ez du bere eskuetan beste esku bat sentitzeko premia handiagorik, hiltzear dagoenak baino».

Saizarbitoriarentzat, ikaragarria ez da hiltzea, gertaera bera, baizik hil behar dugula aldez aurretik jakitea. Krudela da gizakia bere hilkortasunaz jakitun iza-

tera kondenatzen duen patua, tristea heriotzaren irudiak kutsatutakoaren bizimodua. Abaituaren baitan lotuta daude heriotzaren beldurra eta bizitzarena. Halatan, ez da heriotzaren aurka matxinatuko; aitzitik, etsipenez makurtuko da heriotzaren aurrean. Eta heriotza goitik behera eta umilki onartzearekin batera gaindituko du edozein beldur.

6
Euskaldun

Saizarbitoriaren ustez, ezinbestekoa da oroimen komuna giza talde bat nazio bilaka dadin. Alta, ez du garrantzi handirik oroitzapen horiek errealitate historikoari dagozkion ala asmatuak ote diren; nazio guztiak, handienak barne, oinarritzen baitira gizaki desberdinen identifikatze prozesu mito-poetikoetan. Nazioa, azken batean, emozio, oroimen eta amnesien batuketa baita. Hori bai, Saizarbitoriak, nazioa pentsatzeko orduan, naturalismoa eta etnizismoa baino nahiago ditu izan nahia eta eragin politikoa, egunerokо plebiszitua.

Nobelagileak dioenez, hainbat ezaugarritan gara hegoaldeko euskaldunak patata tortilla baino espainolagoak. Guri ere ezin hobeki aplika lekiguke Ortega y Gassetek espainolez zioena, alegia, gure irudimenaren ahuleziak eraginiko iraultza bitxi baten erruz iraganari buruz egiten dugula amets, etorkizunari buruz

egin beharrean, azken hau emankorragoa litzatekeen arren.

Euskarari laguntzeko ekin zion Saizarbitoriak idazteari. 1966ko urtarrilean *Ez dok amairu* taldearen lehenbiziko donostiar emanaldia aurkeztu zuen, Victoria Eugenian. Hauxe esan zien oholtzatik ikus-entzuleei: «Gazteak, izan zaitezte *yeye* edo nahi dezutena, baina lehenen eta beti euskaldunak».

Joxe Zuazalagoitiari eta Abaitua biei txikitan behar bezalako euskaldunak izateko agindu zieten, «hau izango da gudaria», «y no te olvides de que eres vasco»; baina ezin dituzte igurikimen horiek bete, ez dute maila ematen, ez dute superniaren exijentzia etikoa asetzen, eta ondorioz, Freudek *Egonezina kultura*-n erakutsitako ezinbestekotasunaren arabera, erru sentimendua pizten zaie. Abaitua ginekologoaren gogoeta: «[y no te olvides de que eres vasco] oharra laburtezina zen, osotasun inplizitu bati lotzen zion hasierako kopulatiboarekin. Agindu hura ‘ez duzu hilko’ bezalako mandamentu apodiktikoen zamaz ezarri zitzaion kontzientzian. Euskaldun ona esan nahi zuen, langilea, noblea, emandako hitza betetzen duena, zintzoa norbere buruarekin eta norberaren gainetik dagoen kolektibitatearekin. Ez ahanztea erremediorik

gabe garena. Itoan jartzen duen zama identitario bat, zeinaz ez den inoiz guztiz libre sentituko, zeinaz ezin den libratu errudun sentitu gabe».

Hamargarren atalean luzatuko gara erruaz, dakusagun orain zer datorkigun gerra zibiletik, laugarren atalean honako honetarako gorde dugun Loxeta baserriko zakurraren bitartez.

GERRA ZIBILA

Oroimena orainaldian jokatzen dela diote San Agustinek eta Karlos Linazasorok. Alabaina, oroitzapen mingarri batzuk ezin dira gainditu, ezin zaie buelta eman. Traumaz gerozko egun guztiak pozoitzen dizkizute, hiltzeko tenorea heldu arte. Saizarbitoriak *Gudari zaharraren gerra galdua*-n gudariaren ordulari zaharraren behin betiko gelditzeaz adierazten du ezin aurrera jotze hori. Duela berrogei urtez geroztik inongo arazorik eman ez dion arren, gaur goizeko lau eta erdietan kolapsatu zaio Omega eskumuturrekoa (Abaitua idazlearenaren berdina), berrogeita hamar urte lehenago hanka galdu zuen ordu berean: iragarpen makurra, balbea.

Gerra galdu arren, ondoren beren buruarekin bakean biziko direnak Amiano adiskidea bezalakoak dira, kontalari onak. Goitik behera sinesten dute beren buruari eta besteei kontatu dietena: gerra galdu genuen baina duintasuna ez. Une oro egin genuen egin beharrekoa, esaterako Santoñan. Eta abar. Amianok ez du onartzen azalera garden hori lausotuko dion galdera edo zalantzarik. Ondorioz, gudari zaharrak ez dizkio galdera eta zalantza horiek adieraziko, beharra sentituko badu ere maiz. Lagun taldearen adostasuna arrakalatzen duten eta arrotzak zaizkion pentsamendu horiek barneratu egiten zaizkio, itsatsi: «Amaiera arte borrokatu behar genukeen Santoñan, edo Errepublikari errendizioaren berri eman, behinik behin». Are: «Gerran sartu izan ez bagina, hobe». Saizarbitoriak, bere izenean eta jendaurrean, Amianoren mintzamoldea darabil. Idatziz, berriz, jarrera bikoitza darakutsa: Amianorena zein gudari zaharrarena. Dena den, eta egia baldin bada gure barne muinera iristeko nahitaezkoa zaigula gizarte presiotik askatzea, baliteke sakonagoa izatea gudari zaharraren sentimenduak dauzkan Saizarbitoriaren arimako tolesa.

Gerra ostean leku madarikatua izan zen Burgos galtzaileentzat. Gudari zaharrak, Amianok eta beste

derrotatuek sufritu egin zuten Burgosen. Lagun ugari fusilatu zizkieten. Angel Otaegi eta Daniel Zabalegi ere inguru hartan fusilatuko zituzten. Amianok eta gudari zaharrak elkarri hitz emana zioten inoiz ez zirela Burgosera itzuliko. Hala ere, Adolfo Suarezek adierazi berri du gerrako zauriak sendatu behar direla; elbarri gelditutako galtzaileei ere pentsio bat jasotzeko aukera eskaini die. Hasiera batean, gudari zaharrak hitza jan eta Burgosera joateko asmoa adierazten dio Amianori, hau nahigabetuz. Dokumentu eta akta korapilatsuak bete behar ordea, lekukotza eman behar notarioaren aurrean. Notarioa desesperatu egiten da gudari zaharren kontakizunekin. Hauentzat hil ala bizikoak izan ziren xehetasunak ez zaizkio interesatzen, hari burokratikora jo nahi du beti lehenbailehen.

Bestalde, gudari zaharrak Burgosen ere muinoia erakutsi beharko lioke medikuari. Aurretik prostituta bati dio erakutsia; eta azken aldian medikuari, azukrearen erruz zauria gaiztotzen ari baitzaio. Umiliagarria zaio benda erantzi beharra, «muinoi itsusia noiz azalduko zain», ez du inoren aurrean berriro biluzteko gogorik.

Halatan, Burgosera beharrean hanka galdu zuen ingurura hartuko du Donostiatik taxiz, Elgeta ondoko

Aszensiora. Taxian doala, Omega ordularia betiere lau eta erdietan, gerrako oroitzapenak datozkio eta bide ematen die. Frontea sei hilabete eta erdiz egon zen geldirik Asensiomendin eta Intxortan. Trintxeratik gudariak Uberako ibarreko Loxeta baserria ikusten zuen, eta hango alaba Miren. Heinkel eta Junker-en bonbetatik babestera baserri ondoko zumardi batera joaten ziren Loxetakoak. Maitasunak bultzatuta, hantxe elkartu ziren behin batean gudaria eta Miren. Aurrerantzean, goizeko bederatzietan eta arratsaldeko lauretan eta seietan Miren baserriko atarian zapi bat astintzen agertzen zen, gudaria maite zuela adierazteko.

Loxetan, Mirenen gurasoez gain, amona itsua ere bizi zen. Bazuten, halaber, zakur txiki bat, zaunka bortitza zuena, «eta zorrotz entzuten zen inguruko isiltasunean.

«Halako batean, zaunka haren oihartzun izugarria bailitzan, zerua urratzen entzun zen iparraldetik hegoaldera. Eta konturatzerako, Heinkel 51 batek ibarra gurutzatu zuen eskuinetik, Intxorta gainetik, berriro ere goitik behera eginez itzultzeko. Eta lurretik metro gutxira, hegoetatik zerion sua Loxetatik zumardirako bidean barreiatu ondoren, etorritako norabidean desagertu zen atzera, airean urruma moduko bat utziz,

zakurraren zaunkak laster bentzutu zuena; Julienen gorputzetik emaztearen gorputz ondora korrika zakurra, batetik bestera –ahoz gora etzanda baitzeuden biak, hamar-hamabost metroko bitartean–, etengabe zaunkaka eta korrika, zeinen ondoan geratu ez zekiela».

Prismatikoekin zekusan gudariak trintxeratik baserriko zakurra aitaren gorputik amarenera eta buelta, erotuta. Ondoren, zumarditik baserrira ekin zion zakurrak atzera eta aurrera. Gudariak irudikatu zuen Miren zumardian ezkutaturik egongo zela, eta amona itsua baserri barruan.

Orduan erori zen hanka eramango zion bonba. Frontean bertan ebaki zizkion doktoreak belauna eta berna elkartzen dituzten zainak, hobeto bildu eta odolustu ez zedin, eta gudaria Elorrioko ospitalera eraman zuten anbulantziaz. Bien bitartean, Amianok hanka hartu eta Aszensioko ermitan lurperatzeko asmoz abiatu zen. Etsaien esku zegoen arren, leku sakratua zen, bederen. Baina handik berrehun metrora ehortzi behar izan zuen, lurra baionetaz zulatuz.

Bien bitartean, gudariak ezin zituen gogotik aienatu Uberako irudiak, zakur zaunkariaren joan-etorriak gorpuetatik zumardira.

Gudariak Basurtuko ospitalean jakin zuen Mirenek, gurasoak galdu ondoren, amona Elgetaraino igo zuela, eta han, apaizak etxean babestu zituen arren, mairuek hil zutela. Soilik orduan etengo zen buruan etengabe errepikatzen zitzaion irudi segizio hura: «Mirenen gurasoak belardian etzanak, eta zumardia eskuinera; zakur zaunkaria senar-emazteen gorpuetatik zumardi barnera, eta handik, zaunka egiteari utzi gabe, atzera gorpuengana, behin eta berriz azalduz eta desagertuz, lasterka». Hori guztia da notarioak eta burokraziak baztertu nahiko dutena.

Bihotz bi. Gerrako kronikak-ek euskaldunen aurkako Francoren mairuen ezegitekoen beste adibide bat dakar, era berean Elgetan kokatua. Francok harrapaketa eskubidea eman zien hartzen zituzten herri guztietarako. Francoren mairuak Elgetako etxe batean sartu eta gurasoak eta hamabost urte inguruko alaba aurkitu zituzten. Gurasoak neskaren aurrean hil zituzten, eta gero neska bera harrapatu nahi izan zuten, «bortxatzeko noski, ‘ze, badakizue nolakoak diren mairuak’ esaten zuen Klaudiak, eta neskak ganbarara egin zuen ihes, eta hango leihotik sorora salto egiteko zegoela, eskuak leiho barrenari helduta eta gorputza kanpora zintzilik jada, mairu bat iritsi, aihotzaz jo, eta

hiru hatz, hiru luzeenak, erpurua eta txikia ez beste guztiak, erakuslea, erdikoa eta nagia moztu zizkion. Neskak, sorora erori edo jauzi, ez dakit, eta arto artean korrika ihes egitea lortu omen zuen».

Gerraz geroztik gudari zaharra ez da Aszensiora itzuli. Orain taxitik jaitsi, eta, ermita aurrean duela, hanka gutxi gorabehera non egon litekeen kalkulatu eta lurra aterkiaz zulatzeari ekiten dio. Arratsaldeko eta Omega zaharreko lau eta erdietan bihotzekoak jo eta hil egiten da. Biharamunean, hedabideek albistea zabaldu eta inguruko jende mordoa igoko da ermita inguruetara lurra zulatzera, batez ere gazteak, gudari zaharrak hasitako bilaketari jarraituz, zehazki zeren bila ote dabiltzan arrastorik ere ez duten arren.

ZENTZUA GALDUTA JO ETA KE

Gudari zaharraren aterkikada lur-zulatzaileak bere patu ankerraren aurkako astinaldi protestazkoak dira. Gazteen bilatze itsuak, berriz, belaunaldien arteko transmisioaren porrota darakutsa. ETAk ez zuen artez interpretatu gudari zaharren jarduera eta aiurria. Gazteek amore eman zioten zaharrentzat garai batean

nolabaiteko zentzua izan zezakeen ekintza mota errepikatzeko bulkadari, taldeetan banakoengan baino aiseago kutsatzen den inertziari: gero eta gehiago, gero eta amorratuago, nahiz eta zertarako jakin ez.

Indarkeriaren eta indarkeriari eustearen aurkako Saizarbitoriaren testu ugarietako bat da «Mendeku ezinezkoa», 1993koa. Hor dioenez, herri bati minik handiena ez dio irainak egiten, baizik eta ukazioak. Ukazioa psikopatogenikoa izaten da. Halaxe gertatu da gurean. Txikiak garenez, oso gaude auzokoen iritziaren menpe eta ondorioz minberak gara, biziki da zaurgarria gure harrotasuna. Eta mendekuaren zereginetako bat «harrotasun zauritua berreraikitzea» denez gero, ulergarria da guk arrazoia ahuleziatzat jo eta mendekua gorestea, «gure amets maitatuena mendekuaren eguna izatea».

Benetan dagiguna, haatik, dio Saizarbitoriak 1993an, ez da ezta mendekuaren zoramenaren eskutik hondamendira zinez abiatzera ere iristen. Hemen lotzen ditu zentzua galdu duen erituaren errepikatzea eta indarkeriari laguntzeko ekitaldi abertzaleak. Hauetan, izan ere, mendekua erritualizatzera mugatzen gara, mendekatiaren neurosia imitatzera. Gure teatro zahar honetan armetan legokeen herri baten

itxura egiten dugu, antzerkia gero eta traketsago antzeztuz. Galdua dugu ekintza politikoaren zentzua, orobat meza santuaren oinordeko zuzena den ospakizun abertzalearena, eta hala ere jo eta ke berriz eta berriz lurra zulatu eta zulatu gabiltza, zeren bila ahaztu zaigun arren.

Heideggerrek ez du oso modu desberdinean interpretatu Nietzscheren botere nahia. Nahiaren nahia da funtsean, inguru lehiakor batean iraun eta hazteko nahi immanentea. Gure zibilizazioaren joera orokorrak edozein jardueraren azken zentzua galtzea adierazten du. Horixe litzateke nihilismoa. Zentzu horretan, Alain Renaut eta Luc Ferryk diote Descartesek gizakia naturaren jaun eta jabetzat jo zuela, ikuspuntu hori Ilustrazioaren garaiko hainbat pentsalarik bere egin zuela, eta giza ekintzari oinarrizko zentzu bat ematen ziola ikuspuntu horrek, alegia, gizakiarentzat askatasuna eta zoriona erdiestea, garai haietan xede horiek gogoan zihardutela. Orain, ostera, jardunean jarraitu ahal izateak mugiarazten gaitu, jardutearen azken zentzua eta nahiaren jomuga lausotu eta desagertu den arren. Enpresek lehia basatiak hondoratu ez eta lehiatzen jarraitu ahal izateko ateratzen dituzte tai gabe produktu berriak, ezen ez jendea libre eta zoriontsuago izan

dadin. Alderdi politikoek programaren gainetik jartzen dute boterea eskuratzea, bertan irautea eta ekonomiari ahal bezala eustea. Inertziazko jardun amorratua betiere, eta xedea zokoan.

ESKER ONA ZABALDU?

Lagun taldearen adostasuna arrakalatzen duten gudari zaharraren zalantzak eta pentsamendu arrotzak gorabehera («gerran sartu ez bagina, hobe»), Saizarbitoria esker oneko zaie gerra zibilean gure arbasoek erakutsiriko duintasunari eta zintzotasunari. Gerra galdu arren, abertzaleen oinordekook filmeko onen seme-alabak izateko abantaila dugu. Aldeko dugu gerra zibilaren kontakizunetik datorkigun haizea.

Irabazleen seme-alabek, berriz, zauri moral bat eraman behar izan dute: nagusitu den narrazioak gaiztoen bandoko egin ditu, historian irabazi zutenen aurkako narrazioa gailendu baita irudimen kolektiboan.

Bestelakoa da Uriarte espioiaren ikuspuntua Edorta Jimenezen *Kilkerren hotsak*-en: gerran etsaia hil

egin behar duzu, hil zaitzan baino lehen. Kokolo hutsak dira zintzotasunaren izenean gerran errukitsu dabiltzanak. Begira bestela Mallona Mundakako alkate jeltzalearen kasua: anarkisten balizko gehiegikerietatik babestu zituen faxistek berek agintea eskuratu bezain laster fusilatu zuten Derion.

Mallonak ezikusia egin zuen eskuindar askok Mundakatik isil-gordeka itsasontzi nazi batera ihes zegitelarik. Uriartek uste du Mallonak ezkutatu zituen haiek guztiak hil egin behar zituela; horrela ez zuten beraiek hilko. Bere gupidaz trufatu ziren.

Litekeena da Mallonak nahiago izatea kristau jokatu eta hil, «errukia ala hil!» aldarrikatu, burua tente eta duinki, etsaia bezain makur eta bekatari ibili baino.

Aurrena katolikotzat baitzuen bere burua, eta soilik hurrena abertzaletzat. Aldiz, faxistak, Uriartek uste duenez, aurrena faxista izaten dira, eta gero apika baten bat katoliko. Bestalde, katolikoa ez da berez errukitsu. Azken batean, katolikoek eta faxistek egin dituzte kirtenkeriarik odoltsuenetakoak historian.

Nolanahi ere, Saizarbitoriaren eta Jimenezen ikuspuntu desberdinak gorabehera, eztabaidaezina dirudi kristautasunaren interpretazio jakin bat abertzaleen

gerra-jokabide errukitsuaren muntazko eragile bat izan zela.

Saizarbitoriari abertzaletasuna karga izan zaio, garai batzuetan asfixiagarri, baina gaur egun distantzia egokiz begiratuta aztertu eta salbatzeko moduko aldeak aurkitzen dizkio. Erlijioari dagokionez, ostera, beti izan da trinkoa idazlearen arbuioa. Jakina, apaizengandik jasotako jipoiek, beldurrak eta erru sentimenduak eragindako blokeo psikologikoak ez du distantzia egokia hartzen laguntzen. Ordea, aztertuz gero nondik etorri zitzaien buruzagi jeltzaleei gerra gordinki galduagatik ere duintasunari eta zintzotasunari eusteko bultzada, bistan da kristautasunaren garrantzia. Agirre, Ajuriagerra, Irujo...: kristauak ziren goitik behera Saizarbitoriaren esanetan euskaldunok hondamendi moraletik salbatu gintuzten buruzagiak. Alegia, nobelagileak, behin autokritika egiten hasiz gero, eta orain arte erakutsi duen logikaren arabera, ez al luke kristautasunaren aurka erakutsi izan duen zirrikiturik gabeko arbuioa berraztertu behar eta esker onez aitortu, gerra zibilean gure arbasoek erakutsi zuten garbitasuna hein batean kristautasuna ulertzeko abertzaleen erari zor zaiola?

Ez baldin badu egin, apika izango da abertzalea baino gogorrago txertatu zaiolako kristau azpiegitura. Fraideen zartakoen eta eliza frankistaren kondena baino geruza sakonagoak harrapatzen ditu kristautasunaren aurkako Saizarbitoriaren benetako borrokak, bere gogoaren funtsa kutsatu bide baitu.

Saizarbitoriaren zenbait protagonistaren korapiloek Erich Frommek marraztutako kristautasunaren bilakaera gomutarazten dute; garbi nabari da Abaitua idazlearen jarreran Juliarengana zein Abaitua ginekologoarenean Lynnengana: hasieran, Jainko Aita zorrotza gailen, kristauak uste zuen soilik bere burua zigortuz eta sufrituz lor zezakeela Aitaren barkamena, Hari huts eginaren erruagatik; ondoren, graziaz beteriko Amak bereganatu zuen Jainko Aitaren tronu sakratua, eta Amatxok kristaua errugabetzeari ekin zion, bere altzoan babestuz eta bularra emanez. Kristauak Aitaren aurkako etsaitasuna utzi, Amak maitatutako umearen fetu jarrera hartu eta otzantasun pasibo masokista batera makurtu zen. Yahvek garaitua zuen Ama Handiarenganako itzulera izan zen katolikotasuna; eta protestantismoa, ostera, Jainko Aitaren berpiztea.

Gizabanako bakar batengan, jarrera horiek eritasun psikiko larri bat adieraziko lukete. Ordea, milioika laguni eragin dietenez mendez mende, ez dira perturbazio patologikotzat jo izan, eta abaituatarrak kaletik trankil ibil daitezkeen neurotiko arruntzat ditugu. Edonola ere, ez dute beren burua maite; ezin dute maite, bederen, kristautasunak markaturiko beren barne muin hori. Nekez erakutsiko dio Saizarbitoriak inongo esker onik hain gori-gori dauzkan marka horiek ezarri dizkion errementariari.

TXOKOAN

Euskaldunaren nortasunaren muina bera dakusa Saizarbitoriak iraganari lotuegi. Libido kopuru handiegia du euskaldunak iraganean finkaturik; zehazki, aho aroan. Freudek dioenez, genitaltasuna eragotzirik delarik, sublimazioa izan liteke irtenbide bat, eta beste bat itzulera genitaletakoa baino lehenagoko libidoaren finkapenetara, dela uzki arora, dela aho arora. Eta nabarmenagoa omen da oralidadea euskaldunen artean inguruko herrietan baino.

Entziklopedistaren eta Abaitua idazlearen kexuaren arabera, euskal emakume idor zorrotzak ez dio bide egokirik ematen gizonaren sexu beharrari; honek, ondorioz, atzera joko du, neurriz gain jatera, txokoko lagunartera, mantala jantzi eta lapikoari grazia handiz eragitera, pixkanaka tripa handitu eta biribilduz, emakume haurdunarenarekin berdindu arte zazpigarren hilabetean. Bat datoz J.J. Lasa eta Abaitua: tristea da sexurik ez izatera kondenatutako gizonaren patua, edozein maitasun adierazpen eragotzi zaiona, lagunentzako afariak prestatzeaz gain.

Gizon euskaldun prototipikoaren giltzarria trabestismo ezkutu batean genuke: emakumeagandik ihesi doa txokora, baina emakumearen itxura eta zereginak bereganatzera: mantala jantzi, eltzea astindu, haurdunaldian bezala tripa gizendu. Abaituak «Hamaika pauso»ko pasarte batean Daniel Zabalegi darakutsa bere adiskideei afaria ematen, «urduri, amorante baten baietza itxaroten bezala haien iritziaren zain, eta oso ona dagoela esaten diotenean irribarre egiten du erabat pozik, haur saritu baten antzera».

Saizarbitoriak hizkuntzaren eraginaren arazoa ere planteatzen du sexu jokabidean, baina ez dio erantzuten: «Hizkuntza batean edo bestean hiztun izateak al-

datu egiten al zuen gizonaren portaera sexuala? Batbatean, guztien aurpegiak berarengana bueltatu ziren. Zer esaten zuten euskaldunek hazia isurtzerakoan?»

EUSKARAREN GARATZE LARRIA

Saizarbitoriak 1999ko uztailean hitzaldi bat eman zuen UEUn; *Aberriaren alde (eta kontra)* liburuaren ernamuina izan zen, bere saiakera pertsonal luze samar bakarra. Egun hartaz oroitzen naiz: hura beru! Frantziako Itzulia genuen. Kulturako jende franko sartu zen hitzaldian etapa amaitutakoan, hitzaldia hasia zela beraz. Batzuek eseri, zapata-galtzerdiak erantzi, galtzerdiak zein bere zapatan sartu, eta txukun-txukun ipini zituzten oin biluzien alboan. Juan Garzia loak hartzen zuen lantzean behin, eta Saizarbitoriak irakurraldia eten eta «esna hadi, Garzia!» oihu zegion. Halako batean, hamabost gaztek alde egin zuten, Paulo Iztuetaren hitzaldira. Bazihoazela, Saizarbitoriaren gaztigua: «Segi, segi, baina oraintxe bertan dator hain zuzen interesgarriena!».

Hitzaldia amaitutakoan, galderak. Andolin Eguzkitzak itaun erraz bat egin zion, elkarrizketa abiaraztekotan edo, baina Saizarbitoriak, hain zegoen aspertua eta nekatua bere buruaz eta bere ahotsaz, ez zion tutik ere ulertu. Boxeolari zoroa zirudien. Irteeran, gainera, kazetari andana aiduru. Urteak eta urteak behar izan ditu hura ahantzi eta beste hitzaldi bat ematera ausartzeko. Aitzakiak asmatu izan ditu: «Mintzatzea zikina da, idaztea garbia».

Hitzaldian zehar erne-erne egon nintzen, guztiz harriturik Saizarbitoriak bere nekea ezkutatzeko ez zuelako inolako ahaleginik egiten. Izan ere, oro har, jendaurrean, itxura nolabait bizkorra eman nahi izaten dugu, ganoraz eta tente agertu; hori da ohikoena. Saizarbitoriaren jarrera, aldiz, oso lantzean behin ageri den jakintsuarena da: hain osotoro onartzen du bere burua, ez baitu inolako ahaleginik egiten bere egoera, denik eta mudurriena izanik ere, disimulatzeko. *Aberriaren alde (eta kontra)*-n ere, bidenabar esateko, zintzotasuna gizartea eta gizabanakoak diren bezalaxe onartzearekin uztartzen du behin eta berriro. Eta dialektiko zorrotza bada ere, aurkezten du tesia, aurkezten du antitesia, baina nekatuegi gelditzen da sintesiraino iristeko, edo ahantzi egiten zaio.

Hitzaldi hura jasotzen duen liburuak, aspaldiko susmo bat, anormala naizela, egiaztatu egin dit. Zeu ere halakoa zara, ez pentsa. Euskararen egoera anormalak egiten gaitu anormal. Eta, normaltasuna helburu, norberaren anormaltasuna onartzea ezinbestekoa da, kaltegarria bezain barregarria normal itxurak egitea. Geure kultur errealitate ahula neurriz kanpo dago plazari begira puztuta. Badoa Saizarbitoriaren alaba Donostiako eskolarekin Bilbora, galdu egiten da eta ertzain bati itauntzen dio: «Mesedez, non dago Arte Ederretako Museoa?» Txapelgorriak: «Chavala, no me vaciles». Negarrez hasten da neskatxa. Hara gure egoera. Kataluniak berak ere ez digu balio erreferentzia gisa. Alboko estatuen ponperia imitatzen saiatzen garelarik, patetikoak gara. Saizarbitoriaren ustetan, aitzina egitekotan daukaguntxoa aintzat hartu behar dugu, bertatik abiatuta egin urratsak, irudimenez baina zuhurtziaz. Zehazki, eleberria tresna egokia izan liteke euskararen ataka petralak euskaldunoi dakarzkigun pasadizo tragikomikoak adierazteko (edo telebista programa berezi bat). Baina errealitatea gero eta eleanitzago ari denez bilakatzen, eleberriari ere gero eta zailago zaio hura islatzea. Saizarbitoriak dioenez, euskal literaturak, geure zirkunstantziaren is-

pilu edo adierazpen izan nahi badu, bizpahiru hizkuntza eta pidginen bat, beharko ditu erabili.

Nobelagileari frustragarri zaio euskaratik erdarara igaro beharra, eta txikitandik ez du euskaraz bizi ahal izatea besterik desio izan. Haren iritziz, nazionalismoa ezinbestekoa izan da euskarak iraun dezan; aldi berean, euskarak izateko arrazoia eman dio nazionalismoari. Hala ere, euskara zabaldu eta sendotuko bada, heldu da ordua nazionalismoaren eta euskararen arteko lotura hausteko, nazionalista ez direnek ere berengana dezaten. Euskara politika iskilu gisa erabiltzeak, horrenbestez, kalte baino ez dio egiten bere estatusari.

Ordea, euskararen desideologizatzeak beldurtu egiten du Saizarbitoria, euskaltzaletasuna ahul bailezake. Azpigarapenaren eta garapenaren artean dago euskal kultura, krisi gorrian, eta hizkuntzarenganako betiko engaiamendua berritu beharra dago. Bakoitzak nahi duen hizkuntza erabiltzeko printzipioa soilik itxuraz da liberala eta tolerantea. Nagusituko balitz, euskararenak egingo luke. Are gehiago, ez genituzke gaztelaniatik eta frantsesetik maileguak errazkeriaz irentsi behar, bi hizkuntza horiekiko morrontza psikolinguistikoa hausten ahalegindu beharko genuke.

Txikitasunak, bestalde, abantailak ditu, eta homologatzeko amorruak abantaila horiek bazter litzake: adibidez, kultura txiki batean, idazleak errazagoa du zintzo izatea, merkatuaren eta kritikoen tiraniatik libre sortzea; halaber, kultur kezka zein idazteko grina sakonagoak izaten ohi dira kultura txikietan. Saizarbitoriak berak ez ziokeen eleberrigintzari ekingo baldin euskararen egoera oparoa izan balitz.

Liburuan barrena, Saizarbitoriak errieta degie abertzale itsuei, errieta ustezko antiabertzaleei, eta, oroz lehen, bere buruari; horregatik ez du inoiz nartzisista ematen, bere buruaz sarritan mintzo bada ere. Enpirista erradikala da: aurrena bere sentsazio-eskarmentua hartzen du aintzat, gero datu soziologikoak eta azkenik ondorio arraro batzuk ateratzen ditu (esate baterako: «Euskara jalgi hadi mundura» kultura homologatu batean gurari berez arteza, geurean egitez «euskara jalgi hadi Euskal Herri osora erdaraz» bilakatzen da; ondorioz, anitz euskal idazlek erdarara desertatuko ei du). Ezinezkoa da Saizarbitoriarekin erabat ados egotea, baina ezinezkoa da halaber punturen batean bederen bat ez etortzea.

Stanley Kubrickek zioen nazio handiek gangsterrek bezala jokatu dutela beti, eta nazio txikiek prosti-

tuten antzera. Saizarbitoriari, alde batetik, jasanezinak zaizkio beren buruan zorri nazionalistak sumatzen ez eta hedabideetatik besteen bartzak arenga belikoz ito nahian dabiltzanak; oharkabekeria horrek nazionalismorik gaiztoenean ditu amiltzen, inperialista kutsukoan. Espainolez zein frantsesez, ingelesaren nagusitasunaz esanak aditurik, aise irudika liteke ikaragarria litzatekeela ofizialki nazionalistak ez diren horien jarrera baldin beren hizkuntzak euskararen kinkan baleude. Saizarbitoriaren iritziz, gatazkon aurrean jarrerarik zentzuzkoena nork bere birus nazionalista onartzea da, organismoak bere antigorputzak gara ditzan, osotasuna ondorioz osasuntsuagoa eta lasaiagoa bilakatuko baita.

Hortxe dira, haatik, Saizarbitoriarentzat abertzaletasunaren apurtzailerik eraginkorrenak direnak, alegia, zenbait abertzale zoro; halakotzat ditu adibidez «hiritartasun» kontzeptua berritu nahian dabiltzanak, boto eskubidea nori onartu erabakitzeko. Halakoek uxatu omen dituzte behinola euskarara hurbiltzen hasirikoak.

7
Zubia

ETA, AITA

Saizarbitoriaren obran ez dago garbi bereizterik trauma pertsonala eta trauma kolektiboa, protagonistek beren baitan daramatzate herriko gatazkak, bururatu ere ez zaie egiten salbabide soilik indibidualaren aukera. Dena den, protagonistaren aita eta ama iraganetik oraina itotzera datozkion mamu iturri izaten dira, sarritan nahigabeko oroitzapenen bidez adieraziak. Ohiko protagonistaren aita gudari ibili zen gerra zibilean eta bai aitak eta bai amak nahiko dute semea ere gudari izan dadila, zama itzela protagonistaren bizkarrean, ez ditu-eta heroiaren ezaugarriak; aitzitik, flux, koldar eta gizajoa izaten baita.

Ehun metro-k Donostiako Konstituzio enparantza laukizuzena aurretik izana zen zezen plaza gisa berpiztu eta Joxe Zuazalagoitia etakidearen azken ehun metroak kontatzen dizkigu, odoluste geldoa, hil arte.

Nobela odolak melatuko du goitik behera, behin eta berriro errepikatuko den kantaren hitz ingelesak, frantsesak eta euskaldunak lekuko. Lur biribila odolez blai dabil bere ibili biribilean; era berean, denbora biribilean kiribilduko den *Ehun metro* osotoro zipriztinduko du odolak. Joxe Zuazalagoitia etakide protagonista hil ondoren ume batek esango du «ni ere hil egingo naute handia izatean», uso batek galtzada harrietako haren odol beltzari mokoka degion bitartean.

Edozelan ere, odolustuz doan etakidearena kasu partikular ezdeus bat izango da Lur odolduaren baitan. Lurrak biraka jarraitzen du, giza odola gorabehera. Jendartea, bere aldetik, ez da batere maitagarri ageri nobelan: Joxe eta Michele Mannasé tabernara sartu eta parrokianoen «titi tontor politak zeuzkak» eta antzeko iruzkin bulartsuak, soilik Joxe euskalduna dela ohartu arte. Bestalde, txutxumutxuaren eta morboaren azpian, Lurra bezain ezaxola da gizartea odol isurtzearen aurrean: Joxeren heriotzaren biharamunean, batek «hortxe plazan kiskali zitean» dio, eta beste batek erantzun: ba nik «ez diat begirik itxi erreuma zikin honekin».

Dena den, balirudike badela odol putzu orokorretik zein gizartearen ergelkeria hotzetik salbatzeko

bide bat: maitasuna. Historia odoltsutik amodioaren goxora igarotzeko giltza bat behar, eta *Ehun metro* honek Micheleren giltza erakutsiko digu, M larri bat soldatua duena, iheslariak lepoko batean zintzilik daramana.

Alta, bada beste protagonista bat, Filosofia ikasle bizarduna, ekintzaile lasterkariaren heriotzaren lekuko geldia, Zamudio tabernako mahai batera eserita, Zamudio taberna itxita dagoen arren. Orain Txilen dagoen Michelek, joan aurretik filosofoari giltza bat oparitu dio, Joxe protagonistari lehenago eman zionaren berdina. Beraz, Michelek elkar ezagutzen ez duten *Ehun metro*-ko bi protagonista nagusiei giltza berdin bana oparitu die. Biak atzemango ditu poliziak.

Zuazalagoitiaren giltza eta filosofoarena berdinak izan daitezen bezalako ustekabeko arraroz beterik daude Saizarbitoriaren eleberriak; bizitza bera ere bai. Bizitzaz esaten da soilik kontakizun bilakaturikoan egiten dela ulergarri. Sinkronikotasunak esanahi ezkutu magikoz apaindu nahi dituztenen despit, halabehar bitxi horiek, dirudienez, ez dute zentzurik berez, bizitza gordinean, narrazioan betetzen duten eginkizunetik at. Saizarbitoriak horregatik esango zion beharbada Juan Luis Zabalari fikzioak hobeki adieraz dezakee-

la egia errealitateak berak baino, errealitatearen eta egiaren arteko harremana arazo bihurtuz: egia ez litzateke egia osoa sinkronikotasun arraro horiek zentzuz hornitu ezean, hori ez dezake egin fikzioak baino eta hortaz egia osoa ezin da errealitateren araberakoa izan, hain gutxi menpekoa.

Nolanahi ere, joko polita emango diote Saizarbitoriari giltza berdinen ispilu engainagarriek. Giltzaren bidez bildu zituen Micheleren maitasunak Joxe eta filosofoa, eta giltzaren bidez egingo ditu gaizkide poliziaren gorrotoak. Joxe hil ostean, poliziak galdeketa gogorra egingo dio filosofo kontenplalariari, torturaz mehatxatuz etengabe, polizia eszeptikoa izaten baita kointzidentzia poetikoen aurrean. Filosofoa zirikatuko du: o sea que usted estaba «tranquilamente sentado una mañana fría a las ocho de la mañana en la terraza de un bar cerrado, etc. ¿Qué, nos lo tragamos?». Filosofiakoa denez, auskalo. Ez diote hala ere tortura barkatuko.

Micheleren giltza talismanaren kontrakoa baita, balbea dakarren gauzakia: malura Joxeri, filosofoari tortura.

Gure hizkuntzek darakutsatenez, bazter hauetan nahiago ditugu gauzak pertsonak baino: badugu patu

gaiztoa dakarren pertsonarentzako izena, «gafe» gaztelaniaz, baina ez patu onaren giza eragilearen izenik. Aitzitik, bada zori ona sortzen duen gauzakiarentzako izena: kutuna, talismana; ez ostera zoritxarra dakarrenarentzakorik.

Michelek eta bere giltzak balbea dute.

Odoletik salbatzeko giltza, hortaz, amodioa zatekeen, lagun zehatz batenganako maitasuna, baina hemen oztopaturik dago. Joxe Zuazalagoitiaren giltzak ezin izan dio maitasunaren ateari irekita eutsi eta odol putzuan amilduko da.

BOST

Joxe hiltzera doala, odolustu ahala, zenbait oroitzapen etorriko zaizkio nahi gabe. Korrikaldian zehar, horrenbestez, iraganera joan eta iraganetik jin egingo du Zuazalagoitiaren arimak, bost joan-jin. Asoziazionista militantearen arduraz lotu ditu Saizarbitoriak denboraren geziak, aurrena ihesaldiko xehetasun, sentsazio edo gogaldi zehatza eta beronek dakarren oroitzapena, eta gero iraganetik itzulera orainaldira.

Hona hemen, hurrenez hurren, ihesaldiko zein xehetasun zehatzek eragiten duen analepsia eta iraganetik zerk itzularazten duen orainaldira, zelan lotzen diren konkretuki oraina eta lehena *Ehun metro*-ko bost flashbacketan:

Aurrenekoan Joxe Kontxan ageri da aitarekin, semeaz harro, harik eta semeari zapatak larrua hondatzen duen kresalaz bustita ikusten dizkiolarik masaileko bat joko dion arte.

Orainetik iraganerako gogo bidaia, lehen oroitzapen honetan, bi aldarteen arteko antzekotasunak eragingo du. Ez sentsazio fisikoak, Proustenean bezala, usainak nahiz zaporeak, baizik sentimenduak, nola iraganean hala orain, idia hiltegira bezala baitoa Joxe aurrera diagonalean, orduan aitaren masailekoa jasotzera, orain hiltzera.

Iraganetik itzulera orainera, ihesaldira, aitaren masailekoak eraginiko dardara zorrotzak erabakiko du, belarrietako zurrunbiloak, eztarriko bola latzak. Korrika doala orain ere zurrunbilo berdina sentituko baitu buru barnean jiraka.

Bigarren atzera begirakoari dagokionez, aurrena Hermano Arturoren soinketa saioak harrapatuko du

(«Fuera cadenas y medallas») eta hurrena Michelerekin tabernara ogia erostera joan zenekoak.

Iraganera, soinketa frankistara, sentsazio fisikoen antzak darama Joxe: domina bularrean danba-danba kolpeka. Michelerengana, berriz, giltzak berak, giltzaren ideiak. Eta iraganetik Micheleren giltzak dakar atzera orainera, giltza eskuan estutu egingo baitu, bizitzako zati horri, maitasunari, ihes egiten utzi nahi ez balio bezala.

Hirugarrenean, Michelerekin aurkitzen dugu Joxe ohean, eta gero Michele utzi egingo du. Iraganera jauzia eginaraziko dio domina, giltza, erortzeak; badoa domina, badoa giltza, bere bizitza bera bezalaxe. Eta itzulera: iraganean Michele abandonatu zuen legez, orain giltza betirako galdu du. Polizia batek jasoko du.

Laugarren atzerabegiratua: balaz ziztaturik, Joxek odolaren beroa sentitu eta jauzi egingo du Manuel burkidearen berotasun erira, ospitalean behiala. Arras gaixorik zegoen Manuel, tuberkulosiak jota.

ETAren zuzendaritzari ekintza suizida bat egitea proposatu zion birritan. Gero erizain espainiar batekin ezkonduko zen. Ordurako erakundea bere kabuz utzia zuen arren, bota egingo zuten ofizialki, ahulaldiak pu-

blikoki salatzea beharrezkoa omen delako. Joxe ez zegoen ados, baina kanporatzearen alde egin zuen.

Iraganetik orainaldira pausoek ekarriko dute. Joxeri gogoratu zaio Manuel karrikan ikusi zuela, pauso bakar bat aski izango zukeela Manueli elkartasuna adierazteko, baina ez zuela egin; orain ere hogei pauso gelditzen zaizkio Zamudio tabernako kanpoko mahaien artean bizardunaren aurrean hiltzeko. Ezin distantzia zeharkatu, ezin konpondu: lehenaldian pauso bakar hura ez emateagatiko damua, egin beharrekoaren eta eginikoaren arteko tarte gaindiezina; orain, berriz, heriotzaren ziurtasuna, hogei pauso barru. Joxek ezin du, ez orduan eta ez orain, bere buruarekin bat egin. Eta gero? Kantek dio hil ondoren egiten dugula pixkanaka gure buruarekin bat, baina ideia hori zeharo estrainioa zaio Saizarbitoriaren mundu ikuskerari.

Joxe hiltzera doala, nahigabeko oroitzapenek gatazkak adieraziko dituzte, hausturak, bereizteak, *in crescendo*: aita maiteak masailekoa joko dio, Joxek Michele maitea utziko du, gero Manuel burkidea ETAtik egoztearen alde egingo du eta azkenik aita hilko zaio. Abandonuak, agurrak: heriotzaren aurrekariak.

Joxeren heriotzak bat egingo du gehien maite izan duenarenarekin, aitarenarekin. Aita eri dela, hiltzeko zorian, Joxe mutikoa bere logelan dago, bakarrik, leihotik begira, eta korridorean izebaren urratsak sumatzen ditu. Pentsatzen du beharbada aita hil dela esatera datorkiola. Eta hori gerta ez dadin, jolas ezaguna darabil, lehenbiziko atalean aipatua, *Asaba zaharren baratza*-n ere aitaren heriotza eragotzi nahian erabiliko duena: bederatzi izar kontatu eta desio bat azalduz gero, bete egiten omen da. *Ehun metro*-n, haatik, ez daki ziur izarrek euskara ulertuko ote dioten, zeruak ba ote dakien euskaraz, edo Jainkoak ba ote dakien, eta azkenean, badaezpada ere, «que mi padre no se muera, que mi padre no se muera» esango du.

Aitaren munta eta sendorra gailenduko da. Aitaren bultzadak egin zuen Joxe etakide: «Hau izango da gudaria» ziotson besoa lepotik pasaturik. Mikel Hernandez Abaituaren esanetan, zapalketaren eleberria da hau: aita, eskola, kuartelilloa, Konstituzioaren zezen plaza... Aitaren zamak garrantzi berezia du Saizarbitoriaren protagonisten harremanean iraganarekin.

Ramon Saizarbitoriak gertuko du Joxe Zuazalagoitia: gudaria izan zen bien aita, silaba kopuru berdina dute bien izen-deiturek, silaba berdinetan azentua. Bada identifikatzeko behar edo nahi gisako bat, baina honezkero badakigu zein korapilatsuak diren auzi horiek.

Dena den, *Ehun metro*-n Saizarbitoriaren hurrengo eleberrietako protagonisten zenbait ezaugarri ageri da jadanik: besteak beste, aitarenganako sentimendu sakon anbibalentea, protagonistaren ezaxola nekatua bera maite duten emakumeengana, egin beharreko zerbait garaiz ez egiteagatiko damua, ustekabeko kointzidentziak beti txarrerako izatea, Historiak maitasuna izorratzen diolako amorrua eta etakide hilarekin bat egitea, Saizarbitoriak sumatuko balu bezala erakundearen inguruan gelditu izan balitz hiltzea suertatzen zaien horietakoa zatekeela... Edozein gisaz, *Ehun metro*-n, Historiaren eta aitaren bidez, iraganeko katea nabari da, orainaldian sustraiturik bizitzeko ahalegina eragozten ari.

8
Aita: «Asaba zaharren baratza»

Iraganaren beruna gainetik kentzeko ezina nabarmen ageri da, halaber, *Asaba zaharren baratza*-n, Polikarporen aitaren heriotzaren kontakizunean. Polikarporen aita 52 urte lehenago gertatutakoak itotzen du, erru sentimendua ezin du arindu, bere heriotzaren unean ere iraganak kateatuta dauka.

Gudari zaharraren gerra galdua-n ulergarria da oroitzapenen zamak biktima itotzea, hain izan baitziren lazgarriak gertaerak eta ondorioak; aldiz, Polikarporen aitaren uztarriak arinagoa dirudi, ez izaera eta bizialdi oso bat hondatzeko bezain astuna bederen, eta horretxegatik da esanguratsuagoa gudari zaharrarena baino, aztertzeko orduan iraganetik datozkigun erruak eta damuak nola hausten diguten bizitza, alegia, oraina. Geroari beldurrak ere, are itxaropenak, irudimena darabiltenak, oraina honda diezagukete;

baina oroimenak du oroz gain Saizarbitoria kezkatzen, memoriak elikatzen baitu irudimena.

Bestalde, *Ehun metro*-n bezala *Asaba zaharren baratza*-n ere, semeak, narrazioko protagonistak, aitaren heriotzaren kontakizunaren bitartez adieraziko du batez ere aitarenganako sentimenduen anbibalentzia eta nahastea.

Asaba zaharren baratza-n aitaren heriotza sentimendu bakar batera ez murrizteko Saizarbitoriaren borondatea eta ahalegina igartzen da. Hunkimendu triste bat izaten bada ere nagusi ataka horren berri emateko orduan, Saizarbitoriak mihian bilorik gabe darakuski heriotzaren alde barregarri, gogaikarri eta higuingarriak (aitaren karkaxak etengabe garbitu behar hori). Are gehiago, Polikarpok aita hil dadin desiratu izana ere aitortzen du. Sentimenduen ugaritasun durduzatu horrek aita bizi bitartean harengandik jasotako zamatik ezin askatzea du euskarri. Askatzailea ere baitzaio Polikarpori aitaren heriotza.

Polikarporen aitaren bizitza debozio politiko handi batek eraginiko bihurrikeria etikoak erabaki du. Sabino Arana beneratu izan du beti.

Sabino jarri nahi zion semeari, baina *placenta praevia*-ren erruz jaiotzean ia hil egin zen, hildakotzat

jo zuten, Saizarbitoria bera bezala, bestalde. Moja batek salbatu zuen, eta, San Polikarpo zenez haren kongregazioaren patroia, amak Polikarpo bataiatzea erabaki zuen, eta aitak onartu. Besteak beste, aitak beretzat nahi zuen izena ez eramateagatik izan du protagonistak bizialdi osoan semerik maitatuena ez izateko sentsazioa, bakarra izan arren. Dena den, seme Polikarpok itxuraz ez dakien arren, aitak bai, bazekikeen Sabino Aranaren bigarren izena Polikarpo zela.

Sabino Sukarrietan lurperatu zuten. Faxistak eskualdera hurbildu ahala, fundatzailearen hezurrak profanatuak izateko arriskua larrituz zihoalarik, buruzagi jeltzaleek hezur horiek beste nonbait ezkutatzea erabaki zuten. Polikarporen aita, gerran taxilari lanetan zebilena, desehorzketan egon zen, jazoera historikoaren lekuko; eta berak eraman zituen erlikiak aurrena Bilbora eta hurrena Zallara, non sekretu handiz berrehortzi baitzituzten.

Polikarporen aitak, garraio lan hura baliaturik, Sabinoren hezurtxo bat ebatsi zuen, eta Felipe adiskide orobat taxilariak beste bat; falange bana. 37an gertatu zen lapurreta eta berrogeita hamabi urtez lepotik

zintzilikaturiko zilindro txiki baten barruan eraman du. 52 urte ezkutaketa urdurian errudun.

Polikarporen aitaren heriotza akuilu bik azkartuko dute: batetik, *Deia* egunkariak, maisuaren erlikiak Zallatik ostera Sukarrietara ekarri dituztela kontatzeaz batera, jeltzaleen dokumentu bat eransten du, 37ko desehorzketaren berri ematen duena, orduan bertan idatzia, zeremonian egon zirenak zerrendatzen dituena; eta Polikarporen aita ahaztu. Itzela izan arren disgustua, koitadutxoa denez, zuritu egiten du: «Ni txoferra besterik ez bainintzen».

Eta, bestetik, errematatuko duena: urte bi daramatzalarik ohean eri, apaiz jeltzale bat datorkio azken aitortza egin behar duela aginduz. Polikarporen aitari otu ere ez gezurra esateko aukera, eta Sabinoren hezurra ebatsi izana aitortu beharrak larritasuna eta izua eragiten dizkio. Polikarpok, aita kontsolatzearren, jakinarazten dio azken aitortza ez duela zertan apaiz jeltzalearekin egin derrigorrez, ekarriko diola apaiz erdaldun bat. Horretan dabilelarik hiltzen zaio aita.

POLITIKARIA ETA KULTUR GIZONA

Apika baten batek inoiz sinetsiko zuen «kulturak askatuko zaitu» eta gisakoetan. Politikariak sarritan berritsu ganorabakotzat dauka idazlea, artista, ospetsua; hauteskunde kanpainan apaingarri gisa ondo eman dezakeena, baina erabaki serioak hartzeko orduan hobe ahal bezain urruti.

Berezkoa da tentsioa politikaren eta egian oinarritutako pedagogia baten artean. Iraganari gagozkiola, Saizarbitoriaren gaztigua: «Iragana ahaztea ez da komeni –iragana deuseztatuz etorkizuna deuseztatzen dela esan du norbaitek, eta ongi esana ematen du–, besterik ez bada ere, beren jarrerak Historiaren zentzua okertuz oinarritzen dituzten politikoek engaina ez gaitzaten». Saizarbitoriaren ustez, garrantzitsuegia da politika politikarien esku uzteko; eta kultur jendeak gehiago arduratu beharko zukeen politikaz. Dena den, ohi bezala, badaezpada ere, garbiegi gera ez dadin, emendatuko du ezen «ezagutzen ditudan politikoak nobleago dira, orokorrean, ene lagun poetak, artistak eta intelektualak baino. Gehiago oraindik, tratatu ditudan pertsonen artean, intelektualak, artistak eta poetak dira makurrenetakoak eta, bide batez, beren bu-

ruaz iritzirik hoberena –ezin hobeagoa– izan ohi dutenak».

Juan Ajuriagerra politikari petoa zen, eta *Asaba zaharren baratza*-k ederki kontatzen du nola erabili zuen kultur jendea Sabino Aranaren hezurrak desehorzteko tenorean: Ajuriagerrak Euzkadi Buru Batzarreko buruzagi Doroteo Ziaurritzi kutxa bat eman zion, Sabinoren hezurrak zituela esanez. Handik pixka batera, Ajuriagerrak kutxa hori Lapurdiko Betharramera garraiatu zuen, fundatzailearen hezurrei lur emateko, Isaac Lopez Mendizabal, aita Donostia eta Alberto Onaindia artistak lagun zituela. Ajuriagerrak maiz errepikatu zuen Mixel Garikoitz Donearen hezurrak hango elizan daudelako lurperatu zituztela bertan Sabinorenak ere. EBBren bileretan eta kulturgile askoren aurrean behin baino gehiagotan aldarrikatu zuen oso pozik zegoela azkenean lortu zuelako Sabinoren hezurrak Lapurdin leku seguruan ehorztea.

Baina ez zeuden Lapurdin. Ajuriagerraren jukutriak egiazko arrastoa galaraztea zuen helburu. Horregatik, lagun bakan batzuk izan ezik (eta horien artean ez zegoen artistarik, politikari serioentzat kuxkuxero berrilapiko hutsak, berez eta definizioz), berrogeita hamabi urtez mundu guztiak uste izan zuen erlikiak

mugaz bestaldean zeudela gordeta (Lopez Mendizabal, aita Donostia eta Alberto Onaindia kulturgile jeltzaleak barne, jakina), eta ez Zallan.

ZU ZARA NIRE ABERRIA

Gurasoengandik jasoriko tradizio makurrarekin zer egin: *Asaba zaharren baratza*-k konponbide bat iradokitzen du, transmisioari ukoa. Polikarporen aitak, hil zorian dela, semeari eskatu dio Felipe adiskide hil berriaren alaba bilatu eta Sabinoren bi hexurrak Sukarrietako hilobian berrehorzteko, gainerako hezurrekin batera. Orduantxe deitzen dio lehenbiziko aldiz aitak semeari Sabino, eta hau hunkitu egiten da. Behin aita hilda, eta Donostian alferrik bilatu ondoren, Sukarrietan bertan aurkituko du Polikarpok Sabine, Felipek ostutako falangea Sabino Aranaren hilobian sartzeko ahaleginetan. Bizkarrez dakusa Sabine eta honen besoaren mugimendu erritmikoak pentsamendu aitorrezinak eragiten dizkio. Dena den, ezin berrehortzi. Sabinek kontatzen dio aitak ezarri ziola izena, amak Bioleta nahiago zuen arren. Bioletak atsegin du Poli izena. Falangeak Urdaibain urperatzea erabakiko

dute, aranatarrek ikurrina asmatu zuten Kanalaren aurrean. Sabinoren hezurrak papertxo banatan elkarri idatziko dizkioten esaldiek ordeztuko dituzte. Polikarpok «zu zara nire aberria» idazten dio Bioletari, eta, Sukarrietatik Donostiara itzultzeko bereizten direnean, Bioletak deitu egingo diola agintzen dio. Saizarbitoriaren protagonista ez da kosmopolita izaten, Euskadi zehatzetik Bioleta zehatzarengana doa, ez du aberritzat, Flaubertek bezala, bihotzean noizbehinka senti litekeen infinitua. Flauberten esaldi hau dakar *Martutene*-k: «Aberria Lurra da, Unibertsoa, izarrak dira, airea, pentsamendua bera, hots, infinitua gure bularrean». Saizarbitoriaren pertsonaiek ez dute ukitu mistiko txikienik ere.

Asaba zaharren baratzeko fruituak pozoitsu gertatu zaizkie Poliri zein Bioletari, eta dirudienez bizimodu berri bati ekiteko prest daude, iragana urperatu eta etorkizunera zabaldutako oraingo maitasuna hartuta jarrera berriaren oinarritzat.

Edozein gisaz, *Asaba zaharren baratza*-ko bukaera hori dela onartuta ere, nahiz berez anbiguoagoa izan, ez baitakigu Bioletak zer idatzi dion Poliri, ezta deituko ote dion ere, Saizarbitoriaren gainerako bikoteen

bilakaeraren azterketak ez digu baikorrak izaten uzten.

Saizarbitoriak batzuetan kalbarioak ez diruditen maitasun harremanak erakusten dizkigu, baina bietako bat: edo ez dira bikote izatera iristen, bikotekideetako bat lehenago hiltzen delako; edo bestela bikote bizitzaren hasiera baino ez digu kontatzen. Ez dute putzuan erortzeko astirik. Hain zuzen, balirudike kontakizuna hasiera horretan ebakitzen duela, berehala etorriko den katastrofearen berri ez eman behar izateko, gomuta polita eta ilusioa babesteko. Hasten zara irudikatzen zer izan daitekeen Polikarporen eta Sabineren arteko elkarbizitza Urdaibaiko txangoa eta bi asteren buruan, eta negargura datorkizu.

9
Amaren itolarria

Saizarbitoriak dio gure herrian ohikoa dela ama eskizofrenogenoa. *Ene Jesus*, *Hamaika pauso* eta *Martutene*-ko amek hirutasun zanpatzaile bat osatzen dute; Saizarbitoriak biziki gordinki erakutsi digu hiru eleberriotan nola ito gaitzakeen iraganak amaren bidez. Gainera, Iñaki Aldekoak nabarmendu duenez, «Saizarbitoriaren nobela gehienetan amak bakarrik bizi dituzte protagonistek. [...] Aitarena beti oroimena da, eta gainera heriotza orduko oroimena. Beraz, aitaren ausentzian, amen bizkar gelditu ohi da familiaren alderdi afektiboekin batera, kultur oinarrien transmisioa ere». Blokeo mingarri batek ezaugarrituko du Saizarbitoriaren protagonistaren harremana amarekin. Arbuiatu egingo du amak transmititu nahi dion kultura politikoa eta pozoi izango zaio afektua sentiaraztеko amaren ezina.

AMAK HILTZEKO BEHINGOZ AGINDU ETA HILTZEN JAKIN EZ

Hamaika pauso-n zehatz-mehatz kontatzen dizkigu Saizarbitoriak Abaitua idazlearen miseriak: koldarra eta pasiboa da berez, ez da gai iragana behar bezala garraiatzeko, eta maitatzeko ahalmenak ihes degio, eta gero bizitzeko gogoak. Kemenaren alde egite horrek, indar galtze horrek deitzen du Saizarbitoriaren arreta, bizia ahitzen ari dela darakutsaten sentsazioek eta egoerek. Ikuskizun mudurri horrek harrapatu du idazlea. Maitatu ezina: bikotekideak eraginiko betekada eta asperra, isiltasun nahasia, bizitzarekiko lotura haustearen hasiera. *Ehun metro*-k odolustearena bezala, *Hamaika pauso*-k bizihustearen xehetasun psikosomatikoen berri doia emango digu.

Herio bidean amets bi egingo ditu Abaituak. Lehenbizikoak du ama protagonista, eta Abaituaren heriotzaren iragarle izango da, eta aldi berean haren heriotzaren etorrera erraztuko du.

Ametsa idazleak Juliari biharamunean kontatu bezala ezagutuko dugu. Juliak ironiaz iruzkinduko du Abaituaren ametsa, baina hau ez da ironiaz jabetuko.

Ametsak Abaituaren ezina erakutsiko digu amaren agindu ikaragarrien aurrean, zeinei nolabaiteko mendeku kutsua sumatzen baitzaie: amak ez dio Abaituari barkatzen espero zuten semea ez izatea, aita bezain gudari ausarta.

Ametsean amak, oheburuan kokatua, eskuak gerrian, hiltzeko aginduko dio Abaituari, leunki hasieran baina gero eta haserreago, zerraldoa prest duela, apaiza deitua, eskela jarria, ez dadila koldarra izan. Amorruz, oheko tapakiak kenduko dizkio semeari.

Abaituak erantzungo dio gazteegia dela eta ez duela hil nahi, eta amak berekoi hutsa dela ihardetsiko dio, ez zaiola amaren nahigabea ardura, amaren sufrimenduari zor dion arren bera den guztia.

«–Ohean nengoen –esan zuen–. Amak hil nendila eskatzen zidan, dena prest zegoela eta mugitzeko mesedez.

«Ama oheburuan kokatua. Eskolarako deitzen zionean bezala, leunki hasieran, ‘tira, gosaria prest daukazu’ baina gero eta ozenago, eta haserre bizian azkenerako, tapakiak kentzen zizkion arte.

«–Amatxorekin egiten duzu amets, beraz.

«Baina ez zen ironiaz konturatu, edo ez zuen konturatu nahi izan. Baietz erantzun zion, zehaztasun gehiago eskatzen zuela uste izan balu bezala. Ama oheburuan zegoela, eskuak gerrian, behin eta berriz zentzurik gabeko agindu hura errepikatuz. ‘Dena prest dago’ esaten zion, ‘zerraldoa erosia, apaiza deitua, eskela jarria, eta orain hil egin behar duzu derrigorrez’. Leihotik itzuli zen kasu egiten ote zion egiaztatzeko.

«Konturatzen al zen? Berak gazteegia zela eta ez zuela hil nahi erantzuten zionean, amak berekoitzat tratatzen zuela, bere buruaz besterik ez arduratzea aurpegiratzen ziola zitalki.

«‘Ziztrin ez bestelakoa’ esan ohi zuen. ‘Ziztrin ez bestelakoa, ze inporta zaizu zuri nire nahigabea, ahaztu al zaizu zaren guztia niri, nire sufrimenduari zor diozula?’. Eta zapi zuria eskuartean bihurritu ondoren, jertse beltzaren mahuka barnean gordetzeko zeinu hura.

«Nola kexa zitekeen esaten zion, zapia esku artean bihurrituz, berriz ere gaztea zela eta ez zuela hil nahi erantzuten ausartu zenean. Jende asko ikusirik zegoela bera, oinazez oihuka, Jainkoari eraman zezala

erregutzen, eta ea zertaz kexatzen zen hark borondate mugagabez oinazerik gabeko heriotza eskaintzen bazion. Azkenean etsi egin behar izan zuen, dena prest baitzegoen, zerraldo aberatsa ere bai –oso ondo zituen gogoan haren zehaztasunak, kaobaren distira, urrezko hornidurak, erabat arrotzak egiten zitzaizkion inizialak, I.A.–, eta eskela, loreak eta hilobia –marmolezkoa, amak esaten zuenez–, eta eskatu zion oinetako beltz muturluzeak janzten uzteko behintzat, eta jantzi ondoren, narda ikaragarria gaindituz, zerraldoan sartu zen.

«–Eta hiltzeko prestatu nintzen, esaten zidan bezala, eskuak bular gainean gurutzatuz, baina ez nekien nola hil.

«Isildu zenean, haizearen kexa entzuten zen urrutira, eta gertuago uhin ahituek Kofradiako eskaileretan ematen zuten zaflada geldoaren hots biguna sumatu zuen.

«–Ez da egia –esan zion Juliak– asmatzen ari zara –eta bularrean gorpu batek bezala gurutzaturiko eskuak bereganatu zituen–. Ez da egia».

AMA ETA ZERRALDOA

Abaituarekin amets honetaz solastatzen dela, J.J. Lasak ama eta zerraldoa Erosi eta Thanatosi lotuko dizkie, biziari eta heriotzari: psikoanalisiaren gai klasiko bat. Begi bistakotzat jotzen da ametsez etxean sartzeak, haitzuloan edo sabelean barneratzeak, amaren altzora eta atsedenaren iturrira itzuli nahia adierazten duela.

Haatik, J.J. Lasak berak aipatu topiko horiek txorakeria galantzat joko ditu berehala. Gainera, Abaituaren ametsean ez dugu ez etxerik ez haitzulorik, baizik zerraldoa. Eta hain zuzen atsedenlekurik goxoenaren jabe behar omen lukeen amak agintzen dio Abaituari hiltzeko behingoz. «Ama hilduratu eta hiltzaile ikaragarria», iruzkinduko du Lasak, Abaituari eskua bizkarrean pausatuz, erruki gisako keinu ezohikoa. Euskal Herri jakin batekin aldera bailiteke Abaituaren ama, seme-alaben sakrifizioa pizgarri zaion Euskal Herriarekin.

Lasaren iradokizun ilun eta gogor horietatik urruti, Juliak, Abaitua amaren atzaparretatik aska lezakeen emakume bakarrak, idazleak harrapatzen ez duen ironiaz erantzungo dio ametsaren kontakizunari, magno-

lia grandifloraren ondoan dagoela. Ametsak Juliaren eta Abaituaren arteko distantzia zabaltzen lagunduko du.

Bestalde, ametsean Abaituak dauzkan oinetako beltz muturluzeek Abaituaren eta Francok fusilarazitako Daniel Zabalegi etakidearen bat egitea erakusten digute. Lehen esan bezala, Abaituaren heriotzaz diharduen Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*-n, Abaitua bera ageri da beste «Hamaika pauso» bat idazten, Zabalegiren heriotzaz. Idatzi ahala, Abaitua Zabalegirekin berdinduko da, eta Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*-ren irakurlea Abaitua eta Zabalegi azken batean zein antzekoak diren ohartuko da.

Abaituaren Zabalegik, heriotzaren orduan, Juliaren lorategiko magnolia dotorea izango du azken begiradaren sostengu, Burgosen halakorik nekez aurki daitekeen arren. Abaituak Juliaren zuhaitzari eginiko omenaldia baita. Hain zuzen, magnolia horixe besarkatuko du Abaituak hilko den egunean, haren hosto bat gordeko du sakelan. Eta zenbait urte lehenago, aztergai dugun ametsean, hiltzeko orduan, Zabalegiren zapatak jantziko ditu. Abaituaren eta Zabalegiren artean konfluentzia bat dago gizajotasunean.

Azkenik, Abaituaren nortasuna eta ibilbidea aztertuta, ematen du amets honetako ama, ama ez ezik, eta aberriaz gainera, emetasun orokor baten ikur ere badela: andreekin bereziki berekoi eta negargarri jokatu duen Abaituaren aurkako epaia litzateke amets hau, printzipio femeninoak ezarririko heriotza zigorra; are, amatasuna gainditu eta biziaren beraren jatorria den itsasoaren orro amorruzkoa, *Ene Jesus*-eko itsaso zaharberritua. Eta, amarengan proiektatzea zu hil nahia azkenaurreko urratsa da: ondoren zu zatoz, zerorrek barneratuko duzu suizidatu beharra. Halaxe gertatuko zaio Abaituari. *Culpa y depresión* liburuan León Grinbergek suizidio fantasiak zerrendatu ditu: erasoa, autozigorra, itzulera amaren altzora eta berpiztea, ahalguztiduntasuna, iseka munduari, ihesa errealitate jazarletik, paroxismo masokista, hobenaren expiazio purifikatzailea, heriotza magikoa, jokabide maniakoa, jazarlearekiko identifikazioa eta bakardadetik ihesa. Ematen du erruaren expiazio purifikatzaileak garrantzi berezia duela Abaituaren kasuan, kontuan hartuta gainera errua gogorrago hedatzen dela gurasoak ama kontrolatzailea eta aita absentea direlarik. Ohikoa da halako gurasoen exijentziak bete ezinak suizidioak burutuko duen erru itzela eragitea.

AMAK MASTURBATZEN HARRAPATU

Dirudienez, animalien artean sexua ia beti gauzatzen da hasieratik beretik biren arteko larru jotze gisa. Aldiz, gizakiengan ohikoagoa da lehenbiziko orgasmoak fantasiak lagunduriko masturbazioek ekartzea. Dena den, jakina, ez da hasiera hori giza maitasunean irudimenak duen garrantzia erabakitzen duena. Giza kontu guztietan du irudimenak berebiziko garrantzia, jaiotzetik hil arte. Eta oroimena du irudimenak bazka behinena.

Saizarbitoriaren obran, maitasuna baitu gai nagusi, deigarria da, *Martutene* arte, masturbazioaren absentzia, kontakizunetako protagonistak nerabeak direnean barne: ez darabilte, ia ez daipate. Berriki kontatu bezala, Bioleta Sabino Aranaren hezurtxoa bere hilobian berrehorzten ahalegintzen ari dela, Polikarpori masturbatzen ari ote den otu zaio. Eta Susanak lantzean behin Abaitua idazlea masturbatzen du. Baina bakarlanik inoiz ez. Haatik, Saizarbitoria idazlea ez da bereziki lotsatia gai fisiologikoez aritzeko orduan.

Martutene-n, azkenik, berebiziko garrantzia hartuko du masturbazioari loturiko gomuta batek: amak Martin nerabea fusila garbitzen harrapatu zuen, eta horren oroitzapenak goitik behera baldintzatu du Martinen harremana amarekin. Martinek Juliari kontatu dio. Liburutegian zegoela, «ama etxetik kanpo uste zuen batean, apaletan ikusmiratzen, irudi erotikoen liburuxka aurkitu zuen eta kitzikagarria egin zitzaion, hainbesteraino non ezin izan zuen aitonaren dibanean etzan eta masturbatzeko desioa menderatu. Hartan omen zegoen bat-batean aurrena amaren ahotsa entzun zuenean zer ari zen oihuka eta, ondoren, burua ikusi zuen leihatilatik agertzen. Juliak ezin zuen ulertu nolaz kontatzen zion Martinek, hain zaindua eta gordea izanik bere intimitateaz hitz egiteko, batez ere gai fisiologikoei zegokion orotan, zalantzarik gabe hagitz lotsagarria gertatu behar izan zitzaion pasarte hura. Era horretako oroitzapenekin pena ere sentitu ohi du hain ama ikaragarri baten Martin haur biktimarengatik. Askotan galdetu izan dio bere buruari [Juliak] zer sentituko zukeen menturaz Zigor masturbatzen harrapatuko balu, baina ziur da atsoak ez bezala atzera egin izango zuela».

Martin bezalako nerabe sentibera batentzat ama irentzaile horrek masturbatzen harrapatu eta garrasi egiteak zartako traumatikoa behar du. Inoiz ez da erabat garbituko. Bestalde, Juliari kontatuta, Juliari nolabait adierazi nahi dio bere izaera petrala, Julia kosta lain kosta hobendun sentiarazteko grinan mamitua, amarengandik datorkiola. Ez Martinek berak, baizik eta Martinen amak duela azken batean idazleak Julia errudun bihurtu nahiaren errua. Juliari aitortu izana ere ez da ondoriorik gabe gelditukо. Orain Juliak larregi daki, eta Martinek ordainarazi egingo dio.

10
Iragan biografikoa, pasio pertsonalak

Saizarbitoriaren protagonisten alde ilunetako bat identitateari dagokio, norberaren eraikuntzari. Nobelagileak ia guztia kuestionatu izan du beti, batik bat herentzian jaso duena: abertzaletasuna, besteak beste. Baina baita bere izaera pertsonala bera ere, herentziatik bereiz litekeen heinean. Haren protagonistek arazoak dituzte beren burua onartzeko orduan. Saizarbitoriaren irudiko, idazleak bere buruaren aurka behar du idatzi.

a) ERRUA

Hasieratik ageri da errua indar handiz Saizarbitoriaren obran, Eliza eta Estatua erru-ereile nagusi, bitartekari medikuak eta emakumea biktima printzipal. Jadanik *Egunero hasten delako*-n birjintasuna galtzea-

ren eta erruaren arteko lotura nabari da. Batetik Elizak, eta bestetik Miller eta Fontanaz ginekologoak, amorruz ahalegintzen dira Gisèlerengan errua txertatzen, ezkontzatik kanpo eta umerik izateko asmorik gabe larrua jo eta haurdun gelditzeagatik.

Ehun metro-ko Joxe Zuazalagoitia errudun sentitzen da elkartasuna ez adierazi izanagatik bere komandokide ohi bati, ETAtik kanporatu zutena andaluziar erizain batekin ezkondu zela eta. *Ene Jesus*-en ere errua da protagonistaren eztenik sarkorrenetarikoa.

Dena den, *Martutene* dugu erruaren nobela. Lausoa da eta nonahikoa errua *Martutene*-n, sakonki dago mintzairan txertatua solaskideari errua leporatzeko ohitura: zure erruz galdu gara berriro Donostiako errepideetan, zure erruz bereizi zaizkigu gurasoak. Giza harremanak ping-pong partida balira, orduan errua pilota, erruduna izaten baita lagun hurkoa kosta ahala kosta errudun sentiarazi nahi duena.

Edonola ere, ez besteren batek baizik nork bere burua errudun jotzeko joera nabarmentzen da elebeerrian: tabakoa erretzeagatik hobendun, lagunei dirua emateko orduan eskuzabala ez izateagatik, semeak zure antza duelako, senarraren ordenagailuan kuxkuxeatzeagatik, arbasoek euskaldun zintzo izateko agin-

du eta ez duzulako maila ematen, etakideek zure ideien alde dena ematen duten bitartean ez zarelako erakundean sartu, edota ez zarelako terroristen biktimengana laster eta ganoraz hurbildu; Max Frischek ere erruduntzat du bere burua, mendian nazi bat izan zitekeena topatu eta amildegitik beheiti ez botatzeagatik. Jende zintzoa pertsona bat ez hiltzeagatik errudun senti bailiteke.

Badira kulpa errealak eta beste batzuk gaizki dabilen gure gogoak ezarriak, iraganeko zaborra. Dirudienez, giza burmuinak badu eskrezentzia bat antzinaroan praktikoak zitzaizkigun baina honezkero deusetarako balio ez duten sentimenduak eragiten edo gordetzen dizkiguna: obsesio, beldur, erru sentimendu desordu eta deslekukoak. Ikusia dugu bosgarren atalean. Hauen artean, Juliak eta Pilarrek zazpi urte lehenagoko infideltasunagatik oraindik pairatzen dutena. Martinek zein Abaituak abandonatuta zeuzkaten eta axaleko harreman bana izan zuten. Gizonen jelosiazko ihardukiaren alde bat emaztea umiliatu eta errudun sentiaraztea izaten da.

Entziklopedistak, Martinek eta Abaituak orbandu egiten dituzte Flora, Julia eta Pilar, zikin sentiarazi. Emakume hauek gizarte heteropatriarkalaren arau

moralen aldeko zentsura beren baitaratu eta lotsa, damua eta errua pairatzen dituzte ondorioz. Ez da harritzekoa arau horiek ohartzeke ere barneratzea, kontuan hartuta, Miguel Catalánek *Anatomía del secreto*-n gomutarazi legez, gure gizarteek berriki arte moralki eta gutxi-asko lausoki ez ezik juridikoki ere andrearen infideltasuna zigortu egin dutela. Bestalde, andrearen desira ugariak errugabetu eta indarrez barreiatzeko gurean pizten ari diren mugimenduek Saizarbitoriaren gizon protagonistak bezain gutxi ukitzen dituzte Flora, Julia eta Pilar. Horretan ere pertsonaia errealistak dira, salbuespenak baitira mugimendu emantzipatzaile berri horietan engaiatu diren Saizarbitoriaren belaunaldiko kideak. Simone de Beauvoirren obra ezagutzen dute, baina ez diote aurre egin behar izan zalantzari, «Manifestu TransFeminista» izenpetu ala ez. Pistola parea Nefertitiren eskuetan bezain desordukoak lirateke sinadura horiek. Hona manifestuaren hasiera: «Feminismo erradikaletik gatoz, gu gara bollerak, gu gara putak*, trans*ak, immigranteak, beltzak, heterodisidenteak... amorrutik ekindako iraultza feminista gara, eta hortzak erakustera gatoz; politika zuzen eta genero-bulegoetatik ateraz, gure desiren bultzadak ekarri gaitu politikoki oke-

rrak izatera, molestatzera, birpentsatzera eta gure mutazioen esanahi berriak sortzera. Emakume hutsa izateak jada ez digu balio. ‘Emakume’aren subjektu politikoa motz geratu zaigu, baztertzailea da izatez, kanpoan uzten baititu bollerak, putak, beloa daramaten horiek, gutxi irabazten dutenak eta unibertsitatera joan ez direnak, oihu eta garrasi egiten dutenak, paperik ez dutenak, maritxuak...». Ezin nabarmenagoa da belaunaldi jauzia.

Errudunik zitalenak psikopatak dira, ez dute kulpa sentimendurik. Sendagileen gremioan ez bide da ezohikoa pazienteen bizia arriskuan jartzea dirua egiteko, edo hierarkian gora. Ez dira gutxi sendagileen arduragabekeriek hilak. *Martutene*-n medikuen erruz jaio berri bat hiltzen da, eta medikuak ahalegintzen dira errua amari leporatzen. Hauxe litzateke jende gaiztoaren saizarbitoriar definizioa: batetik, errudun sentitzen ez den erruduna; bestetik, bere errua besteri egozten ahalegintzen dena. Ostera, bidegabekeria egin ondoren errudun sentitu eta bere gain hartzen duena, errudun sentitzen den erruduna, Saizarbitoriaren hiztegian, «gizajoa» da. Edonola ere, arreta deitzen duena da horrenbeste pertsonaia sentitzea errudun errugabe izan arren; horiexek dira neurotikoak,

gizaki petoak. Zenbat eta kontzientzia barrualde aberatsagoa, zenbat eta urrutiago primariotasunetik, hainbat eta errudunago. Azken atalean ikusiko dugunez, errutik libre bizi diren Saizarbitoriaren pertsonaiak ez dira protagonista izatera iritsiko.

Protagonista bakoitzak errua gainetik kentzeko bide berezia erabiliko du. Pilarrek denbora pasatzen utzi, sudokuak egin bitartean. Abaituak ez die apaizei barkatzen errudun sentiarazteko grina, batez ere sexu kontuetan. Horregatik da protagonistarik kristauena hobenaz libratzeko estrategiei dagokienez: barkamena apalki eskatu eta penitentzia. Bai baita gurean kristauek arrakasta ikaragarriz zabaldu duten ideia bat, arretaz aztertuz gero arras bitxia: sufrimenduaren bidez garbitzen da hobena, oinazeak berrerosiko zaitu. Abaituak barneratua du plazerak ordaina dakarrela, ez dagoela zigorrik gabeko bekaturik eta penitentzia saihetsezina dela.

Martin da agian hobena garbitzeko bide berriak asmatzeko orduan originalena. Nerabe zela, arestian aipatua, amak masturbatzen harrapatu zuen. Uste dut orduz geroztiko kulpa gordinari erantzuteko era poetiko bat dela Poliklinikan aita ohean datzala ama estuaren alboan *Zentzumenen inperioa* ikustea, biak adi-

adi eta isil-isilik, hasi eta buka, hasieran zakil tentea pantaila osoa betetzen, semen eztanda kamera geldoan, eta bukaeran mutila asfixia afrodisiakoz ito eta neskak mutilaren zakila ebaki eta odolaz mutilaren gorpuaren bularrean «Sada eta Kitxi elkarrekin betirako» idazten (filmean eta nobelan ageri ez den arren, oinarri dituen gertaera errealetan neskak mutilaren zakila aluan sartu eta herriko karriketan alderrai ibili ei zen, jota eta sonanbulu, lau egunez eta gauez).

Martinek, gainera, idatzi egiten du. Hobena artatzeko tenorean izkiriatzea ez da hagitz eragingarria haatik, idazteak berak literatura elikatu ahal izateko izain bihurtzen baitzaitu, ingurukoen biziaren eta odolaren hurrupari, batik bat bikote bizitzako erru eta miseriena. Saizarbitoriak errudunari «miserable» ere deitzen dio. Miserablea da Juliak Martini ordu arte inori aipatu gabeko oroitzapen mingarri bat kontatu (Juliari oraindik errua eragiten diona erraietan, batez ere aita txarto sentiarazteagatik), alegia, txikitan gurasoen lagun bati kuleroak jaisten eta bulba ukitzen uzten ziola, arkatzen truke, eskolan koaderno ederrak egitea gustatzen baitzitzaion, eta handik pixka batera Martinek Juliaren ispilu literarioaz idaztea txikitandik

ohitu zela bere bulbatxoarekin trafikatzen. Idazlea, traidore eta errudun.

BORONDATEAREN PORROTA

Abaituak, Lynn ezagutu bezain laster, Max Frischen *Montauk*-en «Lynn ez da erru baten izena sekula izango» irakurri eta bere egiten du. San Sebastianen antzekoa da ginekologo donostiarra, erruaren geziek zeharkatua. Neurosiak, gainera, denboraren geziak nahasten dizkio: orain beldur da etorkizunean iraganarekiko senti dezakeen nostalgiaz eta kulpaz. Barrualdeko geruzak oro eta biografia osoa kutsatzen dizkio erruak. Txikitako erru sentimenduak ere orbaintzeke dauzka: Otzetan ehiztaria zuen inguruko jendea. Bera ere ahalegintzen zen, baina eskasa izaki. Halako batean, txantxangorri bat bota eta harro eraman zion aitonari; aitona ez zen batere poztu ordea, eta ez dela txantxangorria hiltzea komeni jakinarazi zion kopetilun, xomorro kaltegarriak jaten baititu. Orduz geroztik, txantxangorri bat ikusten duen aldiro berpizten zaizkio Abaituari oroitzapen mingarri hori eta ondoriozko hobendun sentimendu astuna.

Abaitua eta Loiola berdin-berdinak dira, eta bi-biei zaie hori penagarri. Txitxarroen tragedian Abaituari bere ahuleziari semearen ispiluan antzematea egin zitzaion bereziki oinazegarri. Errua zauri eta gai nagusi duen Kafkari madarikazio hauxe bota zion aitak: «Arraina bahintz bezala zatituko haut». Abaituari, oro har, ez zaio bere burua laket; ezta semea ere, hortaz. Gainera, semearen begiradan nabaritu uste du errua botatzen diola bere izaera transmititzeagatik.

Senide eta maitasun harremanetan ez ezik, lantokian ere, ospitalean, erruak eragotzita dauka Abaitua, ezinduta, mutututa. Ezin ugazaben bidegabekeriak merezi bezala salatu, baliteke eta bere hobena, Teresa Hoyosen aurkako sexu abusua, ezagutzea, eta auskalo nola erabiliko luketen. Abaituaren oroitzapena: «Dena normala izan zen, sintomei buruz galdeketa egin, biluzteko agindu zion, normaltasunez, berretsi du, inongo asmo lizunik edo obszenorik gabe ez orduan eta ezta postura ginekologikoan jartzen lagundu zionean ere, baina, bat-batean, bere aurrean jesarri zenean, bere zango zabalduen artean, baginaren intimotasunean hatz hutsik sartzeko desioak hartu zuen. Eta hala egin zuen. Huraxe baino ez, esku larruak jarri gabe hatz arina eta luzea sartu eta barnean eduki se-

gundo batzuetan. Besterik ez. Bere buruaren irudi biziotsuegia emateko beldur delako berritu du ez zaiola beste inoiz gertatu eta egin bazuen gehiago izan zela afektuaren eraginez plazer bila baino, berez nahiago zukeela eskutik hartu haren barrena aztarrikatu baino. Abusatzaile guztien leloa, pentsatu du».

Abaituari eskarmentuak erakutsi dio asmo edo ekintza mota batek hobena sortuko diola. Zehazki, desirari amore emateak beti sentiarazten du hobendun, eta saihesten ahalegintzen da, baina ez du beti lortzen. Badaki Lynnenganako desirak ordaina ekarriko diola, baina hala ere ezin amata. Lynnenganako desira errudunaren ezaugarri bat da Abaituak soilik Lynni aitor diezazkiokeela bere errurik garratzenak, hots, semeari eta Teresa Hoyosi lotutakoak.

Lynnek Teresa Hoyosenaz errugabetzen duen egun berean, beranduago, ospitalean, Hoyos bera aurkitu, laprastada koldarraz geroztik ikusten ez zuena, eta honek ere errugabetuko du. Sentimendu tanatofilo pisutsua da Abaituaren errua, *Gloria Victis* estatuako soldadu eroria bilakatzen du, ezpata hautsirik zerraldo; bizirik hiltzen baitu. Baina Lynn aingeru biofiloak besoetatik heldu, erruaren gela hotz ilunetik atera eta zorionbidera hegaldaraziko du: ezustean,

Abaitua kokoteraino dugu besteen hobena, senide zein herrikide, bere gain hartu beharraz; sentimendu horren aurkako amorruak adierazten dio zinez ari dela sendatzen.

Gero, ausardia ere erakutsiko du: errua kaltegileak berak hartu behar du bere gain, kosta lain kosta. Aipatu bezala, ospitalean ume jaio berri bat sendagileen utzikeriagatik hil zen, baina amari sinetsarazi zioten bere erruz hil zela. Abaituak amari jakinaraziko dio zein den benetako erantzulea. Egun zoragarri hori amaitu baino lehen, Abaituak eta Lynnek bizia gurtuko dute, jaiotza batean lagunduz; jaiotza hitzak jaia barnebiltzen du. Abaituaren erru garbitasunak hementxe joko du gailurra. Lynn ziur da bere maitasunak erruaren pean itorik egondako Abaitua salbatu duela.

Amaieran, aireportuko altzo ilunean, inork hartzen ez dituen maleten bira etengabeek uhal garraiatzailean, Abaituaren hegaldiaren akabera adierazten dute, erorikoa erruaren betiereko itzulerara. Ez dago gainditzerik.

Errudunaren begiez ikusi du Abaituak *Gloria Victis*-eko aingerua: hegoak bildurik. Balbetzat eta mala patatzat hartu du berehala Lynnek Abaituaren errorea.

Maitasuna ezin da errutik bereizi. Ginekologoak Pilarren altzoan sartuko du berriro bere antzinako bihotz oinazetsua, maleta-garraiatzailea bezain grisa den Pilarren altzoan. Izan ere, Pilarrek gaztelaniaz dioenez, «nire erruak gorputz eta aurpegi eta begi grisak ditu». Pilarrek Adolfo amorantearen laguntzaz gauzatu du Lynn elbarritu duen ebakuntza, erru grisa hanpatu diona hiltzea desiratzeraino. Zer egin dut, zer esango luke aitak. Lynnek paralisiaz ordainduko du Pilarren eta Abaituaren tartean sartu izana. Halatan, Lynn izango da Abaituaren erruaren izena.

MUNDU GLOBALAK DESIRA ZAITZAN

Honelaxe interpretatu du Joseba Gabilondok *New York-Martutene*-n Abaituaren itzulera Pilarrengana: *Martutene*-k XIX mendeko nobela errealistaren mugimendua errepikatzen du: adulterioa eta ondoriozko eskarmentua. Abaituaren belaunaldiaren supernia abertzale, kristau eta burgesa da. Belaunaldi horretako kideek superni horren eskakizunari huts egiten dioten aldiro errua da pizten. Gabilondok esanguratsutzat du 766 orrialdeko liburu batean «erru» hitza 110

bat aldiz errepikatzea, eta «erruki» berriz 30 baino ez; kontuan hartu beharrekoa da, hala ere, Saizarbitoriak «erru» «akats» esanahiarekin ere badarabilela.

Michigango jakintsuak dioenez, superni nazionalista, kristau eta burges hori Pilarrek ezartzen du, bere aitaren izenean, Abaituarengan. Eta Lynnek hautsiko du, Lynnenganako desirak. Haustura horrek burgestu baino lehenagoko bultzada idealista iraultzaileak berpizten ditu ginekologoarengan, Pariseko maiatzeko oihartzunak dakartzatenak, agintearen aurkako matxinatzea: Lynnen eraginez hasiko da errutik askatzen, salatuko ditu jaio berriaren heriotzaren benetako erantzuleak, lagunduko du delituzko erditze batean. Ordainez, Abaitua bera espedientatu eta legearen kanpoalde gorrira zigortuko dute.

Ordea, Pilar aitatiarrarengana itzulirik berriro belaunikatuko da superni nazionalista, liberal eta kristauaren aurrean, legea hautsi aurretik baino otzanago eta menpekoago gainera, transgresiorako aukerak legea indartzen eta sendotzen baitu.

Azkenik, Pilarrek, Lynn elbarri utzirik, Abaituari gogoberritzeko guraria erauziko dio. Behin betiko kastratuko du ginekologoa.

ERRUDUNARI BARKAMENA UKATU

Saizarbitoriaren nobela bakoitza dago pentsalari handi baten itzalpean kokatua; gai printzipalaren arabera, tentuz zaintzen du zein filosofo aipatu. Eleberri bakoitza lotzen dio filosofo bati edo zenbaiti.

Ia beti esplizituki, *Egunero hasten delako*-n bezala: Gisèlek eta Mauricek Filosofia ikasten dihardute eta Heidegger aipatzen diete. Heideggerrek dioenez, gizakia mundu zentzubakora berak eskatzeke jaurtia izan da, eta, ia beti, jendetza amorfoan beste edonoren errepika baita, edonork dagiena dagi. Bakarrik *Dasein*-ak, aintzat harturik heriotzak eta ezerezak eragin angustia, ohikotasun inpertsonaletik iratzarri eta bere egoera absurdoari adorez degio aurre. Era berean, Gisèle egotzia izan da munduko korapiloen metafora den tren geltoki bidegurutzekora, nahi gabeko haurdunaldiaren angustia barruan daramala. Abortatzeko erabakiak altxatuko du masa inertziaren lozorrotik.

Beste batzuetan zeharkakoa edo gordea da filosofoarekiko harremana, *Ene Jesus*-en izenburuko Jesukristorekikoa bezala, etikaren historia irauli zuen pentsalaria, edota *Kandinskyren tradizioa*-ko Descartes,

tradiziorik beneragarrienak metodikoki jarri baitzituen zalantzapean. Saizarbitoriak zuzenean aipatzen ez duen arren, liburuko gogoeta nagusiaren formak ez dio zalantzari zirrikiturik uzten: «Sufritzen dut, beraz maitemindurik nago».

Martutene-n erabiltzen ditu Montaigne, Camus, Simone de Beauvoir, Sartre eta... Wittgenstein. *Martutene* hobenaren nobela baldin bada, Wittgenstein duzu filosofiaren historia osoko errudunik oinazetsuena.

Errudun sentitzeko Wittgensteinen joera garbi nabari da Lehen Mundu Gerran idatzi zituen egunkari sekretuetan: borrokan beti bere sentsualtasunaren aurka, Jainkoari larriduraz eskatzen dio laguntza, masturbatzeko grinari gailendu eta lan egiteko indarra eman diezaion. Arazo logiko-filosofikoetan behar bezala lan ez egiteagatik sentitzen da behin eta berriz hobendun.

Masturbatzeko tenorean bere burua lagun batekin solasean irudikatzen du; ziur aski hori dela-eta izango ziren hain intentsuak Wittgensteinen elkarrizketa errealak. Egunkarietatik, hitzez hitz: «Nire barne indarra alferrik xahutzen dut. Oso sentsual nabil eta ia egunero masturbatzen naiz. Ezin horrela jarraitu». «Balantzaka nabil, ilunpetan jausirik. Gaixorik nago

eta nire bizitza txarra da. Jainkoak lagun nazala. Berreros nazala eta bakea eman diezadala. Amen. Jainkoak babes nazala. Jainkoa da gizakiak behar duen gauza bakarra. Jainkoak eman diezadala indarra. Amen. Amen. Amen. Egin dadila Zure nahia. Jainkoak argitu nazala, argitu nazala, argitu dezala nire arima». «Jainkoak argi nazala. Zizare bat naiz, eta soilik Jainkoari esker bilaka naiteke gizaki. Jainkoak lagun nazala. Amen».

Bestalde, eskolan nozituriko zartakoak batzuek aise ahazten dituzte, beste batzuek inoiz ez. Abaitua ginekologoari harrigarri egiten zaio bere ikaskide izaniko zenbaitek seme-alabak matrikulatzea haiek jipoitu zituzten eskoletan, aukera izan arren beste norabait bidaltzeko.

Zentzu honetan, esanguratsua da Wittgensteini jazoriko pasadizo bat, non bortizki uztartzen baitira eskola, errudun sentitzeko joera gogorra duenaren erru itzela, barkamen ukatua eta iragan zitala ezin irenstea. Edozein aldetatik begiraturik da ikaragarria. Asmatu egin du Saizarbitoriak Wittgenstein *Martutene*-ko errezelen atzean ezkutatuta. Ray Monk biografoak jaso zuen gertaera eta Paul Austerrek horrela kontatu digu:

«Lehen mundu-gerran *Tractatus* saioa idatzi ostean, Wittgensteini iruditu zitzaion konpondu zituela jada filosofiaren arazo guztiak eta burutuak zituela jada gaiarekikoak betiko. Eskola-maisu joan zen Austriako mendialdeko urruneko herrixkaren batera, baina ezegoki gertatu zen lan hartarako. Zorrotza, jenio txarrekoa, are bortitza ere, etengabe egiten zien agiraka umeei, eta jo ere egiten zituen ikasgaia ikasten ez zutenean. Ez erritu gisa ipurdian zigorkadak bakarrik, baita buruan eta aurpegian kolpeak ere, hainbat umeri zauri larriak eragiterainoko suminez emandako ukabilkadak. Jokamolde izugarri haren berri zabaldu zen ordea, eta lanpostua utzarazi zioten. Igaro ziren urteak, hogei gutxienez, oker ez banago, eta Wittgenstein Cambridgen bizi zen, berriro ere filosofia lantzen, eta gizon ospetsu eta miretsia zen ordurako. Orain ez naiz oroitzen arrazoiez, baina krisi espiritual batean erori zen eta nerbioetatik eritu. Sendatzen hasi zelarik, erabaki zuen ezinbestekoa zuela, berriz osasuna izatekotan, bere iraganera itzuli eta apaltasunez barka eskatzea inoiz bidegabekeriaren bat egin izan zion edo iraindu izan zuen pertsona bakoitzari. Barnean gaiztotzen ari zitzaion errua garbitu nahi zuen, bere kontzientzia araztu eta berriz hasi. Eta bide

horrek, jakina, Austriako mendialdeko herrixkara eraman zuen atzera. Behialako ikasleak pertsona helduak ziren ordurako, hogeietan aurrera edo oso aurrera zihoazen gizon eta emakumeak, eta hala eta ere beren eskola-maisu bortitz haren oroitzapena ez zen ahuldu beren gogoetan. Wittgensteinek haien ateak jo zituen, banan-banan, eta hogei urte lehenagoko bere krudelkeria onartezin hura barkatzeko eskatu zien, banan-banan. Haietako batzuen aurrean belaunikatu eta arrenka hasi zen, erreguz eskatu zien egin izan zituen bekatuetatik libratzeko. Batek uste izango zukeen ezen hain damu erabateko eta zinezko baten aurrean egokitzen zena errukitu egingo zela erromes haren oinazeaz, eta bigundu egingo zela, baina Wittgensteinen behialako ikasle guztietatik batek ere ez zion barkatu nahi izan. Hark eman izan zien mina errotuegia zegoen, eta harengana sentitzen zuten gorrotoa errukirako aukera oro baino handiagoa zen».

Haraindian ere baleukake Wittgensteinek hobendun sentitzeko arrazoirik: Max Frischek *Montauk*-en kontatzen du filosofoaren erruz utzi ziola bere lagun minarekin mintzatzeari. Frischek laguna bera baino gehiago zela naturaltasunez onartzen zuen, laguna garaia, jantzia eta aberatsa baitzen. Ordea, Frisch In-

geborg Bachmann poeta eta filosofoarekin maitasun harremanetan hasi zen, eta lagunak ezin izan zuen eraman Max koitadua *Tractatus Logico-Philosophicus*-ari buruz ganoraz idazteko moduko emakume interesgarri haren bikotekide izatea.

FILOSOFIAREN ERAKARMENA

Zergatik ageri da Saizarbitoriaren obran hainbeste filosofo, Filosofia ikasle eta ideia filosofiko? Nondik nora Aristoteles, Akinoko Tomas, Montaigne, Voltaire, Rousseau, Unamuno, Marx, Freud, Heidegger, Wittgenstein, Sartre, Camus, Deleuze eta abar potolo bat ez ezik hainbeste Filosofia ikasle, *Egunero hasten delako*-tik hasita? Gisèle eta Mauricek, esan bezala, Filosofia ikasten baitute. Filosofia ikasle duzu, orobat, Zuazalagoitiaren odolustearen lekukoa, *Ehun metro*-n, Zamudio tabernako mahaira eserita dagoena; *Gudari zaharraren gerra galdua*-n, gudari zaharraren lagun Egiaren iloba zintzoa ere, Santoñako errendizioaren inguruko ikuspuntu abertzale ofiziala eztabaidatzen duena, Filosofia ikasitakoa da. Hainbeste filoso-

fiarik gabe ere, Saizarbitoriak adierazi ahalko zukeen adierazi nahi duenaren funtsa.

Ihardespen posible bat, Wittgensteinen ildotik: metafisika eritasuna da, ohiko galdera filosofikoak gaixotasun mentala adierazten du. Wittgensteinen dizipulu Wisdomek honela zehazten du ikuspuntu hori: galdera filosofiko tipikoei eta neurotiko obsesiboak bere buruari egiten dizkionari egitura eta musika bera darie: neurotiko obsesiboak dira galdera filosofikoak. Galderan berean datza neurosia. Kutsu obsesibo berdintsua dute filosofoen kezkek eta Saizarbitoriaren protagonistenek.

Isomorfoak dira erantzun zehatzik gabeko betiko galdera filosofikoak (zer da denbora?, zer naiz ni zinez?, zer da egia?, zelan jakin zehazki zer den ona eta zer txarra?, modu erabat desinteresatuan ote naiz zintzoa?, nire jokaera erabaki duen arrazoibidera ez al zait oharkabean interes izpiren bat igaro?, bizitzak ba ote du zentzurik?) eta Saizarbitoriaren protagonisten tankerako neurotiko obsesiboen buruhausteak (zergatik naiz errudun?, aski zintzoa izan ote naiz biktimekin?, zer da emakumeak benetan nahi duena?, nolakoa da emakumea?, zergatik sinesten dio jendeak abeslari horri eta niri berriz ez?, zuzen jokatu al ge-

nuen gerra zibilean?, zer da zehazki euskaldun izatea?).

Wittgensteinentzat zein Wisdomentzat, ez du zentzurik galdera horiei erantzuten ahalegintzeak, buru eritasun baten ondorio diren neurrian: behin osasuna berreskuratuz gero berez eta berehala disolbatzen eta desegiten dira.

Halatan, Saizarbitoriaren etengabeko filosofia aipatze hori hurbiltasunak bultzatuko luke, afinitate afektiboak: neure gogo joerak neuk hobetsitakoa ez bezalako adierazpide bat har dezakeela eta hartzen duela egiaztatzeak eragindako lilurak.

Noski, azalpen bakar horrek ez du enigma erabat argitzen. Adibidez, kidetasun afektibo horrekin nahasirik, bada esaldi filosofiko ponposoenganako ironia jolasti bat ere. Amaigabea da interpretazioa, kontagaitzak denborak ekarriko dituen perspektibak.

b) JELOSIA

Saizarbitoriaren jeloskorrak gehiago arduratzen dira beren buruaz eta maitearen sentimenduez beren adarrek gizartean eduki lezaketen oihartzunaz baino.

Ez darakutsate jeloskorraren ohiko ezaugarri bat: gizarteak adarren berri jakiteak eragiten duen desprestigioaren beldurra, jendeak atzetik iseka egingo ote dion. Bi forma hartu ohi ditu beldur horrek: batetik, uste dut maiteak adarrak biltzen dizkidala, konbikzio subjektiboa daukat, frogarik ez, jende orok dakike, ni izango naiz jakiten azkena. Tai gabe ariko dira mihi-mihi-mihi nire bizkar. Eta, bestetik, aurrerantzean ezingo dut nire izen ona berreskuratu, gizartean beti izango naiz gizajo adardun bat, burla orokorrak ez du etenik edukiko. Sentimendu honen oinarrian maiz izaten da jeloskorrak aurretik txutxumutxu gaiztoa erabili izana adardunez berbetan, eta mundu-herriak maltzurkeria berbera erabiliko duen susmoa bere kasuaz pentsatzeko eta mintzatzeko orduan. Bumeran efektua hemen ere.

MAURICE AURREKARI

Egunero hasten delako-ko Maurice duzu *Ene Jesus*-eko protagonistaren, Abaitua bien, Entziklopedistaren eta Martinen aurrekari, jeloskor patologiko diren heinean. Maurice maitemindu egiten da zinez,

obsesionatu egiten da maitearekin, harik eta berarekin oheratzea lortzen duen arte. Ordutik aurrera zeharo galduko du neskarenganako interesa. Inoiz ez da neska berarekin bi bider oheratu. Soilik neska beste mutilen batekin dabilela ikusiz gero berpizten zaio irrika. Horregatik leporatzen dio Jean-Louis adiskideak poligamiarako joera.

Mauricek benetan maite izan du Gisèle zenbait hilabetez. Gisèle birjina da. Azkenik, amodioa egiten dute eta Maurice desagertu egingo da, utzi egingo dio Filosofiako eskoletara joateari. Bestalde, Gisèlek ez du Maurice maite; garbi bereizten ditu sexua eta maitasuna.

Gisèle haurdun geldituko da, eta, Mauriceri ezer kontatu gabe, bakardade zirraragarrian, abortatzea erabakiko du. Xehero ematen du Saizarbitoriak haurdun gelditu berri den neska gazte baten sentipenen berri: betiko usainek nazka eragiten diote, infernuko zalantzak, amaren ahotsa (amari laket zitzaion Gisèleren adatsa, baina honek behin batean, hamasei urte zituela, auskalo zergatik, ebaki egin zuen, eragabeki, eta birjintasuna galdu izanak amaren aurkako buruanputazio hura ekarriko dio gogora).

Mauricek Gisèle nahi du, biziki du desio, baina soilik jabekizun zaion bitartean, ehiztari izaki: behin ehizakia harrapatu, bereganatu, azpiratu eta zulatu ondoren, interesgarri izateari utziko dio eta beste ehizaki baten bila abiatuko da.

Mauricek, emeaz jabetu ostean, utzi egingo du, baina ezingo du eraman berak abandonatu ondoren beste gizon batekin dabilela ikustea. Berak zulatu du ehizakia, berak hil du pieza. Zer ari da hor, bidegabeki berpiztua, beste ehiztari baten eskuetan? Maurice jaio zen eme ehizakiak berak akabatzeko, eta ez hilikoak ustekabean besteren baten eskutik berpiztu direla jasan behar izateko.

Bihotz bi. Gerrako kronikak-eko Entziklopedistak ere emaztea anulatu nahi du. Etxean bere duelarik, ez soilik ez du maite, baizik baztertu eta mespretxatu egiten du. Hori bai, bizitza autonomoa izan dezakeela sumatu orduko, senarrarengandik libre, maitasuna berpiztu egingo zaio, alegia, jelosia, berriro ere emaztea bereganatu eta ezeztatzeko, oraingo honetan behin betiko.

ATZERA BEGIRA BERDE

Jelosia dela eta maiteagatik sufritzeko prest egotea litzateke Saizarbitoriarenean gizonaren maitasuna, inor balego sufritzeko prest. Jelosia ez da maitasunaren ondorio, ezpada maitasuna jelosiaren. Polikarpok Sabineri baziotson «zu zara nire aberri bakarra», *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-ek erakutsiko digu zer gertatzen den emaztea aberritzat hartzen duzularik. Afrodisiakoa da Entziklopedistaren jelosia, baina aldi berean obsesiboa, kontrolatzailea eta hiltzailea, alegia, txit sinesgarria, kontuan hartuz gero jelosiazkoak direla genero hilketen ehuneko laurogei baino gehiago.

Saizarbitoriaren nobeletako muina giza harremanak dira, giza harremanena maitasuna, eta maitasunarena jelosia. Eleberri guztietan ageri da jelosia, eta gai garrantzitsuenetakoa duzu *Ene Jesus*-en, *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-en eta *Martutene*-n. Jelosiak egituratzen du gizonen nortasun afektiboa. *Martutene*-n inoizko sakonkien aztertu eta adierazi du jelosia molde desberdinen nondik norakoa. Desberdin jelosten zaizkio protagonista maskulino eta femeninoak. Eta gizon eta emakume bakoitza ere, desberdin. Itogarri oihularia da Keparen emaztearen jelosia; Juliak,

berriz, gizonaren infideltasunei ezikusia egiteko joera du.

Gizonek, Entziklopedistak, Martinek eta Abaituak, emazteak maite dituzte, baina jelosiak eragozten die bihotzez eta gardenki maitatzea, atzera begirako jelosiak, zehazki. Flora, Pilar zein Julia abandonatuak sentitu ziren garai batean, eta amorante gazte banarekin joan zitzaizkien, Adolfo akordeoilari, Adolfo sasipoeta eta Adolfo neurokirurgialariarekin. Faustinoren eta Floraren edota Martinen eta Juliaren arteko harremanak hautsirik zeudelarik infideltasunak zituen berpiztu. Zentzu horretan da Saizarbitoriaren gizon protagonisten jelosia nagusia amorruzkoa ez ezik afrodisiakoa.

Ordea, berpizteak soilik iraungo du harik eta gizonak andrea berreskuratua duelako bermea ziurtatuko duen arte. Ondoren, infideltasunari loturiko oroitzapenek, irudi mingarri horiek, mamuen jazarpenek, oztopatu egingo diote andrea goitik behera maitatzea, eta gizonaren beraren infideltasunaren akuilu izango dira. Bien bitartean, jelosiak biziberrituriko bikotean, gizonaren desoreka eta min horiek tabu bihurtu dute andrearen iraganeko harremanen aipamena.

Bihotz bi. Gerrako kronikak-en Entziklopedistak eta Florak bezala, *Martutene*-n ere gizon jelostuek bai eta emakumeek egiten ez dutena: maiteari beste harremanei buruzko informazioa atera, bikote sendo batek egia osoa konfiantza osoz partekatu behar duelako aitzakia baliaturik, eta ondoren informazio hori maitearen aurka erabili. Ez sadismo hutsez, gehiago agian masokismoz, pasibo-agresiboa baita Saizarbitoriarenean gizona. Freudek dio erruak bilakarazten duela sadismoa masokismo. Informazio horietan bildutako irudiak oinazetsuak zaizkio gizonari, behin eta berriro gogoratzen ditu edo zaizkio, eta emakumea zigortzeko erabiliko ditu, kontraeraso mendekatian, azken batean emakumeak sentiarazi baitio oinaze hori. Horixe da Faustinoren, Martinen eta Abaituaren atzera begirako jelosiaren zentzua; Martinena itsu eta basatiagoa, autoerrukitsuagoa Abaituarena, dotoreagoa, beharbada Abaituaren beraren ikuspuntutik ezagutarazten zaigulako. Zernahi gisaz, gurpil zoro horrek ez die Saizarbitoriaren bikote helduei bizitzen uzten. Iraganak matxuratzen ditu.

Andrearen nortasuna egokiago dago egituratua orainaldiaz gozatzeko, indartsuagoa eta osasuntsuagoa du arima, prest dago barkatzeko eta ahazteko

maite duen gizonarekin ondo bizi ahal izateko; baina gizonak beti leporatuko dio iraganeko mamua, eta azkenik andrea nazkatu eta etxetik alde egingo du, edo gizonak andrea hil.

Jelosia mota hori, edonola ere, nagusiagoa den arazo baten aldakia da, mendekua, errua eta damua ere barnebiltzen dituena: karga zaigu iragana eta madarikazio oroimena. Saizarbitoriaren protagonistak ezin dira Ithakara itzuli. Irudimenezko maitea eta maite erreala azkenik bat eta bera izan daitezen litzateke Ithaka, baina gizon horiek etengabe dabiltza noraezean, ikasi ezinik ideala ikusten alboko errealitate gordinean, eta horrenbestez sufritzen eta sufriarazten.

BIHOTZ BI

Saizarbitoriarenean, Proustenean legez, jelosia da maitasunaren egia. Neurotiko obsesiboak kontrolatu egin behar du. Prousten jelostuen soluzioa maitea bahitu eta bakartzea izaten da. Entziklopedistarentzat, ordea, *Ene Jesus*-eko protagonistarentzat bezala, bizirik dagoena ezin denez guztiz kontrolatu, orduan

hobe hilik; bahitu eta bakartu baino hobe zuzenean maitea garbituta.

Infideltasunaren aurrean hainbat irtenbide darakuski *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-ek: Hanbre tabernan dilema bat planteatzen zaie afaltiarrei: emaztea beste batekin dabilela jakinez gero, edo beste batekin larrutan harrapatuz gero, eta duintasuna ez galtzeko, zer egin behar da, zein da jokabide zuzena, emaztea bera hiltzea, edo gizonak bere burua, ala biak?

Beltranek, esaterako, emazteak adarrez hornitu duela jakin bezain laster, etxetik botatzen du, doilorkeriak ez duela bere bizitzan lekurik aldarrikatuz. Gero bere buruaz beste egingo du Beltranek.

Matiasi jakinarazten diotelarik bere andrea pilotari batekin harremanetan dabilela, «nik adina jotzen duenerako aspertuko dek hori ere» erantzuten du; eta horixe da heriotzak errematatzen ez duen infideltasun bakarra. Hots, *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-en, infideltasuna inor akabatu gabe eraman ahal izateko, emaztea ez maitatzea da ezinbesteko baldintza.

Bestalde, esaten da Saizarbitoriari, batez ere *Gorde nazazu lurpean* baino lehen, ez zaiola kontakizunaren ordena axola, edonondik has daitekeela, esaterako amaieratik. Eta *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-eko

lehenbiziko esaldiak ere amaiera erakusten digu. Enigma bat ere planteatzen du aldi berean: protagonistak Flora emaztea hiltzeko erabakia hartu zuen gainean hankalatraba jarri eta titiburuak atximurkatzen eta miazkatzen hasi zitzaionean. Ordurako bazekien engainatzen zuela.

Ados, baina zergatik hartu zuen erabakia hain zuzen bere gainean hankalatraba jarri, kamisoia gerritik gora igo eta titiburuxkak atximurkatzen eta hozkatzen hasi zitzaionean?

Hori jakiteko berrehun orrialde pasa irakurri beharko ditugu. Jelosiaren ondorio izango da. Entziklopedistak Flora maitatu izan zuen, baina azken urteotan itsaski zaio emaztea. Gizonak egongelan lo egiten du, ohikeriak eta ezaxolak usteldua dute bikotea. Entziklopedistak maiz nahi izaten du Florarengana hurbildu, ukitu, bien ohean elkarrekin lo egin, baina egoskorkeriak eta harrokeriak eragozten diote, eta sentimendu ilunak gizenduz doaz.

Entziklopedistari buruan pasatu ere egiten ez zaion arren Florak beste gizon batekin harreman bat izan dezakeenik, Adolfo gaztearekin ibiltzen hasia da, etxera berandu iristen, usain berriak zabaltzen. Soilik Florak etxetik alde egitera doala diotsonean, eta,

batik bat, Adolforekin dabilela, soilik orduan berpiztuko da Entziklopedistaren maitasun sutsua. Florak beregain dela erakusten dio; orduan betiko emaztea berri eta arrotz egiten zaio senarrari, eta horrek desira berpiztuko dio. Dena den, desira zinez sutu, beste gizon baten agerpenak eta arriskuak sutuko dio, Flora berea dela ziurtatzeko grinak, norgehiagokak.

Halako batean, ezkontideek elkarri dena zintzotasun osoz kontatu behar diotela erabakitzen dute, inkomunikazioa omen bikotea usteltzen duena. Andreak benetan uste du komunikazioa garrantzitsua dela bikotean. Egia intimoak aitortzen dizkio senarrari, eta prest dago senarraren aitorpenak entzun eta ulertzeko, umorez eramateko. Hainbat aldetan da desberdina Saizarbitoriaren gizon eta emakumeek hitzarekin eta komunikazioarekin duten harremana. Gizonak hasieratik informazio intimoa amarruz eskuratzeko erabiliko du egia osoa aitortzeko zina, bere aldetik hutsalkeriak jakinarazten dituen bitartean. Entziklopedistaren kasuan, datu garrantzitsua da berak ere baduela maitasun harreman bat, Bioleta gaztearekin, eta ohartzen den arren Flora zintzoro ari dela betetzen elkarri dena kontatzeko hitzarmena, berari otu ere ez zaio egiten Bioletaren berri ematea.

Entziklopedistak ez dio emazteari ganorazko ezer kontatzen, ez zaio inoiz benetan irekitzen; aitzitik, irrikaz ateratzen dizkio Florari beste gizonekiko harremanei buruzko xehetasunak: zertaz hitz egiten zenuten? Nola egiten zenuten? Floraren erantzun egiati xehatuek oinazez betetzen dute Entziklopedista, baina hala ere ezin du eragotzi informazio gehiagoren xerkatzea, Floraren gorabeherek hipnotizaturik daukate, harrapaturik eta bereganaturik daukan munstro berdeak datu errealez elikatu nahi baitu. Erauzi duen informazio guztiaren artean oinazetsuena izango zaio maitearen eta beste gizon batzuen arteko sexu harremanei dagokiona. Irudi horiek ezin ditu eraman baina etengabe bilatzen ditu. Horra jeloskorraren sakoneko masokismoa eta Lacanek «jalouissance» deritzonaren irakinaldia, jelosiazko gozamen elektrikoa, jelozamena.

Ezin ordea irakinaldia *sine die* luzatu, eta Entziklopedistak muga bat bilatuko du, alegia, datu bat, irudi bat, eragotziko diona emaztea maitatzea, oinazezko irakinaldi horrek jota maitatzea. Entziklopedistari jazarri egiten diote jelosiazko irudiek eta oroitzapenek; eta, guztiarekin ere, Flora maite du, Flora hiltzeko erabakia hartu ondoren ere maite du, desio du, eta ezin

du maite. Ezin zaitut maite, baina inolaz ere ez dut onartuko beste batek maita zaitzan, are gutxiago zuk besteren bat maita dezazun.

Florak aitortzen dionean Adolforekin amodioa egiten zuela honen gainean hankalatraba jarri eta titiburuak atximurkatuz, eta handik pixka batera ezustean Flora bera gainean hankalatraba jarri eta titiburuxkak miazkatzen hasten zaionean, orduantxe erabakiko du emaztea hiltzea.

NESKA GAZTE EDERRAK GIZON ZAHARRA NAHI

Sakona izaten da jelosiaren eta depresioaren arteko harremana. Orobat, jelosiaren eta autoestimu ximelaren artekoa. Entziklopedistak ez du harremanik bere adinkideekin. Soilik sentitzen da indartsu eta erakargarri zaharren artean, edota Bioleta bezalako bera baino askoz ere gazteagoekin. Nietzschek dio bere burua mespretxatzeko joera duen gizonarentzat neska argi baten maitasuna dela erremediorik ziurrena.

Entziklopedistak berrogeita hamar urte ditu, Bioletak hogeita hamar gutxiago. Entziklopedistaren aita aldi berean Bioletaren aitona ere izan zen. Beraz, osaba-ilobak dira. Ba ote du erlaziorik jelosiak intzestuarekin? Ez da ahaztu behar Entziklopedistak bere bizitza Floraren kontrolean zentratua duen jelosialdian dauzkala hain zuzen Bioletarekin harremanak.

Zergatik bilatzen du Bioleta lako neska gazte eder batek Entziklopedista zahar ergela? Batetik, Bioletak jakin lezake Adolfo Florarekin dabilela. Bere lehiakidearen senarra ezagutu nahi luke, morboak bultzaturik, eta beharbada mendeku hartu.

Bestetik, umetan galdu zuen aitaren ordezkoa xerkatzen du, adinari dagokionez aitaren antzekoa. Lynn gaztearen maitemintze azkarrean Abaitua zaharraz, bigarren zergatiko hau errepikatuko da, txikitan hil baitzitzaion aita.

Azkenik, odolaren tiradizoa legoke, intzestu irrika inkontzientea. Iloba duela egiaztatzeak Entziklopedista ez du inolaz ere Bioletarengandik aldenduko.

Endogamiaren aurkako Saizarbitoriaren borrokaren adierazpenetako bat dirudi jelosiazko hilketa intzestuari lotzeak.

MAITEA ERRUDUN SENTIARAZI

Saizarbitoriaren obran jelosia ez da egoera bat, baizik eta bilakaera bat, istorio bat. Prozesu horren hasieran proiekzioa izaten da beti. Entziklopedistak eta Martinek bere buruaren aurka itzultzen ikusiko dute, maiteari leporatzen dioten infideltasunaren bitartez, aitortu gabeko beren infideltasuna.

Jeloskorrak etengabe sentitzen ditu bere baitan bulkada infidelak. Saizarbitoriarenean, ez dago bikote fideltasun berezkorik. Antzeko zerbait ageri baldin bada axalekoa izango da eta bizitzari beldurrak erabakia, edota interes ekonomiko eta afektiboek, *Martutene*-ko mediku Arreseren kasuan bezala. Edonola ere, ezin da fideltasunari dagokion tentsio subjektiboa saihestu. Freudek garbi erakutsi zigun zergatia: libidoa berez da mugikorra, bere jatorri polimorfikoak ezegonkortasun kroniko bat kutsatzen baitio.

Proiekzioari esker, barruan sentitutako ugaritasun mugikor arriskutsua, behin erreprimitu ondoren, ez barruko baizik eta kanpoko gisa datorkio atzera kontzientziari. Paul-Laurent Assounen esanetan, jeloskorrari, ezin duenez bere baitako tentazio infidela zeha-

ro itzali, maitearen infideltasunaren irudietan itzuli egiten zaio beraren joera infidelen hautemate endopsikikoen adierazpen zapaldu eta deformatua.

Alegia, Entziklopedistaren eta Martinen tankerako jeloskorrek, beren baitako erruzko tentsioa apur bat baretzearren, mekanismo proiektibo bat abiaraziko dute: tentaldi eta aldakortasun horietan berak ere jausten direla maiteari ezkutatzeaz eta ukatzeaz batera, maitearengan berarengan detektatuko dituzte eta maiteari egotziko beren baitan sentitzen duten bekatua. Mamuekin dabiltza gezurretan. Gaiztakeria egin ondoko umearen antzera jokatzen dute eta mintzo dira: «Ez naiz ni izan, zu baizik, zu zara erruduna!»; eta bere egia gorde eta maitearengandik aitorpen intimoak maltzurki erauzi ondoren: «Esan duena, bera errudun!».

Emaztearen infideltasunaren bidez, erreala zein susmozkoa, bere bekatua lekuz aldatu eta bere infideltasun propioa baztertzea eta funtsez gabetzea erdiets dezake, are izatez gabetzea: Saizarbitoriaren jeloskorraren infideltasuna, maiteari infideltasuna egozten diolarik, desagertu egiten da haren kontzientziatik, existitzeari uzten dio.

Entziklopedistak zein Martinek, maitearen aurkako mamuzko zartako horren bidez, kontsolamendu aizun bat irabaziko dute: beren buruari barkatuko diote, egia itzalita bada ere. Beren zaborra maitearen gainean isuririk garbiago sentituko dira. Jeloskorrak, maitea susmopean eta salaturik daukan bitartean, bere burua infideltasun tentazioez zuritu eta ez da errudun sentituko. Hori bai, ezinbesteko baldintza du aldi berean tentazio horiek maitearengan ikustea eta maitea errudun sentiaraztea.

Horregatik, ezin dio utzi maitearen infideltasunaren frogak bilatzeari. Frogak aurkitu arte ez du atsedenik, nahiz eta frogak ez diren beti errealak, baizik eta bere froga beharraren mamitze haluzinatuak, Othelloren zapia aitzindari duen Entziklopedistaren dominako ile xerloa, kasu. *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-eko hilketan garrantzi erabakigarria izango duen ile xerloa ez da Adolforena, ezta Mikele de Abandorena ere, baizik eta Entziklopedistaren beraren pubiseko xerloa, Florak berak hura lo zegoen bitartean ebakia ziur aski eta dominan gordea. Entziklopedistak Adolfo zigortzeko erabili nahi zuen frogarik garrantzitsuena, halatan, Entziklopedista bera kondenatzeko erabiliko du justiziak.

Horixe izaten baita Saizarbitoriarenean patuaren gauzatzeko manera.

Saizarbitoriaren jeloskorrari, ohiko mutur ilun eta erantzukiekin zuzentzen zaiolarik maiteari, honek arrazoi osoz erantzun diezaioke: «Laztana, bilatu hire bizitzan leporatzen didaana. Beno, ez duk zertan bilatu, aurkitua duk, primeran baitakik zertaz ari naizen. Hoa pikutara, infidel alaena».

HIRUGARRENA

Saizarbitoriak maitasuna ez du inondik inora Erich Fromm baten moduan ikusten, modu eskuzabal eta ireki batean (laztana, benetan maite haudalako hire askatasuna dun maiteen dudana; hortaz, beste batekin oheratzeak zoriontsu egiten bahau aurrera, hire zoriona baita oroz gain maite dudana), baizik eta Freuden, Prousten edo Girarden moduan. Girarden iritziz, ez dugu hasieran bikote harreman bat, eta ondoren sartuko litzatekeen hirugarrena, jelosia eragingo lukeena; aitzitik, hasieratik beretik sartua dago hirugarrena maitasun harremanean, maitasuna mimetikoa baita, soilik maita dezakegu hirugarren batek

maite duena edo maitatzera irits daitekeela sumatzen duguna.

Spinozak zioen jelosiak gorrotoa eta bekaizkeria biltzen dituela: alde egin dizun maitearenganako gorrotoa eta bereganatu duenarenganako bekaizkeria. Jeloskorrari jasangaitza zaio maitearen beste edozein harreman. Hautsi egiten dizkio banan-banan, maitearen bizitza osoa berarengana erakarri nahi du. Ordea, behin Adolfo hirugarrenarekiko harremanak etenarazi ondoren, behin osotoro duenean berarentzat, jeloskorra desinteresatu egiten da eta maitearen afektua abandonatu egiten du, maitatzeari uzten dio, sentimendua beste norbaitengana bideratuko du.

Jelostuak maite du, baina ezin du maite. Jelostuaren desira eragotzia dago, maitearen oroitzapen batek, edo irudi batek, maitearen desira beste batengana doala erakusten diona, gogoan trabatu baitzaio.

Jelostuak ezin du inolaz ere bere egin maitearen desiratzeko autonomia, bere jabetzatzat hartzen du, kontrolatu nahi du. Baina behin kontrolpean duelarik, maitatzeari uzten dio. Maitasun mota horren hazkurri bakarra da arriskua, maitea beste batekin joan dadin. Hirugarrenik gabe ez dago maitasunik. Horregatik maitemintzen da errazago jendea arrakastatsu ospe-

tsuaz ezezagunaz baino, irudikatzen baitu arrakastatsuak desira ugari pizteko gaitasuna duela; aldiz, ezezaguna pribatutasunaren mugan itxirik dakusa, bikote harremanaren harresi barruan gatibu.

Entziklopedistaren eta Martinen jopuntu garrantzitsuena Flora edo Pilar amodioz pitean-pitean betez, ez da maitea bera, baizik lehiakidea, Adolfo; maitea maitatzea bitarteko bat da, lehiakideari gailentzea da xede gorena. Maitearen gorputzaren gainean larrua berriz eta berriz jotzen duelarik, lehiakidea du beti presente, jo bitartean alboan balute bezala, begira, eta jeloskorrak maitearen jabetza azpimarratu eta lehiakideari min egin baino besterik nahi ez balu bezala amodioa sutsuki egite horren bidez. Emakumeak beranduegi egiaztatuko duenez, jeloskorrarengan boterea maitasunari gailentzen zaio.

Zehazki mintzatzera, edozein lagun baino gehiago jeloskorrak maite duena da soilik bere irudimenean dagoen gozamen mota bat, gure kasuan Adolfok Florarekin edo Juliarekin lor omen dezakeena. Horixe da jeloskorrak berarentzat nahi duena, hots, maite duena. Entziklopedistak eta Martinek maite dute beren ezaugarri eta gaitasun zenbaiten abian jartzea eta isiotzea; imajinatzen dute Florak edo Juliak Adolfo-

renak behar bezala isiotzen eta abiarazten dituztela, eta horregatik kendu nahi dizkiote Adolfori eta beren zilborraren eta zakilaren ingurura erakarri. Puntua da proiekziozko pizte horrek ez dituela jeloskorraren irudimenaren mugak gainditzen, errealitatean ez da gertatzen; maitearen eta Adolforen arteko harremana ez da jeloskorraren eta maitearen artekoa baino pizgarriagoa izaten.

XARETATIK ZELATAN IRAKITEN

Saizarbitoriaren jeloskorrari iragana eta oroimena arerio eta oinaze iturri zaizkio; aitzitik, Saizarbitoriaren obraren ikertzaileoi lagungarri dakizkiguke, besteak beste, jeloskorra hobeki ezagutzen ahalegintzeko orduan. Horra hor, berbarako, jakitate etimologikoa.

Euskaraz «jeloskor»ekin batera «jelos» dugu, eta «jelosia», ziur aski frantsesetik ekarriak. Antzinako frantsesean «gelos» zegoen, «gelosie» eman zuena.

«Gelos» hori latin arrunteko «zelosus»etik eratorri zen, eta hau, berriz, latin berantiarreko «zelus»etik, zeinak grekozko «zelos» baitzuen jatorri. Hau «zeo»tik zetorren, esan nahi baitzuen «irakiten ari naiz».

Latin berantiarreko «zelus»ek, dena den, antzinako frantseseko «zel» ere eman zuen.

Gure «jelos» horren jatorri den latin arrunteko «zelosus» eleak kezkati eta lehiatsu esan nahi du. Jelosia adikzio antzeko bat litzateke, menpekotasun morbido bat. *Ene Jesus*-eko protagonistak, Entziklopedistak zein Martinek, Saizarbitoriaren jeloskor prototipikoek, maitearenganako ezohiko eta desorduko zeloa erakusten dute.

Biblian zelotea judu abertzalea da, Jainkoaren eta Toraren kezka eta zeloa darakutsana, beti prest odola eta bizia Jainkoaren zein liburu sakratuaren alde emateko.

«Zelo» berbaren adieren artean badago gehiegizko presa, ardura, debozio eta sugarrarena, kausa zein lagun baten alde. Badu fede itsuaren konnotazioa, ergelkeriaren mugan. Paul-Laurent Assounen irudiko, fanatismoa litzateke zeloaren berezko gehiegikeriaren adierazpen burutua. Maitearen fanatikoa duzu jeloskorra.

Jeloskor diren heinean, *Ene Jesus*-eko protagonistaren, Entziklopedistaren eta Martinen ezaugarri nabarmenetakoa da beti dabiltzala zelatan, egunez zein gauez, halaber ametsetan. *Martutene*-ko Atarikotik

pintatzen du Martinek bere burua zelatari gisa, eta aurrerantzean Juliak grina horren hainbat alde eta hainbat gauzatze azpimarratuko ditu. Lynn zelatatuko du batez ere Martinek.

Edonola ere, ematen du «jelos» hitza XII. mendea baino lehen igaro zela frantsesetik euskarara, ez baldin bazen are lehenagotik pasatua zuzenean latin arruntetik.

Izan ere, frantsesez XII. mendetik aurrera lehenbiziko silaban «e»ren ordez «a» bitxi bat itsatsi eta «jalousie» bilakatu baitzen.

«Jalousie» hitza trobadoreen poesian agertu zen aurrenekoz, proventzeraz, 1135-1150 urteetan. Hemendik 1160 inguruko *Roman d'Énéas* delakora igaro zen, eta berehala oro harturiko frantsesera. Irudi luke «jelosia» hitza eta «gortesau amodio» deiturikoa aldi berean suspertu zirela, eta ez da txiripa, maitea idealizatzeaz batera susmoak pizten baitira, azpitik orbandua ez ote den; jelosiak maitea kezkaz desiratzea eta lehiakide baten itzala biltzen baititu.

Nondik ote datorkio frantsesezko «jalousie»ri «a» hori, latin arruntean «zelosus» bazen, euskaraz «jelosia», espainolez «celos»? Dakitenek diotenez, «jal» hitzak kutsatuta erantsi zioten frantsesek, eta antzina-

ko frantsesez «jal» oilarra zen, jelosiaren sinbolo totemikoa, hegazti harroa, ezproi izugarriak betiere gertu bere artasun esklusibistaren alde borrokatzeko oilategian.

Beraz, XVI. menderako aspalditik zuten frantsesek «jalousie» elea. Alta, XVI. mendetik aurrera «jalousie» deituko zaio egurrezko edo burdinazko saretari ere, pertsianari, ikustea ahalbidetzen duena ikusia izateke. Euskaraz ere «zelosia» erabili izan da zentzu horretan, nahiz eta gaur egun maizago entzuten den «xareta». Nolanahi ere, bitasun horrekin jokatzen du Robbe-Grilletek, Saizarbitoriak hain maite duenak, jelosiari buruzko *La jalousie* eleberrian, estua baita, esan bezala, jelosiaren eta behatzearen arteko harremana.

Jelostua beti dago begira, maitea eta lehiakidea ez lituzke sekula bistatik galdu nahi; Entziklopedistak haien inguruan antolatzen ditu bere kezka eta ekintza guztiak, desira eta herra baturik, maitasuna eta gorrotoa, begitan ditu baina baita aldi berean begiko ere, ilunki. Martin zelosoa zelataria da, oroitzapenik zaharrenetan ere zelatan ikusten du bere burua. Dirudienez, Juliak beroki gorria jantzi zuen egun erabakigarri hartan zelatatu egin zituen amoranteak, hori uste du Juliak, bederen...

Saizarbitoriaren jeloskorrak, bestela, maitea eta lehiakidea aurrean ikusgarri ez dituelarik ere, irudikatu egingo ditu, *Hamaika pauso*-ko Abaituak Julia eta Zigor bezala txortan. Jeloskorraren ametsa baita ezkututik eta ikusia izateke maitea eta lehiakidea zelatatzea eta larrutan harrapatzea. Ikuskizun gogorra, bortitza, mingarria, liluragarria, gogoangarria. Ordaindu ere egiten du jendeak, franko, zirrara horren truke.

c) MENDEKUA

Saizarbitoriarenean giza harremanak eta herrien artekoak elkarren ispilu dira, saiakerak idazteko orduan bederen herriaren aldarteak eta jokabideak nortasun pertsonalari balegozkio bezala aztertzen eta epaitzen ditu. Herrien arteko gatazketan politika da mendeku gosea gainditzeko artea, horrela definitzen du Koldo Izagirreren Metxak, eta Saizarbitoriak berak ikuspuntu hori harreman pertsonaletara ere hedatzen du.

Egia da *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-eko Entziklopedistaren hilketa mendekuak bultzatzen duela, baina

jelosiazko mendekua da, eta, nolabait, mendekua jelosiaren barruan dauka tolestuta, zabalagoa du jelosia mendekua baino. *Bi bihotz, hilobi bat*-eko Entziklopedista, berriz, mendekati aratza da. Bere patua eta Florarena determinatuko duten erabakiak jelosiatik libre den mendekuz hartzen ditu. Lehenbizikoan, Florari Parisera joatea eskaintzen dio, Lur Hiztegi Entziklopedikoaren sariari esker. Florak mespretxuz erantzuten dio, eta Entziklopedistaren mendekua Bioletarekin joatea izango da.

Bigarrenean, bikotekideek papertxo batean elkarri aitortu gabeko egia gordinak idaztea erabakitzen dute. Gizonak koldarki idatziko du. Flora ohartzen da eta irainen bidez nahiko dio Florak senarrari egia erauzi. Eta Floraren irainen aurkako mendekua izango da honi sinetsaraztea ama abertzalearekin batera hilobian dauden hezurrak ez direla aitarenak, baizik eta guardia zibil batenak.

Sentitzen duzularik bidegabeki eraso edo iraindu zaituztela, aukera bi dauzkazu: erantzun edo ez erantzun. Hegelek dio hor erabakitzen dela norberaren patua. Jesu Kristok ihardukiari ukoa aldarrikatzen zuen, beste masaila eskaintzea, etsaia maitatzea. Gabriel Arestik gomendio giristino hori ez praktikotzat

joko du, eta Saizarbitoriak inuzentetzat. Entziklopedistak ere ez du Jesu Kristoren bidea ibiliko.

Nietzscheren ustez, larregizko sentiberatasunaren eta ahuleziaren eraginez zegion uko Jesusek ihardukiari. Dena den, litekeena da borrokari ukoa ez etortzea beti eta ezinbestez makaltasunetik eta ezinetik; Lynnena bezalako kemen arraro batetik ere etor bailiteke. Saizarbitoriarenean zein Historian uko hori ia ez da erabili izan, eta horregatik ez dakigu ez ote den lehen begiratuan dirudiena baino eragingarriagoa epe luzera. Gerra galdu zuen gudari zaharrari zalantza gelditu zitzaion, ez ote zatekeen hobe gerran sartu ez izana. Bizitza pertsonalean ere, Saizarbitoriaren protagonistek inoiz ez dute esperimentu interesgarri hau egiten: zenbait hilabetez uko beren burua defendatzeari.

Edozein gisaz, ia jende guztiari, Hegel eta Saizarbitoria barne, zuzenagoa iruditzen zaio irain injustuari erantzutea: ekintza, ihardukia, borroka. Horixe da, bederen, Saizarbitoriaren protagonisten bidea. Nobelagilearen ñabardura: «Eraso bati arrapostu egiteko desioa bidezkoa eta ongarria ere izan daiteke noski, erantzuna arrazionala eta neurrikoa den bitartean; nolanahi ere, iturburutzat duen kalteak berak baino ga-

lera handiagoak ez lituzke sortu behar zuhurra izateko». Haatik, Saizarbitoriaren protagonisten arrapostua ez da ez razionala ez neurrikoa izaten. Ez dute garaiz erantzuten. Hasieran, makurtu eta injustizia isil-isilik irensten dute, barrualdea usteltzen zaie eta ondorioz baita kanpoaldea ere, proiekzioz. Mendekatiak joera baitu jende oro hobendun sentiarazten entseatzeko, bere mendeku grinarekin bat egiten ez duen heinean.

IHARDUKI

Nietzschek ihardukia eta mendekua bereizten ditu. Lagun libre eta osasuntsuak iharduki egiten du, ondoren ahaztu eta bizitzen jarraitu ahal izateko. Erantzun ezazu behar bezain bortizki, eta kolpe horrek eragingarriki uxa ditzala etsaiaren irainak, traizioak eta gainerako eltxo gogaikarriak. Ahaztea ez da gabezia bat, baizik eta ezin onuragarriagoa zaigun fakultate aktibo bat: asko ahaztu beharra dago berriari leku egitearren.

Aldiz, Saizarbitoriaren protagonistak, oro har, eta *Bi bihotz, hilobi bat*-eko Entziklopedista, zehazki, mendekatiak dira, besteak beste, ezin dutelako ahaztu. Ez

direnez une egokian eta ganoraz erantzuteko gai izaten, iraina irentsi egiten dute eta aurrerantzean irainean finkatuko dute beren sentimendua, inoiz ez dute iraina ahaztu ahal izateko moduko ihardukirik joko. Parisen, Bioleta alboan, Entziklopedistak Floraren nostalgia izango du. Mendekua inpotentziaren adierazpen bat da, ihardukitzeko gai ez denak jotzen du mendekura.

Hobe da, behin egoerak eskatzen duen iharduki merezi bezain bortitza jo ondoren, iraina ahaztea, bestela mendekua ez baita amaitzen eta mendekatiari berari zapuzten dio bizitza. Erantzun eraginkor eta artistiko bat beharko litzateke. Florak Entziklopedista iraindu du, bidegabeki; horrek Entziklopedista goibeldu du, etsi. Orduak eta egunak galduko ditu pasio triste horien pean, mendekuak harrapatuta. Ez da gai Florari behar bezala erantzuteko eta aldi berean erantzunaren bidez ondo pasatzeko.

Mendekatiaren oroimena eta bizitza bera oinaze hutsa da. Ikaragarrizko oroimen indartsua izaten du, gomuta orori zornea dariola. Saizarbitoria: «Ugariak dira literaturan noizbait jaso zuten iraina, edo egin zitzaien kaltea medio, haien ordain nahi luketen mendekua lortu ezinean, hira egunaren zain, beren biziak

alferrik galtzen dituzten pertsona, familia eta herrien adibideak. Mendeku neurotikoa bizitza berarenganako jarrera mendekaria bilakatzen baita; bizitzeko modu bihurtuz, modu txar bat jakina».

Infernua da mendeku kate amaigabe horietako batean amiltzea, hala nola belaunaldiz belaunaldi luzatzen diren familien arteko liskarrak, edota herrien artekoak. Azkenean jendeak ez du gorrotoaren kausa gogoratzen; ez da gelditzen mendeku behar gordina baino.

Mendekatiarengan, ekintza beharrean, ihardukia garaiz, sentimendua dugu, erresumina, etengabeko marmarra, kexua eta irudimenezko konpentsazioak. Deleuzek dio osasuntsuak badakiela haizea alde jartzen zaionean mamitzen bidegabekeriaren aurkako bere ihardukia. Gai da bere erreakzioa abagune egokian aktibatzeko.

TARANTULA

Aldiz, mendekatiak ez du erreakzioa aktibatzen eta oinazea barneratu egiten du, sentimendu bilakatu. Mendekua sentimendu bat da, garaiz aktibatu gabeko

erreakzioak sortua. Mendekatiaren barrualdea erruz, damuz eta erantzukiz dago osatua. Tarantula litzateke mendekua, iraganeko ausiki zornetsua, eta osasuna, ostera, amarauna aienatu eta mendekutik askatzea. Ez dago ordea Saizarbitoriaren protagonista osasuntsurik. Idazleak dioenez, «mendekuaren ondorioak [...] geure kontra itzuli ohi dira. Gatazka intimoen konponketak ez dira bide okerretik etortzen, maiz asko esperantza neurotikoek bestelako usteak elikatu arren».

Ihardukitzailearen garuna malgua da, moldagarria, freskoa, zabalik dago kitzikapen berriak jasotzeko. Mendekatiarena, berriz, gogortu egin da, zurrundu, eta irainak burmuinean utzi duen aztarna ez da sendatzen, mendekatiaren bizi indarra aztarna horretan finkatzen baita. Psikoanalisten mintzamoldean: mendekatiaren libidoak aztarna mnemiko hori behin betiko inbestitzen du, mendekatiaren digestioa sekula bukatuko ez balitz bezala. Aurrerantzean, irainaren aztarnak mendekatiaren gogo osoaz jabetuko dira. Oinazea izango da nagusi bere bizitzan. Edonorengan sumatuko du erruren bat, oroz lehen bere baitan. Sentitzen du inork ez duela bere mendeku gosearekin bat egiten Ilustrazioaren Etika Unibertsalak exijituko lu-

keen bezain sakonki. Biktima izatea da mendekatiaren izaeraren eta bizimoduaren funtsa. Baina inor ez du ezaugarri bakar batek definitzen, eri izan ezean, eta Saizarbitoriari bere protagonisten eritasunak ematen dio joko artistikoa.

Esaten da biktimari oinazearen handitasunak eta indarraren txikitasunak eragozten diola iharduki eragingarri bat garaiz asmatzea, tarte zabalegi horrek eragindako paralizatzeak bilakaraziko luke mendekati. Hau da ohiko ikuspuntua, baina Nietzsche ez dago ados.

Nietzscheren esanetan, hemen giltza ez da neurria baizik tipologia: gizaki mota bat da mendekatia. Erabakigarria ez da jasandako erasoaren tamaina edota minaren sakontasuna, ezta ere mendekatia bera zeinen indartsua den. Puntua da mendekatiak bere indar guztia, berdin dio neurriak, min horretara bideratu eta bertan finkatzen duela. Horregatik ez da gai erreakzionatu eta ganoraz erantzuteko: amaraunak du baldartzen. Halatan, mendekatiaren erreakzioa ez da sekula amaitzen, ezin baita sentitua izatetik askatu; ezin, horrenbestez, aktibo izatera heldu. Eta ez aktiboa baizik sentitua den erreakzioak, *Bi*

bihotz, hilobi bat-ek erakutsi bezala, azken beltza izaten du.

d) AURREKARI ILUNA

Zein da Saizarbitoriaren obraren giltzarria? Ez da bakarra. Alde nagusi bi ditu obrak, gerra eta bihotza. Horren arabera, bereiz litezke batetik gizarteari eta historiari dagozkion giltzarriak, eta bestetik maitasun harremanei eta arazo pertsonalei lotuak, azalpenari begirako bereizketa artifiziala inondik ere, Saizarbitoriarenean bildurik baitabiltza azken batean gizabanakoa eta bere herria. Dena den, bigarren multzoaren giltzarri bakar bat aukeratu behar izanez gero, infideltasunaren gauaren eta amesgaizto errepikariaren aurrekari iluna litzateke agian hautagairik sendoena.

Saizarbitoriaren protagonistak sekreturen bat izaten du, berak ere ezagutzen ez duena, inkontzientetik bere jokabidea eta, idazle delarik, bere obra ere erabakiko duena. Protagonistaren «oroimenaren kolko handiak eta beronen sabel ezkutu izugarriak» gordetzen du sekretu hori (San Agustinen eleak). Sekretua da Martinengandik Julia erakartzen duena.

Saizarbitoriaren obran, maizen errepikatzen den eszena infideltasunaren gaua deitutakoari dagokio. *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-en, bertatik bertara; *Martutene*-n, berriz, Abaitua ginekologoaren eta Martin idazlearen oroitzapen sarkin gisa, orainaldian ezustean agertu eta maitasun harremanak zapuztera etorria. *Hamaika pauso*-n bazegoen jada, nahiz eta irakurle arruntok artean ezin genuen jakin zertaz zihardu en. Abaitua Susanari so: «Ate ondoan zekusan, biluzik, konketa gainean makurtuta, eskuak bere espermaz garbitzen, ziur asko. Hori pentsatu zuen, bere hazi likina deserantsi nahian zebilela, eta pentsakizun hark samin zahar bat berpiztu zion».

Gertaerak: gizonak abandonatua du afektiboki emaztea, gela desberdinetan lo egiten dute, ia ez dute hitz egiten. Gizonak beste harreman bat dauka. Emazteak gero eta ordu gehiago pasatzen ditu etxetik kanpo; gizonak uste duenez, beste andre baten etxean. Batzuetan berandu itzultzen da. Gizonak urduri itxaroten dio.

Behin batean, gau osoa ematen du kanpoan. Gizonak, itxaronaldi luzean, sardina lata franko irekiko du, tabako kirats hotza zabaldu, andreari pena emateagatik.

Behin etxera itzulitakoan, andrea logelara doa, beroki gorria soinean, eta ohe ertzean jesartzen da. «Lo hartu dut», dio. Eta, ondoren, «ni banoa». Orduan gizona, zoro legez, belaunikatu eta «ez nazazu abandonatu» erregutzen dio, emaztea gerritik oratzen duela, negarrez. Andreak, azkenik, amore eman eta maitasuna egiterakoan «oraindik ez naiz garbitu» jakinaraziko dio gizonari. Gizonak artean ez du ondo ulertzen. Gero ohartuko da andreak adierazi nahi izan diola ez duela amorantearen esperma garbitu, eta bi gizon desberdinen semena barruan nahasteak higuina eragiten diola, promiskuitatearen adierazpen gordinegia zaiola. Nolanahi ere, amodioa egiten dute.

Hurrengo egunetan ere sutsuki joko dute larrua, elkarrekin aterako dira, bolada apasionatua. Gizona bere onetik aterata dabil, amodioz edo auskalo. Elkarri egia esan behar diotela hitzartzen dute. Emazteak egia garrantzitsuak aitortzen dizkio, gizonak aldiz azalkeriak edo kurtsikeriak baino ez. Gizonak, behin emaztea alboan ziur sentitzen duelarik, errudun sentiaraziko du, infideltasuna gogoraraziz edozein aitzakia baliaturik eta krudelki, eta erauzi dizkion aitorpenak bere aurka erabiliz. Behin betiko matxuratuko da harremana.

Martutene-n zazpi urte igaro dira infideltasunaren gauaz geroztik, baina gizonak ez du barkatu eta emazteak badaki gizonak ez diola barkatu. Gutxien espero duenean datozkio gizonari gau hartako irudiak, behin eta berriz. Gizona hunkituta eta maiteminduta emaztearengana hurbiltzera doan aldiro, infideltasunaren gauari loturiko oroitzapen intrusibo batek amorrarazi edo hoztu egingo du, urrutiratu.

Martinek, infideltasunaren gaua oinarri, ipuin bat idatzi du, »Beroki gorria jantzita ohe ertzean jesarria dagoen emakumea», eta «Maitasuna eta gerla» bere eleberriko *leit motiv* nagusia ere bada, Saizarbitoriaren *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-ekoa den bezalaxe. Juliak uste du idazleari «atsegin makur» bat dakarkiola oroitzapen mingarri hura idatziz berpizteak.

Aldi berean, Martinek amesgaizto errepikari bat pairatzen du: ate batetik bikote bat erdikusten du, neska gazte bat ohe ertzean eserita, izokin koloreko azpikogona batez jantzia; eta maskara batez aurpegia ezkutatzen duen gizon batek ezkerreko eskua neskaren eskuineko besagainean jartzen du. Martin ez da ohartzen amesgaiztoak infideltasunaren gauarekin duen antzaz. Gero eta ozenago eta gogorrago entzuten den kanpai durundak itzartzen du Martin ames-

gaiztotik, izerdi patsetan blai. Bereziki petralduta igaroko du biharamuna.

Irakurlea bai, konturatzen da amesgaizto errepikariaren eta infideltasunaren gauaren arteko antzaz. Elkarren ispilu dira? Ala aurrekari ilun komun bat ote dute, bata zein bestea eragin duena?

Lynn ohartzen da Martinek bezperan bere familiarekin egon denean egiten duela gero gauez amesgaiztoa. Zerikusia izango du agian. Martinek ez du uste.

Harik eta egun batean arrebak jakinaren gainean jarriko duen arte. Arrebak diotso gurasoak bereizi behar direla, amak aita etxetik bota nahi duela. Aita eta aitaren erizaina. «Ese individuo y esa puta», amaren hitzetan. Jakin ez dakite, baina amak usaindu du zein den Abaitua ginekologoak maltzurki bideratuta aita zaintzeko hartu duten neskaren zinezko lanbidea. Aitak oso du gustuko; amak batere ez. Arratsalde batean, ama-alabek erizainaren logelan dakuskite: neska dominikarra ohe ertzean eserita, amaren azpikogona, izokin kolorekoa, jantzirik, eta Martinen aitak eskua besaburuan jartzen diola.

«Duela berrogei urteko estanpa bera», arrebak Martini; «Zer estanpa?». Martin ez da oroitzen eta arrebak kontatuko dio: egun batean, Martin eri zela,

amak seme-alabak hartu eta Artzain Onaren ondoan zuten etxe batera eraman zituen. Gelaz gela ateak ireki eta azkenik Otzetako neskamea ohe ertzean eserita ikusi zuten, izokin koloreko azpiko gona jantzirik, azazkalak gorri biziz margoturik, eta Martinen aita zutik, eskua besagainean pausatzen ziola.

Martinek biziki maite zuen Otzetako neskame hura; baita aita ere. Ikuskizun horren ondoren sukar handiz eta eldarniotan igaro zituen egun batzuk. Ostean, itxuraz, dena ahaztu zuen. Ahaztutako ikuskari horrek, dena den, erabaki du eta erabakitzen dihardu Martinen bizitza.

Izan ere, amesgaiztoaz gain, esan bailiteke ohartu gabe Saizarbitoriaren protagonistek eszena arkaiko hura esna ere errepikatu nahi izan dutela, kostarik kosta. Emaztea Otzetako neskamearen rola jokatzera bultzatzen dute, gizonak berak aitarena egin ahal izateko.

Mingarria zaie dena. Hala ere, gozamena bilatzeko joera baino indartsuagoa zaie, antza, mingarria errepikatzeko irrika, errepikatu beharrekoa trauma giltzarria baldin bada, behinik behin.

Horrek azalduko luke zergatik dituzten nahiago Saizarbitoriaren protagonistek emazteak, are estu,

idor eta zakar zaizkielarik, amorante gazte eder maitagarriak baino. Bioleta, Barbara eta Lynn bezalakoek zinez maite dituzte, baina elkarrekin daudenean gizonak emaztearen nostalgia izaten du. Zergatik? Emaztearekin errepikatu duelako bere nortasuna eta bizitza egituratu eta erabaki duen jatorrizko estanpa. Amorantea atsegina da eta polita, baina ez dizkio geruzarik sakonenak ukitzen, aldendu egiten du aurrekari iluna errepikatzetik.

Saizarbitoria ezkorragoa da Freud baino: inkontzientea kontziente egiteak ez du sendatzen. Martinek orain badaki zein den bere sekretua, zergatik den zelatari jeloskor bat, nondik datorkion neurosia. Eta hala ere ez du gainditzen. Infideltasunaren gauaren zein amesgaizto errepikariaren oinarrian zegoen aurrekaria jadanik ez zaigu ilun, argitu da sekretua; sufrikarioak indarrean dirau, haatik. Hori bai, orain arteko amesgaiztoa desagertu eta beste batek ordeztuko du, literaturari lotua: testua letraz letra isurbide batetik ziztuan desagertzen da, lasterregi hitzak identifikatu ahal izateko. Martinek baten bat identifikatzea lortzen duenean ere ez du ulertzen, ezezaguna baitzaio hizkuntza.

Azkenik, Julia Martinen sekretua ezagutzera iritsi da, baina arrunta eta hutsala iruditzen zaio, ordezkagarria. Zentzu horretan, hain psikoanalitikoa dirudien *Martutene* psikoanalisiaren aurkako zartako eder bat ere bada aldi berean. *Martutene*-ren arabera, gure nortasuna egituratzen duen sekretu ezkutu ponposo horrek franko du protagonistaren egolatriak neurriz gain hanpaturiko ezdeuskeriatik.

11
Patua

Bihotz bi. Gerrako kronikak-eko Samuelek garbi dauka: «Patua idatzirik dago». Entziklopedistak, berriz, atsegin du «gizakiaren patua aukera desberdinen artean zintzilik ikustea. Hori zait laket istorioak entzun edo irakurtzen ditudanean, kontakizun den gertakizuna, hosto haizeratu baten eragin hutsaz, beste era oso desberdin batean gerta zitekeela pentsatzea. Eman dezagun kalea gurutzatzerakoan autoak harrapatuta hiltzen den norbait. Gizon bat. Gurutzatzeko zegoela, platanondo hosto baten jauste geldoak hartu dio gogoa. Demagun lau segundo, 'hosto hilak hondartzan biltzen dira, eta gogoan dut kantatzen zenidan kanta' pentsatzeko adina denbora. Edo gutxiago, ahapeka 'udazkena jada' esateko. Hosto ihartua ez jaustera, gizonak lau edo bost segundo lehenago gurutzatuko zukeen kalea, eta patuak beste historia baten eskutik bideratuko, auskalo nora».

Saizarbitoriaren obrako protagonisten patuak andrearekin behar bezala ezin bildua agintzen du funtsean. Baina badira patuaren beste agerpen mota bi: batetik, orain egindako hanka sartze batek hurrengo belaunaldiak marka ditzake, patu makurra ezarriko die. Ez soilik gerraosteak luzeagoak direlako gerrak berak baino, gerra zauriak sendatzea belaunaldiz belaunaldi geroratzen delako; gainera, hanka sartze «pribatuak» ere, familia barrukoak, hurrengo belaunaldietara luzatzen ohi dira, ondorengoei etsipena ezarririk. Oso grekoa da patuari buruzko ikuspuntu hau: Ediporen aita Laioren gaztetako biolazio batek ekarri zion malura Ediporen familiako hainbat belaunaldiri (Antigona Ediporen alaba da).

Horrenbestez, Saizarbitoriaren etika ez da orainaldira mugatzen, ezta salbabide pertsonalera ere. Orain dagigunak hurrengo belaunaldiak baldintzatuko dituenez, ekin aurretik gure ekintzak berrehun urte barruko gizakiei zer ekarriko dien ere kontuan hartu behar. Hortik datoz *Martutene*-ko kezka ekologistak.

Bestetik, *Ene Jesus*-en ageri den amaren profezia madarikatua dugu, protagonistak bere egina, bigarren atalean aipatua, baina patuari loturik berraztertu beharrekoa.

Ene Jesus-eko protagonistak, Saizarbitoriaren hitzetan, «aurrea hartu dio bere patuari, ez baitu hura garaitzeko beste biderik ikusi, eta uko egin dio ezein mugimenduri, oraindik ere oinetako behatz lodiak mugitzeko gauza dela egiaztatzeko ez bada, eta aldez aurretik jarritako ordutegi baten arabera egiten du egiaztapen hori, patua oraindik ez dela agertu frogaturik horrela».

Saizarbitoria nobelak idatziz ahalegintzen da iraganeko oinazea arintzen; oroimenaren eta irudimenaren jolasa bizitza eramangarriago egiteko darabil. Aldiz, *Ene Jesus*-en protagonista hautsi egin da amaren itolarriaren eta iraganeko traumen pean. Ezin du errealitatea bere egin, ezin gertakizunen oroitzapenak bere gain hartu, eta irudimenaren bidez oroitzapenok asmamen jolas bilakarazten ditu. Era ilun eta defentsazkoan darabil irudimena, jasangaitza leundu egiten baita behin irudi bihurturikoan. Oroitzapen traumatikoak asmazio direla irudikatuz gero, irudimenaren jolas bihurtuz gero, orduan eramangarriago egiten zaigu haien izaera terrorista, giza oreka egongaitzaren hausle.

Traumaren muina, berez, ezin da doitasunez adierazi. *Ene Jesus*-en protagonistak asmatutako kontaki-

zun bateko pasarte bihurtu nahiko du errealitate traumatiko horren oroitzapen itzela, horrela samurragoa izango zaiolakoan aurrera egitea.

Ordaindu beharrekoa ez da makala: errealitatearekin haustura, eromena, irudikatua eta errealitatea bereizi ezina, irudimena errealitatean filtro barik sartzea eta alderantziz. Arimaren egoera honetan ez dago etikarik, ez dago aukera desberdinen artean erabakitzerik. Eroa ez da libre, patuaren menpe dago erabat. Gure kasuan, amak agindutako patuaren menpe.

Amak ziotson protagonistari, honen oinak seinalatuz: «Aitak bezala bukatu behar duk». Aitak elbarri amaitu zuen, zangoak mugitu ezinik, arrantzalea baitzen eta porturen batean harrapatu zuen gaitza; semea, berriz, etxez etxe dabil saltzaile, aita portuz portu zebilen bezalaxe, emakumeak bakarrik dauden etxeetako txirrina jotzen du, eta, Mikel Hernandez Abaituaren interpretazioaren arabera, ama beldur da semeak ez ote duen aitak bezala bukatuko, andre horietako batek eritasun paralizatzaileren bat kutsatu eta hilik.

Hori diotso semeari: aitak bezala amaituko duk, zangoak elbarriturik. Eta semeak, bere eromenean, amaren hitza bete gura du, eroetxeko kamastran da-

goela hankak paraliza dakizkion itxaroten ari da eta nahi du, aitatxoren moduan, amatxok agindu bezala. Hor ez dago askatasunik, ez dago patua bete dadin itxarotea baino, kantiar etikaren ukazioa horrenbestez, ez baitago egia bilatzeko gogorik; aitzitik, kosta lain kosta nahi da egiazko gomuta lausotu.

Etika batzuek, estoikoenak adibidez, patuaren onarpen lasaia dute helburu; aldiz, Saizarbitoriarentzat, etikak, izatekotan, patuari aurre egin behar dio, idatzirik dagoenari gailendu, inertzian txertatutakoa gainditu, natura ankerra zuzendu, eta horretan ez da batere grekoa.

PROLEPSIAK

Hainbat xede erdiesten du Saizarbitoriak linealak ez diren denbora moldeak erabilirik. Besteak beste, patuaren ahala azpimarratzea. Denbora lineal hori zokoratzeko eleberrigileak darabiltzan prozeduren artean, Ur Apalategik, aurrerantzean naroro erabiliko dudan *Ramon Saizarbitoria. L'autre écrivain basque* argitaratu berrian, prolepsien eta analepsien baliatzea aipatzen du. Ulergarria da analepsiaren ugaltzea Sai-

zarbitoriaren obran: oroimenean ardaztua denez, ez da harritzekoa flashbackaren sarritasuna: *Ehun metro*, *Ene Jesus*, *Hamaika pauso*, *Martutene*...

Apalategiri benetan esanguratsua prolepsiaren maiztasuna iruditzen zaio *Hamaika pauso*-n, nola esplizitua hala inplizitua. Horrek zer adierazten ote duen, Apalategik aurkikuntza garrantzitsu bat egin du: *Hamaika pauso*-n prolepsia erabiltzen den aldiro, heriotza edo katastrofe bat iragartzeko da. Prolepsiak oroz lehen ezinbestekotasunaren ahala azpimarratuko luke, eta Abaituaren ahulezia eta ezina haren aurrean.

Lehenbiziko paragrafoko lehenbiziko esaldia dugu *Hamaika pauso*-ko lehenbiziko prolepsia; Abaituaren suizidioa iragartzen dio irakurleari. «Herio-heroi» deritzo Juan Garziak Abaituari.

Apalategik Sartreren zenbait ideiari lotzen dio eleberriko lehen esaldiak protagonistaren heriotza aurresate hori. Sartrek zioen bizitza ez dela patu bilakatzen hiltzeko unera arte. Gizakiak, azken segundora arte, beti baitu aukera, edo askatasuna, bere bizitzaren zentzua mutatzeko, oro harturiko bizialdiaren funtsari norabidea aldarazteko. Zentzu horretan, *Hamaika pauso*-k ez digu existentzia bat erakusten, baizik patu bat, hasieratik zaigunez gero protagonistaren amaie-

ra ezagun. Heroiaren heriotza iragarriz, are gehiago aintzat harturik hautazko heriotza dela, Saizarbitoriak irakurleari kendu egiten dio *Hamaika pauso* irakurtzeko aukera Abaitua libre balitz bezala, hasieratik patu huts bilakaraziriko bizitza bat kontatzen baitigu. Ondorioz, kontakizunaren linealtasuna eta denbora objektiboa alferrikako bilakatuko lirateke, eleberriaren estetikarako kaltegarri. Hasieratik dakigunez amaieraren berri, eleberriak, Apalategik dioenez, Abaituaren patu hutsean nahi bezala nabigatu behar dezake, denboran aurrera joz, atzera, geruza kronologikoak nahi bezain laster edo astiro zeharkatuz, xehetasunak deskribatzeko orduan luzatuz, zenbait elementu gizenduz, hainbat pasadizo eta paragrafo errepikatuz... Apalategik azpimarratzen duenez, intrigak ez du inongo garrantzirik, amarru erretoriko baldartzat jotzen baita *Hamaika pauso*-n bertan, esplizituki. Egiaren mamiari hobeto antzematen dio Saizarbitoriak, intrigan zentratuta baino, linealtasunetik askatutako denboran eta oroimenean murgilduta. Eta murgiltze hori Abaituaren historia patu bilakarazteak ahalbidetzen dio.

GORDE NAZAZU LURPEAN

Gorde nazazu lurpean-en dugu patuari buruzko gogoetarik aberatsena. *Gudari zaharraren gerra galdua* lehen narrazioko gudariaren zoria, eta hurrengo hiruretan «ni» dioenarena, txarra da. Emakumearekin ezin bat egitea erabaki duen zori txar hori gainditzeko aukera azken narrazioan zabaltzen da soilik, eta ez da aukera hutsa baizik, ez da mamitzen. Dena den, liburuaren amaierak liburu osoa iluntzen duen halabehar gaiztoa arintzeko aukera ez du itotzen.

Gudaria eta Miren/puta, Juan Martin eta germaniarra/Eugenia/Victoria, zuzenbidean lizentziaduna eta Marga/Barbara, Entziklopedista eta Flora/Bioleta... ezin dira zinez bildu: hainbat era desberdinez elkar maite duten arren bada beti zerbait beren arteko harreman egiati, bare eta atsegina oztopatzen duena.

Gorde nazazu lurpean-en lau ikuspuntu ageri dira funtsean patuaz: *Gudari zaharraren gerra galdua*-n patuak protagonista gainditu egiten du, gudariak erremediagaiztzat dauka, kanpoko indar ikaragarritzat, eta bera gehienez ere lantzean behin patuari erantzutera hel daiteke, patuaren mailan jartzera. Bizitzako abagune batzuetan pertsonak bere patuari jarraitzen

jakin behar du. Edonola ere, gudariaren eta Miren baserritarraren arteko maitasuna Heinkel-en bonbardaketek akabatzen dute. Ondoren, putetxean, neskari larrua jo baino nahiagoko dio muinoia erakutsi.

Ondoko hiru narrazioetan (*Rossetti-ren obsesioa*, *Marcel Martinen aitatasun ukatua* eta *Bi bihotz, hilobi bat*), patua protagonista/narratzailearen nortasunak barnebiltzen eta adierazten du: emakumearekin pozik batu ezina barruan darama, eta bere tentelkeriak erabakitzen du, bere kontzientzia ausikiak, neurosiak, nartzisismoak, egia adierazi ezinak edo garaiz kanpo adierazteak. Prozedura, bestalde, patu zital hori betearazten duena, patuari ihes egiteko protagonistaren ahalegina bera da, hain zuzen ere. Bagdadeko morroia heriori ihes egiten ahalegintzen denean bezala, edota Edipo orakuluaren igarpen goibelari: lehen begiratuan zoriari iskin egiteko aitzakia, mugimendua edo ekintza zirudienak zoritxarraren atzaparretara bultzatuko du ezinbestean erdialdeko hiru narrazioetako protagonista. Halabeharrari itzuri egiteko eginahalak berak erorarazten duela narratzailea emakumearekin ezin biltzea agintzen dion zoritxarraren putzuan, horrexek adierazten du patuaren ezinbestekotasuna.

Gai hori hitzez hitz dago adierazia *Rossetti-ren obsesioa*-n: Victoriarekin biltzekotan Eugenia konkistatu zuen testua berreskuratzen itsutzeak aldentzen du preseski Juan Martin protagonista Victoriarengandik, eta zital du bihurtzen, Rossetti Siddalekin bezain. Juan Martinek nahi luke iragana, ahaztua, hila, orainera ekarri, berreskuratu, berpiztu eta erabili, orain maite duena biziarazteko eta bereganatzeko. Ordea, zoritxarreko patua saihestea xede egindako ahaleginak berak murgiltzen du behin betiko patuaren zurrunbiloaren begi beltzean. Siddalen hilobia ere baden Eugeniaren alutik behinola maitasuna piztu zuten eleak berreskuratzeko ahaleginak berak amaitzen du orain maite duen Victoriarekikoa osotoro zapuzten.

Marcel Martinen aitatasun ukatua-n, narratzaileak, protagonistak, Abokatuak darama Marga emaztea Costello kontalariarengana, Marga bertan egoteak Costellori lagundu egingo diolakoan garbi adierazten zergatik zerion Martini protagonistak eskas duen fidagarritasuna, zergatik sinesten zion jende orok Martini besterik gabe, berari ez bezala, hartara kili-kolo dabiltzan Margarekiko harremanak bideratu eta sendotuko direlakoan. Baina horrelaxe bultzatuko du Marga Costelloren besoetara.

Eta *Bi bihotz, hilobi bat*-en, azkenik, narratzaileak, Entziklopedistak, hilobi txukun bat erosten du, emazte Floraren aurrean atsegin izateko asmotan, honen aita Benitoren hezurrak merezi bezala lurperatzeko. Baina Benitoren hezurren ordez ezezagun batenak sartzera behartuta aurkitzen du bere burua, emazteari eta amaginarrebari deus esateke, noski. Ezker abertzaleko amaginarreba ere hil, eta Entziklopedistak Florari aitortuko dio bere amak aitaren ordez ezezagun bat duela alboan hilobian, eternitate osorako, eta asmazio hauxe emendatuko du: ezezaguna guardia zibila zen. Entziklopedistaren aitortza horiek ekarriko dute Floraren heriotza, eta honek ere guardia zibila izan litekeen baten konpainian amaituko du.

Bestalde, *Rossetti-ren obsesioa*-n, Juan Martinek, bera maite duen Eugenia espainola mespretxatzen du, eta, aldiz, Juan Martinen beraren neurosiak eskuraezin bilakatzen dion Victoriaz, Europako donostiarraz, obsesionatzen da. Victoriarekin aurrera ezin egina, egia garaiz esateko ezgai izateak dakarkio. Aitzitik, *Bi bihotz, hilobi bat*-en egia gordinegi adierazteak hondatzen dio Florarekiko harremana. Narratzailea ez da gai egia onartu eta bere alde erabiltzeko. Orobat, bada berari maitasuna eskaintzen dion ema-

kumearengan jasangaitz zaion zerbait: protagonistak berak arbuiatu edo ahaztu egiten ditu Eugenia, Barbara eta lehenbiziko Bioleta. *Gorde nazazu lurpean* baino lehen berdintsu darabiltzate gizonezkoek Gisèle, *Egunero hasten delako*-n eta Michèle Mannasé, *Ehun metro*-n; eta, gerora, *Kandinskyren tradizioa*-n Miren eta *Martutene*-n Lynn.

Narratzailearentzat, gizakien artean badira mailak: bera baino gorago daude Marcel Martin eta Victoria, ulergaitzak zaizkion erreferentziak darabiltzate, bera baino askeagoak dira, zintzoagoak. Jende mota horrekin, nahi baina ezin. Liburu osoaren gainean itzal egiten du zeru goienetan ospaturiko Marcel Martinen eta Victoriaren arteko ezkontzak. Inbidiagarri zaizkio protagonistari, halaber, kontalari onak: Amiano, Joe Costello, Marcel Martin bera. Behar bezala maitatzea eta behar bezala kontatzea gauza bera baitira funtsean. Halatan, larregi oroitzea txarra bada ere, hobendunak, jeloskorrak eta mendekatiak erakutsi bezala, ahaztura osoa da gizakien artean heriotzaren mamitze garbiena. Freudek psikoanalistaren lana eta arkeologoarena parekatu zituen: arkeologoak kultura ahaztu edo hilak desehorzten dituen bezala, terapeuta ere oroimenetik zapaldurik edo erauzirik dena go-

gorarazten ahalegintzen da, sendakuntza helburu. Saizarbitoriak darakutsanez, ildo berean, literatura *idazten* tematzeak bizitza pitzatu dezakeen arren, literatur *obra*, emaitza, aitzitik, onuragarria izan liteke: literaturak berpizten baitu hildakoa, iragana orainera ekarriz, errepresioz ahaztua oroitaraziz eta biziberrituz, gordean zegoen heinean bizitza hondatzen zigun trauma desestali eta gure esku jarriz, bigarren ahazte oraingo honetan osasuntsu eta probetxos bat ahalbidetzearren.

Rossetti-ren obsesioa-n bada literaturaz eta patuaz beste ikuspuntu bat, hirugarrena, zeinaren arabera testuren batek determinatzen baitu bizitza. *Rossetti-ren obsesioa*-n, zehazki, «Adio atsekabe» elebberri galdu eta ahaztuak zapuzten dio amodioa Juan Martini ezkututik. Emakumeekin elkartu ezina, halabeharrak agindua, hemen emakumeengana idazle ospez inguratuz konpontzen ahalegintzen da protagonista. Baina «Adio atsekabe» horrexek berak hautsiko du benetako bizitzan emakume erreal batekin polito biltzeko aukera, «Adio atsekabe»ko testu fazatiak oharkabean erabili eta ondorioz bertako eszenak errepikatzeko protagonistaren joerak hain oker ere. Bizitza hondatzen dion zabor bilakatzen zaio literatura.

Asaba zaharren baratza azken narrazioan, aitzitik, zori gaiztoa gainditzeko bidea zabaldu egiten da, patua urpean gordez.

Zeren desehorztea eta zoria loturik baitaude: gudariak bere berna desehortzi ezinak patuaren gaindiezina eta kanpokotasuna adierazten du. Erdiko hiru narrazioetako hezurrak desehortzi, ukitu eta erabili ahal izateak, berriz, patua norberaren esku jartzen du nolabait. Azkenik, hezurrak urpean gordetzeak, patuarekin harreman jasangarria hasteko bidea hedatzen du.

Asaba zaharren baratza-k, izan ere, ezustean, nolabaiteko askatasuna erdiesteko aukera darakutsa, iraganaren peko morrontzatik askatzekoa. Spinozak bezala, Saizarbitoriak badaki sentimendu goibel bat ezin dela arrazoi hutsez gainditu, baizik eta gehienez ere sentimendu aktibo egoki batez ordeztu. Horrela, «zu zara nire aberria» diotso Polikarpok Bioletari. Trukatze orokor ikusgarri bat dago narrazio honetan, *Kandinskyren tradizioa*-koaren aurrekari: Sabine Bioleta bilakatzen da; Polikarpo Sabino eta gero berriro ere Polikarpo, orain Bioletaren bitartez bere izena aurrenekoz onartzen baitu; azkenik, iraganetik datorren aberri politikoa, Polikarporentzat itogarri, etorkizunera zabaltzen den hezur-haragizko aberri konkretu bihur-

tzen da, Bioleta, Flora abstrakturik gabeko lehen Bioleta zehatza, Polikarpo daramana Sabino Aranaren mamua Urdaibain gordetzera.

MUINOIA

Saizarbitoriak zalantzak izan zituen, *Gorde nazazu lurpean*-en sartu ala ez *Gudari zaharraren gerra galdua* lehenbiziko narrazioa, askoz ere lehenago idatzia delako eta bestelako aldarte batek bizi duelako. Soilik hemen ez dira bat eta bera protagonista eta narratzailea. Eta gudari zaharra ez da iristen gerrak erauzi dion zangoa desehorztera. Hurrengo hiru narrazioetan, aldiz, desehorzketa lortuak ageri dira. Eta *Asaba zaharren baratza*-n, azkenik, desehortzirikoa urperatu egiten da.

Baina ez zen erratu. Gainerako narrazioetako protagonistaren gurasoak ezagutarazten baitizkigu, narratzailearen genealogia hurbila. Gudari zaharra hasle bat da, abiarazle bat. Ezin izan zuen erdietsi Polikarpok agian inoiz lortuko duena: emakumearekin bildu, bere burua onartu eta orainaldian atseden hartzea. Gudariari Miren hil zioten legez, narratzaileak ere hil

egin nahi izaten ditu bere emakumeak: Eugenia, Flora, Bioleta... Emakumeetan azkarrenak, Marga eta Victoria, ohartzen dira, eta ihes degiote. Gudariaren lilura Miren hilaren aurrean Rossettirena da, Lizzy Siddalen gorpua margotzean. Ama hila, andre hila. Hilobitik gorpuak desehorztea, jadanik maite ez den andrearen alutik testu zahar bat ateratzea, ideologia ahituak hitzez hitz errepikatzea... ongizatea eta bakea eragozten duten hainbat espetxe dira.

Gorde nazazu lurpean maitasun hautsien segida bada, gudariaren eta Mirenen artekoak ematen dio hasiera segidari, eta narratzailearen eta beste emakumeen arteko amodioek errepikatu egiten dute hasiera lazgarri hura. Jakina, errepika baldin bada ere erroa, islaz isla maitasuna aldatzen doa, desberdina da. Dena den, narratzaileak ez daki nola iritsi emakumearengana, nola kontatu istorio bat, nola atseden hartu orainaldian. Iragan hilak eragozten dio oraina besarkatzea: behiala emakume bat konkistatzea ahalbidetu zion testuak, ideologia batek, gerrak, inertzia zurrunak. Narratzailearen hezte eta heltze prozesua aita idealizatzetik aitaren muinoia ikusi eta onartzera igarotzea baita funtsean, hori baita bide bakarra bere arimako muinoi propioekin batera bizi ahal izateko.

Orainera iristeko ahalegin bat dago narrazio guztietan, iraganaren kateetatik askatzekoa. Bi bider iristen da narratzailea bere orainaz mintzatzera, azken bi narrazioetako bukaeretan: bata, emazte Flora hil ostean, sardina kiratseko erregresio batek joa, huts eginiko lur hartzea da; eta bigarrena, *Asaba zaharren baratza*-ren amaieran. Bertan oraina onargarri izatera heltzen da nolabait, edo orainaldia berreskuratu ahal izateko baldintzak jartzen ditu bederen, zabalik geldi-tzen baita emakumeengana hurbiltzen hasteko aukera.

12
Idazle

Saizarbitoriak, bere idazle izaera luzaro ukatu ostean, berriki onartu egin du. Ordea, Hasier Etxeberriari kontatu dionez, hamaika urte zituenerako ohartua zen idazleak ez duela begirune berezirik merezi. Behin batean, aitaren lagun Nemesio Etxanizek Parisera joan behar izan zuen, Euskal Mundu Batzarrera, baina klandestinoki, ez zuen eta pasaporterik. Saizarbitoriaren aitak lagun arrantzale bati Etxaniz iparraldera eramateko eskatu zion. Manuel Reiris galiziarra zen itsasgizona, eta bere batelaren izena *Nuestra Señora de Coromoto*. Saizarbitoria umea eta honen arreba ere batelean joan ziren, karabineroek susmoa hartuz gero aita eta seme-alabak marinelarekin batera atunetara irten zirelako itxurak egin ahal izateko. Sokoako kontaktua badian agertu ez eta Manolok portura sartzea erabaki zuen. Arrisku handia hartu behar izan zuen bere gain. Etxanizek jendaurrean esan beharrekoaren garrantzia baino handiagoa inolaz ere. Garbi nabaritu

zuen Saizarbitoria artean umeak idazlea, intelektuala eta, oro har, pertsona nagusia, susmagarria eta arrunt buruarina izan daitekeela. Eta bera orain idazlea da, eta pertsona nagusia.

a) BUSTIA

Egunero hasten delako-ko Miller doktore katoliko kontserbadoreak neskei haurdunaldia eragozteko pilula ukatzen die, argudiatuz kontrazepzioari dagokionez garrantzia arrazoi moralek dutela, ez osasun arrazoiek. Aitzitik, Rossier doktorea liberala da eta pilula eske datozkion neskei ez die eragozpenik jartzen. Hori dela eta, amoraltzat jo izan dute; ordea, Rossierrek badu bere morala: inoren bizitza ez hondatzen ahalegintzea, eta Saizarbitoriak Rossierrekin bat egiten du.

Arazo moralei dagokienez, bilakaera bat gertatu da Saizarbitoriaren obran: lehenbiziko nobela hartan Berritsuak erlatibismo morala aldarrikatzen zuen, abere barregarritzat zuen dogmatikoa. Kristau dogmatikoen aurka jo zuen Saizarbitoriak erlatibismoaren bidez.

Martutene-n, berriz, ñabartuagoak dira kontuok: Abaitua erlatibismoaren aurka ageri da, baina baita unibertsalismoaren izenean euskal usaina darion edozeri iseka egiten diotenen aurka ere. Eta, komunitarismoarekin eta tradizioak gorde beharrarekin kritiko bada ere, azkenik, Lynnen eraginez, Luz perutarrari umea biziko den etxean erditzen lagunduko dio, Luzen tradizioak agindu bezala eta hemengo legediaren aurka.

Saizarbitoriaren kontakizunen bultzatzaile funtsezkoetako bat pedagogia morala da; borroka, asmo eta irakaspen etiko-politiko bat adierazten du eskuarki: zapalketa erlijioso eta politikoaren aurka jo du, militarismoaren aurka, engainuaren aurka, norberak ematen ez duena besteari exijitzearen aurka bikotekideen artean, gerraren aurka, oinaze bizia burokraziaren arabera kuantifikatu eta banalizatzearen aurka, gurasoek seme-alabei ezarri nahi dizkieten tradizioen aurka, zehazki abertzaletasuna, bikote heterosexualetako mutilen berekoikeria, hoztasun, zikoizkeria eta faltsukeriaren aurka. Narrazioetako bakoitza salaketa bat da, eta boterea ahula zapaltzeko erabiltzea da, oro har, salatzen dena, nola politikan eta gizartean, hala maitasun harremanetan.

Zentzu horretan, harrigarria da Saizarbitoria eredugarritzat duten zenbait literatur kritikarik darakutsaten grina, *El Correo*-ko Javier Rojok, kasu, obraren bati ezker abertzaleko kutsua sumatu orduko politikaren zama gehiegizkoa eta moralismoa leporatzeko, ezker abertzalekoak ez direnak *l'art pour l'art*-en sabel birjinatik arras aratz eta makula izpirik gabe helduko balitzaizkigu legez, nazismoa aldezten duen obra ederrik ez balego bezala.

Bada, halaber, beste joera bat literatur kritikarien artean, baina baita irakurle arrunten artean ere, gero eta indartsuagoa: idazleari bere burua biluzteko eskatzen zaio, alegia, pasarte autobiografiko lotsagarriren bat kontatzeko («zintzotasun» deitzen diote, kar-kar-kar), liburuan benetan *bustitzeko*, edo, bestela esanda, kontatutakoaren erruz bere harreman errealak hausteko arriskuan jartzeko («begira zein zintzoa den, guregatik izorratu du bere bizitza, bai hunkigarria»).

Irakurle askok nahiago dute fantasia edo zientzia fikzioa baino autobiografia gordina, Rousseaurena edo Juan Goytisolorena adibidez, edo fikzioa izan arren begi bistakoa izan dadin bizitza errealean oinarritzen dela, Joxe Austin Arrietak eta Jean-Baptiste Orpustanek lehen liburukia euskaratu diguten Prousten *Den-*

bora galduaren bila legez, edota orain «autofikzio» deitzen zaiona, hain indartsua gurean Iban Zalduak «Autofikzioaren aurkako manifestua» idatzi behar izan baitu; eta kutsu autobiografiko hori bilatzea zilegi da, besterik ez genuen behar. Susmagarria da ordea irakurle horietako zenbaiten manikeismoa, honela adierazten dena: aukeratu behar duzu, diotso idazleari, bizitza ala ni, edo odola eta bizia testuari ematen diozu, edo bestela ni galdu egingo nauzu.

Inguruko jendea galtzeko arriskua egiazkoa da, ulergarria senideen eta adiskideen ezinegona eta amorrua. Juliak Martinen etxetik alde egingo du. Karl Ove Knausgårdek bere ezkonbizitza kontagai duen autobiografiari ekiten dio esanez emaztea utzi nahi zuela beti kexuka zebilelako, beti beste zerbait nahi eta ez omen zuelako benetan lortzeko deus egiten. Kexua, kexua eta kexua baino ez. Jakina, emazteak, Juliaren ildotik, hori irakurri bezain laster Knausgård utzi egin zuen. Aitaren aldeko senideek hitza ukatu diote eta oraingo emaztea depresioak jota dabil. Idazleak dio bururatu zitzaiola ez argitaratzea, baina jendearen txaloa behar duela eta liburua bizitza baino garrantzitsuagoa zaiola.

Ez da gauza bera idazlea bere miseria partikularrak kontatzera mugatzea, edo bere bizitza fikzioz apenas mozorrotuan behin eta berriro agertzea senar itsusi, zikin eta gogaikarri bat, zeure ezaugarriak dituena goitik behera, azken kapituluan garbitzen dutena: «Han zebilen ergel hura, nire senarra, hamsterrari jertsea josten, eta pozik egin nion tiro kopeta erdian».

Zentzuzkoa da Richard Forden aholku hau: «Egiazki, inork ez luke idazle batekin endredatu behar, baldin eta ez badu haren liburuetako batean agertu nahi, egunen batean. Harreman hori zurgin batekin edo sarrailagile batekin izatea da egokiena, arazoak albo batera uztearren». (Iban Zalduaren *Idazten ari dela idazten duen idazlea*-ko hasierako aipamena.)

Idazle askok, testuarekiko fideltasunari esker, familia berri bat sortzen dute, irakurleek osatua, familia biologikoan edo lagun arte hurbilean inork ezingo lukeelako eraman haien berezitasunen etengabeko exhibizionismoa eta ondoriozko iseka.

Rousseauk *Aitorkizunak*-en kontatu zigun, artean «masokismo» hitza existitzen ez zenean, bere lehenbiziko sexu zirrarak izan zituela etxeko andereño batek zigortu eta jo egin zionean. Aurrerantzean, ez

zenez ausartzen bere neska lagunei eskatzera jo ziezaioten eta zigortu, baina horixe zuenez bero bide bakar, beraiekin zegoen bitartean irudikatu egiten zituen zigor eszena horiek; eta horri esker garatu omen zuen irudimen ikaragarri indartsua, egundoko entrenamendu baitzitzaion errealitateak ez zemaiona irudimenez konpentsatu beharra.

Juan Goytisolok kontatu du gaztetan etxetik hurbil ijito bat bere mandoa basatiki jipoitzen ikusteak errukitu beharrean izugarri kitzikatu zuela; eszenari begira korritu zen, kalean bertan.

Aspaldi idatziak badira ere, zaila da aitorpen horien erakargarritasun artistikoa gainditzea; horixe eskatzen dio haatik idazleari gaur egungo irakurle mota jakin batek, autoa Txinan bezain fite ari dena ugaritzen.

Euskal idazleak fikzioan arazoak dituzten bikoteak erakusten dituenean, hala nola Saizarbitoriak, berehala joaten zaizkio kontu eske, kazetari gazte hura bezala *Bihotz bi. Gerrako kronikak* argitaratu berritan: «Zure emazteak ez zuen ba hau irakurriko, ezta?».

Testuinguru honetan, Saizarbitoriak dio fikzioa benetakoaren mozorroa izaten dela, eta literaturaren aitzakia defentsazkoa, aitorpena ez dadin gertatu hain

gardena, hain gordina; horrela, idazlearen espantuak gorabehera, irakurleak arrazoi du erditu berria den idazlearen fikzioan honen esperientziak ikusten dituenean, zeharka bada ere, edo ezkonduta dagoen idazlearen testuan, era berean, beraren bikote bizitzari lotutako tragikomedia errealak.

Ordea, kontrakoa ere iradoki izan duenez, hitzaurrean esan bezala, gauden lasai, fikzioan oinarri biografikoa obsesioz bilatu gabe. Saizarbitoriarenean, gainera, oroitzapen biografikoa baino hurbilago dabil errealitatetik literatur asmazioa, fikziozkotzat baitu errealitatearen egitura sakona.

b) ERIA

NEUROTIKO

Kalean aurkitu eta nekez sumatuko diozu neurotiko obsesiboari oinazea, ikaragarria izan litekeen arren. Komikotzat jotzen ditugu *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-eko Entziklopedistaren arrazoibideak, eldarniozko logika hori, haren ezinegona. Irakurri duten neurotiko obsesiboek, ostera, arrazoibide, ezinegon eta lo-

gika horren azpian dagoen sufrikario itzelaren berri eman ahalko lizukete. Baina ez dizute emango, ez baitute nahiko beren eritasuna igar dakien. Dena den, terrore psikologikoko nobela gisa ere irakur liteke *Bihotz bi. Gerrako kronikak*, nola Floraren azalean jarrita, hala Entziklopedistaren antsietatean.

Idazle franko da neurotiko obsesibo. Halakoxea zen Freud bera ere, horregatik ulertu zuen hain sakonki arratoien gizona. Saizarbitoriak dio idazle askok neurosiak eragin oinazetik ihesi idazten duela. Beti horrela balitz, primeran. Zoritxarrez, berez zoriontsu samarra izateko jaio den jendea arrazoi ergelengatik idazketaren eta argitaratzearen atzaparretan erori eta neurotikotu egiten da. Hainbat eta hainbat lagunen bizitza izorratu du idatzi behar sasiko horrek. Erantsi irakurleen eta adituen arretaz jabetzeko idazleen arteko lehia estresagarria.

Neurotiko obsesiboak, maitale gisa, maitearen arreta tai gabe nahi du bereganatu, maitearen eskaera hori du benetako desiragai. Maitatu baino nahiago du maitatua izan. Eta idazle gisa, berdintsu: adituen eta irakurleen arreta bereganatu nahi du, irakurleen eskaera hori irrikatzen du. Korapilo horietan harrapaturik, idazlea arranguratzen da bere obraz mintzatze-

ko eskatzen diotelarik, horrela ezin baitu benetakotasunean behar bezala kontzentratu. Eta benetakotasuna ez ei du barnebiltzen eta adierazten obrak baizik. Hala ere, idazlea garrazkiago da kexu inork ez badio deus eskatzen. Eta berari beharrean besteren bati eska diezaioten zaio jasangaitzena.

Etengabe kexatzeko idazlearen beharrak susmagarri egiten dizkio sentipen edo bolada atseginak. Aukeran nahiago txarto. Arrangurak mugiarazirik, ez da ezohikoa orainaldi egoki samarra zapuztu eta alferrik galtzeko iraganaren aitzakia erabil dezan: iragan gaiztoarena erruan eta damuan baina baita iragan zorionTsuarena ere, nostalgian.

MISERIA

Saizarbitoria, euskarari laguntzeko hasi zen arren idazten, aspaldion iraganaren uztarria eta oinazea arintzeko eta neurosia sendatzeko itxaropentzat du idaztea, zorionbidetzat. Sendatu ahal izateko diagnostiko egoki bat behar aldez aurretik, eta *Rossetti-ren obsesioa*-n eta *Martutene*-n idazle neurotikoaren alde

makurrak nabarmendu dizkigu, Victoriaren eta Juliaren eskutik.

Victoria argiak «sortzaileen zikoizkeria» leporatzen dio Juan Martini, obrarekiko atxikimendu patetikoa. Psikoanalistak aitorlekuetako apaizak bezalakoak baldin badira, morboso hutsak, orduan idazleak are okerragoak: kurtsiak, morbosoak eta makabroak aldi berean, prerrafaeliten antzekoak. Artista gizonezkoei «*sleeping beauty*-ak gustatzen zaizkie, lokarturik edo hilik, berdin dio, lore artean etzanak, noiz bortxatuko dituzuen zain».

Victoriak Rossettiren kutsua sumatzen dio Juan Martini. Rossettik Elisabeth Siddal amoranteari ez zion tratu onik ematen, beste emakume batzuekin engainatzen zuen. Siddalek abortu bat izan zuen. Geroago, laudano gaindosi batez hil zen. Orduan Rossettik bere poema batzuk hilkutxan sartu zituen Siddalen gorpuarekin batera, maitearen omenez. Baina urte biren buruan, poema haiexek behar zituela tematu, ezagun bati hilobia irekitzeko ordaindu eta berreskuratu egin zituen.

Horixe duzu Victoriak «sortzailearen zikoizkeria» deritzona: zure erruz hil den amoranteari maitasun adierazpentzat poema batzuk eskaini ostean beste

bati ordaintzea hilobitik poemak lapurtzeko. Zeure bertsotxoa berreskuratzeko obsesio zitala. Orobat, artisten joera edozein zirriborro edo nerabezaroko poemaxka urre gorria bailitzan gordetzeko, izango duten garrantzi distiratsuaz zeharo ziur, aldi berean inguruko senide eta lagunez futitzen direla. Idazlearen nartzisismoa patologikoa da, itxuragabeko autoestimu batek joa, bakan eta berezi sentiarazten duena. Gehiegizko mirespena exijitzen die ingurukoei, eta ez du enpatiarako ahalmenik. Enpatia hori soilik darakutsa abantailaren bat beregana dezakeen heinean eta miretsia izateko bere beharrak ase ditzakeen heinean.

Idazlea deskribatzeko orduan, Victoriak «miserable» darabil, eta Juliak «miseria». T.W. Adornok zioen psikoanalisian ezer ez dela egia esajerazioa izan ezik. Saizarbitoriak dio nobelagilea «gupidagabea, makurra, gaiztoa, zikina» dela, eta ironiazko esajerazio horren bidez, ohi bezala, aldi berean du ideia adierazten eta ideiarekiko distantzia ezartzen.

Juliak, behinola Martin maite izan bazuen ere, orain ez du errukirik. Iradokiko digu idaztearekin hain obsesionaturik bizitzeak ergeltzen duela Martin: bere ipuintxoei, nobelaxkei eta burutazio ustez harrigarriei emateak denbora eta arreta, inguratzen duten lagunei

ezikusia egiten dien bitartean. Zalantzazkoa da neurosia sendatzeko idazten ote duen ala idazteak berak bihurtzen ote duen neurotiko. Saizarbitoriaren aurreko obra batzuetatik erator zitekeen agindu kategorikoetako bat «ez ezazu emaztea hil» baldin bazen, *Martutene*-k erakusten du kontuz ibili behar dela idaztearekin. «Ez baduzu behar, orduan ez idatzi». Martinen figura pirriak idazketan erortzeak ekar diezazkizukeen arriskuez gaztigatzen dizu.

Martutene-n ikasi dugu *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-eko eta *Bi bihotz, hilobi bat*-eko Entziklopedistak Faustino Iturbe izena duela. Martinek idatziak dira. Faustinoren emazte Flora Ugarte da koprotagonista, eta Martinen emazte Julia izan du eredu. *Martutene*-n Martinez kexu da Julia: «Miseria da Flora Ugalderi transferitu dion guztia, miseria Flora Ugalde eta Faustino Iturberen harremanean atzematen dena. Ez du besterik egin miseria haizatzea baino, berea, beroriena, ezer ederrik edo noblerik aurkitu gabe sekula, miseria bakarrik. Orriak eta orriak oroimenean arakatzeko lanari emanak ‘bere traizioa’, esaten dion moduan, birbizitzearen atsegin makurra helburu».

Pasartean aipatu Juliaren traizioa Adolforekiko abentura hitsa da noski, infideltasunaren gaua barne,

eta Martinen idazketaren bultzatzaileetako bat iraganeko oinaze hura birsentitze masokista.

MAMOI

Saizarbitoriaren idazle prototipikoak inguruko jendearekin duen harremana behiala herrietan ama erditu berrien esnea edoskitzen ibiltzen zen gizon zaharrarenaren antzekoa da. Sobera zutelako edo haurra hil zitzaielako edoskitzen zien. Txupoia, mamoia, izaina deitzen zioten. Komeni zen haginik ez izatea, titiburuan minik ez egiteko, horregatik bilatzen zituzten agureak; halaber, lizunkeriaren arriskua zokoratzeko, emakumearen aldetik, behintzat. Etxez etxe lan egiten zuen. Etxera iritsi, oles egin eta gelan sartzen zen ama berriarekin.

Serioski idazteak bizitzari ukoa dakar sarritan, eta ingurukoen mamoi bihurtzea. Bizitza hausten zaizularik, umea hilik jaiotzean, kasu, hor datorkizu idazle mamoia tragedia hurrupatzera, esne bizia ondoren tinta idor bilakarazteko. Oroitu Juliak konfidentzialki Martini arkatzena kontatu eta berehala irakurri zuela Martinen ipuin zirriborro batean Juliaren *alter ego*-a

txikitandik zegoela bere bulbatxoarekin trafikatzera ohitua.

Egia da, era berean, idazteak berrerosiko duela Martin, testu jakin batzuek dakarkiotela maitasuna eta boterea. Nietzschek dio artista ia beti pertsona pairagaitz, apetatsu, bekaizti eta biolentoa izaten dela, eta desditxa horiek obraren eragin bihotz-altxagarri eta bozkariatzaileak konpentsatzen dituela. Martinen izkribu berrerosleen artean, besteak beste, Faustino Iturbek Flora Ugalderi idatziriko azken gutuna, alegia, Martinek Juliari. Martin sinetsita dago soilik idatzitakoaren bidez bilaka daitekeela besteentzat maitagarri. Abaitua ginekologoak, berriz, sentitzen du ez dela maitatzeko gai. Baina ez idazteak salbatzen du ziurrenik Martin bezain aldrebesa izatetik.

OROITU, ERITU, IDATZI

Izenburu hori ipini dio Ur Apalategik Saizarbitoriaren obrari buruz argitaratu duen liburuaren atal bati. Hor dioenez, Saizarbitoriak, *Hamaika pauso*-ko protagonista Abaitua idazlearen bidez, idaztea oroz gain oroitzea dela darakutsa, kontutxo mingarriez era pa-

tologikoan oroitzea, maizenik hitzez, eta minaren minez hausnar egotea, oroitzapen oinazetsu horiek ezin digeriturik. Hitzez hitz aplika lekioke *Martutene*-ko Martini ere. Idaztea eritasunari loturik ageri da Saizarbitoriarenean. Ihardukirako eta borrokarako ezgai denak idazten du, oroitzera kondenatuta dagoen mendekatiak.

Abaitua idazleak borrokarako eta are ekintzarako ezintasun hori bere egingo du, bere «Hamaika pauso»ko lehen esaldian Zabalegi protagonistari esleituz idazleari berari dagokion joera bat: «‘Egin aurretik mugimendu bakoitza entseiatzen duk buruan, egiteko gauza izango haizela ziurtatzeko’, gerora, narratzailearen ahoan, «Hamaika pauso»ko lehen perpaus bilakatuko zena».

Lehenbiziko hiru eleberrietan ez bezala, *Hamaika pauso*-tik aurrera Saizarbitoriak esaldi luze bihurgunetsuak idaztera joko du. (Apalategik «tortueuse» darabil, baina ez dakit nola itzuli «luze bihurgunetsu» esanahia ez ezik «memoriak torturatutako idazleari dagokion esaldi mota» ñabardura ere gorde dezan.)

Perpausaren bihurria deskribatzen duen errealitatearen konplexutasunari lotzen dio Apalategik, eta, oroz lehen, obsesioari. Hipotesi hau dakar: Saizarbito-

riaren idazleak esaldi luze obsesiboak idazteko joera du bere bizi indarra gizarte bizitzatik idazketara lekualdatu eta ahal bezain zehazki behatzeko eta deskribatzeko lanean xahutzen duelako.

Apalategik aukeratu hurrengo adibidean esanguratsuki egiten dute bat esaldiaren luzerak, protagonistaren ezinak eta oro geroratzeko joerak. Abaituaren barne bakarrizketa bat da. Barberuarenean eserita dago: «Oroitzapenetan babestua, pena zuen bizarginak 'el señor está servido' esango zionean altxatu beharko zuelako, eta eskuak egin ziezazkioten aginduz egonaldia luzatzeko aukera ere neurtu zuen, uste osorik gabe, ordea, bai baitzekien ez zuela halakorik egingo».

Eleberriaren amaieran Abaitua eritu egingo da eta ez du deus egingo artatzeko, sukarrak hobeto idazten lagun diezaiokeelakoan: «Iñaki Abaituak ez zuen penizilinaren mesederik onetsi nahi izan. Interesaturik jarraitu zuen gaixotasunaren garapena, eta, bestalde, ez zion gogoko zuen zernahi egiterik galarazten. [...] Sukarrak, berriz, handiegia ez zenez, ausentzi egoera batean mantentzen zuen, apal eta baketsu nolabait ere, eta hori eroso gertatzen zitzaion.

«Beti egoera hartan bizi izan balitz gehiago idatziko zukeela iruditzen zitzaion, literatura gehiago egiteko eragozpenik handiena gehiegizko bizitasunari, gauza gehiegitaz interesatzeko joerari egozten baitzion».

Saizarbitoriaren protagonista idazleengan beti daude tentsioan bizitzea eta idaztea, ezin dira adostu. Zehazki, gizonaren idatzi beharrak bikotekidea uxatzen du. Horregatik erreko du Martinek bere obra *Martutene*-ren amaieran; eta horregatik utziko dio idazteari. Edo aldarrikatuko du, teatralki, idazteari utziko diola.

c) OROIMENA

Saizarbitoriak dio ezintasunak bihurtu duela hein batean eleberrigile, ahazteko eta gogoratzeko ezintasunak, gauzak isiltzeko edo zuzenean adierazteko ezintasunak. Nobelak eratzen ditu esan nahi eta ezin esan dituen gauzekin, ahaztuta dituen eta oroituz doan gertaerekin. Nobelak sortzeko ahalmena damaion ezintasun horren berri emateko, Saizarbitoriak sarritan erabili izan ditu berak euskaratutako hitz

hauek, Beckettek Prousti buruzko saiakera batean idatzitakoak: «Memoria oneko gizona ez da ezertaz gogoratzen, ez duelako ezer ahantzi. Bere memoria uniformea da, errutinazko izate bat, bere ohitura akasgabearen baldintza eta funtzio, erreferentzia tresna, aurkikuntza tresna izan ordez. Bere memoriaren himno gartsua, 'atzo gertatu bailitzan dut gogoan' hori, bere epitafioa ere bada, eta bere balioaren neurri zehatza ematen du. Ezin du atzokoa gogoratu, biharkoa ezin gogoratu duen bezala».

FIKZIOAREN ANTOLAERA

Oroimenaren jokamoldea da Saizarbitoriak darabilen argudio nagusia kontakizuna denbora linealaren arabera ez antolatzeko. *Hamaika pauso*-n idatzia: «Oroitzapenak apetaren hegaletan etorri ohi direnez, zilegi da haien ordena ilun eta misteriotsua errespetatzea, kontakizuna konbentzionalki, kronologikoki edo linealki egokitzeaz arduratu gabe».

Berez desordena magikoa den bizitza soilik ahalegin kontziente baten bitartez bilaka daiteke denbora segida. Saizarbitoriak, ordea, ahal bezain sakonki nahi

du bizitzaren zaina ukitu, eta, simetria arraroz zeharkaturiko plater hautsiak fidelago ematen duenez gero dagoenaren berri, uko egingo dio borondateak gidaturiko antolaera jarraikoari: «Une bakan batzuetan baizik ez dugu bizi izaten denbora segida etengabea balitz bezala, dio Butorrek. Eta Claude Simonek, Güell parkeko mosaikoen desordena magikoa gogoan, 'memoria plater hautsi bat da', esan zuen. Ez du zentzurik platera apainduren marrazkia osatuz kolatzeko ahaleginak, beti faltako baita birmoldaketa ezinezkoa edo desitxurosoa egingo duen esmalte zatiren bat».

Memoriaren izaera apurtuak idazlearen jokabidea ez ezik irakurlearena ere baldintzatuko du. Irakurleak berak berrantolatu beharko ditu hautsiriko zatiak. Iñaki Aldekoak dio material narratibo gordina, berezkoa, «mundu desordenatu eta, batez ere, leku-denboren koordenatuetan nahasia» dela. Nobelagilearen eta irakurlearen zeregina anabasa hori «txukuntzea eta atontzea» litzateke, abiaburu erreal lardaskatuan ezinbesteko ordena ezartzea. *Hamaika pauso* idaztea zein irakurtzea, beraz, «nobela eraikitzea, antolatzea, muntaketa lana egitea da». Ildo berean, Mari Jose Olaziregiren esanetan, «Collagea, jokoa, pastitxea... [...] Zentzuen arkitektura bailitzan, nobelagintzak koadro

baten aurrean gaudenean jarraitzen dugun jokabide bera bultzatuko du: elementuen justaposizioa gaindituz, osotasuna eraiki (nobelan Bartzelonako Güell parkea azaltzen da eragiketa honen esplizitazio arkitektoniko modura)».

Ur Apalategik dio *Hamaika pauso*-ren estetika ez dagokiola jarioari eta lastertasunari, baizik eta puzzle mentalari edo margolan kubistari. Collage kubista hori izaera desberdineko testuen justaposizioz lortzen da, besteak beste. Justaposizioa lokailuari kontrajartzen ohi zaio. Eta, eleberriaren kontagaia eta antolaera arras konplexuak badira ere, lokailu, zubi eta trantsizioen ugaritasunik oparoena zuritzeko adinakoak, hala ere Saizarbitoriak ez darabil zubirik, uko degio irakurketa errazteari eszenak modu logikoan artikulatuz, eta eleberri trinko zarratu bat eman digu, une oro arriskatzen dena irakurlea hari argirik gabeko labirinto batean galtzeko. Sarritan dauzkagu elipse narratiboak; idazlea ez da arduratzen non gauden azaltzeaz.

Intentsitate handiko giltza eszenen segida gisa dakusa Apalategik *Hamaika pauso*, non, koherentzia razionalari muzin eginik, etengabeko joan-jinak egiten diren plano narratibo desberdinen artean, hala nola iraganaren eta orainaren artean.

Güell parkean etorri ohi zaio Abaituari idazkera hori teorizatzeko jorana. Oraingo honetan oroitzen da aurreko batean Susanari begiratu behar ez izateko so egin ziela mosaiko zatiei, errealitatearen eta beraz nobelaren antolaera fragmentatuaren ikur: «Batzuetan, ilunabarrean, Güell parkean eseri ohi zen. Amorantez inguraturik, harrizko paisajea miresteari ekiten zion. Izan ere, unibertso harrigarri bat zirudien hark, unibertso zatikatua. Portzelanazko plater hautsi bat, haur baten eskuek, edonola eta trakeski, inozentziaz baina jenialki, zati finak elkarrekin itsatsiz berrosatua.

«Susanarekin han bertan egon zen egunean, fragmentazioaren literaturak duen barne-armonia ere –Butor-en hitzetan, 'historiaren linealtasun konbentzionalarekin bat ez datorren ordena ezkutua'– antzeko zerbait izan zitekeela sumatzen zuen, haren aurpegi negartiaren ikuspenari ihes egitearren, oinetan, distiratsuak ziren mosaiko zatiei so, beren osotasunean ez bide zuten egokitasun intimoa atzematen zielarik».

Ur Apalategik zerrendatutakoen artean, kontakizunaren linealtasuna kordokatzeko Saizarbitoriaren beste prozedura bat duzu hori: zubiak, lokailuak eta trantsizioak desagerrarazten ditu orainetik iraganera igarotzeko eta buelta, edo are Saizarbitoriaren *Hamai-*

ka pauso-tik Abaituaren «Hamaika pauso»ra eta buelta. Artikulazio logikoen desagerpen horren bidez ere Saizarbitoriak konbentzioa baztertu eta funtseraino jaitsi nahi luke. Iñaki Aldekoak eta Ur Apalategik asoziazio aske psikoanalitikoa dakusate hor, teknika narratibo gisa erabilia.

Apalategik oroitarazten duenez, psikoanalisiak asoziazio librea erabiltzeari ekin zion kontzientziaren autozentsura saihesten ahalegintzearren. Analizatuak buruan pasatzen zaion edozer bota behar du, galbahe barik. Aplikatzen zaila duzu arau hau, pentsamendua hitza baino lasterrago doanez analizatuak aukera baitu espontaneoki otu zaiona adierazi baino lehen bere pentsaera di-da norabideratzeko. Erdi oharkabekoak izan daitezkeen bideratze horiek analizatuaren lapsusek eta zentzugabekeriek adierazten dituzte eta interpretagarriak dira. Apalategiren esanetan, zalantza, lapsus eta zentzugabekerien errepikatzea berezitasun dute bai Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*-k eta bai Abaituaren «Hamaika pauso»k, segida logikorik gabeko eleberriak bi-biak, irudi eta hitz errepikariz bilbatuak. Apalategik dio inkontzientea bera dela eleberriko materiala antolatzen duena. «Antolamendu afektibo» deritzo Iñaki Aldekoak, eta hauxe eransten du:

nobelan «denboraren eta espazioaren trabak jauzi batean gaindituz, irudien asoziazio afektibo horren bidez lotuz doazen planoak ugari baino ugariagoak dira, *Hamaika pauso*-ren bizkarrezurra eratzeraino». Berehala aztertuko dugu zelan lotzen dituen errepikak plano dibertso horiek.

«BEHARBADA»

Hamaika pauso-k, esanda bezala, kronologia historiko jakin batean zehazki kokatua dagoen arren, uko degio linealtasunari. Gertaerak desordenatuta eskaintzen zaizkigu eta sarritan errepikatu egiten dira. Ordena, halakorik balitz, erabat subjektiboa litzateke. Iñaki Aldekoaren hitzetan esateko, Saizarbitoriak zati sakabanatu horiek ez ditu erlojuen denbora abstraktuari jarraituz josiko, baizik eta barne denboraren logika eta aginduari, «izatez bizi dugun denboraren kontzientzia bakarra» [...] «Memoriaren denbora ez da ez erlojuena ez eta egutegietako datena ere, kontzientziaren denbora subjektiboa baizik».

Claude Simonen nobeletan eta *Hamaika pauso*-n, segi Aldekoak, «mosaikoak eta ispilu hautsiak agertu-

ko dira, eta irudi horiek guztiek egileak nobelaren aurrean, edo munduaren aurrean, duen posizionamendua adierazten digute. Azken buruan, memoria den mundu fragmentario horretatik, bizitakoaren eta sentitutakoaren aztarnetatik eraiki beharko du nobelagileak bere mundu imajinarioa. Azken buruan, memoria da imajinazioaren izendapen 'errealistena'; imajinazioa eta asmazioa izango lirateke 'artistikoenak'. Memoriak ez baitu errealitatetik jasotzen soilik, baizik eta imajinatua eta asmatua sortzen ere bai».

Zentzu honetan, Ur Apalategik dio *Hamaika pauso* ez dela gertaera historikoekiko fidel, ez du errealismo historikoa bilatzen; gertaera historiko horien oroitzapen subjektiboari zaio fidel. Eleberriak berak darakutsa antolaera parakronologiko horrek oinarri duen teoria estetikoa, lehentxeago aipatu «memoria plater hautsi bat da» horrek laburbildua.

Aintzat hartzeko modukoa da, errealitatearen eta oroimenaren arteko harremanei gagozkiela, Mikel Hernandez Abaituaren iruzkin hau: Ramon Saizarbitoriaren zenbait eleberritan «errealitatea memoria desordenatuaren iragazki apetatsutik pasatuta ematen da. Beste errealismo mota bat da, subjektiboagoa, xehetasunez beteta badago ere, itxura ezin objektiboa-

goz jantzita datorren arren.[...] Errealitatea, horrela, ez da izango berez errealitatea, gizakiak haren elementuekin eraikitzen duen oroitzapenezko paisaia bat baizik. Ez da izango mosaiko konbentzional bat, non irudiak ongi osatuta ikusten diren, ez, teselak desordenaturik aurkituko baitira. Zati guztiak modu nahasian agertuko dira, inolako ordenarik gabe itxuraz».

Hamaika pauso-k berak adierazitakoa aintzat harturik, horrenbestez, tronpagarria litzateke nobelako denboraren antolakuntza kronologikoa. Noski, Ur Apalategik zehazten duenez, horrek ez du *a contrario* frogatzen denbora subjektiboaren eta bere berregite nobelistikoaren egiazkotasuna. Bestalde, batek daki zer esan nahi ote duen gertaera biografiko edo historikoen berregitea egiazkoa edo gezurrezkoa izateak. Ziurrenik, testuinguru honetan Saizarbitoriak, gaur egun, Montaigneren «fede ona» izango luke erreferentzia nagusi. Kontua da nobelagileak errealitateaz duen ikuskera malgua dela, ez denbora objektibora mugatu behar izateko bezain estua, bederen; denbora subjektiboa ere barnebiltzeko bezain zabala da.

Apalategik adibide batez ñabartzen ditu ideia hauek: Abaituak gogora dakar bere kuadrillako lagunek umetua, menostua eta umiliatua izan zen pasadi-

zoetako bat. Eta begira nola aurkezten digun: «Adibide asko zituen, baina amorrazio bereziz oroitzen zen Abel, Ion eta Albertorekin, laurak San Bartolome eta Urbieta arteko gurutzean zeuden hartaz, egun beharbada desagertua den La Vasconia oihal dendaren aurrean».

«Beharbada» hori jotzen du Apalategik erabakigarritzat. Nork zehazten du denda «beharbada» desagertua dela? Abaituak berak ala agian Saizarbitoria izan litekeen narratzaile anonimoak?

Bi-biak ariko lirateke oroitzen: Abaitua gertatu zaionaz eta narratzaile anonimoa Abaituaz eta honen testuinguruaz dakienaz. Edozein gisaz, Apalategiren ustez benetan balio duena ez da *La Vasconia* lentzeria dendari dagokion xehetasun historiko zehatza, baizik eta Abaituari egun hartan jazo zitzaionaren zentzu sakona, hau da, pasadizoaren oroitzapenak harengan utziriko aztarna. Karlos Linazasorok zehaztu du memoria aztarnaren izaera: «Ahaztua daukagu egin ziguten mina. Egunero ahazten dugu».

OROITZAPEN ILUN

Saizarbitoriaren narratzailea denboran aurrera eta atzera nahieran ibiltzen da, eta ez du arazorik protagonisten kontzientzietako nahi gabeko nahiz borondatezko oroitzapen nahiz aurreikuspenak desbiribilkatu eta irakurleari eskaintzeko. *Hamaika pauso*, adibidez, Abaituaren heriotzaz amaituko da; eta hasi, berriz, Abaituak berak hil aurretik heriotzaren orduan ikusi eta gogoratuko zuela bazekienaz hasiko da, Juliaren lorategiko magnolia grandifloraz.

Biribil honen barruan, pertsonaien nahigabeko oroitzapenek eta aurreikuspenek, eta «simetriaren eragin sekretuaren poderioz» sorturiko gurutzaketek eta kointzidentziek, egituratuko dute Saizarbitoriaren obraren ezkutuko erritmoa.

Bestalde, Saizarbitoriak, Prousten gisara, oroimenaren eta egiaren arteko harremanaz ere hausnartuko du: bere protagonisten kontzientzian, gertaerek soilik oroitzapen bihurturikoan, «oroitzapen ilun», azalduko dute beren egia. Abaituak Susanaren mimo kurtsiak, Güell parkean, ezin ditu, jasaten dituen orainaldiko unean bertan, kurtsi eta irrigarri kontsideratu,

eta ez du lortuko «harik eta, askoz geroago, hura guztia oroitzapen ilun bihurtu zen arte».

Proustek dioenez, oroimenak, irudimenak eta adimenak, bakoitzak bere aldetik, ezin dituzte aurkitu sentipenezko edo maitasunezko enigmen baitan biribilkaturiko egiak. Aitzitik, arteak bai, aska ditzake, arteak argitu dezake oroitzapen soilak bere kabuz topa ezin dezakeen egiaren bidea. Arazo honi dagokionez, Saizarbitoria ez da Proust bezalakoa. Ikusi dugu Saizarbitoriarentzat sentipen enigmatiko batek soilik oroitzapen ilun bihurturikoan aurkituko duela egiaren bidea. Eta, Proustenean ez bezala, egiaren aurkikuntza, nahi gabeko oroitzapena legetxe, ez da inondik inora agerkunde harrigarriro atsegina.

Kontagaitzak dira *Hamaika pauso*-n protagonistei nahi gabe datozkien oroitzapenak: Ortiz de Zarate Abaituaren oheaz nagusitu ondoren, Abaituari, arroparen bila urduri dabilela, gogoratzen zaion galtzerdien erosketarena; Zabalegiri, fusilatzera daramatelarik, gogoratzen zaiona: ferian zalditxoaren gainetik amari eskua altxatuz eginiko agurra, pozik, jakin arren bueltak amaitzen ari direla; orobat, zapatak bilatu beharra igande arratsaldeko filmak amaiturikoan, eta abar.

Eta Saizarbitoriak, abailduriko Proust bat bailitzan, ez du, nahi gabeko oroitzapenon bitartez, inolako poz mistikorik sentituko, ezta heriotzaren aurkako garaipenik ere, edo egiaren bilaketan emandako aurrerapausorik; aitzitik, pertsonaiei euli gogaikarrien antzera sartzen zaizkie burmuinean, eta aski lan dute xomorrook uxatzen.

Testuinguru honetan Proustentzat, Deleuzek zioenez, garrantzitsuena protagonistaren ikasbidea baldin bazen, esan liteke Saizarbitoria oroitzeaz arduratuko dela batik bat, hil behar dugula oroitzeaz funtsean.

d) ERREPIKA BERRIZ ERE

Irakurle ernea ohartuko zenez, badago eztabaida inplizitu interesgarri bat, Saizarbitoriak nola aukeratzen ote dituen kontagai izango dituen oroitzapenak: alde batean, Mikel Hernandez Abaitua; bestean, Iñaki Aldekoa eta Ur Apalategi. Hernandez Abaituaren ustez, fikzioa osatzeko orduan Saizarbitoriak txit kontzienteki aukeratzen ditu iraganetiko teselak: «Eta horrela, Saizarbitoriaren eleberrietan ez dira agertuko historia osoa osatzen duten mosaiko zati guztiak, eta

ezta historiaren ordenarekin ere, autore inplizituak aukeratu dituenak baizik, eta berak intuitiboki ordena egokientzat jotzen duen hurrenkeran, elkarren ondoan egonez beren esanahia eta efektua elkar potentzia eta indar dezaten». Adibidez, *Ehun metro*-koa «oso txukun berrordenatutako desordena da».

Aldiz, Iñaki Aldekoak zein Ur Apalategik borondatearen bultzadari garrantzia kendu eta asoziazio librea nabarmentzen dute egituratzaile gisa.

Ez ote dute biek arrazoi? Ze ondo, ezta? Une desberdinei dagozkie beharbada elkarlotura librea eta antolaera kontzientea. Saizarbitoriak uste bide du soilik behin borondatearen kontrolari itzuri egin eta inkontzientean murgilduta aurkitu ahalko dituela benetan esanguratsuak izango diren perpausak, ametsak edo gertaerak.

Baina inkontzientean lausotasun librez arrantzaturiko oroitzapen horiek eleberrian aurkezteko orduan, tentuz antolatzen ditu. Batzuetan linealtasuna hobesten du (*Kandinskyren tradizioa*) edo ordena gutxi-asko ulergarria (*Gorde nazazu lurpean*, *Martutene*). Beste batzuetan, berriz, inkontzienteko desordena inkoherentea islatzen ahalegintzen da, hala nola *Ene Jesus*, *Hamaika pauso* edo *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-en.

Eta inkontzientean ez dago ez kontraesanik ez denborarik; inkontzientea, funtsean, errepikatzera mugatzen da.

Horregatik da hain muntazkoa errepika Saizarbitoriaren nobeletan: eleberri guztietan darabil teknika narratibo gisa hitzen, elkarrizketen eta eszena osoen errepikatzea; eta horregatik da nobelagilearen obraren inguruko literaturan sakonkien jorraturiko aztergaia.

Juan Garziak «tema» hitzetik abiatzen du *Hamaika pauso*-ko errepikaren inguruko bere gogoeta. Zentzu musikalean interesatzen zaio «tema» hitza. Hots, «tema» ez da «gaia», baizik eta «luzean errepikatzen den zer bat, alegia, eta hortik esanahien arteko zubia: ‘gaia’ (zertaz diharduen zerbaitek), ‘seta’ (errepikapen gaitza) eta ‘motibo (musikal) nagusia’ delakoa (jarraipenezko musika-zatia, agertu-desagertuz doazen beste ‘motibo’ batzuen artean). Izan ere, musikatiko hiztegi eta iruditeria iruditzen zait aproposena liburuaren gaiaren adierazpideak eta idazkeraren seta pazientziatsuak antolatu duten pieza deskribatzeko. [...]

«...Liburu gehiena antolaturik dago berdin-berdin nahiz aldaera txikiren batez agertu-desagertuz doazen motibo batzuk oroimenaren espazio-denbora bil-

tzailearen harian josiz. ‘Joste’aren irudi hori musikan ere erabiltzen da, eta ez dirudi batere irudi desegokia liburuaren (h)aribidea azaltzeko: errepikapenon bitartez hemen sarritu eta han bakanduz bilbatzen diren hitz, objektu, irudi, erlazio, egoera, gertakari askotarikoek osatzen dute tapiza, nahiz tapizaren irudi hori estatikoegia den aukeran (non eta ez dugun Penelope baten tapiza irudikatzen)».

Saizarbitoriaren motiboa, horrela, denbora luzean errepikatzen eta garatzen den bizipen hunkigarri bat litzateke, eta ez horrenbeste aztergai intelektual bat. Motibo horiek musika konposizioetan bezala agertzen eta desagertzen dira Saizarbitoriaren nobeletan. *Hamaika pauso*-ko zenbait motibo aipatzen dizkigu Juan Garziak: Daniel Zabalegiren zapata estuegiak; Julia, Hondarribiko bere etxean lurrean eserita zigarroa erretzen; Omega ordulari eskuz aldatua...

Iñaki Aldekoak, bere aldetik, errepika Saizarbitoriaren kontaeraren baliabide nagusietakotzat jo eta Robbe-Grilleten esaldi ospetsua oroitarazi digu: eszena bat ez da berez garrantzitsua delako errepikatzen; aitzitik, errepikatzeak berak bilakatzen du garrantzitsu.

Ur Apalategiren esanetan, bestalde, *Hamaika pauso*-k aipagai duen iragana, *Ehun metro*-koa ez bezala, ez dagokio soilik Euskal Herriaren Historiari, liburutik kanpokoari; liburuak berak sortutako denborazkotasuna ere kontuan hartzen du. Eta errepikatzeen bidez oroituko da nolabait *Hamaika pauso* bere buruaz eta bere iraganaz. Errepikek garai geruza desberdinen pilatzea eragingo dute, eta horrek emango dio eleberriari darion tankera trinkoa.

Halatan, hamaikagarren kapituluaren hasieran, denbora jauzi baten bidez zahartutako pertsonaien aurrez aurre jartzen gaitu. Idazleak denboraren ondorioak erakusten dizkigu fikzioak berak sorturiko pertsonaiengan: Abaituaren kuadrillako kideak aldatu egin dira trantsizioko urteetan eta denak egokitu dira egoera politiko berrira; Abaitua, ostera, hasierako egoeran blokeaturik gelditu da, agian ez duelako Historian sinesten. Apalategiren hitzetan: Abaitua gai da oroitzeko, baina ez etorkizunerantz begiratzeko. Orainaldia pozoitzen dion eritasuna zaio Historia Abaituari. Bere jarduera nagusia oroitzea da, baina oroitzea ia bakarrik bere bizitzako unerik umiliagarrienez; horretan ez dabilenean, eleberrigintzaren bitartez Zabale-

giren bizitza berreraikitzeari ekingo dio, horrela berea jasangarriagoa bilakatuko zaiolakoan. Alferrik, ordea.

Ur Apalategiren irudiko, errepika da Saizarbitoriak linealtasunari muzin egiteko erabiliriko prozedura garrantzitsuenetako bat. *Hamaika pauso* den atal eta pusketen collage itxuraz desordenatuko pusketetako batzuk bikoizturik ageri dira, edo hirukoizturik, edo laukoizturik.

Ezin Apalategirekin bat ez etorri: errepikaren ugaritasun hori behar bezala arrazoitzeko ez da aski kontuan hartzea Saizarbitoriaren teoria estetikoa. Gogorrago jotzen du auziaren iltzea protagonistaren aiurria bezalako barne justifikazio batek: neurotiko obsesiboa da Abaitua. Neurri handi batean, *Ene Jesus*-en, *Hamaika pauso*-n, *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-en eta *Martutene*-n elkarrizketak eta gertaerak errepikatzen dira protagonistak iraganeko gertaera umiliagarri eta traumatikoen etengabeko hausnarrari emanak zaizkiolako.

PERPAUSEN ERREPIKATZEA

Errepika molde desberdinen artean, hitzenak erakarriko du oroz lehen Iñaki Aldekoaren arreta: «Hitzek sortuko dute erreferentea, eta ez alderantziz. Hitzek berek, errepikapenaren bidez, erakartzen dute objektua, edo kontatzen jarraitu ahal izateko irudi-aitzakia, ertz desberdinetatik zirikatu ondoren forma hartzera bultzaraziz».

Esamolde errepikari horietako batzuk nabarmendu ditu Aldekoak: «‘Ez dezagun konposturarik gal’, ‘gauza hauek, balio dutenagatik baino gehiago estimatzen dira’, ‘piztu dezakek argia’, ‘babo alena’, ‘izan ere, ibiliko ditudanagatik...’ (zapatak) edo ‘ale goazen’ [...] Behin eta berriz itzultzen gara *flash* esaldi horietara; esaldi batean edo hitz batean kondentsatzen da eszena horien indarra, eta kontaeraren sostengu dira».

Hain zuzen, Ur Apalategik dio Saizarbitoriarenean oroitzapen gehienak hizkuntzak eragiten dituela. Saizarbitoriaren pertsonaiak izaki bereziki mintzoduntzat ditu Apalategik; eta Abaitua idazlearen oroitzapenak batik bat beste pertsonaiek ahoskatu hitzek eragiten omen dituzte.

Hitz eta esaldi horiek errepikatzearen bidez nabarmentzen dira eta errepika horiek margotzen dituzte pertsonaien nortasunak. Noski, Saizarbitoriak, pertsonaiak funtsatzeko orduan, ezaugarri fisikoak, keinuak eta jokabideak ere erabiltzen ditu, baina Ur Apalategiren ustez ahoskatzen dituzten hitzen bidez ezaugarritzea da Saizarbitoriak nahiago duen baliabidea. Beste edozein euskal autorek baino gehiago darabil Saizarbitoriak hizkuntza pertsonaiak pintatzeko orduan. Horregatik mintzo da pertsonaia bakoitza desberdin: denek dute nortasun linguistiko berezi bat, estilo bat.

Bestalde, Mari Jose Olaziregiren ustez, *Hamaika pauso*-ko errepikatzeak «memoria harilkatzen laguntzen diguten elementuak dira. Ideien asoziazioaren teknikari esker, nobelak elementu hauen inguruan antolatzen du diskurtsoa, behin eta berriro egiten eta desegiten doan hari mataza bailitzan». Testuinguru honetan, ordea, Olaziregiri esanguratsua iruditzen zaio euskarara gutxi gorabehera moldatuko dudan Tom Bishopen aipu hau (Aldekoarekin eztabaidan dabilela dirudi, oñatiarrak errepika linguistikoari ematen dion garrantzia aipu honek ukatu egiten duen heinean, errepika piktorikoa lehenetsirik): «Asoziazio eta sorkuntza molde hori gehiago da piktorikoa tematikoa

edo linguistikoa baino, eta funtzionatzen du nola margolanen, gauzen eta abarren justaposizioz, hala oroitutako eszenen bidez. Oroitutako eszena horiek geldiarazi egiten dira, edo bestela astiro-astiro garatzen dira».

Ur Apalategiri eszenak dilatatzeko teknika horrek Sergio Leoneren zinemagintza dakarkio gogora. Nola dilatazioa hala errepikatzea, eszena edo gai zehatz bat enpatizatzeko borondateari lotzen dio. *Hamaika pauso*-n, *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-en eta *Martutene*-n eszena horietako zenbaiten hedatzeek kronologiari dagokiona gainezkatzen dute; orobat, jakina, errealismo klasikoari legokiokeena. Apalategik Zabalegiren heriotza kontatzen duen eszena dakar adibide: exekuzio pelotoiak fusilatu zuen, eta, benetako tiroek eta gorpuaren jausteak segundo gutxi batzuk baino iraun ez bazuten ere, liburuan xehetasun fisiologiko hiperrealistez hornituriko bi orrialde geldoz luzatzen dira.

ASPERTU ARTE ERREPIKATU

Oroitzapenekin, jendearekin bezala, distantzia egokia aurkitzeak lagunduko liguke eroso bizitzen. Filosofoek sarrien erabili duten fabula dakar *Martutene*-k, arantzurdeena: bakar-bakarrik, hotzez hiltzen gara; goxotasun bila jendartera heldu eta arantza sartzen diogu elkarri, elkar zauritzen dugu. Distantzia egokia behar. Oroitzapen barik, era berean, sakontasunik gabeko orainaldi axalekoa genuke, bizimodu amnesikoa. Baina kontuz, oroitzapen mingarriek joera baitute orainaldiaz jabetu eta hausteko.

Idaztea sendabide bat da Saizarbitoriarentzat, bizitza izorratzen digun iraganeko oroitzapen mingarria uxatzen ahalegintzeko tresna. Trauma eragin digun ikuskariaren ingurukoa da, hasieran aipatu bezala, nobelagileari interesatzen zaion literatura. Horrela ulertu behar dira beharbada haren adierazpen enigmatiko hauek: ahaztutakoa gogoratu eta berriro ahazteko idazten dut. Alegia, trauma hain gogorra izan zitzaionez inkontzientean gelditu zen, Saizarbitoriak ahaztua du. Idaztearen bidez gogoratuko du, idazteak inkontzientea kontziente egiteko balioko dio, eta beraz era-

mangarri. Horrelako zerbait iradoki bide dio lehen aipatu oroimenari buruzko Becketten testuak.

Saizarbitoriaren obra bera da, horrenbestez, iraganeko itomenari erantzuten diona. Trauma nobela bilakatzearen bidez ahaleginduko da oroimina artatzen. Ez du desiren mugatzea proposatuko, ez borondatearen irmotasuna, ez iritziari ukoa eta indiferentzia, ez etsaia maitatzea, baizik eta transfigurazio estetikoa. Horregatik da hain bitxia eta paradoxazkoa egiarekin duen harremana. Protagonisten trauma nartzisista eta jatorriko zauria aztertzea baldin bada kontua, eta herriari eragiten dioten bidegabekeria hilgarrietan hatza sartu eta birak ematea, kolore zail bat hartzen dute ezinbestez aitormenak eta exhibizionismoak.

Transfigurazio estetikoaren baitan, errepikaren teknika psikoanalitikoa darabil Saizarbitoriak, Daniel Sibonyk arestian eraberritua: trauma eragin duen ikuskaria hainbeste bider errepikatu, azkenik aspergarri bihurtzen baitzaio traumatizatuari berari, eta baztertu eta ahaztu egiten du. Zenbat aldiz ez ote du aipatu eta kontatu infideltasunaren gaua?

Nolanahi ere, Saizarbitoria ez da Freud bezain baikorra: trauma kontzientziara ekartzeak ez du senda-

tzen. Bistan da Martinen kasuan: arrebaren bitartez ohartu da zeren errepika den infideltasunaren gaua. Honezkero badaki. Halarik ere, neurosia indarrean. Julia «etsia hartuta dago, hori da hitza. Beti espero izan du amesgaiztoaren misterioa argitzeak eraldatu egingo zuela. Egiaz espero baino gehiago fantasian aritu izan da inkontzientea kontziente eginez bere sintoma neurotikoak desagertu egingo zirelako ideiarekin, Gregory Pecki gertatzen zaion bezala Hitchcocken *Spellbound* filmean. *Oroitu*, *Recuerda* titulatu zuten filma gaztelaniaz. Julia sinetsia zegoen Martinen idazteko desiraren funtsean bere hutsune amnesikoa bete beharra zegoela. Gogoratzeko idazten zuen, bere neurositik sendatzeko, eta paradoxikoki neurosia bera zen idazlanean aurrera egiteko oztopo nagusia. Memoria berreskuratuz gero, idazketaren bidez pentsatzen zuen berak, neurosia gaindituta gizon zoriontsua izatea lortuko zuen idazten jarraitu edo ez, Siziliara joan edo Martutenen geratu. Erabat galdu du esperantza hori».

Eta traumaren errepika zenaren ordez, amesgaizto errepikari berri bat pairatzen hasiko da Martin, letrei lotua. Ezaguna zaigun arren, merezi du hitzez hitz kopiatzea: «Idatzitako testua letraz letra isurbide ba-

tetik abiada bizian desagertzen ikusten du hitz bat bera ere identifikatzeko astirik gabe, eta lortzen duen aldi bakanetan hitzek ez diote deus adierazten. Hizkuntza ezezaguneko hitzak dira ulertzen ez dituenak».

Ziurtatu beharrekoa, edonola ere, beti eskura edukitzea zertaz arranguratu. Lehen, orain eta beti, ni bizi naiz penatuki. Jarrera horixe da hain zuzen *Ene Jesus*-eko protagonistak, Abaitua idazleak eta Martinek beren amei leporatzen dietena. Eta, gurasoekin ez ezik gainerako jendearekin ere gertatzen denez, nardagarri eta jasangaitzena zaiguna dugu preseski betebetean errepikatzen.

Edonola ere, irakurle, eta batez ere neurosirako baino gehiago eskizofreniarako baldin baduzu joera, ez pentsa Saizarbitoriaren arazoa pose literario bat denik. Deleuzek zioen eskizofrenikoen arazoak errealak direla, neurotikoenak ez. Eta egia da neurosia hobeto datorkiola literaturari osasuna baino, idazleak erdi berariaz elika lezakeela bere eritasuna; ez da ordea Saizarbitoriaren kasua.

Behin 70 urte beteta, Saizarbitoriak dio orain azkenik pozik ari dela idazten, gosal ondoren zenbait orduz tipi-tapa. Eta berehala: «Kaka zaharra, zergatik ez nuen horrela idatziko orain dela hogeita hamar

urte?». Eta oinazezko imintzio elektriko batek hartzen dio ez soilik aurpegia, baizik gorputz osoa. Benetako espasmoa, ezin urrutiago itxurakeriatik. Baten batek iradokiz gero ez dela ezinezkoa orduko idazkera sufrikariozkotik pasatu behar izana oraingo zorionera heldu ahal izateko, ziplo ebakiko du: txorakeria galanta. Nerbioetan ulertzen duzu zer den iraganean gurutziltzaturik bizitzea, gurutzetik askatzeko hamaika esfortzu eginagatik ere. Gero eta aurpegi kristikoagoa ari zaio jartzen.

13
Zer idatzi ETAz

Orain dela zenbait hilabete Fernando Aranburuk arrunt espainola den errespetugabekeria zerien adierazpenak egin zituen, inolaz ere ezagutu ez dezakeenari buruzko epai kontundente eztabaidaezina. Esan zuen: «Euskal idazleek ez dute ETAren indarkeriari buruz idatzi». Zergatik? «Ez direlako aske». Aranburuk zioenez, euskal idazleek Euskal Herrian bakarrik banatzen dituzte liburuak, ez dituzte ehunka irakurle urri batzuk baino eta diru laguntzei esker argitaratzen dira, eutsi egin nahi baitzaio euskarazko literaturak irakurleak dituelako fikzioari. Ahoa irekiz gero, amaitu da jaun horien literatura.

Euskal literaturaren eta ETAren arteko harremanei buruzko Fernando Aranbururenaren tankerako adierazpen eta azterketetan indar handia izaten du epailearen mintzamoldeak: idazleak zer jarrera etiko-politikoa darakutsan nabarmentzen da, ETAren alde edo kontra dagoen, eredugarri izateko sortu ote dituen etakideak, edo nazkagarri, edota ahal bezain errealis-

ta, atentatuak zuritzen ote dituen nolabait, ETAren krudelkeriarekin batera zapalkuntzaren eta zehazki torturaren ankerkeria ere aipatzen duen, gatazkaren testuinguru osoa aintzat harturik...

Azterketa molde honek ez du literatura xede, baizik eta literaturaren bidezko idazlearen bustidura eta engaiamendua. Ordea, idazleak eskuak aski zikin ote dituen epaitzen duena ez da estralurtar garbi bat izaten, neutroa eta objektiboa; aitzitik, ikuspuntu etiko-politiko jakin batetik mintzo da. Idazleen antzera, epaileak ezin dira gatazkatik kanpo ibili, ezikusia egitea esku hartzeko moduetako bat baita, Euskal Herrian bizi zarelarik bederen. Bestalde, Saizarbitoria politikan busti izan da, eta beraz garbi esan digu literaturaren bitartekaritzarik gabe zer nahi duen.

Nobelagileak gorroto dio moralismoari literaturan, literatura engaiatuari, baina aldi berean haren liburu guztiak dira modu ohargarrian aldarri etiko bat, gaizkiaren alderen baten aurkako gurutzada. Zeharka, jakina, korapilatsuki, irakurlea seduzitzeko iskilu sotilak darabiltzala, baina Saizarbitoriak, literaturatik at engaiatzeaz gain, eguneroko bizitzan eta politikan, literatura ere hainbat gatazkaren aurrean konpromiso ageriko bat hartzeko baliatu du. Edonola ere, ageriko

jarrera etiko-politiko horiek aldezteko ez ezik, jarrera horien azpiko sentimendu nahasiak adierazteko ere erabili izan du literatura.

Gatazka fideltasunez erakusten ahalegindu da, fideltasun hitzaren zentzu zabalean: batetik, dagoenaren deskribapen ahal bezain objektiboa egin nahi izan du, protagonisten barne muinetaraino heltzen den objektibotasuna; eta, bestetik, bere literatura fidel horren bidez hain zuzen, gatazkaren koordenatu politikoak aldatu nahi izan ditu, azken hau ere fideltasunaren adierazpen bat baita, zure herria hobetu nahi etikoari fideltasuna. Errealitatearen alde bat baita errealitatea aldatu nahia.

OROKORRA GATX

Zaila da gogoeta orokor zuzenak eraikitzea Saizarbitoriak ETAz idatzi duenaren inguruan: etengabe bilakatu da ETA, etengabe bilakatu da euskal gizartea, etengabe bilakatu da euskal literatura eta etengabe bilakatu da Saizarbitoria. Sakona izan da ETAri buruzko Saizarbitoriaren jarreraren bilakaera hirurogeiko hamarralditik gaur egun arte.

Esan liteke euskal literaturak, oro har, gerra zibilari eta errepresio frankistari lotu diola ETAren agertzea eta lehenbiziko urteak, eta erantzun hura onetsi duela. Orotariko zapalkuntza haren pean, zintzoagotzat eta ausartagotzat hartu izan du ihardukia deus gertatuko ez balitz bezala jarraitzea baino bertan goxo. *Ehun metro*-k ez dirudi ETAren aurkakoa. Hor Saizarbitoriak ez du etakidea kritikatzen, baizik eta euskal gizartearen ezaxola etakidearen borrokaren eta heriotzaren aurrean.

90eko hamarraldian euskal gizartea nekaturik dago, ezin ditu burutik kendu, besteak beste, Yoyes eta Hipercor, eta Aljerreko porrota; eta euskal literatura ere ETAren kritika, akidura eta susuma erakusten hasiko da. Testuinguru honi dagokio *Hamaika pauso* (1995).

Azkenik, *Martutene*-k ETA desagertzera doalako zantzuak lerakutsazke, eta badu errekapitulazio kutsu halako bat.

Bilakaera, etakide protagonistak aintzat harturik: *Ehun metro*-k etakidea militantzia aktiboan darakutsa, *Hamaika pauso*-k nola eta zergatik bereizten diren burkide batzuk erakundetik, batik bat sentimentalki, eta *Martutene*-n, azkenik, bai militantzia eta bai be-

reiztea oroitzapenak dira, iraganeko mamu aldiz alai aldiz penagarriak.

EZ DA EGIA

Fernando Aranburuk esandakoa ez da egia: gure literaturan bada etakide zintzo eredugarria, baina baita ere etakide zeharo gaiztoa, etakide ergela, ETAren ankerkeriarekin kolaboratzen duen hiritar arrunta, Euskal Herriaren etnozidioan kolaboratzen duen pertsona normala, konstituzionalista on eta gaiztoa, estatutuaren aldeko koldar kolaboratzailea, estatutuaren aldeko zintzo jakintsua... askotarikoa duzu eskaintza. Hori bai, nola Saizarbitoriaren obran hala ETAren inguruko euskal literaturan oro har, pertsonaiarik gorrotatuena, torturatzailea bera baino gehiago, intelektuala da, alegia, borroka armatuaren aldeko idatzi eta mintzaldi xaxatzaileen bidez gazteak zizpoleta hartzera bultzatzen dituena, eta espetxera, eta hiltzera, hura bizimodu erosoan dabilen bitartean, benetan busti eta engaiatu gabe.

Aranbururi ihardespena Saizarbitoriaren kasura mugatuta: gehiago ditu indarkeriak ukitutako prota-

gonistak libratu direnak baino. *Ehun metro*-n, *Hamaika pauso*-n eta *Martutene*-n arduratu da batez ere ETAz, baina *Gorde nazazu lurpean*-en eta *Kandinskyren tradizioa*-n ere, etakide protagonistarik ageri ez den arren, gertaeren hondo bortitza kutsatzen duen osagai garrantzitsu bat da ETA.

Entziklopedista, *Bi bihotz, hilobi bat*-eko protagonista, uzkur dabil, ETAren harria ez ote zaion gainean eroriko, bere bizitza tristea are gehiago hondatzera. Gogorra da egoera politikoa, Donostian ia egunero daude manifestazioak, poliziak basatiki jokatzen du eta handia da Entziklopedistak dion beldurra. Amaginarrebak ez duela gizon izenik merezi botako dio, herria kalean askatasunaren alde borrokatzen den bitartean bera etxean gelditzeagatik, telebistan marrazki bizidunak ikusten.

Zenbait asteren buruan, Entziklopedista Parisen Bioleta amorante sekretuarekin dabilela, polizia auto mordoa dakusate Eiffel dorrearen inguruan, amnistiaren aldeko pankarta bat eskegi baitute puntaren puntan. Han, eskalatzailez jantziriko ekintzaile bi; eta sei polizia, eskalatzaile tresneria erabilirik, dorrean gora doazela. Behean jendetza. Telebista piloa grabatzera hurbildu eta, Bioleta kamerak erakartzen ahalegin-

tzen denez, Entziklopedista Iuzaro harrapatuko du kezkak, ea emazte Florak albistegian ikusiko ote zituen. Bioleta tentel petotzat joko du bere baitan. Parisaino urrutiratuta ere, euskal patuari ihes egiterik ez: «Madarikatu egin nituen. Madarikatu egin nuen euskaldunok jazartzen gaituen patu zorigaiztokoa, zeinetik, urruntzeko ahalegin guztiak eginda ere, ezin nintzen libratu. Ziur nengoen gertakizun hark ondorio larriak ekarriko zizkidala, Euskal Herrian kate guztietako albistegietan emango zutenez. Eta, horregatik, itzultzeko falta zitzaizkidan minutuak kontatzen eman nuen denbora, Florari lehenbailehen aurre egiteko desiraz».

Kandinskyren tradizioa-n ere, gertaeren atzealdeko bortizkeriari dagokionez erabakigarria da ETA. Miren protagonista mutil lagunarekin lehenbizikoz oheratzen denean, hotel ondoko gasolindegian bonba batek eztanda egingo du.

ZERRENDA XUME BAT

Euskaraz ez ei da gatazkaz idatzi. Honatx *Hamaika pauso*-n indarkeriari zuzenean loturiko pertsonaien zerrenda bat, exhaustibotasun pretentsiorik gabekoa.

Iñaki Abaituaren kuadrillak, lehen La Vasconia oihal dendaren aurrean ikusi dugunak, batzuetan komando bat dirudi, baina ez da trinkoa, desberdina izango da burkide bakoitzaren ibilbidea.

Alberto Pardo madrildarrak eskatuta utziko dio Abaituak bere etxea Zigorri eta esku hartuko du Losada guardia zibilaren hilketan. Pardo ez da euskalduna, eta bere militantzia Espainiaren demokratizatzeaz batera amaituko da. Trantsizioan Madrila itzuliko da bizitzera.

Abel Osa internazionalistak xextra gogorrak ditu Ion Igartua nazionalistarekin. Hau maiteminduta dago euskal kutsua darion edozertaz eta Madrilgo Kongresuko diputatu amaituko du trantsizioan, jeltzaleekin. Denek dute Osa militante eredugarritzat, berak arriskatzen baitu bizia ausarkien. Kongresura barik erbestera joan beharko du trantsizioan, eta ez dio ezker abertzaleko izateari utziko.

Lagun taldekoez gain baditugu beste etakide batzuk, adibidez ezaguna dugun Zigor, Eduardo Ortiz de Zarate, ETAko buruzagi bipil, krudel eta umoretsua, *Batman*-eko Joker dakarrena gogora. Abaituaren agintaria da Losadaren aurkako ekintzan.

Zigorrek badu tiroldar kapela lumaduna janzten duen lagun misteriotsu bat. Zigorrek ahaleginak egingo ditu Abaituak ikus ez dezan. Poloniarra da, hegoamerikar azentuz mintzo den arren gaztelaniaz. ETAren inspiratzaile espiritual bat dirudi. Juliaren lagun mina da. Minbizia du ahosabaian.

Ez da argia Juliaren harremana ETArekin, baina etakidez inguratuta bizi da, horietako zenbait buruzagiak.

Burutzeko, gogora dezagun, Iñaki Abaitua nobela bat idazten ari da Daniel Zabalegiz, Losada guardia zibila hiltzen laguntzeagatik Francok heriotza zigorrera kondenatua. Abaituaren nobelan, Losadaren hilketa xehero kontatzeaz gain, berau gauzatzen duten Treparen eta Apalategiren joan-jinen berri ere ematen zaigu.

Ehun metro-k funtsean etakide baten heriotza kontatzen bazuen, Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*-k Iñaki Abaitua kolaboratzaile gizajoaren heriotza izan-

go du funtsezko kontagai, eta Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*-ren baitako Iñaki Abaituaren «Hamaika pauso»k, ispiluan, Daniel Zabalegi etakide koitaduaren heriotza.

Fernando Aranburuk epaitu bai baina ezin du euskal literatura ezagutu; haatik, euskaraz gain gaztelaniaz ere urteak eta urteak zeramatzaten argitaraturik *Ehun metro*-k zein *Hamaika pauso*-k Aranburuk euskal literaturan ez dela indarkeriaz idatzi adierazi eta hedabideek ahal bezain ozenki biderkatu zutenerako.

MARTUTENEKO ZENBAIT ZIPRIZTIN

Martutene-n ETA ez da soilik gertaeren hondo gutxi-asko lausoa; goitik behera betetzen du erakundeak eleberria.

Esaterako, Harrik giro gatazkatsutik urrutiratzearren bidali du alaba Surreyko barnetegi garesti batera.

Abaituak, ohartu zelarik seme Loiolak eta haren lagunek aitonaren belaontzia lehergailuak gordetzeko zerabiltela, berehala salatu zion Ertzaintzari, aldi berean semea salbatzen ahaleginduz, eta lortuz, eta orain, semearen lagun batzuk espetxean dauden bi-

tartean, eta mendekuzko ekintzaren baten beldur, egunero begiratzen du auto azpian, ea lehergailurik ote daukan itsatsirik. Eduardo Madinaren aurkako atentatua dabilkio gogoan. Beldurraren eraginez bidali du semea Harvardera ikastera.

Martinek «Bihotzean min dut» ipuina idatzi du, eta Julia gaztelaniara itzultzen ari da, ETAk aita hil dion neska nerabe baten Euskara irakasleak familiari hil beilan degion bisitaz.

ETAk Teresa Hoyosen aita militarra hil zuen eta Julia hurbildu nahi izan zaio; oro har, protagonistek, ETAren orbitan ibilitakoak, ETAren biktimengana hurbiltzeko beharra sentitzen dute baina zaila zaie.

Jaime Zabaleta abertzale euskalduna Miguel Angel Blancoren hilketaren ondorioz PSEko militante egin zen eta orain bizkartzainekin dabil.

Tortura ez da saihesten.

Julia Zigorren alarguna da. Semeari ere Zigor jarri zioten. Juliaren ikuspuntua ETAz denaz bezainbatean bilakatu egin da ordea, dagoeneko ez du borroka armatuaren aldeko pentsaera zuritzen, eta semearen heziketa sentimentala arduraz zaintzen du, bortizkeriaren aldeko erretorikak bereganatu ez dezan.

OROITZAPEN BERRITSU, BERBARTU ETA MUTUAK

Ehun metro-n eta *Hamaika pauso*-n ez bezala, *Martutene*-n ez dago orainaldian ETAn dabilen militanterik. Baina protagonisten bizitzak eta nobelako giroa goitik behera determinatzen ditu ETAk. Eta Kepa, protagonistetako bat, etakide izan zen. Berea da ETAri lotutako oroitzapenik kaltegabe eta barregarriena. Hiru atraku egin zituen erakundean zela.

Baina kontagai duena ez zuen ETArentzat egin. Martin soziologia ikasten ari zen Bordelen eta maiz jaisten zen Baionara Keparekin egotera. Erakundea utzi berria zuen Keparentzat Baionan ez zen giro, eta klandestinoek Martini ere gaizki begiratzen zioten, arraro eta susmagarritzat baitzuten. Kepa Bordelera igo zen Martinekin bizitzera. Erakundeak debeku zituen arren ekintzak Frantzian, Kepak atraku bat planifikatu zuen Bordelen. Bazekien nor zen bankuko diruzainaren semea. Semearen zaintzailearen konfiantza lortua zuen, argazkilari artistikoa zela saldua zion. Atrakuaren egunean bertan umeari ateratako argazkia erakutsiko zion diruzainari, semea bahitua zutela-

koan. Diruzainak eskura zeuzkan frankoak oro emango zizkion eta Martin kanpoan edukiko zuen zain, plakak aldatutako auto ebatsi batean. Fite bezain aise hartuko zuten Parisa.

Ordea, Kepa lapurretarako prest banketxeko ilaran zain zegoela, ezustean bi polizia sartu ziren garrasika eta atzetik zakur puska bat, daniar handia, amorruz zaunka. Eta berehala Martin bera, zakurraren atzetik, bere zakurra baitzen, Lagun. Kepak ziztuan alde egin zuen banketxetik. Martinek ere Lagun nolabait lasaitu eta irtetea lortu zuen. Baina espaloian aparkatuta ez zuten BMW errekisatu berria, baizik Martinen 2 CV zaharra.

Behin autoa abian, Martinek Kepari azaldu zion bere doscaballosa erabiltzea erabaki zuela ez zelako gai auto ezezagun bat behar bezala kontrolatzeko. Auto bakarreko gizona izaki Martin. Autoekiko jarrera horrek, Kepari bide batez jakinarazi zionez, monogamiarako joera adierazten du.

Gainera, Lagun ezin izan zuen etxean bakarrik utzi, zakurrak, jabeak bezala, ezin baitzuen bakardadea eraman. Aurreko batean Martin etxera itzuli eta dena txikituta aurkitu zuen. Horregatik eraman zuen daniar handia atrakura. Eta, bankuaren aurrean auto

barruan itxaroten zeudela, bi poliziak espaloitik igaro, eta, zakurrak ez zituenez uniformeak gogoko, zaunka egin zien, poliziek txarto erantzun, zakurrak leihatilatik salto eta poliziei haginka, eta agenteek banketxe barruan bilatu behar izan zuten babesa.

Diruzainak bere semearen argazkia aurkitu zuen, Kepak istiluan galdua. Handik pixka batera poliziak bikote atrakatzailea atzeman zuen. Zenbait hilabetetako espetxealdian, Martinen konpainia egin zitzaion Kepari gogorrena.

UHINEN MURMURIOA

Atraku frustratuaren gomuta berbatsuaren kontrara, ETAri loturiko beste oroitzapen batzuk ezin dira adierazi erdizka baizik, totelka, egiaren osotasunak barne mintzora mugatu behar du, nahiz eta entzungo lukeen solaskidea alboan eduki. Ezaugarri hori du Juliarenak, Otzetan Martinekin afaltzetik Donostiara autoz itzultzen ari direla. Adi, irakurle, bikotekideen arteko telepatiaren eta esan gabekoen erabilera birtuosoari.

Debako hondartzan Juliak maitasuna egin zuen ETAko militante batekin, biharamunean iparraldera alde egitekoa zena. Ia ez zuen ezagutzen. Amaitu ondoren mutilak hauxe esan zion: «Gauez, ilargia zeruan uhinen murmurioa entzungo dudanean, zutaz oroituko naiz». Juliarentzat hura izen zen lehen aldia «brageta itxi ondoren zerbait polita esaten ziotena».

Gomutan murgildurik, bolantea isilik daramala, bururatu zaio ez duela inoiz gehiago maitasuna hondartza batean egingo. Eta orduantxe Martinek galdetu dio ea zertaz ari den pentsatzen. Baina ordurako Juliak badu eskarmentua, bere gomuta eta aitormen intimoen Martinen erabilerarena: Julia errudun eta zikin sentiarazteko darabiltza. Gainera, Martin aspalditik dauka nazkatuta abertzaletasunaren edozein euskal adierazpenek, oroz lehen ETAk. Hortaz, Juliak dagoeneko ez die gisa horretako Martinen galderei egia osoaz erantzuten, nahiz eta Martin ohartu eta muturtzen zaion. Aitzitik, egia zehatza ez izan arren egiari loturiko zerbait erantzuten badio bakean uzten du. Halaxe gertatuko da Deban ere.

Hasiera batean, Juliak erantzungo dio «izenaz gogoratzen ez zen kantu baten pasartea etorri zitzaiola gogora: ‘Gauez, ilargia zeruan uhinen murmurioa en-

tzungo dudanean, zutaz oroituko naiz', eta [Martinek] ez ziola sinesten eta ez zuela balio asmatzea errepikatzen baitzuen, egia bota zion, kasik egia, ez zuela maitasuna hondartza batean egingo, 'inoiz gehiago' gorderik alegia, ondoren akosa ez zezan norekin egina zen galdezka, biek ez zeukatenez horrelako esperientziarik elkarrekin. Isilik geratu zitzaion, egia edo egiaren parte bat esaten dion gehienetan bezala».

Juliak berehala irakurriko du Martinen ipuin berrian Flora eta Faustino, Otzetan afaltzetik itzultzean, Debako hondartzan gelditu eta Florak gordinki «egidak narrutan» eskatuko diola. Luzaro ukatuko diote hitza elkarri.

Juliak ezkutatu egin dio Otzetako afariaren eta kantuen ondoriozko bere hunkidura fisikoaren gomutazko irudi eta hitz sentimental eta sexualen adierazpena. Martinek antzeman dio Juliaren aldarte bereziari eta sumatu du Juliak zirrara sakon hori ostendu diola. Badaki Juliaren aitormenez degien erabilera makurraren erruz Juliak ez diola egia osoa aitortuko. Makurkeria horren erruz tabu baita, besteak beste, ETAri loturiko Juliaren iragana. Martinek literaturaz hartuko du mendeku, Juliaren sentimendu ñabartua Floraren beroaldi gordin bilakarazirik. Literatura mendeku iski-

lutzat erabiltzeak bizitza menostu eta txirotzen du, eta horretxegatik da Juliarentzat Martinen literatura Martin bera bezain miserablea.

MORLANS

Gomuta mutuak dira ugarienak, komunikatzeke gelditukо da ETAri loturiko hainbat oroitzapen. Gogoratzailearen memoria zeharkatuko ez duen oroitzapen horietako bat, Abaitua Kepa adiskidearen etxera doanekoa, Morlans auzora.

Zigor, Paris, ETA, Adolfo... Saizarbitoriarenean izen batzuek protagonisten emozio korapiloak erakarri eta biltzen dituzte. Bizitzako gorabeherek protagonistaren sentimendurik barnekoi eta bortitzenak izen horietara isuri dituzte eta bertan gelditu dira iltzaturik. Ahoskatu edo entzun orduko, protagonisten erraiek zirrara nahasi horiek birsortuz ihardesten dute. Izen horietako bat da Morlans, «Morte»-ren lehenbiziko silaba duena lehenbiziko silaba. Morlansera hurbilduta edo Morlans entzunda, Abaituaren barne muinetan alferrik isuritako gazteen odolaren eta heriotzaren izugarrikeriak burrunbatzen du.

Morlans izenak «halako tristura baten aztarna bezala piztu dio, zergatiaz batere ziur ez dagoela. Oroimen lausoa du auzo horretako etxeren batean guardia zibilak ETAkide talde bat luzaz inguratua eduki zuelakoa. Esango luke irratiak operazioaren berri ematen zuela, guardia zibilen mugimenduarena, tiro hotsena eta berak larrituta entzuten zuela, ez daki ongi. Irudipena du tiroketa luzea izan zela, ordutakoa, eta gazte batzuk hil zirela tragikoki, absurdoki. Ez daki gertakizunak denboran kokatzen baina oso urrunak iruditzen zaizkio orain, ahantzi nahi izan dituelako beharbada, baina utzi dioten aztarnek, hain zehaztugabea izan arren bizirik dirautenez, ETAko kideen patuari sentimentalki atxikiago sentitzen zen garaikoak behar dute izan, haietako baten hilketa bat gertatzen zenean penaz gain errudun izatearen zama ere jasan behar izaten zuenekoa, azken finean bizia bere ideiengatik ematen zuten haien zoria konpartitzen ez zuelako.

«Leku asko daude odol heriotzen eszenategiak izan direlako markatuak, zeinetan metrailaren oihartzuna sentitzen den oraindik eta ikus litezkeela dirudien odolaren orban ezabaezinak –baita omenaldi urrunak utzitako lore zimelduak ere–, eta Morlans da horietako bat».

EKINTZA SUIZIDAK

Beti egin zaio deigarri Saizarbitoriari ETAk inoiz erabili ez izana atentatu suizidak. Ezohikoa da gaia. ETAren historiari buruzko liburuetan ez dut suizidioa erabiltzeko aukeren inguruko eztabaiden erreferentziarik aurkitu.

Ehun metro-ko Manuel, protagonistaren burkidea, oso gaixorik dago, tuberkulosiaren erruz birika bat galtzeko zorian, eta zuzendaritzari bere burua eskaintzen dio, erabil dezatela atentatu bat egiteko. Koherentea dirudi: osasuntsu zeundelarik bizia arriskatuz helburu bat lortzeko zenegiena, zure bizitzari zentzua ematen baitzion, orain ere egin dezakezu, eta gainera bizia arriskatu gabe, erabakita baitago biziaren berehalako amatatzea. Manuelek bi bider proposatuko dizkio zuzendaritzari ekintza suizidak, eta bigarrenean ia konbentzituko dituen arren, azkenik ezetz.

Hogeita hamar urte inguru geroago, Saizarbitoriak berriro azpimarratuko du ETAren ezaugarri hori. Hauxe diotso Hasier Etxeberriari: «Beste gauza bat ere adierazgarria iruditu izan zait beti: hemen ez da

izan aktibista suizidarik, beste leku batzuetan bezala. ETAren barruko kasuetan, pertsona bat edo beste gaixorik eta hilzorian jarri denean, erretiratu egin izan da beti. Isil-isilik. Seguru asko beste plano etiko batera ere bai. Ez dute esaten, zoaz popatik hartzera eta nire minbizi eta guzti, leherraraziko ditut lau guardia zibil. Ez. Ez dute horrelakorik egiten, Jainkoari esker».

Herio hurbil sentitzeak «beste plano etiko batera» zaramatzala, beharbada esan nahiko du ataka horretan kezka etiko-politikoek baino gehiago etiko-metafisikoek harrapatzen dutela giza gogoa, eta ETArentzat, beste talde politiko-militar batzuentzat ez bezala, ez dela zilegi izan plano desberdin horiek nahasi eta eriaren bizi apurra baliatzea inongo xede politikorik erdiesten ahalegintzeko.

EMOTIBISMOA

Saizarbitoriak zein Saizarbitoriaren protagonista idazleek ETAri buruz duten jarrerak emotibismo moralа deritzonaren ikuspuntuak baieztatzen ditu: erreakzio sentimentalaren ondoren datoz zuribide razionalak. Ez dago aurrena analisi razional hotz bat, neutro-

tasunaren eta objektibotasunaren aldeko ahalegina, eta gero argibide horrek eskatutakoaren araberako narrazioa, analisi horrek ondorioz lekarkeen proiektua bultzatzeko. Aitzitik, bultzatzaile nagusia bihotza da, bihotzak irudimena pizten du, eta arrazoia ez da bihotzaren eta irudimenaren tresna xumea baino. Helburu nagusia zirrara baita, eta irakurlearen sentimenduari eragitea. Funtsean dena da bihotza: aurrena sentimenduak du onartzen edo gaitzesten, eta gero eleberriak irakurlearen sentimenduei dei degie, irakurleen sentimenduak astindu nahi ditu. Saizarbitoriak sumatzen baitu berak bezala funtzionatuko duela irakurleak, inpaktu emozionalaren ondorioz etorriko direla burubide aldaketak, ez alderantziz. Bestela, txostenak idatziko lituzke eta ez kontakizunak.

Hori bai, bihotza ez da ezinbestez inertzia: Saizarbitoria, adibidez, ETA onartzetik ETA gaitzestera igaro da, eta bere kasuan, behintzat, bistan da arrazoia ez zela kalkulua izan («espainolen gogoko eginik nire merkatua zabalduko dut»), edo iritzi nagusiari amore ematea, baizik eta bilakaera sentimentala, bihotzaren erantzuna. Egia da eztabaidagarria dela zein neurritan izan daitekeen autonomoa sentimendu bat, baina luzeegi joko liguke eta haria galarazi. Nolanahi ere, Sai-

zarbitoriaren obratik ondoriozta liteke meritu etiko handia aitortu behar zaiela beste aldeko biktimengana hurbildu diren biktimei. Hori litzateke Tzvetan Todorovek «eredugarritasun» deritzonaren alde bat. Todorovek eransten duenez, ez meriturik ez eredugarritasunik ez duena da, behin gizarte kontsentsuak garbi ezarri ostean zein diren onak eta zein gaiztoak, barrikadaren alde egokian kokatu eta lezioak ematen eta zaunka ibiltzeak. Saizarbitoriak, ETAri buruzko isiltasun mota desberdinak aipagai dituen pasarte batean, zalditik jaitsi berriez dihardu, «hautsa astintzeko astirik gabe, alboan zamalkatzen zutenen kontra eraso egiten dutenak, arestiko kidetasun oro gorroto ahotsa bihurtzen duten ahots ozenak».

IDAZLEAREN NAHIA ETA IRAKURLEAREN INTERPRETAZIOA

Beraz, esan bezala, Saizarbitoriak, ETAz dihardue-larik, irakurlearen emozioak inarrosi nahi ditu, eta inarrosaldi hori jarrera etiko-politiko bilaka dadila. Aldez aurretik baditu gatazkak eragindako sentipenak, ideiak, asmoak, gorrotoak; eta pertsonaien eta konta-

kizunaren bidez gorroto, sentipen, ideia eta asmo horiek irudikatzen ditu, ondoren irakurleak antzera senti eta ikus dezan ahaleginduz, edo jakin dezan zein den Saizarbitoriaren beraren ikuspuntua, bederen.

Gerta daiteke, dena den, irakurleen interpretazio nagusia eta idazlearen asmoa bat ez etortzea: hori gertatu zen Saizarbitoriaren *Ehun metro* dela eta. Idazleak tortura, zapalketa linguistikoa eta orotarikoa nabarmendu zituen, eta ez bide zuen aski garbi azpimarratu ETAren ihardukia ordurako gaizki iruditzen zitzaiola.

Egia den arren Joxe Zuazalagoitia etakidearen heriotzaren alferrikakoa ere azpimarratu zuela, giza hilketen zoritxarra eta etenezina, eta hilketa horien aurreko gizartearen ezaxola, hala ere irakurleek ez zieten jaramonik egin ñabardura horiei. Irakurle arruntak ETAren laudorio garbitzat hartu zuen *Ehun metro*, poliziak krudelki akabaturiko militante zintzoaren gorespen hunkigarritzat, eta era berean irakurtzen dute gaur egungo gazteek ere, irakasleak aurretik testuinguru eta historia osoa azaldu ezean.

Nobela arretaz irakurriz gero, dena den, bistan da 1973rako garbi dagoela Saizarbitoriaren gaztigua: biolentziak odolustu eta hil egingo du Euskal Herria.

Frankismoaren zapalkuntzari erantzutea zilegi da, baina indarkeriak epe luzera hondamendia dakar. Errepresioaren aurrean okerrena ezaxola da, beste alde batera begiratzea. Engaiatu beharra dago; baina ez edonola. Bizitzaren aldeko engaiatzeak zaizkigu premiazko, eta, ostera, hilketak hilketari deitzen dio, heriotzak heriotzari, hauxe izaki etsai nagusia.

PERSPEKTIBISMOA

ETAz denaz bezainbatean, Saizarbitoriari premiazkoa zaio seme-alabei herentzia pozoitsurik ez transmititzea, ezin diegu gezurrik esan. Horretarako, ETAri buruzko kontakizun orokor bat adostu beharra dagoela dio; gero etorriko dira ñabardurak. Aurrena kontsentsuzko marko bat gailenarazi, egia oinarri, eta eragotzi gure seme-alabak gutaz are gehiago lotsa daitezen. Erru eta hondamendi bilaka bailiteke lehenbailehen aitortu gabeko akatsa. Jokoan dagoena da datozen euskaldunek nola ulertu eta bereganatuko duten iraganeko izango zaien ETA.

Nobela bat idatzi dezakezu ETAk ikaragarri sufriarazi duen errugabe bati eta bere familiari buruz;

errealista izango da gainera, egiazkoa, eta zintzoa izan liteke. Baina aukeratu dezakezu, orobat, Espainiak ikaragarri sufriarazi duen errugabe bati buruzko nobela idaztea, eta hori ere errealista izango da, egiazkoa eta zintzoa. Eragin etiko-politikoak kontrakoak izan arren, duinak izan litezke biak, eta estetikoki goi mailakoak. Bi kontakizun horiek eskaintzen baitizkigu errealitateak, eta baita muturreko bi horien artean egon litekeen panoplia aberatsa ere, ñabardura, ikuspuntu eta estrabagantzia oraingoz imajinaezinekin.

Halatan, zaila dirudi gatazkari buruzko kontakizun komun bat adostea. Gertagarriagoa, banako ugarien kontakizun adosezinak sortzea. Uste dut Juliaren tematzeak gatazkaren historia bakar bat eratzen azkenik indarra galduko duela. Saizarbitoriak biziki estimatzen du Jokin Muñozen literatura, baina *Bizia lo* ez da Juliaren parametroetan kabitzen.

Beharbada, esperientzia desberdinak integratu nahiko lituzkeen kontakizun bakarra eraikitzea baino, esperientzia desberdinak adieraziko dituzten kontakizun autonomoak asmatzea litzateke kontua, ezin integratuzkoak ezein osotasunetan, ez baitago sortzerik esperientzia desberdinak barnebilduko lituzkeen kon-

takizun bakar oro-hartzailea. Ahalik eta adostasunik zabalena lortuko lukeen historia idazten entseatzea xede etiko bat izan liteke, borondate onak bultzatzen du dudarik gabe Julia, baina erdietsi arteko bideak infinitua ematen du.

Aukera piloa dago oraindik jorratu gabe: besteak beste, torturatzaile zintzoa, gure herria desagerrarazteko lanetan kolaboratzen duen pertsona jatorra, zuzentzat jotzen dituen helburuak lortzeko tortura erabiltzea beste erremediorik ikusten ez duen hiritar onbera. Torturatzaile zintzoak pentsa lezake gure munduko zoritxarrak, gosea-eta, soilik mundu mailako gobernu bakar indartsu batez konpon litezkeela, eta estatu berriak sortzen ibiltzea denbora alferrik eta kriminalki galtzea dela. Eta, gizon sentibera izan arren, lagun hurkoaren oinazeak eta odolak ikaragarri hunkitzen duena, hala ere, uste duenez engaiatu eta eskuak zikindu beharra dagoela, Sartreren zentzuan, orduan bere ahuleziei heroikoki aurre egin eta gazte abertzaleak torturatzeari ekingo dio.

14
Egia

ENTZIKLOPEDISTA, BESTE HILTZAILE XELEBRE BAT

Saizarbitoriak *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-en eta *Bi bihotz, hilobi bat*-en Ilustrazioaren ikurritz eta egitasmoen ifrentzua darakutsa, hainbat zentzutan. Abiapuntua Ilustrazioaren ezaugarrietan oinarritzen da: protagonista sakonki dago Entziklopediarekin erlazionatua; ez da entziklopedia-saltzaile hutsa, bere baitan bizi ditu asmo ilustratuak: zinezko fedea du Entziklopediaren eragin emantzipatzailean, uste du Entziklopediak biltzen duen jakintza etxez etxe zabalduz gero filosofia praktikoaren eta lege moral unibertsalaren aurrerapenak ez lukeela atzerapausorik, arrazoiaren bidez egia ezagut daitekeela, herria egia bakar eta osoaz jabetzeak gizarte arazoen konponbidea erraztuko lukeela.

Bere egiten du, halaber, arrazoiaren autonomiaren maxima: Entziklopedistak bere kabuz arrazoitzen du, jakitera ausartzen da, ez du bere erabakimena ezein gune heteronomoren menpe jartzen.

Zein da arazoa orduan? Zergatik eramaten du arrazoiaren erabilera frenetikoak emaztea hiltzera?

Ez ote da beti hori gertatzen arrazoiarekin, alegia, arrazoiari bide luzea eta librea eskainiz gero bere kasa aurrera egin dezan, ezinbestez amaitzen duela hilketan, industriak eta teknikak Auschwitzen amaitzen duten bezala, edota zientziak lehergailu atomikoan?

Etxeko gerretan ia ezertarako ez du balio arrazoiak; arrazoiaren erabilera muturrekoak ez, bederen. Frantziako Ilustrazioari bezala, Saizarbitoriaren Entziklopedistari ere Terroreak eta Errestaurazioak itxaroten diote bide amaieran. Bizitzan lasai mugitzeko orduan intuizioa egokiagoa da arrazoia baino; eta bizitzak dakarrena arrazoiaren bidez konpultsioz ulertu, kontrolatu eta planifikatu nahi izateak, bizitza bera galtzea dakar epe ertainera.

(Ez da ahaztu behar *Rossetti-ren obsesioa*-ko Eugenia ere ilustratua dela, Espainiako Ilustrazioaren aldezkari, Tierno Galvánen miresle, eta Juan Martin eus-

kaldunak erabili, mespretxatu, umiliatu eta ahaztu egiten duela.)

Entziklopedista da Saizarbitoriaren pertsonaiarik komikoena; eta komikotasun hori lortzen du kontrastea erabiliz bi joera hauen artean: errealitatea arrazoiaren bidez ulertu eta menderatzeko tema, batetik; eta, bestetik, errealitatearen beraren irrazionaltasun sakona, Entziklopedistari alde orotatik ihes degiona.

Entziklopedistaren arrazoiak ezin du kontrolatu bizitzaren alderik sakonena, desarrazoizko aldea. Entziklopedistaren arrazoimenari Ilustrazioaren kritikoen ideiak barneratu eta bizitzan integratzea falta zaio. Behin ikasketa hori burutu ondoren, ez liokete hainbesterainoko amorrua eta nazka eragingo Bioletak zuzentzen dizkion maitasunezko hitz goxook, Flora ordezkaezinaren lekua betetzera datorkiolarik: «Zeu zara hiztegi entziklopedikoa».

Kant da ziur aski pentsalari ilustratu sendoena, eta ezaguna da Kanten etikaren agindu kategorikoetako bat: egia esan behar da, beti eta nonahi. Eta jarrera horrekin bat egingo du hedabideetako Saizarbitoriak, Gabriel Arestiren eskutik.

EGIA ESATEAREN ALDE

Idatziz baino maizago hitzez, Saizarbitoriak tai gabe aldarrikatu du egia adieraztea dela idazlearen konpromiso bakarra. Erabakigarria izan da Saizarbitoriarentzat Gabriel Aresti, zeinek poema hau idatzi baitzuen 1963an:

Egia bat esateagatik alabak hil behar bazaizkit, andrea bortxatu behar badidate, etxea lurrarekin berdindu behar bazait

Egia bat esateagatik ebaki behar badidate nik eskribitzen dudan eskua, nik kantatzen dudan mihina

Egia bat esateagatik nire izena kenduko badute euskal literaturaren urrezko orrietatik

inoiz, inola, inun eznaiz isilduko.

Orain Saizarbitoriaren beraren gogoeta batzuk kopiatuko ditut, Hasier Etxeberriari *Bost idazle*-n esanikoak:

«Idazleak, arotzak edo kazetariak bezala, pertsona zintzoa izan behar du. Ondratua».

«Gazte denboran egindako erruak aitortzea da orain nire erantzukizuna. Badakit beste diskurtso mota batekin lagun gehiago egingo nituzkeela, gazteen artean batez ere, baina gustukoak ez diren gau-

zak esan beharrak pena ematen didan arren, hori da dagokidana».

«Idazleak zintzoa izan behar du. Horixe du konpromisoa».

«Hemen denok utzi ditugu gauzak esan gabe, egokiera ez zelakoan. Baina Max Weber-ek bereizten duen bezala, gauza bat da politikariaren etika eta beste bat intelektualaren etika. Konbikzioaren etika eta erantzukizunaren etika. Politikariak gezurra esan dezake, erantzukizunari eusteko asmotan. Idazleak, ostera, ez. Inola ere ez. Idazleak ezin du gezurrik esan. Egia esan behar du beti».

«Egia gure aurka erabil dezaketen beldurrez, disimuluan jarduten dugu maiz. Egiaren jabe besteak direla pentsatzen dugu sarritan, eta Historiatik ezabatuko gaituzten beldurrez, geuk puztu eta itxuratzen dugu Historia. Arrisku handia da hori. Askotan hemengoaz hitz egiterakoan beldur gehiago diet batzuen txaloei, besteen mehatxuei baino».

«Nik uste dudanez, egia azaldu behar dugu. Hori da gure lana, baita atzetik norbait etorri badaiteke ere geuk esandako egia geure kontrako gezur bihurtuz. Guk egia esan behar dugu beti. Horixe da idazleon konpromisoa».

«Noski, egia entzun nahi ez duenarekin, alferrik da. Nahiago nuke indarkeriaren burugabekeriaz, horrek eskatzen duen miseria etikoaz, lehenago konturatu izan banintz. Nahiago nuke bere garaian Solzhenitsin-i entzun izan banio. Tragikoa da gizon horri egin geniona. Ezin imajina genezakeen berak zioena egia zenik; baina egia zen. Izugarria da ideologiak nola itsutzen gaituen. Geroztik ere izan gara itsu eta gor, eta mutu noski, idazleren batek salaturiko bidegabekerien aurrean. Tragikoa, baina egia da».

Labur: Saizarbitoriak hedabideetan egia aipatzen duelarik, oroz lehen egia politikoa du gogoan. Eta egia adieraztea dela idazlearen konpromisoa dioenean, ez dago misterio handirik bere hitzetan: batzuetan ingurukoen edo norberaren jokabide eta iritzi zenbait okerrak iruditzen zaizkigu; ordea, gure ustea adierazteak ezinegona eragingo luke, arerioek nire egia nire kideen aurka erabiltzea, lagunak edo bikotekidea galtzea, errietaren bat... Erosoagoa zaigu isiltzea eta betiko patxadari eustea. Dena den, Saizarbitoriak uste du idazleak ataka horietan ere egia adierazteko ausardia izan behar duela. Gabriel Arestirengandik etorriko zaio ziur aski jarrera etiko hori, baina tradizio luzea du mendebaldean: hasi Sokrates, segi Bruno, Spinoza...

EZ OTE DA SUSMAGARRIA ENFASI HORI?

Sinesgarria dea etengabeko azpimarratze hori? Ez da enfatikoegia idazleak konpromisoaren txapeldun beharko lukeela nabarmendu behar hori? Enfasi horren atzean ez ote dago kontuok batere garbi ikusten ez dituenaren itxaropena, errepikatzearen errepikatzez bere burua konbentzitzekoa?

Saizarbitoriak, hainbesteko suz azpimarratzen duenean egiatia izan beharra, ez al du erakusten *Marcel Martinen aitatasun ukatua*-ko Abokatuarenaren antzeko sinesgarritasun falta?

Abokatuaren sakoneko nahia da Marcel Martin bezain fidagarria izatea, egia esan eta jendeak ziplo sinets diezaion, baina ez du lortzen.

Are okerrago: emaztearentzat sinesgarria izan nahi du baina aldi berean modu traketsean engainatzen du, engainuan gozamen handirik aurkitu gabe, ohi bezala (Abaitua idazleak Susanarekin eta Entziklopedistak Bioletarekin erdiesten dutena bezain gozamen axaleko eta mudurria); baina bestalde, gezurti

baldarra izateaz gain (berehala ohartzen da jendea), ez du ulertzen eta ezin du eraman besteren batzuk, gure kasuan Marcel Martin, edota Joe Costello bera, Martinen piano-jotzaile ohia, sinesgarri gerta dakizkien emakumeei.

Abokatuarentzat, eta beste askorentzat, hauxe enigmarik handiena: zelan liteke zenbait lagun zeharo fidagarriak izatea jendearentzat, bereziki emakumeentzat, baita ahalegindu barik ere? Nola da posible Marcel Martin bezalako gizon horiek, agerian utzi arren Abokatua disimulatzen hainbeste ahalegindu dena (ez dela fidela, amoranteak dituela), hala ere maitagarri gertatzea emakumeentzat?

Marcel Martinek ez ditu aitatasun probak egin nahi: berak esan du ez dela aita, eta sinets diezaioten exijitzen du, beste barik, eta Abokatuaren emazteak sinesten dio.

Saizarbitoriaren enfasiak bere buruari eginiko errieta dirudi, ezin diolako fideltasunik gorde idazleak egiarekin lotu behar omen lukeen konpromisoari; bere buruarekin haserre dagoen ahularen purrustada ematen du.

Enfasi hori ez dagokio egiari traizio egiten dionaren itxurakeriari, ezta zinikoaren poseari ere, mitina

bota bezain laster mitinean adierazitakoaren aurkakoa egiteko asmoa duena, ez; Saizarbitoriaren hitzak goi maila egiatiari eusteko arazoak dituenarenak dira, superniaren gaztigua niari, goiari eusten batzuetan ahalegindu bai baina zail egiten baitzaio, euskaldun zintzo eta ausart izatea bezainbeste. Estu daude lotuta niaren ezina superniaren eta zeraren artean onezkoak egiteko orduan, eta iraganaren erruz bizitza etengabe arrakala dakizun.

EGIAREN BILATZE ETA ADIERAZPEN INTERESATUA

Bizitzak berez dakar sufrimendua; Saizarbitoriaren etikaren beste agindu bat, garrantzitsuenetakoa: «Saia zaitez sufrimendua arintzen; ez ezazu inolaz ere ezer asmatu sufrimendua areagotuko duenik».

Saizarbitoria, hartara, ahuleziaren heroia genuke, gidari zalantzatia, nolabaiteko ergelkeriaren eta traizioaren aldezkari, zentzu postmoderno honetan: artasuna darien heroi militar zorrozki koherenteak gorroto dituenez, baina aldi berean nolabaiteko ausardiari uko egin nahi ez dionez, egia osoa zintzoki aitortzea litza-

teke ahulari eta koldarrari gelditzen zaion aukera bakanetako bat, ausardia bezalako balio zuzen bat gauzatzeko.

Saizarbitoriarentzat egia aldarrikatu beharra dago, Arestiren ildo enfatikoan, baiki; ordea, bere zenbait pertsonaien bilakaerak ez ezik *Hamaika pauso*-ko J.J. Lasaren adierazpen batzuek iradokitzen dute giza jokabidea egiatan ulertzeko hobe dela etologia kontuan hartzea, giza animaliatasuna, hormonak, noradrenalina eta linfozitoak, eta ez autonomoa litzatekeen egia idealista edo ilustraturen baten araberako giza jokabidearen ipuina: «Ikara eta hira erantzun biokimiko baten ñabardurak baino ez ditu bereizten. Eta maitasuna eta gorrotoa, edo eskuzabaltasuna eta norberekeria. Pertsonalitate liluragarri baten eta idiota baten arteko diferentzia bi aminoazidoren arteko orekak edo desorekak erabaki dezake». Egia da Iñaki Abaituak «ez gara biokimika hutsa» erantzuten diola, eta hori ere azpimarratu eta kontuan hartu beharra dago, gure testuinguruan esan nahi baitu dena ez dagoela idatzirik, patua ez dagoela erabakirik. Hala ere, J.J. Lasaren hurrengo arrazoibideak ere badu bere munta etikari eta egiaren adierazpenari doakionez: «Gure jokabidearen DNA norberekeria da, norbereke-

riaren eragina dira gure ekintza guztiak, desinteresatuen diruditenak ere. Semea bere ondoan, ezer txarrik gerta ez dakion gorde nahi duen ama, berekoikeriaz ari da, zerbait gertatuko balitzaio berak jasan beharko lukeen sufrimendua saihestu nahian».

Egia eta egiaren adierazpena ere gizabanakoaren interesen menpeko tresnak lirateke hein handi batean, beldurraren eta agintzeko grinaren adierazpen eta tresna, errua eta damua uxatu eta zure kontzientziarekin onezkoak egiteko beharraren, sexukideaz jabetzeko irrikaren eta antzeko senen adierazpen eta tresna. Mundu errealean egia zinez ez baitu akademiko hotzak bilatzen, borondate onak bultzatuta, berak asmatutako metodo koherente baten bidez, urratsez urrats, arrazoibide logikoz; aitzitik, maiteminduak bilatzen du egia maitearen keinu gezurtietan, jelosia akuilu, edo abertzaleak aberkideen ahoberokerietan, erruak eta errukiak xaxatuta.

ETAren GAITZESPENA

Juan Martinek sentitzen duen bezala Victoriari maite zuela garaiz aitortu izana on zitzaiokeela, era

berean Martin ziur da ETAri buruz sentitzen zuena garaiz adierazi izan balu ez zukeela gerora horrenbeste sufrituko hoben sentimenduaren eta damuaren erruz. Ziur aski, ETA gaitzesteko orduan nolabaiteko zintzotasun desinteresatua ere eragile garrantzitsua izango zuen, orobat beste gizaki baten oinazeak eragin dezakeen sumin eta gupida inpertsonala, baina ez da lotsagarri, ez da bekatu, ETAren gaitzespenaren bultzatzaile nagusitzat interesa onartzea, ongizatearen bilatzea.

Egia garaiz adierazteak izan bailezake berezko balio etiko aratza, auskalo, baina aldi berean interesatua ere izaten da, oinazea aurrezten digun heinean; besteak beste, egia garaiz ez esateagatiko arrangura. Ez baitu balio ziurtatzeak «zuk jendaurrean kondenatu zenuenerako aspaldi kondenatzen nuen nik, baina barrutik».

Mina apaltzeaz gain, plazer iturri ere bilaka daiteke egia garaiz adieraztea, kasu honetan ETAren indarkeria garaiz kondenatu izana. Zenbait kondenatzailek ezin du ezkutatu besteri zerbait leporatu ahal izateak eragiten dion atsegina: «Ez duzu kondenatu, ergela eta gaiztoa zara, idiota moral bat»; epaile justiziazale zorrotzaren paperean kokatzea baitzaio gozamen

goren. Mordoka dabiltza halakoak gurean, gozamen erotiko gisako bat sentitzen dutenak kondenatzeko exijitze sutsuari esker, kondena norgehiagokari esker, kondenatzen ez dutenak detektatzeko metodo barregarriei esker, gatazkari buruzko kontakizunean kondenarik txertatu nahi ez duena madarikatu eta eskumikatzeari esker, agintariek eta hedabideek markaturiko kontsentsu zarratua histeriaz erabilirik gutxiengoa umiliatzeko...

Gozamen hori, sasoi batean ETArekin eta lilura iraultzailearekin kolaboratu izanak mingostu dezake; beranduegi hasi zara kondenatzen. Lehenago hasi izan bazina, gaiztoen aurkako zure kondenak indar handiagoa luke gaur egun, puruagoa litzateke, erasoezinagoa, biolentoagoa, gustagarriagoa.

Edonola ere, *Martutene*-k ederto dakarrenez, Franco izan zen ETA kondenatzen aurrenetakoa.

ERREPIDE ERTZEAN LEHERTUTAKO ARRATOI

Hitzaurrean iradoki legez, Saizarbitoriak egiari buruz hedabideei adierazi ohi diena ñabartu egiten du

bere literaturan, are kontraesan: batetik, askotarikoa eta nahasia izan liteke ETAri buruzko egia adierazteko bultzatzailea; eta, bestetik, bikotekideari egia adierazztea sarritan ez da onuragarri.

Errepikatzen digute arazoei buruz hitz egiteak arazoak konpontzeko orduan gehiago laguntzen duela isiltzeak baino, komunikazioa eta kontsentsua laudatzen dizkigute: Habermasen zaleen eta psikologo askoren eraso orokorraren aldeetako bat da. Ordea, alemanek dioten bezala, mintzatzea zilarra da, baina isiltzea urre.

Saizarbitoriaren eleberrietan, bikotekidearen mugak ezagutzea, eta norberarenak, ez da erabaki, hitzarmen edo solasaldi baten ondorio izaten, halaxe behar lukeen arren ziur aski, baizik eskarmentuaren. Etengabe komunikatu beharrak arazo artifizialak asmatu eta puztea dakar, sarritan ez baitago komunikatzeko gauza handirik. Komunikazioak baino gehiago lagunduko luke bikotekidearen sekretuekiko begiruneak.

Saizarbitoria bera da gure artisten artean bikotekideen arteko komunikazioa eta inkomunikazioa zehazkien aztertu duena; eta garrantzi berezia ematen dio egiaren adierazpenari. Zenbaitetan, protagonistak

sentitzen du bikote harremana usteltzea eta desleialtasuna, bikotekideari egia garaiz esan ez izanak ekarri duela.

Beste batzuetan, aitzitik, egia desorduan edo lekuz kanpo esateak dakar hondamendia. *Bi bihotz, hilobi bat*-en, *La comunicación en la pareja: claves del éxito* irakurri ondoren, bikote protagonistak erabaki du papertxo batean besteari dagokion baina ezagutzen ez duen egia bat idaztea.

Gizonak, ondorioen beldur, orokorkeriak eta lelo itxuralari pinpirinak baino idazten ez dituen bitartean, andreak gogor joko du iltzea: «Nazka ematen didate zure hortzek, zikinak diruditelako», edota «me da asco cuando me tocas las tetas y me besas en el cuello».

Era berean, *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-en, bikotea bolada eder bat igarotzen ari dela, besteari egia esateko zinak Florari aitorraraziko dio biok bakarrik egin zuten bidaia ofizialki zoragarri batean, Italian, autobusean zihoazela, zutik, gizonak Florari Malatestako gazteluaz azalpen historiko jantzi bezain luzeak ematen zizkion bitartean, italiar bat Florarengana atzetik hurbildu eta zakila ipurdian itsatsi ziola, eta Florak gustura utzi. Aipatu dut jelosiaren gaineko atalean.

Protagonistak aurrerantzean ezingo du burutik uxatu berak emazteari datu interesgarri horiek ezagutarazi bitartean italiar maltzurrak ziur aski bere baitarako «To Malatesta!» errepikatuko zuela barrez.

Egia beti eta nonahi aldarrikatu beharraz gain, hauxe ere badio Saizarbitoriak: «Idealizatu ohi da egia, eta batzuetan ez da errepide ertzean lehertutako arratoi bat baino».

Etikan, behin-behineko zenbait enfasi gorabehera, agindu kategorikoek kikildu egiten dute Saizarbitoria, beldurgarriak zaizkio eta batere ez sinesgarriak; komeni da nobelagileak proposatu agindu etikoak oro hipotetiko, material eta baldintzatutzat har ditzagun.

EGIA BIKOTEAN

Saizarbitoriaren bikoteetan harreman desberdina dute hizkuntzarekin gizonek eta emakumeek. Emakumeak, hala nola Susanak edo Mirenek, konexio psikikoa bilatzen du oroz lehen, harremana ezartzea, frekuentziak batzea. Hori dela eta, ez dio garrantzi berezirik ematen dioenaren mami zehatzari edo koherentzia logikoari. Aitzitik, gizonak sexu harremanari begi-

ra darabil gehiago hizkuntza; osterantzean, ez dago zer esan handirik. Horretan ere, talka egiten dute.

Entziklopedistak eta Florak elkarri egia esatea adosten dute. Arestian esan bezala, hasieratik egingo du gizonak iruzur, ez bakarrik ez zaiolako buruan pasatu ere egiten dena aitortzeko aukera; gainera, adostasuna Florarengandik informazioa lortzeko erabiliko du. Ordea, Florari gezurren bidez ateratako informazio hori da hain zuzen ere gizonari minik handiena emango diona. Gizonak uste du iruzurti abila dela, pozik da bere buruarekin, Florari egia lotsagarriak ateratzen dizkiolako berak ordainez deus eman behar izan gabe, baina egia horiek daramate jelosiara, sufritzera eta hilketara. Egia horietako bi: Rimini ko autobusean Florak italiarraren zakila ipurdian gozoro, eta Adolforekin larrua nola jotzen zuen: bera Adolforen gainean hankalatraba jarri eta titiburuak atximurkatzen zizkion.

Kontua da Entziklopedistak Flora inozo tolesgabetzat jotzen duela, egia esateagatik, egia lotsagarri horiek aitortzeagatik. Entziklopedistak antzeko pasadizoak kontatuz gero Florari, honek umorez eta eskuzabal onartuko lituzke ziur aski, maite kontuetan Saizarbitoriaren emakumeak ulerkorragoak baitira, barkaberagoak.

Hortaz, litekeena da Floraren aldetik konfiantza adierazpen bat izatea Riminikoa edo Adolforekin larrua nola jotzen duen kontatzea: honezkero ez da gertatzen, zu maite zaitut, zurekin egon nahi dut eta horregatik kontatzen dizut.

Ordea, Entziklopedista nolakoa den jakinda, ez ote dago Floraren aldetik, Malatesta eta hankalatraba bezalako aitorpenak egiteko orduan, bultzatzaile sadiko bat ere? Entziklopedista hain ongi ezaguturik, nola ez da ba ohartuko irudi horiek txitean-pitean etorriko zaizkiola gogora? Irudi horiek baztertu ezinik, Entziklopedistak iruzkin mingarriak egingo dizkio aurrerantzean: a, bazoaz, autobusean panderoa ezezagunen zakil lodiekin igurztera, noski, eta horrela.

Entziklopedistaren atxikimendua ziurtatu nahi luke beharbada aitorpen horien bidez Florak. Badaki senarraren berotasuna hirugarren baten presentzia erreal edo irudimenezkoak pizten duela. Bestalde, maite kontuetan bikotearen intimitatean Saizarbitoriaren andrea exhibizionistagoa izaten da gizona baino. Flora kilikatu eta berotu egiten du bere sexu eta sentimendu abenturak kontatzeak, are gehiago jakinik gizonari erantzun afektibo gogorra eragiten diotela. Florarentzat, okerrena indiferentzia da. Nahiago

du jelosia, aldarria, hondamendia, hoztasun axolagabea baino. Hala ere, hori ez da Saizarbitoriak asmatutako andre guztiekin gertatzen, esaldi enigmatiko hau lekuko: «Emakumeak pintatzen dakitenek lortzen dituzte, ez maitatzen dituztenek». Interpretazio bat: emakumeak nahi duena da maitaleak berari buruz gogoan egin duen irudia erreala izatea; eta gai izatea modu egoki eta libre batez erabiltzeko. Ez luke sentimendu karga handiko maitasunik nahi. Beste bat, Virginia Woolfen eta Prousten ildotik: amodioa ez da gai maitalea eta maitea benetan elkartzeko. Arteak bai, lor lezake.

Beraz, busti behar izanez gero, Saizarbitoriaren galderaren aurrean: komeni al da bikotekideen arteko komunikazio osoa, egokia al da egiarik morbosoenak ere kontatzea, maitasunaren eta konfiantza osoaren izenean? Erantzuna da: ez; bikotearekin aurrera jarraitu nahi baduzu ez kontatu bikotekideari mingarri lekiokeena.

Uko egin behar, horrenbestez, elkar erabat ezagutzeari. Bikoteak edo giza taldeak funtziona dezan asko dira jakin behar ez diren kontuak. Bestalde, inork ezin du bere burua erabat kontrolatu; are gutxiago, erabat

ezagutu; besteak beste, arras zaila baita egia osoa eramatea.

Eta, jakina, Florak, zenbait egia xume jakinda bizitzeko Entziklopedistaren ezinaz jabetu ondoren, ez dio kontatuko ezta kontserbatorioko jolas orduetan zigarreta pipatzeko ohitura duela ere.

HERIOTZA, EGIA ADIERAZTEAREN ONDORIO

Saizarbitoriaren zailtasun nagusia, Saizarbitoria idazlearen paradoxa, etikari dagokionez, bistan da, egiaz duen ikuspuntu konplexuak eragina da: hedabideei diotse egia goitik behera aitortzea izan behar duela edozein idazlek konpromiso nagusi; aldiz, bere kontakizunetan, alde batetik, gauzak nahasi eta gainbehera doazenean, egia garaiz aitortu ez izana jotzen du hondamendiaren errudun; baina, bestetik, pertsonaiak azkenik egia aitortzera deliberatzen direlarik, ondorioa aurreko kasuan bezain katastrofikoa izaten da. Floraren eta Entziklopedistaren patuak gaztigatzen digu egia esateak bikotekide batek bestea hiltzera eraman dezakeela.

Bizitza sozialaz denaz bezainbatean, adibidez Saizarbitoriaren obran garrantzi berezia duen ETAz, egia adieraztea eta ETA garaiz gaitzestea identifikatzen ditu; Saizarbitoriak maiz agertu du damua, ETAren eta iraultza gorriaren gaitzespena garaiz ez aldarrikatu izanagatik.

Bizitza intimoan, maiteari egia garaiz ez esateak, sentimendua bizirik delarik «maite zaitut» esan ez izanak, epe luzera oinazea dakar, maitearen nekadura eta azkenik agurra.

Gizarte bizitzaren eta bikote bizitzaren oinarria gerra da. Saizarbitoriaren iritziz, egoera oinazetsu hori gainditzekotan, itunak egin beharko genituzke: Florak eta Entziklopedistak ez zuten ikasi «hainbeste urte elkarrekin pasa ondoren gelditzen zitzaiguna ahalik eta ondoen eraman ahal izateko, hitzarmen moduko bat egiten, Samuelek eta besteek, egina zutela ziur asko ez zekiten arren, egina zuten bezala». Baliteke Saizarbitoriak arrazoi izatea, baina bere obrak zuzenean darakutsana da bikote bizitzan hitzarmen kontziente eta argiek ez dutela ezertarako balio, eta sarritan hitzartzeko ahalegin horiek dakartela hain zuzen ere gudua.

Ematen du ez dagoela irtenbiderik: etikaren porrota da patuaren gailentzea, zangoen paralisia, herio-

tza, gerra; baina, gerrarik gabeko edo gerra lotan dagoen egoeretan ere, gerra saihesteko hitzarmenak dakar preseski gerra. Patuaz aritutakoan ikusi bezala, patuari muzin egiteko mugimenduak berak botatzen zaitu patuaren atzaparretara. *Bi bihotz, hilobi bat*-en, esaterako, harremana hobetzeko ahaleginak berak, egia adierazi behar omen duten idatzien bidez, ekarriko du Floraren heriotza.

Saizarbitoriak dio idazleak beti esan behar duela egia. Baina egia horietako bat da gizaki errealoi beti eta nonahi egia esateak heriotza ekar diezagukeela ondorioz: Florari, *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-en, Entziklopedistari aitortzeak Adolforekin larrua nola jotzen zuen ekarriko dio heriotza; eta, *Bi bihotz, hilobi bat*-en, berriz, higuingarri zaizkiola Entziklopedistaren hortzak eta titiak uki diezazkion. Lehenbizikoan jelosia da Entziklopedistaren bultzatzaile nagusia; bigarrenean mespretxatua izana. Bietan zinez maite du Entziklopedistak Flora, baina iluna eta heriori lotua izaten da Saizarbitoriarenean maitasuna.

LAGUNAK GALDU

Egiaren arazoari gagozkiola ere, Saizarbitoriak idazlea gainerako pertsonengandik banakatzen du. Max Weberren bereizketa ospetsua darabil: idazleak beti eta nonahi behar du egia adierazi, konbikzioaren etikari lotu behar zaio. Aldiz, idazle ez direnen artean, politikariari esplizituki baimentzen dio Saizarbitoriak gezurra esateko eskubidea, erantzukizunaren etikak hala eskatuko balu. Eta, eguneroko bizitzan, jende arruntak, Saizarbitoriaren pertsonaiek, kontuz ibili behar lukete egiarekin. Batzuetan egia esatea maitasunaren eta bizitzaren aldeko izaten da, eta orduan esan egin behar da, eta garaiz. Baina beste batzuetan oinazea eragin lezake, heriotza, eta beraz hobe isilik.

Eta testu egiati bat balitz oinazea eta heriotza eragingo lituzkeena?

Saizarbitoriak dioelarik «egia adieraztea da idazlearen konpromisoa», gogoan dabilkiona ez da «dena da egia, osotasuna» edo «egia denbora bera da» bezalako egia filosofikoren bat; hurbilago du «tenorez esan gabeko aitorpen pertsonal bat»en antzeko zerbait, «ingurugiro barneratuaren presioari amore emateagatik luzaroegi geroratua».

Egia objektiboak ere beharrezkoak lirateke, noski, esaterako Euskal Herriaren Historia irakasteko orduan. Euskal Herriaren Historia mitoz apainduegian, edo euskal kultura txiki baina harroan, premiazkoa genuke egia osoa lehenbailehen adieraztea.

Saizarbitoriaren jarrera terapeuta batena da; sakonki sufritzen duen pertsona izaki, sakonki sufritzen duen herri bateko kide, eskarmentuak zantzu batzuk erakutsi dizkio, zein sendabide komeni zaigun, eta bere literatura botika ere bada. Saizarbitoria apur bat ezagutzea aski da sumatzeko zein den bere dohainik nabarmenetakoa: bereziki ondo daki adi entzuten eta aholku egokiak ematen. Aise kontatzen dizkiozu beste inori kontatu gabekoak, eta, eskatuz gero, primeran asmatzen du zer egin iraganetik datozkizun arazo enkistatuak konponbidean jartzeko.

Herri gisa, gutxien komeni zaiguna itxurakeria da, lilura harroa, herri handiekin kosta ahala kosta berdindu nahia, hizkuntza indartsua darabilen herri nagusia bagina bezala jokatzea. Inportante pintatzen gaituzten fikzio horiek are gehiago ahultzen gaituzte: besteek ez gaituzte ulertzen, guk ere ez dugu gure burua ulertzen, ameskeria hauskor batean bizitzeak erdi zoro eta zeharo zaurgarri egiten gaitu.

Apainduraz eta harrokeriaz biluztea, gure herriaren historia goibelaren berri emateko, gure kulturaren miseriena, gure hizkuntzaren ahuleziena... Saizarbitoriarentzat ez lirateke egia desinteresatuaren amoreagatik beste barik esan beharrekoak; egia aitortzen duen hizkera hori erabili beharrekoa da, guretzat osasungarriagoa, erabilgarriagoa eta indartzaileagoa den heinean.

Nobelagilearen ustez, gehien komeni zaigun hizkera benetan sentitzen duguna doitasun handienaz adierazten duena da; eta egia, azken batean, komenigarrien zaigun mintzamoldea. Hemen terapeuten arteko xextrak aurki ditzakegu ordea.

Ez baita imajinaezina autosugestiozko mintzamoldea izan dakigun onuragarriena, eta halaxe usteko du ziurrenik giza arimaren zenbait ikerlarik: gure ahulezia ezkutatuko lukeen eta itxurazko herri eta hizkuntza indartsuak pintatuko lituzketen mintzamoldeak izan dakizkigun benetan lagungarriak ahulezia errealak sendatzeko eta gainditzeko orduan. Gertatzen baita norberaren egia liluraren ondorio izatea, irudimenak erabakitzea gure egia, garen nahaste-borraste aprobetxategia gaizkiulertuen eta antzezpenen bitartez iristea bere egia heroikoa egituratzera, Della Rovere je-

neralaren kasuan bezala Roberto Rosselliniren filmean. Aldeak alde, ez dabil oso urruti Mirenen irudimenaren zeregina *Kandinskyren tradizioa*-n.

Hori halaxe dela frogatuko balitz, eta Saizarbitoriaren beraren arrazoibidean oinarrituz, litekeena da idazleak hizkera ilusionagarri horren alde egitea.

Saizarbitoria, eskarmentuaren ondorioz, ez baita idealista, ez kristau ez ilustratu ez iraultzaile, baizik eta pluralista eta kontsekuentzialista, alegia, ideiak eta mintzamoldeak balioesten ditu ez apriorizko beregaintasun baten talaiatik, baizik mundu errealean eragiten dituzten ondorio zehatzen arabera.

Horregatik, idazleak beti esan behar du egia, bai, konforme; baina ez beti-beti. Araberan. Egia idaztearen ondorioz maitasuna hilko balitz, edota oinazea hedatu eta larritu, ez luke mereziko.

15
Transmisioa

MEMORIA BETEKADA

Martutene-ren Atarikoan Julia memoria ergelen inteligentzia dela dioen esaldiaz gomutatzen da, eta Martin gogoratzen du «memoria txarra idealizatuz edo memoria onaren distira lausotuz».

Memoriarekin ere harreman anbibalente eta gatazkatsua du Saizarbitoriak. Etengabe ohartarazten digu memoria gaitzaren arriskuez: errua, jelosia, mendekua. Nobelagileak pintatu oroimenaren matxurak gaztigutzat hartu eta erne jarri behar gintuzkete.

Diktadurak iragana itxuraldatu eta ukatzen tematzen dira, Alberto Barandiaranen *Ez zaigu ahaztu* ahaztezinak darakutsanez, eta ondorioz ulergarria da historiako galtzaileen mendua uste izateko berez dela onuragarria egia oroitzeko ahalegina. Halatan, gurean izugarri ugaritu dira alde askotako memoriak berreskuratzeko ekimenak. Elizak hustu ahala Jainkoaren or-

dezko Memoriari eraikitzen dizkiogu tenpluak eta eskaintzen arauak eta erakundeak: dagoeneko baditugu Memoriaren eguna, Memoriaren legea, Memoriaren parkea, Memoriaren bideak, Memoriaren institutua, Memoriaren etxea... San Telmo museoa berritu eta Memoriaren Museo bihurtu nahi dute. Euskal Herriko museorik handiena izango ei da. Giroak agintzen duenaren arabera, hiritar zintzoak Memoriaren militante behar luke izan.

Kezkagarria da ugaritze horren zenbait ezaugarri. Hain zuzen, «Oroimenaren abusuak» izena du Tzvetan Todoroven liburu batek, eta horko zenbait ideia bat datoz Saizarbitoriaren obratik memoria indibidualaz eta herri memoriaz ondoriozta litezkeen irakaspenekin.

Nobelagilearen obrak memoria handia eta patologia larria nahasirik egon daitezkeela nabarmentzen du. Tentuz ibili behar, zer gorde oroimenean eta zelan. Ezaugarri gailen memoria aparta duten pertsonak eta herriak astun bezain goibelak izaten dira, batez ere memoria hori erruzkoa bada, edota doluzkoa. Eta buru eritasunaren erruz neurriz gain gogoratzera amil gaitezkeen bezala, gehiegi gogoratzeak buru eritasuna ekar dezake ondorioz. Maizegi jausten

gara Jean-Claude Guillebaudek frantsesei leporatzen dien liturgia jendetsuaren frenesian eta «maniaquerie commémorative» edo eldarnio kommemoramaniakoan. Ez al da eritasunen baten sintoma zein arranditsuki ospatzen ditugun desegigoak berriz eta berriz? Iraganaren tai gabeko oroitza ez al da oraingo ezintasun politikoa konpentsatzeko ahalegin agor samar bat?

Zaila egiten zaigu memoria bere tokian jartzea, eta konprenigarria da: berriki arte, adibidez, autoritatearen legitimatze iturri nagusia memoria izan baita, iragana, arbasoen ekanduak. Litekeena da aski denbora ukan ez izana ohitzeko gehiengoaren oraingo nahia edo giza eskubideak iraganetik datozkigun irudi, alarde, usadio eta arauen gainetik jartzera.

Lehenbailehen behar dugu haatik entseatu; Todorovek dioenez, memoria, sagaratuz gero, antzu bilakatzen baita.

Honezkero naturala dirudi galdu genuena jainkotu eta gizarte osoari gure oinazea kutsatzeko tentaldiak. Gure buruaren definizio nagusitzat biktimatasuna hartu eta gure zauriari miazka bizi ez diren hirikideak traidore jotzen ditugu. Ahaztu nahi luketen biktimei ez diegu ahazten uzten, ahazteko eskubidea oroitzekoa bezain errespetagarria den arren.

Oinazea eta zauria maizago izaten dira paralizatzaileak pizgarriak baino; ez soilik norberak sentiturik, baita hurkoarengan ikusita ere. Kasurako, zaila da sufritzen ari denaren ikuspuntuen aurkako arrazoiak adieraztea, ematen baitu bere sufrimendua dela gutxiesten duzuna; horrela, biktima batzuek, kontraesalea ahultzearren, nabarmenki lotzen dituzte mina eta arrazoia. Jendarteak badu bere burua biktima horiengandik babesteko eskubidea; banakook ere bai, gure baitako biktimarengandik.

Badago memoria mota bat egia oinarri gizakien egoera hobetzen lagundu beharrean oinazean laketu eta menpekoago egiten gaituena. Biktima izaera eriondo antzeko bat da ordea, gainditu beharrekoa. Ezin da herri bat amaigabeko doluan bizitzera behartu. Biktimaren oinazeak ezin du zuzenbidea erabaki. Baina horixe ari dira bultzatzen iraganeko minak pribilegio iturri gisa esplotatu eta oraingo emantzipazio bideak oztopatzen dituztenak.

Hainbeste biktima dauzkan gurea bezalako herri batean, iraganak eta oinazeen memoriak erabaki behar baldin badute oraina eta etorkizuna, orduan sekula santan ezingo dugu elkarbizitza zentzuzko eta baketsu bat abiarazi. Soseguak, askatasunak eta alai-

tasunak oroimena apur bat arintzea eskatzen dute. Iragana orainaren arabera dantzarazi behar lukete osasunak, etikak eta politikak; hori bai, jakina, behin egia jasangarri zaigun heinean ezagutu eta onartu ondoren.

Esanguratsua da Jaques Le Goff-ek azpimarratu datua: Alemania naziak eta Italia faxistak iritsi zuten iragana kommemoratzeko grinaren gailurretako bat. Nori komeni zaio ibiliegia dugun bide horri eustea? Ez al zaigu heldu oroitzeko mania pittin bat apaltzeko ordua?

TRANSMISIOA

Iraganetik jaso egin dugu, jasotzen ari gara, eta jasotakoa aldatu eta ondokoei helaraziko diegu. Transmisio zatirik handiena ez dago gure esku: ia beti ohartzeke helarazten dizkiegu ondorengoei ohiturak, balioak, usteak; bertikalean arbasoengandik datozkigunak eta horizontalean orainaldiaren uhinean txertatzen zaizkigunak. Baina puskaren bat bai, gure esku dago.

Martutene arte Saizarbitoriaren protagonistek ez dute seme-alabarik. Orain bai, eta transmisioaren

kezka Abaitua ginekologoak eta Juliak darakutsate batez ere, bi ahots narratiboek. Abaituarengan transmisioak huts egiten du. Loiola semeak bere antz handiegia du. Txitxarro sarda odolduaren oroitzapen makurra transmititu egingo dio, ziurki. Ez du asmatzen semea besarkatzen, hitz egokiak esaten. Beldur dirudi, ez ote duen Loiolak bera epaituko berak bere aita bezain gogor. Harvardera doanean ere ez da gai behar bezalako despedida bat ahoskatzeko edo antolatzeko. Ezina darakutsa Abaituak semeaz denaz bezainbatean. Hala ere, bereizi beharra dago jokabidea eta ikuspuntua, eta Abaituarengan ez datoz bat.

Iraganetik etorkizunera zer helarazi, gogoeta hori Juliak jorratzen du sarkorren; Julia da bitartekaria, transmisioaren protagonista: itzultzailea, bitartekaritza lanak egiten ditu hizkuntzen artean zein belaunaldien artean. Itxurari dagokionez, Simone de Beauvoirren antza du, eta, idazle frantsesaren obran bezala, iraganeko hainbat lerro biltzen dira Juliarengan ere, eta bera da semeari eta hurrengo belaunaldiei zer transmititu eta zer ez, tentuz aztertu eta baloratzen duena. Ama kuxkuxero eta gogaikarriari loturik datorkio Etxezar baserria, abertzaletasunaren txokokeriaz-

ko alde goibel eta txatxua. Juliak ez du maite. Azkenik, erre egingo da. Ongi errea, utikan tradizio horri.

Aldiz, Sagastizabal baserriari, Juliaren jaiotetxeari, desagertutzat jotzen badute ere hasieran, eta garapenkeriak dakartzan arriskuen despit, horri bai, eutsiko diote. Baserri izenen sinbolismoak garbi darakutsa galbahea erabiliz gero badugula zer iraunarazi. Gure iragana ez da kaka zahar hutsa izan. Sagasti zabalek ere bizi izan gaituzte; ilunabarretako zorion azkarra hainbat lekutan biziko zuten mundu-herrian, baina gurean ere bai, eta atxiki beharra dago. Sagastia etorkinei zabaldu eta nahasteari beldurrik ez, hain gurea den endogamia erdi intzestuzkoa zoritxar iturri izan baitzaigu.

Martin idazlearekin bizi da orain Julia. Aurretik beste bikotekide bat izan zuen, etakide bat, ezizenez Zigor. Seme bat izan zuten, izenez Zigor. Aita hil egin zen. Abertzaleen artean zabaldu zen GALek hil zuela; Juliak haatik ez du baztertzen auto istripu hutsa izana. Gutun bat utzi zion Juliari, semeak hamabost urte betetakoan ireki eta irakur zezan. Zigor aita hil zenez geroztik, ordea, Juliaren ikuspuntua ETAz aldatu egin da. Orain ezin du eraman diskurtso heroiko militarra. Beldur da aitaren gutuna ez ote duen mintzamolde ho-

rrek kutsatuko, iraganetik datorkigun arriskuetako bat behialako hanka sartzeak etengabe errepikatzeko inertzia baita.

Transmisioen borroka bat dago. Juliak abantaila du, senar ohiaren lehiarik ez. Gutuna semeak beharrean Juliak berak ireki, mintzamolde horrekin idatzia dagoela egiaztatu eta semeari deus esateke suntsitzea erabakiko du.

Saizarbitoria eszeptikoa zen eleberrigile batzuei entzuten zielarik pertsonaia batzuk beren kabuz jokatzen hasten zitzaizkiela, idazlearen borondatetik libre. Oraingoan berari gertatu zaio Juliaren erabaki horrekin, aldi bakarra izan da pertsonaia bat matxinatu zaiona. Saizarbitoriak esan izan du berak, ziur aski, ez zukeela Juliak bezala jokatuko.

Beraz, alde batetik, Juliak ez du bortxakeria zurituko lukeen inongo arrazoibiderik edo sentimendurik transmititu nahi. Dilema etikoa baldin bada, batetik, emandako hitza betetzearen ondorioz seme-alabei kaltegarri izan dakizkiekeen balioak eta kontsignak transmititzea, edota, bestetik, hitza jatearen eta gezurraren bidez seme-alabak babestea, bigarrenaren alde behar da egin.

Martinen jarrera iraganetik datorkigunarengana ñabardurarik gabeko arbuioa da: gurasoek gezurra esan ziguten, txistua eta euskal dantza barregarriak dira, abertzaletasuna berriz sentimentalkeria kriminala. Zigor semeak gordinegi islatzen dio aita biologikoa eta Martinek ezin du eraman. Euskal iragan osoak eman du ETA, ongi damutu zaio Martini ETAren inguruan ibili izana eta konstelazio hori guztia okaztagarri zaio. Unibertsalismoaren fundamentalista bat da, Paris eta New York tokiak ez balira bezala.

Tradizio abertzaleari dagokionez, mitologizatzaile itsuak bezainbeste kritikatzen ditu Saizarbitoriak desmitologizatzaile «objektibo» porrokatuak. Hauek euskal tradizio osoa bota nahi dizute zaborrontzira, hasi eta buka; hortxe gelditu da Martin. Aldiz, ñabartuagoak dituzu Abaituaren eta Juliaren ikuspuntuak. Iragana tentuz behar da galbahetu. Sasiarekin eta pozoiarekin batera, asaba zaharren baratzak baditu ere porru eta karrota osasungarriak. Arbasoen balio, ohitura, uste eta sinesmen batzuei eustea kaltegarri zaigu; ordea, ur zikinarekin batera ez da umea ere bota behar, hain gutxi bainera bera aizkorakadaka suntsitu. Egin beharrekoa da gurasoen izaera eta bizimoduekin batera erdi oharkabean jaso ditugunak aztertu eta baloratu,

balorazio horren arabera bereizi, eta batzuk zokoratu eta beste batzuk geureganatu. Ez gogorkeriari, fede katolikoari, masokismoari; bai, ostera, lana serio hartzeari, zintzotasunari, hitza betetzeari.

Jakina, ezin den-dena doi-doi ahokatu; balioen artean, esan bezala, kontraesanak sortzen dira, eta hitza betetzeak semea indarkeriara bultzatzeko arriskua badakar, jan ezazu hitza.

16
Irakurleak ere bere iraganari aurre

Doluaren inguruko Melanie Kleinen gogoetak Saizarbitoriaren zereginaren eta bere irakurlearen erantzunaren alde bat ulertzen lagun dezake. *Culpa y depresión* liburuko León Grinbergen hausnarketak ere kontuan hartu ditut atal hau idazteko orduan.

Saizarbitoriaren obrak bekoz beko jartzen du irakurlea bere iraganeko alderik mingarrienarekin. Umoretsua ere baden arren, sentimenduen azpimundu oinazetsu batean murgilarazten zaitu; inork ez bezala hunkitzen ditu zure arimako geruza ilunenak. Irakurketa amaitutakoan, gozamen estetikoaz nahasirik, emozio hauxe ere ernetzen da: erdi baztertua zenuen zerbaiti aurre egin diozu eta onik irten zara, sendatua.

Zentzu horretan, Saizarbitoriaren idazketaren ondorioetako bat ez dabil urruti doluaren lanetik. Doluak hildako enpirikoari erantzun diezaioke, baina baita ere gure bolada depresibo oldarkorretako jende errealaren fantasiazko hilketari. Kleinen jarraitzaile Hanna

Segalen esanetan, gure barne mundutik maitasuna desagertu eta maite dugun jendea suntsitu dugularik, gure etsipenak erremediorik ez duelarik, orduan ekin behar izaten diogu, doluaren bidez, gure barrualde hori berregiteari, zatiak bildu, hiliko pusketak berpiztu eta amatatua biziarazteari. Saizarbitoriarenaren tankerako sorkuntza, besteak beste, maite izan genuen baina irudimenez txikitu dugun inguruaren berregitea da, erreka jotako barne mundu eta ni baten berrosatzea.

Aldez aurretik, nobelagileak irakurle askok egin ez duguna du egina: bere baitako goibelaldi obsesiboari aurre egin, aztertu eta onartu. Saizarbitoriak dio zentzuna eskuratzeko gure historiari eta gure gizarteari buruzko egia tristea aitortu beharra dagoela; era berean, oinaze indibiduala ere aurrena onartu egin behar da goitik behera, hurrena artistikoki adierazi ahal izateko. Segalek dioenez, soilik galera onartua izan denean eta dolua zeharkatua mamitu eta burutu daiteke birsorkuntza literarioa.

Txikitan denok birrindu dugu, gorrotoz, maite izan dugun jendea, gurasoak eta. Doluak, helduaroan gertatzen denean ere, beti berpizten ditu haurtzaroko an-

tsietate ilun erasokor haiek, hazi ahala gehienok muzin egin nahi izaten baitiegu, ezikusi.

Irakurlea ere suntsitzaile bat izan da; zokoratuak eta erdi ahaztuak ditu haatik atsekabea eta heriotza, helduaroan ez die aurpegi eman, errazagoa baitzaio horrela bizitza. Aldiz, Saizarbitoriak bai, zoritxarrari eta heriotzari aurre egin die. Eta aurre egite horren ondorioz eraiki duen obrak erakusten digu triskantzaren despit munduak bizirik dirauela. Kaos mingarritik abiatu behar eta hala ere harmoniazko mundu oso bat berreraikitzea erdietsi du.

Saizarbitoriaren obraren oinarri arriskutsua ulertzeko afektuen mailarik sakonenean bizi behar dira bere nobelak, alegia, irakurleak oskolak eta babes estalkiak erantzi eta ausartu egin behar du bere egitera idazlea idaztera bultzatu duen egoera psikikoa. Autoreak bere obsesioari aurre egin eta hura adierazten duen heinean behar du irakurleak autorearekin identifikatu.

Identifikazioaren ondorioz, irakurlearen baitan idazlea idaztera bultzatu zuen hondamendia berpiztuko da. Obrari esker, alta, Saizarbitoriak zein irakurleak gaiztotzat jo eta akabatu genuen jende hura biziberri-

turik itzuliko da. Horixe bera erdiesten du ongi burutu-riko doluak.

Irakurleak, defentsazko jarrerak bertan behera utzi eta Saizarbitoriari bihotzez jarraituz gero bere obsesioen sakonuneetaraino, berriro biziko ditu bere haurtzaroko larrialdi goibelak, eta, orduko doluak errepikaturik, irudimenez hil zuen jendea eta mundua berpiztuko zaizkio, eta osaturik irtengo da irakurralditik, aurrerantzean azalean ederki bizitzeko prest, Berritsua, Benito eta Lynn bezala, hori baita zailena. Saizarbitoriaren obrak dolua zeharkatzen lagundu dizu. Honezkero alderik alde igaro duzu ordea, aitzakiarik ez abaituatarren eta Martinen antzera putzuan laketzeko.

ITSUSIA BARNE

Rodinek «itsusi» kategoriapean amorfoa sartzen du, oinazea, eritasuna, suntsipena; orobat immorala, biziotsua, kriminala eta ondoeza dakarren edozein anormaltasun. Artista putzu sakon eta ilun horretan murgildu, makilatxo magikoaz ukitu eta itsusitik ederrera itxuraldatzen du. Saizarbitoriak ere obsesioren

izu amorfoa eta heriotza bere eleberrietako osotasun ederrean harmonikoki barnebiltzea lortu du.

Azpimarratu beharra dago, bereziki gaur egun, zozokeriak hainbeste indar erakartzen duelarik, osotasun eder horrek ezinbestez jaso behar duela itsusia. Esperientzia estetiko sakon orotan behar dute indarrean nola ederrak hala itsusiak. Grinbergek dioenez, ganorazko idazleak, bere obsesioa sinbolikoki gainditzeko, herio irrika onartu behar du, kanpora bideratutakoa zein autosuntsitzailea; baita ezinbestez hil beharra ere, nola maite duen jendea hala norbera.

Suntsitzea eta itsustasuna herio irrikaren adierazpen dituzu; ostera, bizi irrikari dagokio itsusia obra ederraren osotasun erritmikoan biltzeko nahia. Saizarbitoriak adierazpenik biribilena eman dio bi irrika horien arteko gatazka eta batasunari.

Nobelagilearen obraren indarra, besteak beste, obsesioaren eta heriotzaren onarpen eta sublimazioaren araberakoa da, eta irakurlearengan duen efektuetako bat da honek inkontzienteki idazlearen esperientzia bereganatu eta haren garaipena partekatzen duela. Edertasun oso horrek aldi berean triste eta zoriontsu sentiarazten zaitu, *Martutene*-ko neska gaztea bezala trenean, Martinen «Amodioak eta penak» ira-

kurri berritan, itsusia artez integratu duen edertasuna sentitzeak deskarga eta zirrara izugarri bat eragiten baitu.

Hain zuzen, ederra objektu harmoniko eta osoarekin izan da alderatua, simetria integratuarekin, eta, psikoanalistek diotenez, eragiten duen ongizatea bat dator zurrupaketa erritmikoak dakarrenarekin, edota kaka egite edo sexu harreman egoki eta gogobetegarriek dakartenarekin ere, deskarga zirraragarriak inondik ere.

17
Iragana bere tokian

Gizakiarengan azala da sakonena, zioen Valèryk. Ordea, neurotiko mudurriak du barnekoiaren ospea, betargiak alderantziz. Txarto dabilena omen da interesgarria, konplexua, sakona. Izaera eta bizimodu eramangarri ahal bezain ez problematikoak lortu dituena, berriz, axalekoa. Ikuspuntu horrek min handia egin du, kontrakoa baita egia: Epikuro eta Spinoza sakonagoak eta interesgarriagoak dira Cioran baino. Eta inoizko filosofo ezkorrentzat jo izan denak, alegia, Schopenhauerrek, *Bitzitzen ikasi* eta *Zoriontsu izateko artea* idatzi zizkizun, pesimista argiak ez du-eta noizbait zoriontsu izatera heltzeko itxaropena galdu nahi izaten.

Rafael Sánchez Ferlosiok «tontiastuto» deritzona izaten da, susmoaren filosofoen irakurketa zoritxarreko baten erruz, tematzen dena ezkutuki izugarriren bat xerkatzen edonoren arimako barrualde ilun mugagabean. Begiak ñarrotu, begirada aztertzaile sakon ustekoa ipini eta solaskide koitaduari solemnitatez

diotso: «Hori diozunez, justu kontrakoa da egia». Alderantzikatze mekaniko hori ez da, barren, berebiziko buru argitasunaren adierazpena. Gainera, noraino iritsi alderantzikatze-bide horretatik? Ez al da egokiagoa Benitoren jarrera pirronikoa? «Hori diostazu? Ba goitik behera sinesten dizut, hori hartuko dut egiatzat. Nolanahi ere, bost axola».

Saizarbitoriarentzat, merezi du ahalegintzea etorkizuna iragana ez bezalakoa izan dadin, ahaleginaren emaitzari dagokionez eszeptikoa izan arren. Bere protagonistek ia inoiz ez dute iraganaren uztarria haustea lortzen, baina Saizarbitoria bera eudaimonista da, zoriona du xede, bere buruarentzat zein gainerako gizakientzat. Zentzu horretan, ez dator bat Joxe Azurmendi batekin, honek gizaki tipo garaiagoa baitakusa bere zoriontxoari uko egin eta «gaixo eta pobreekin erruki-tu den fededun kristauarengan, edo justizia eta askatasunaren alde behin bere gaztetasuna eskaini zion idealak berari besterik ekarri ez dionarengan, espetxea ez bada eta klandestinitatea urte luzetan barnerrian zein atzerrian».

Martutene-ko aingeru erru-garbitzailea, Lynn, azalean bizi da, berehala ahazten du zoritxarra. Berritsuak zein Benito frankistak ere ez dute barne arazo-

rik ez hobendun sentimendurik. Susmoaren psikologiaren aurkako eredu argiak dira. Azalean gelditzen jakitea edo azala berreskuratzea da bizitzan trebetasunik zailena, eta zoriontsu izateko ezinbesteko baldintza. Berritsua, Benito eta Lynn ez bezala, Abaitua, Julia eta Martin psikologia fidagaitzaren araberako «jende interesgarria» dira. Freudek mesfidantzara ohitu gaitu, begirada sasijakintsu batez solaskideak ezkutatzen omen digunaren bila sakontzera. Eta gehienetan ez dugu aurkitzen gure buruaren proiekzioa baino: beldurrez, obsesioz eta erruz onduriko lokatz nekagarri bat, psikologo mesfidatiak «egia» deritzona, «traumaren desestaltze» adieraz. Egia ikaragarri hori, ordea, behin karga emozionala kenduta, hutsala eta ahazteko modukoa izaten da.

Saizarbitoriaren eleberrietan zorionbidean lagungarri izan dakizkigukeen hainbat eredu aurki ditzakegu, batez ere bigarren mailako pertsonaiei lotuak, hala nola Lynnen errugabetze aktiboa edota Benitoren eszeptizismo onbera.

Montauk bezalako liburuetako literatura ere salbabide izan dakizuke, herio beharrean bizia aldezten duen heinean. Bestalde, *Kandinskyren tradizioa*-k erakutsiko digu giza fakultateen artean damuzko iragan-

keria barik irudimena hobesten eta bizipozaren alde erabiltzen. Azkenik, eta behar bezala hasteko, itsasora bota genezake gurasoen eta gizartearen herentziaren alde astuna, itsasoak sendia eta giza historia gainditzen baitu.

MONTAUK

Martutene biziarazten duen *Montauk* eleberriak Saizarbitoriaren ildo bi batzen ditu: objektu katalizatzailea da, hala nola *Ehun metro*-ko giltza, *Hamaika pauso* eta *Gudari zaharraren gerra galdua*-ko Omega ordularia eta *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-eko domina. Eta, gainera, liburu bat da.

Aurretik ere bagenituen Saizarbitoriaren liburuen barruko liburuak, esaterako ilunpetik *Hamaika pauso*-ko gertaerak erabakitzen zituztenak: batetik, Loretta Sheridan protagonistaren fusilatzearen ingurukoa; eta, bestetik, Abaitua idazten ziharduen «Hamaika pauso». Edota, *Rossetti-ren obsesioa*-n, Juan Martinek hotelean galdutako eleberria, «Adio atsekabe», protagonistei era berean gordetik eragiten ziena. Edozelan ere, *Martutene* arte heriotzaren zerbitzura zeuden na-

rrazio barruko liburuak, abandonuen, fusilatzeen eta ehorzketen mesedetan, eta *Montauk*, aldiz, *Martutene*-ko bizitasuna suspertzera dator.

Bestalde, Saizarbitoriaren orain arteko eleberrien artean *Martutene* baldin bada konplexuena, ispilu eta simetria jolasik esanguratsuenak erakusten dizkiguna, ez da soilik potoloena izaki edozer sartu duelako; kontuan hartu behar da, halaber, *Montauk* bera erabili duela pertsonaien ispilu, akuilu, katalizatzaile eta inspirazio iturri gisa. Aipatu giltza, ordularia eta domina gauzaki gafeak edo talisman gaiztoak ziren, herioigarleak; Max Frischen *Montauk*-ek, berriz, protagonistak heriotzatik salbatu eta bizitasun indartsu batez sustatzen ditu.

Ehun metro-n, *Hamaika pauso*-n zein *Gudari zaharraren gerra galdua*-n eta *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-en heriotza eta hilketa baldin baziren nagusi, protagonistak hil egiten baitziren edo hil egiten baitzuten, *Martutene*-n ez soilik ez da protagonista bakar bat ere hiltzen; gainera, gertaerarik hunkigarrienetakoa jaiotza bat da, Peruren jaiotza Sagastizabal baserrian. Saizarbitoriak inoiz ez du *Martutene*-n bezain ederki erakutsi borondatetik eta maitasunetik datorren biziaren aldeko grina.

LYNN ETA ERRUGABETZE AKTIBOA

Bi bihotz, hilobi bat-en, besteak beste, tanatofilia gailentzen zen protagonistaren inguruan: heriotza lehenesten duen kultura batean bizi dira Flora eta bere ama; Entziklopedistak bizitza jarri nahi du heriotzaren gainetik, Parisera joan Florarekin bidaian gerezi denboran, baina Florak nahiago du diru hori gurasoentzako panteoi bat erosteko erabili.

Martutene-n, berriz, bizitzaren alde ilunak saihestu gabe ere, inoizko koloretsuen dakarzkigu Saizarbitoriak loreak eta katuak, adiskidetasuna, maitasuna eta jaiotza. Errua bezain erabakigarria da *Martutene*-n bizitza errugabetzeko ahalegina patuaren onarpenaren bidez, Lynnen *amor fati* eder hori, baldintzarik gabekoa.

Martutene baino lehenagoko narrazioetan nonahikoa zen patuaren atzaparra, omnipresentea, eta hainbat moldetan mamitzen zen: arbasoen zama, protagonistaren izaera, putzuari ihes egiteko ahalegina, zuzenean putzura zaramatzana, simetria gaizto bat... Ezohikoa dugu *Martutene*-ko patu gaiztoaren baies-

pen barea, Lynnen ahaleginean bai Abaitua eta bai Pilar errugabetzeko: «Nirea ez da izango zure erruaren izena» diotse.

Onartze hori ez da zori txarraren eramate solemne arranditsua, baizik lasaia eta aurrera begirakoa, errutik aldenduen dabilen pertsonaiari dagokiona. Lynnek goxo onartzen du bizitzak dakarkiona. Onbera da gainera, alegera, eskuzabala, argia, eta beldurrik gabe ematen zaio maitasunari, protagonista euskaldunek ments duten kalipuz.

Bada jende sarkina bikote sendoak desorekatu eta apurtzeko irrikak mugiarazten duena. Ezohikoagoa da kontrako kasua, *Martutene*-k erakusten diguna: bikote batzuek suntsitu egiten dituzte tartean sartzen zaizkien edo dituzten lagunak. Hirugarrenaren agerpenak bikotearen eritasuna eta gainbehera katarsiz astinduko du, eta ondoren zauritu eta bota egingo dute. Patu makurrak dakarkion zartako eta bazterketa horixe da Lynnek patxada dotore batez onartzen duena. Elbarri izanagatik, zoriontsuagoa izango da Abaitua eta Martin baino.

BENITO, ZENBAKI ORDINALEN NEUROSIAREN GAINETIK

Azalean bizitzeko artean maisu izatera iritsi den bigarren mailako beste pertsonaia bat da zerriaren eskutik ezagutu dugun Benito. Saizarbitoriaren protagonista gehienak dogmatikoak eta fundamentalistak diren bitartean, itxuraz fundamentalismoaren kritikoak diren ilustratuak ere ilustrazioaren fundamentalistak baitira, sinesgogorra da Benitoren jarrera: ez dakit gauza handirik, berdin dio, beharbada bai beharbada ez, auskalo. Ez da hain desberdina bizirik egotea eta hilik egotea. Benitok ez du inor epaitzen, hain gutxi bere burua.

Artaxonakoa sorkuraz, frankisten aldeko boluntario izan zen, patxadaz; abertzale zein gorri izatera ingurua, antzeko entusiasmo gutxirekin zatekeen Benito errepublikazale: «Denei arrazoi ematen dieten horietakoa zen, edozer gauzarekin konformatzen zena, eta zoriontsu izateko txorizo zati bat, ogia eta ardoa besterik behar ez zuena». Sakoneko eszeptizismo horri esker bizi da kontent, egokitu zaizkion garaia eta emaztea hain zakarrak izan arren.

Saizarbitoria izan da lehenbiziko euskal eleberrigilea frankista baten azalean sartu eta sinpatia handiz aurkeztu diguna. Koldo Izagirrek idatzi zuenez, «‘lehen aldiko gizona’ izatera kondenaturik dago Saizarbitoria. (‘Lehen nobela modernoa’, ‘lehen nobela bilinguea’ (sic), ‘lehen nobela zientifikoa...)».

Bestalde, emakumea protagonista duten Saizarbitoriaren eleberrietan, *Egunero hasten delako*-n zein *Kandinskyren tradizioa*-n, berebiziko garrantzia du lehenbiziko aldi sexualak. Eta Abaitua ginekologoak karrikan zein ohean darabil gogoan Max Frischen esaldia: «Emakume batekin, lehen aldi oro, lehen aldia da berriro». «Emakume batekiko lehen aldia, lehen aldia da beti». Eta Martin idazlea biziki nahigabetzen du bera ez izan izanak ETAren biktimengana merezi bezala hurbiltzen lehenbiziko euskal idazlea.

Kontuz ibili behar «lehenbiziko» horrekin, Saizarbitoriaren protagonistak kondenatu eta hondamendira amiltzen dituen indar makurren artean ez baita eskasena lehenbizikoaren lilura. Oraingo aukerak lausotu eta baztertzen ditu, gogoa iraganeko lehenbizikoan katramilatzeko, jatorria eta hasiera delakoan orduz geroztik etorri den guztia markatu duena.

Abaituarentzat, munduan ez dago emakume baten intimitatean lehen aldiz sartzearen pareko zirrarik. Bederatzigarren edo hogeita zazpigarren aldiaren aurkako tamainako aurreiritziak darabiltzanak derrigorrez amaituko du paziente baten aluan atzamar bi sartzen, behar ginekologikorik eta eskularrurik gabe. Benitori, aitzitik, orainaldian bizi denari guztia zaionez etengabe diferente eta berri, berdin litzaizkioke harrigarri lehenbiziko aldia, bigarrena zein azkenaurrekoa, eta hori ezinbesteko baldintza da iraganetik libre bizitzeko, gizaki izan arren.

IRUDIMENA

Kandinskyren tradizioa-k errealitatearen eta irudimenaren arteko dialektikan sakontzen du, Mirenen maitasunaren kasua ardatz hartuta. Miren nerabeak lagun taldearen presioa nozitzen du, mutilen batekin has dadin behingoz. Rosa da gogorren presionatzen duena, neskarik esperimentatu eta lotsagabeena, ustez. Bere ikasbidean Mirenek aurkituko du ezer ez dela dirudiena, eta aldi berean irudimenak badenaren gain eragin dezakeela. Egitate hori, batzuetan, gure

zorionaren aldekoa da, edo gure zorionaren alde erabil dezakegu bederen, zoriona izaki etikak oro har eta Saizarbitoriarenak zehazki gizakioi maizenik proposatu digun azken xedea, gure jarduera guztien helburu gorena. Edozein gisaz, Mirenen bilakaera, Saizarbitoriaren gainerako protagonisten artean, salbuespenezkoa da. Saizarbitoriaren protagonista gehienek ezin diote zorionari eutsi: pozik bizitzeko baldintza material eta afektiboen jabe izan arren, berehala nagusitzen zaie iluntasun hotza eta heriotza irrika, indartsuagoa balute bezala zoriona bilatzeko joera baino zoritxarrean jaustera derrigortzen dituena.

Rosaren presioa arintzearren, Mirenek mutil lagun bat asmatzen du, Manu atsegin, sentibera eta etxerako modukoa, Errioxako Bastidakoa, non Mirenen donostiar sendiak bigarren etxea baitu.

Bereizi beharra dago, batetik, herri jolas batean gogorturiko irudimena, tradizio batean zurrundua, «Kandinskyren tradizio» deritzon horretan, kasu: Urtezahar gauean kalera irten eta pasatzen den lehenbiziko gizonari zer izen duen galdetu behar diozu. Gizon horren izen berekoa izango ei da zure senarra. Horixe gertatu zitzaion Kandinsky margolariaren emazteari. Hasieran, nahigabetu egin zen kaleko ezezagunak

Wassily erantzun zionean, berak Gregor bezalako izen dotoreagoa baitzuen amets; dena den, azkenik Wassily Kandinskyrekin ezkondu zen, Alexandre Kojève filosofoaren osabarekin, egia definitu zuena zentzu ulergarri guztien artikulazio koherente gisa, Saizarbitoriaren antipodetan.

Bestetik, badugu halaber tradizioan egituraturiko irudimen hori txertatzera datorren lagun konkretu betiere desorekatuagoaren irudimen gorabeheratsua, malguagoa, apetatsuagoa, gizabanako jakin horren beharretara egokituagoa.

Mirenek Aitor izena nahi luke, izen euskaldun bat. Urtezaharrean kalera irten eta gazte erakargarri bat da Mirenek aurkitzen duen lehenbiziko gizona. Mirenek zer izen duen galdetu eta, ezustean, «zu Miren zara» erantzuten dio, «ezagutu nahi zintuzket»; ondoren, bera Aitor dela.

Tradiziotik datorkigun jolas irudimenezkoak horrela bat egiten duenean zure ametsarekin eta zure errealitatearekin, ezin diozu eutsi, indartsuegia baita, erremediorik gabe sartzen zaizu bizitzan.

Tradizioak zurrunduriko jolas hori, behin gizaki errealen harremanetan mamitzen denean, berpiztu eta modu berri batean hasten da dantzan, aurreikusi

ezina. Adibidez, Mirenek irudimenezko jolas bat erabiltzen du errealitatearen gabeziak betetzeko, mutil lagun falta konpentsatzeko. Mirenen berezitasuna da ez diola mutil laguna irudikatzeari utziko, errealitateak mutil lagunaren igurikimena eta hutsunea betetzen dionean ere, itxuraz.

Ez baitio betetzen. Miren berehala ohartzen da Aitorren errealitatea mutil lagun gisa oso zaiola mingarria; eta Manu irudimenezkoak, Errioxako ikasleak, berriz, sendatu egiten dizkio errealitateak eraginiko zauriak. Harik eta Aitorren benetako izena Manu dela jakingo duen arte, hain zuzen errealitateak aurpegirik traumatikoena erakusten dionean, amodioa lehenbizikoz Lintzirin hotelean arratsalde tamalgarri batean egiten dutenean, aldi berean herri traumak ere eztanda egiten duela, alboko gasolindegian bonba bat lehertzen baita.

Tradiziotik datorkigun jolasa gu erabiltzen ari garen jolasetan txertatzen da, gure jolas partikularretan, denak aski antzekoak. Aitor, hain da petrala, ez dio Mirenen maitasunari berarengan finkatzen uzten, ez dio Mirenen eskaintzari bide egiten, Manuk ez bezala; Manuk uzten dio, Jainkoak fededunari bezala,

existentzia enpirikorik ez duenak ez baitu erresistitzen.

Kontua da Aitor ez dela Aitor; Manu izena du ofizialki, hori ikasten du Mirenek errealitate traumatikoa nozitzeaz batera. Baina Miren bera ez da Miren, baizik Maria. Eta Rosa ez da sexu esperientzia aberatsa duen lotsagabea, baizik lotsagabekeria esperientziaren urritasuna estaltzeko darabilen koitadua.

Kontakizunak amaiera baikorra du: Miren Bastidara doa eta liburutegian mutil atsegin bat aurkitzen du, sentibera eta Kandinskyren obran aditua; Manu du izena. Beti irudikatu izan duena ekarri dio errealitateak. Jolas tradizionalak erabakiriko patua bete egingo da, Manu baitzuen Aitorrek benetako izen, eta, itxura guztien arabera, Mirenek bat egingo baitu Bastidako Manurekin, bere izena estalia eta ordeztua ez duen lehenbiziko protagonistarekin. Dena den, garbi gera bedi, Mirenek lehenbiziko elkarrizketan bertan jakinaraziko dio Manuri pikuak batzera bidali duela idatziriko patuan edozein fede.

Baikorra eta polita da amaiera, eta ez soilik elkar ezagutzen duten unean bertan amaitzen delako narrazioa, berehala letorkeen hondamendiari lekurik uzteke. Oraingoan ez dugu zertan kezkatu, *Asaba zaha-*

rren baratza-ko Polikarporen eta Sabineren etorkizunaz ez bezala. Ez dirudi Manu eta Miren Saizarbitoriaren bikoteen ohiko bilakaera lazgarriak harrapatuko dituenik.

Hortaz, irudimenaren eta errealitatearen arteko dialektikari dagokionez, Saizarbitoriaren etikaren agindu hipotetikoa izan liteke: «Kontuz irudikatzen duzunarekin, ondorioak zure gogoaren mugak gainditu eta mundu errealeraino etor bailitezke». Eta, irudimena oroimenak elikatzen duen arren ezinbestez, eta etorkizuna beraz iragana errepikatzera mugatzen bada ere funtsean, hala ere Mirenek irudimena darabilen moduak iragana bere tokian kokatu eta geroa argitu egiten du.

ERLIKIAK URPERA

Itsasoan sortu zen bizia. *Ene Jesus*-en Saizarbitoriak itsasoaren mehatxua erakutsi digu. Ordea, pintatu digu halaber, *Asaba zaharren baratza*-n, biziaren oztopoa itotzeko egokia litekeen itsaso bat, zahar astuna eta tradizio makurra ahazteko.

Ez da txiripa *Gorde nazazu lurpean*-eko jaiotza bakarrean, Polikarporenean, amak *placenta praevia* izatea, jaioberria hiltzat jotzea. Nobelagilearentzat hain garrantzitsuak diren Proustek eta Freudek diote gizonaren maitemintzeek amarenganakoa errepikatzen dutela funtsean: maitasun bakoitzak aurrekoak islatzen ditu, era berezi eta desberdinean, noski. Baina, azken batean, denek errepikatzen dute aldez edo moldez amarenganakoa, berriro amaren barrura itzultzea omen baita, nolabait, maitearekin elkartzea.

Dena den, andrea eta ama hilobi izan daitezke Saizarbitoriaren protagonistarentzat: *Hamaika pauso*-ko ametsean, kasurako; edo bestela itsaso. Ama itsasoa ere bada, eta isurki amniotikoa eta karena itsaso zati bat amaren baitan. Gu amarengandik gatoz, baina bizitza itsasotik dator. Sardina anbibalentea da: latakoak oinazezko erregresioan laguntzen dio Saizarbitoriaren protagonistari; baina, aldi berean, pareko dituzu zakila aluan eta sardina bizia itsaso zabalean.

Gorde nazazu lurpean-eko arbaso nagusiak, protagonisten guraso espiritualak, eta gureak, Miren ama hila eta gudari zaharraren muinoia diren arren, iraganaren berunezko itomena, hala eta guztiz ere, azken narrazioan, *Asaba zaharren baratza*-n, Polikarpo na-

rratzaileak eta Sabine/Bioleta emakume berriak itsasora botako dituzte uztarri horiek. Egia bada ere ekintza hori jungiarki interpreta litekeela Yin eta Yang edo aita fundatzailearen eta ama-itsasoaren arteko biltze harmoniko legez (aita amaren barruan polito entretenituta, ez dira oroituko semea errudun sentiarazteaz), Saizarbitoriaren obra osoaren zaina aintzat hartuta egiantzekoagoa da kartesiarki irakurtzea arbasoen autoritate mudurritik libratze gisa. *Bihotz bi. Gerrako kronikak*-en zein *Bi bihotz, hilobi bat*-en Bioleta Floraren osagarri zen nolabait; orain, berriz, Florarik gabeko Bioleta dugu aurrenekoz, oztoporik gabeko gardentasuna. Bioletak darama Polikarpo, zama zaien tradizioaren hezurrak urperatzera. Eta Bioleta berri hauxe da aurrenekoz Polikarpo narratzailearen izena bere horretan onartzen duena. Bestalde, esan bezala, itsasoak ama barnebiltzen du, amak itsasoa adierazten; isurki amniotikoa eta karena itsaso zati bat da amaren sabelean.

Gu amarengandik gatoz, baina bizitza itsasotik dator. Itsasoak ama gainditzen du. Zakila aluan lasai eta pozarren, sardina da itsaso zabalean jostari. Orainaldia pozez onartzekotan aitaren muinoia itsaso beti

zahar beti berri enigmatikora bota behar dugu behingoz.

Spinozak dioenez, «gizaki libreak ez du deus gogoan hartzen herioa baino gutiago». Lurpera ditzatela hilek beren hilak, hila lurpera eta biziak asera. Kontua da, bizitzea eta maitearekin biltzea oztopatzen diguna lehenbailehen ehorztea: iraganeko zama, errua eta damua, neurosia, jelosia, kontzientziaren ausikia, gerra, edo norberaren tentelkeria, nartzisismoa eta ganorabakokeria. Lurpean utziko ditugu betirako bakean, geure bizitza bakar hau babestearren.

Bibliografia

SAIZARBITORIAREN LIBURUAK:

Egunero hasten delako, Lur, 1969; 2007ko Ereinen argitalpena erabili dut.

«Kapitaina» ipuina, *Hegatsez* liburu kolektiboan, Juan San Martinek eta Serafin Basaurik prestatua, Kuliska Sorta, Itxaropena, 1971; Iñaki Aldekoak ere Alberdaniak 1993an argitaratu *Euskal ipuinen antologia bat*-en jaso zuen.

Ehun metro, Lur, 1974; 2011ko Ereinen argitalpena erabili dut.

Ene Jesus, Kriselu, 1976; 1994eko Ereinen argitalpena erabili dut.

Hamaika Pauso, Erein, 1995

Bihotz bi. Gerrako kronikak, Erein, 1996

Aberriaren alde (eta kontra), Alberdania, 1999

Gorde nazazu lurpean, Erein, 2000

Gudari zaharraren gerra galdua, Erein, 2000

Rossetti-ren obsesioa, Erein, 2001

Bi bihotz, hilobi bat, Erein, 2001

Kandinskyren tradizioa, Erein, 2003

Hitz lau, Ramon Saizarbitoria, Anjel Lertxundi, Xabier Lete eta Koldo Izagirreren artikuluak jasotzen ditu, Euskaldunon Egunkaria, 2003
Martutene, Erein, 2012

Bestelako zenbait testu:

«Por qué se escribe». Hitzaldi argitaragabea; Iñaki Aldekoaren *Euskal literaturaren historia*-tik ateratako aipamenak.
«Hitzaurre», Patri Urkizuren *Sekulorum sekulotan*, Kriselu, 1975
«Hitzaurrea», Joxean Agirreren *Gizon bat bilutsik pasiloan barrena*, Elkar 1991
«Hitzaurrea», Louis Ferdinand Céline, *Gauaren muturrerainoko bidaia*, Igela, 1992

Saizarbitoriari buruz:

Alberdi, Pedro, *Satorrak baino lurperago*, Alberdania, 2000

Apalategi, Ur, *Saizarbitoriaren bigarren idazlealdia edo euskal literatur sistemaren berkonkista 1995-1996*, Université de Pau et des Pays de l'Adour, Habilitazio Tesia, 2009

Apalategi, Ur, *Ramon Saizarbitoria. L'autre écrivain basque*, L'Harmattan, 2013

Barandiaran, Alberto, *Ez zaigu ahaztu*, Susa, 1998

Bereziartua, Gorka, «Nobelagilea gupidagabea da, makurra, gaiztoa, zikina», Saizarbitoriarekin elkarrizketa, *Argia*, 2334 zenbakia, 2012ko iraila.

Gabilondo, Joseba, *New York-Martutene*,UPV- EHU, 2013

Garzia, Juan, «Hamaika pauso alferrik?», *Hegats*, 17-18 alea, 1997

Hernandez Abaitua, Mikel, *Ramon Saizarbitoriaren lehen eleberrigintza*, UPV-EHU, 2008

Izagirre, Koldo, «Hitzaurrea», *Ene Jesus*, Erein, 1994

Olaziregi, Mari Jose, *Ramon Saizarbitoriaren unibertso literarioa*, Labayru, 2001

Sarasola, Ibon*, Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobela-gintza*, Kriselu, 1995

Zabala, Juan Luis, «*Martutene*-ren ondoren libreago sentituko naiz», Saizarbitoriarekin elkarrizketa, *Berria*, 2012-07-10

BESTELAKOAK:

Adorno, Theodor W., *Minima moralia*, Taurus, 1987

Aldekoa, Iñaki, *Mendebaldea eta narraziogintza: euskal nobela modernoa*, Erein, 1998

Aldekoa, Iñaki, *Euskal literaturaren historia*, Jon Muñoz euskaratzaile, Erein, 2008. Liburu honetatik atereak dira Saizarbitoriaren «Por qué se escribe» hitzaldi argitaragabearen aipamenak.

Apaolaza, Uxue, *Umeek gezurra esaten dutenetik*, Erein, 2005

Arana Goiri, Sabino, *Obras completas*, Sabindar Batza, 1965

Aramburu, Fernando, «Los autores vascos no escriben sobre ETA porque no son libres», *ABC*, 2011-11-29. Egun berean *El Confidencial*-en, eta hurrengoan *El Mundo* eta *El País*-en

Aresti, Gabriel, *Harri eta Herri*, Susa, 1986

Askoren artean, Isa Castillo eta Iratxe Retolazak koordinatuak, *Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak*, Edo!, 2013

Assoun, Paul-Laurent, *Le Fantasme*, Anthropos, 2010

Assoun, Paul-Laurent, *La Jalousie*, Anthropos, 2011

Auster, Paul, *Brooklyngo erokeriak*, Oskar Arana euskaratzaile, Alberdania, 2006

Azurmendi, Joxe, *Azken egunak Gandiagarekin*, Elkar, 2009

Azurmendi, Joxe, *Historia, arraza, nazioa (Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk)*, Elkar, 2014

Azurmendi, Mikel, *Nombrar, embrujar*, Alberdania, 1993

Baddeley, Alan, Eysenck, Michael W. eta Anderson, Michael C., *Oroimena*, Maitane Arizti eta Alfontso Mujika euskaratzaile, UPV-EHU, 2014

Barandiaran, Alberto, *Ez zaigu ahaztu*, Susa, 1998

Brown, Norman O., *Love's Body*, Random House, 1966

Castillo, Isa eta Retolaza, Iratxe koordinatzaile, *Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak,* Edo!, 2013

Catalán, Miguel, *Anatomía del secreto*, Mario Muchnik, 2008

Corominas, Joan, *Breve diccionario etimológico de la lengua castellana*, Gredos, 1983

Deleuze, Gilles, *Nietzsche et la philosophie*, PUF, 1988

Deleuze, Gilles, *Proust et les signes*, PUF, 2003

Deleuze, Gilles eta Parnet, Claire, *Dialogues*, Flammarion, 1996

Dortier, Jean-François eta Persiaux, Renaud, «Les lois du bonheur», *Sciences Humaines*, 184. alea, 2007ko uztaila.

Egaña, Ibon eta Zelaieta, Edu koordinatzaile, *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan*, UEU, 2006

Estornés, Idoiari elkarrizketa, «Me abochorna el victimismo vasco, como persona y como historiadora», *El Correo*, 2013-06-03

Etxeberria, Hasier, *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*, Alberdania, 2002

Ferry, Luc eta Renaut, Alain, *Heidegger et les modernes*, Grasset, 1988

Freud, Sigmund, *Egonezina kulturan*, Gaiak, Xabier Insausti eta Jesus Mari Intxauspe euskaratzaile, 2009

Freud, Sigmund, *Psikoanalisiaren aurkezpena*, Klasikoak, Lontxo Oihartzabal euskaratzaile, 1996

Freud, Sigmund, *Ensayos sobre la vida sexual y la teoría de las neurosis,* Alianza, 2003. Hemen daude jasoak, besteak beste, «El tabú de la virginidad», «Sobre algunos mecanismos neuróticos en los celos, la paranoia y la homosexualidad», «El problema económico del masoquismo» eta «La disposición a la neurosis obsesiva. Una aportación al problema de la elección de neurosis».

Freud, Sigmund, *Paranoia y neurosis obsesiva*, Alianza, 2013

Fromm, Erich, *Asktasunetik iheska*, Alberto Gabikagojeaskoa itzultzaile, Klasikoak, 1993

Fromm, Erich, *El dogma de Cristo*, Paidós, 1994

Gauge, Steven, *Political Wit*, Summersdale, 2011

Girard, René, *Mensonge romantique et vérité romanesque,* Grasset, 1961

Goytisolo, Juan, *Coto vedado*, Seix Barral, 1985

Grimaldi, Nicolas, *Essai sur la jalousie*, Presses Universitaires de France, 2010

Grinberg, León, *Culpa y depresión. Estudio psicoanalítico*, Alianza Universidad, 1994

Haranburu, Mikel eta beste, *Nortasunaren nahasteen etiologia eta tratamendua*, UEU, 2011

Hegel, G. W. F., «El espíritu del cristianismo y su destino», José María Ripaldak argitaratutako *Escritos de juventud* liburuan, FCE, 1978

Heidegger, Martin, *Vorträge und Aufsätze*, Klett-Cotta, 2004

Hierro S. Pescador, José, *Principios de filosofía del lenguaje*, Alianza Universidad, 1996

Horney, Karen, *La personalidad neurótica de nuestro tiempo,* Paidós, 1993

Izagirre, Koldo, *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak*, Elkar, 1999

Jaspers, Karl, *El problema de la culpa*, Paidós, 1998

Jay, Martin, *Adorno*, Fontana, 1984

Jimenez, Edorta, *Kilkerren hotsak*, Susa, 2003

Kafka, Franz, *Brief an der vater*, http://de.wikisource.org/wiki/Brief_an_den_Vater

Kant, *Arrazoimen praktikoaren kritika*, Ibon Uribarri euskaratzaile, Klasikoak, 2005

Klein, Melanie, *Love, Guilt and Reparation and Other Works*, Vintage, 1988

Kojève, Alexandre, *Le Concept, le Temps et le Discours*, Gallimard, 1990

Kowalski, Dean A. editore, *The Big Bang Theory and Philosophy*, Blackwell, 2012

Lacan, Jacques, *Encore*, Seuil, 1975

Linazasoro, Karlos, *Isiltasunaren adabakiak*, Pamiela, 2003

Linazasoro, Karlos, *Alferrik ez balitz*, Elkar, 2014

Monk, Ray, *Wittgenstein, The Duty of Genius*, Penguin, 1990

Muñoz, Jokin, *Bizia lo*, Alberdania, 2003

Nietzsche, Friedrich, *Humano, demasiado humano*, Akal, 2007

Nietzsche, Friedrich, *Aurora*, Alba, 1999

Nietzsche, Friedrich, *Moralaren genealogia*, Xabier Mendiguren euskaratzaile, Klasikoak, 1997

Nietzsche, Friedrich, *El Anticristo*, Debate, 1998

Platon, *Fedon, Menon, Kratilo* eta *Fedro*, Jesus Maria Arrojeria euskaratzaile, Klasikoak, 2000

Proust, *Denbora galduaren bila, I: Swann-enetik*, Joxe Austin Arrieta euskaratzaile, Klasikoak, 2010

Retolaza, Iratxe, *90eko hamarkadako narratiba berria: Literatur kritika*, Labayru, 2000

Ricoeur, Paul, *Temps et récit. Tome I: L'intrigue et le récit historique*, Seuil, 1983

Rojas-Marcos, Laura, *El sentimiento de culpa*, Santillana, 2010

Rousseau, *Les Confessions*, http://www.ebooks-bnr.com/wp-content/uploads/rousseau-_les_confessions.pdf

San Agustinen hainbat idazlan, Imanol Unzurrunzaga euskaratzaile, Klasikoak, 2003

Sibony, Daniel, *L'enjeu d'exister: analyse des thérapies*, Seuil, 2007

Singh, Kalu, *Guilt*, Icon Books, 2000

Spinoza, *Etika*, Piarres Xarritonek eta Jose Luis Alvarez Santacristinak euskaratua, Klasikoak, 1996

Todorov, Tzvetan, *Les abus de la mémoire*, Arléa, 2004

Trías, Eugenio, *El lenguaje del perdón. Un ensayo sobre Hegel*, Anagrama, 1981

Txillardegi, *Leturiaren egunkari ezkutua*, Euskaltzaindia, 1957; hemen Elkarren 1983ko argitalpena erabili dut.

Txillardegi, *Exkixu*, Elkar, 1988

Vasse, Denis, *Inceste et jalousie*, Seuil, 1995

Vicente, Álex, «Knausgård: vivir para confesarlo», *El País*, 2014-04-17

Wiederman, Michael, «Why is so hard to be happy», *Scientific American*, 2007ko otsaila/martxoa.

Wittgenstein, Ludwig, *Diarios secretos*, Alianza Universidad, 1991

Zaldua, Iban, *Idazten ari dela idazten duen idazlea*, Elkar, 2012

Zaldua, Iban, «Autofikzioaren aurkako manifestua», 2014 https://ibanzaldua.wordpress.com/-2014/09/11/autofikzioaren-aurkako-manifestua/